

EUSKADI ETA DROGAK 2010



Centro de Documentación y Estudios **SiiS** Dokumentazio eta Ikerketa
Zentroa

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA: AURKEZPENA ETA METODOLOGIA	19
1. Aurkezpena: 20 urte drogak kontsumitzen EAEn.....	20
2. Txostenaren egitura eta ezaugarriak.....	23
3. Metodologia 27	
3.1. Galdesorta.....	27
3.2. Lagina eta landa-lana.....	28
3.3. Erabilitako aldagai independenteak.....	30
4. Emaitza nagusiak: erronka eta ideia nagusiak.....	32
II. KAPITULUA: ALKOHOL KONTSUMOA EAEn	37
1. EAeko alkohol-kontsumoari buruzko oinarritzko datuak.....	38
1.1. Alkohol-kontsumoaren prebalentziak.....	38
1.2. Euskal biztanleriaren harremana alkoholarekin, perspektiban.....	40
1.3. Kontsumitzen hasteko adina.....	43
1.4. Kontsumoaren maiztasuna.....	47
1.5. Kontsumitutako alkohol kantitatea.....	50
1.6. Kontsumitutako edari motak.....	65
1.7. Alkohol-kontsumo intentsiboa.....	69
2. Kontsumoaren autopertzepzioa, jarraipena eta uzteko arrazoiak.....	76
2.1. Norberaren kontsumoaren balioespina eta kontsumitzeko arrazoiak.....	76
2.2. Kontsumitzen jarraitzea eta aldatzeko arrazoiak.....	80
3. Gazteen alkohol-kontsumoa.....	87
3.1. Alkohol-kontsumoa gazteen artean, perspektiban.....	87
3.2. EAeko gazteek alkohola erosteko eta kontsumitzeko tokiak.....	89
3.3. Alkohola eta drogen polikontsumoa.....	95
3.4. Gazteen alkohol-kontsumoarekin lotutako arazoak.....	97
III. KAPITULUA: TABAKOAREN KONTSUMOA EAEn	103
1. EAeko tabako-kontsumoari buruzko oinarritzko datuak.....	104
1.1. Tabako-kontsumoaren patroiak 2010ean.....	104
1.2. EAeko tabako-kontsumoaren patroien bilakaera.....	120
1.3. EAeko tabako-kontsumoa, perspektiban.....	127
2. Kontsumoaren balioespina eta uzteko aukerak.....	131
2.1. Kontsumo-mailaren pertzepzioa: gaur egungo egoera eta bilakaera.....	131
2.2. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa.....	134
2.3. Kontsumitzeari uzteko saialdiak.....	138
2.4. Kontsumitzeari uzteko prestasuna: erretzaileen erdia uzteko prest dago.....	141
2.5. Kontsumitzeari uzteko saialdiak eta erretzeari uzteko prestasuna handitu dira.....	145
3. Erretzaile ohien egoera.....	147
3.1. Kontsumitzeari uzteko adina.....	149
3.2. Kontsumitzeari utziz geroztik igarotako denbora.....	150
3.3. Kontsumitzeari uzteko arrazoiak: gaur egungo egoera eta bilakaera.....	152



IV. KAPITULUA: PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA EAEn	156
1. EAeko psikofarmako-kontsumoari buruzko oinarritzko datuak.....	158
1.1. Psikofarmakoen kontsumoa bizitzan zehar	158
1.2. Psikofarmakoen kontsumoa azken urtean.....	162
1.3. Psikofarmakoen kontsumo-prebalentzia azken hilabetean	164
2. Psikofarmakoen kontsumoa eta ezaugarri pertsonalak	168
2.1. Kontsumitzen hasteko adina	168
2.2. Belaunaldien arteko aldeak psikofarmakoen kontsumoari dagokionez	169
2.3. Genero-aldeak	173
2.4. Adinaren eta generoaren eragin konbinatua.....	175
2.5. Bestelako ezaugarri soziodemografikoak	177
2.6. Psikofarmakoen kontsumoa eta beste gai batzuen kontsumoa.....	181
3. EAeko psikofarmako-kontsumoaren bilakaera	183
3.1. Mediku-errezetarekin edo gabe, psikofarmako-kontsumoaren prebalentzien bilakaera.....	185
3.2. Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera.....	187
3.3. Psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.....	189
V. KAPITULUA: KANABISAREN KONTSUMOA EAEn	191
1. EAeko kanabis-kontsumoari buruzko oinarritzko datuak.....	192
1.1. Kontsumo-patroiak: 2010eko egoera eta bilakaerari buruzko datuak.....	192
1.2. Kontsumoen intentsitatea eta maiztasuna	200
1.3. Kontsumoaren balioespena eta hasteko adina.....	206
2. Kanabisaren kontsumoa eta ezaugarri pertsonalak	209
2.1. Adina: belaunaldi-hesia desagertu da	209
2.2. Generoa: emakumeen kontsumoak egin du arian-arian, baina ez da iritsi gizonezkoen kontsumora	213
2.3. Kanabis-kontsumoaren hasiera goiztiarra: arrisku-faktorea?	216
2.4. Talde sozioekonomikoa: gizarte-mailen arteko aldeak areagotu	218
2.5. Bizitzeko lurraldea: kontsumo-tasek bat egitea.....	222
2.6. Hezkuntza-maila: kontsumo-jarraibide intentsuago edo problematikoagoak prestakuntza-maila txikiena dutenen artean	224
3. EAeko eta Europako beste herrialde batzuetako kanabis-kontsumoaren konparazio-azterketa.....	228
3.1. Hainbat aurrekari	228
3.2. Beharazko joera berdina Euskadin eta Espainiako Estatu osoan.....	228
3.3. EAek kanabis-kontsumoaren maila handiak ditu oraindik ere, Europako testuinguruan.....	231
VI. KAPITULUA: LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA EAEn	235
1. EAeko legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko oinarritzko datuak.....	236
1.1. Kontsumo-prebalentziak 2010ean: EAeko biztanleriaren % 10ek legez kanpoko drogen bat probatu du.....	236
1.2. Kontsumo-prebalentzien bilakaera: beharazko joera egonkortu eta indartu da	238
1.3. Jarraipen-indizeak kontsumoan: kontsumitzaile esperimentalen heren batek baino gutxiagok kontsumitzen ditu legez kanpoko drogak gaur egun.....	242
1.4. Egonkortasuna legez kanpoko drogak kontsumitzen hasteko adinean	244
1.5. Gazteen eta helduen kontsumo-tasek bat egin dute eta legez kanpoko drogen kontsumitzaileen batez besteko adinak behera egin du	247
1.6. Legez kanpoko drogen kontsumoaren pertzepzioa, kontsumoari leporatutako onurak eta kontsumitzeari uzteko prestasuna	250



1.7. Legez kanpoko drogen kontsumoa EAEn, perspektiban: Euskadi ez da kontsumo-tasen buru dagoeneko	252
2. Kontsumo-prebalentziak substantzia motaren arabera.....	255
2.1. Kokaina eta basea	255
2.2. Anfetaminak edo <i>Speedy</i>	265
2.3. Estasia eta beste sintesi-droga batzuk.....	275
2.4. Substantzia haluzinogenoak: LSDa, ketamina, perretxikoak eta arnasteko gaiak	285
2.5. Heroina eta beste opiazeo batzuk.....	295
2.6. Legez kanpoko drogen kontsumo problematika	298
VII. KAPITULUA: IRITZI PUBLIKOA	302
1. Droga-kontsumoari eta kontsumoaren arriskuei buruzko gizarte-pertzepzioa	303
1.1. Hainbat drogari egotzitako larritasunaren pertzepzioa	303
1.2. Hainbat substantziaren kontsumoarekin loturiko arazoaren pertzepzioa.....	307
1.3. Hainbat droga-kontsumoren bilakaeraren pertzepzioa	312
1.4. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean	314
1.5. Drogen kontsumoari eta horrek eragindako arriskuei buruzko gizarte-pertzepzioaren bilakaera.....	317
2. Substantzien eskuragarritasuna, kontsumoa eta kontsumitzaileak ezagutzea	323
2.1. Drogen eskuragarritasunaren pertzepzioa	323
2.2. Drogak kontsumitzen dituzten eta/edo drogekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea.....	325
2.3. Herritarren hurbiltasuna legez kanpoko drogei dagokienez.....	327
2.4. Drogekiko hurbiltasuna, ezagutza eta eskuragarritasuna, perspektiban.....	328
3. Drogak legezkatzeari buruzko gizarte-pertzepzioa eta normalizazio-neurrien balioespena	333
3.1. Drogak legezkatzeari buruzko adostasun-maila	333
3.2. Droga-mendetasunen arloan gauzatutako neurriei buruzko adostasun-maila.....	335
3.3. Droga-kontsumoa legezkatzeari buruzko gizarte-pertzepzioa, perspektiban: bilakaerari buruzko eta konparazioko datuak	338



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Alkohol-kontsumoaren prebalentziak (%)	38	
2. grafikoa.	Alkohol-kontsumoaren prebalentziak, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	39	
3. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen den uneen arabera (%)	40	
4. grafikoa.	Alkoholaren kontsumo-prebalentzien bilakaera. 1998-2010 (%)	41	
5. grafikoa.	Alkoholaren kontsumo-prebalentzien bilakaera. Espainia eta Euskadi (%)	42	
6. grafikoa.	Alkohola kontsumitzen den uneen bilakaera guztizko biztanleriaren barruan. 2000-2010 (%)	43	
7. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen hasteko adinaren arabera (%)	44	
8. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen hasteko adinaren arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	45	
9. grafikoa.	Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina, adin-taldeen eta sexuaren arabera (%)	45	
10. grafikoa.	Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	46	
11. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera banatuta (%)	47	
12. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	48	
13. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera (%)	49	
14. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	49	
15. grafikoa.	Azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den batez besteko egunen banaketa azken hilabeteetan alkohola kontsumitu dutenen artean, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	50	
16. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)	52	
17. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	53	
18. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, eta kontsumo-egunen kopuruaren arabera (%)	53	
19. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)	54	
20. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa lanegunetan eta asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)	55	
21. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	56	
22. grafikoa.	Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)	56	
23. grafikoa.	Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-talde handietan banatuta (%)	57	
24. grafikoa.	Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, sexuaren arabera (%)	57	
25. grafikoa.	Asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)	58	



26. grafikoa.	Asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-talde handietan banatua (%)	59
27. grafikoa.	Asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, sexuaren arabera (%)	59
28. grafikoa.	Lanegunetan eta asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)	60
29. grafikoa.	Lanegunetako alkohol kontsumoaren araberrako biztanleriaren sailkapenaren konparaketa (%)	63
30. grafikoa.	Asteburuetako alkohol kontsumoaren araberrako biztanleriaren sailkapenaren konparaketa (%)	64
31. grafikoa.	Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, edari alkoholduen kontsumoko prebalentziak (%)	65
32. grafikoa.	Azken 30 egunetan, lanegunetan, alkoholduen edari nagusien kontsumoko prebalentziak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	67
33. grafikoa.	Azken 30 egunetan, asteburuetan, alkoholduen edari nagusien kontsumoko prebalentziak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	67
34. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera (%)	70
35. grafikoa.	Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	71
36. grafikoa.	Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, alkohol-kontsumoaren tipologiaren arabera (%)	71
37. grafikoa.	Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, adin-taldeetan banatuta (%)	72
38. grafikoa.	Azken 12 hilabeteetan noizbait mozkortu diren 15-64 urteko pertsonen proportzioaren bilakaera. Euskadi eta Espainia.....	73
39. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan izandako alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera (%)	74
40. grafikoa.	Guztizko biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	75
41. grafikoa.	Guztizko biztanleriaren eta 15-34 urteko gazteen banaketaren bilakaera azken 30 egunetan alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera (%)	75
42. grafikoa.	Norberaren alkohol-kontsumoaren pertzepzioa (%)	76
43. grafikoa.	Norberaren alkohol-kontsumoari buruzko pertzepzioa hainbat kontsumo-jarraibideren arabera (%)	77
44. grafikoa.	Alkoholaren kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa (%)	78
45. grafikoa.	Alkoholaren kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	78
46. grafikoa.	Alkoholaren kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa, alkoholaren kontsumo-jarraibideen arabera banatuta (%)	79
47. grafikoa.	Substantzia nagusien azkenaldiko eta egungo kontsumoen jarraipen-indizeak (%)	80
48. grafikoa.	Alkoholaren azkenaldiko eta egungo kontsumoaren jarraipen-indizeak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%).....	81
49. grafikoa.	Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren banaketa, izandako aldaketen arabera (%)	82
50. grafikoa.	Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren banaketa izandako aldaketen arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta eta alkohol kantitatearen arabera (%)	83



51. grafikoa.	Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren bilakaera, izandako aldaketan arabera (%)	83
52. grafikoa.	Alkohol-kontsumoa murriztu duten pertsonen arrazoi nagusiak, adin-taldean eta sexuaren arabera (beren kontsumo-aldaketan arrazoi bakoitzari garrantzi handia ematen dioten pertsonen %)	85
53. grafikoa.	Alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoiaren bilakaera, arrazoi moten arabera (beren kontsumo-aldaketan arrazoi bakoitzari garrantzi handia ematen dioten pertsonen %)	86
54. grafikoa.	Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera eta abstentzioak diren edo oso gutxitan edaten duten 15-34 urteko gazteen proportzioaren bilakaera. 2000-2010 (%)	88
55. grafikoa.	Gehiegi eta arriskuaren barruan edaten duten 15-34 urteko gazteen proportzioaren bilakaera. 1992-2010 (%)	89
56. grafikoa.	15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak erosten dituzten lekuak (%)	90
57. grafikoa.	15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak erosten dituzten lekuak, adin-taldean eta asteburuko kontsumitzailearen tipologiaren arabera banatuta (%)	90
58. grafikoa.	15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak kontsumitzen dituzten lekuak (%)	91
59. grafikoa.	15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak kontsumitzen dituzten lekuak, adin-taldean eta asteburuko kontsumitzailearen tipologiaren arabera (%)	92
60. grafikoa.	Azken urtean 15-34 urteko gazteen alkoholaren kontsumoa kalean, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)	93
61. grafikoa.	Azken urtean, hilabetean behin edo aldi gehiagotan kalean alkohola kontsumitu dutenen prebalentziak ezaugarri pertsonalen arabera (%)	94
62. grafikoa.	Alkohola probatu duten 15- 34 urteko gazteen banaketa, kontsumo horretatik ondorioztatutako arazo kopuruaren arabera (%)	97
63. grafikoa.	15-34 urteko gazteek alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzeagatik izandako arazoaren kopurua, ezaugarri pertsonalen arabera (%)	98
64. grafikoa.	Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitu ondoren gazteek izandako arazo nagusiak. 2006-2010 (%)	100
65. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa, tabako-kontsumoaren motaren arabera (%)	105
66. grafikoa.	Tabako-kontsumoaren prebalentziak EAEko biztanlerian (%)	105
67. grafikoa.	Tabako-kontsumoaren prebalentziak sexuaren arabera (%)	106
68. grafikoa.	Tabako-kontsumoaren prebalentziak sexuaren eta adinaren arabera (%)	107
69. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa tabako-kontsumo motaren arabera eta inkestaturako pertsonaren jardueraren arabera (%)	108
70. grafikoa.	Noizbait erre dutenen banaketa, kontsumitzen duten tabako motaren arabera (%)	109
71. grafikoa.	Zigarreta-kontsumoaren intentsitatea kontsumitzaile motaren arabera	110
72. grafikoa.	Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea sexuen arabera (%)	111
73. grafikoa.	Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea adinaren arabera (%)	112
74. grafikoa.	Ohiko erretzaileak. Kontsumoaren intentsitatea adinaren eta sexuaren arabera (%)	112
75. grafikoa.	Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea galdetutako pertsonaren jardueraren arabera (% horizontalak)	113
76. grafikoa.	Kontsumoaren intentsitatea kontsumoaren iraupenaren arabera (% horizontalak)	114
77. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, kontsumitzaile moten arabera	115
78. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-taldean arabera	115
79. grafikoa.	Erretzaileen hasteko batez besteko adina kontsumoaren intentsitatearen arabera	116
80. grafikoa.	Kontsumitzen hasteko batez besteko adina jardueraren arabera	117



81. grafikoa.	Kontsumoaren batez besteko iraupena kontsumitzaile tipologiaren arabera (urteak)	117
82. grafikoa.	Erretzaileen banaketa kontsumoaren iraupenaren arabera eta sexuaren arabera (% bertikalak) ...	118
83. grafikoa.	Kontsumoaren uzte-tasa adin-taldearen arabera (%)	119
84. grafikoa.	Kontsumoaren uzte-tasa okupazioaren arabera (%).....	119
85. grafikoa.	Kontsumoaren uzte-tasa hasteko adinaren arabera (%)	120
86. grafikoa.	Uzte-tasa kontsumoaren intentsitatearen arabera (%)	120
87. grafikoa.	Kontsumoaren prebalentziaren bilakaera kontsumitzaile tipologiaren arabera. 1992-2010 (%) ..	121
88. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzeari uzteko tasaren bilakaera. 1992-2010 (%).....	122
89. grafikoa.	Kontsumoaren prebalentziaren bilakaera kontsumitzaile tipologiaren eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)	122
90. grafikoa.	Gizonen kontsumo moten ratioen bilakaera emakumeenekiko. 1992-2010 (%)	123
91. grafikoa.	Azkeneko hilabeteko kontsumo-prebalentziaren bilakaera adin-taldearen arabera. 1992-2010 (%).	123
92. grafikoa.	Tabako-kontsumo egungo aldaketa epe motzera, ertainera eta luzera, adin-taldearen arabera	124
93. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera. 1996-2010	125
94. grafikoa.	Erretzaileen banaketa kontsumitzen hasteko adinaren arabera. 1996-2010 (%)	126
95. grafikoa.	Egungo erretzaileen banaketaren bilakaera kontsumoaren intentsitatearen arabera. 992-2010 (%)	127
96. grafikoa.	Eguneroko tabako-kontsumoaren tasaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn, 1992-2010 aldirian (%).	128
97. grafikoa.	Tabako-kontsumoaren prebalentziaren alderaketa Europa eta EAEn artean (%)	130
98. grafikoa.	Europako eta EAEnko tabakoaren eguneko kontsumo-tasa, 2007an eta 2010ean (%)	130
99. grafikoa.	Tabakoaren kontsumo-mailaren hautemate subjektiboa (%)	131
100. grafikoa.	Tabakoaren kontsumo-mailaren pertzepzio subjektiboa sexuaren eta adinaren arabera	132
101. grafikoa.	Kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren eta egunero kontsumitutako zigarreta kopuruaren arteko harremana (%)	133
102. grafikoa.	Ohiko eta noizbehinkako erretzaileen kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren bilakaera (%) ..	134
103. grafikoa.	Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, erretzaile tipologiaren arabera (%)	135
104. grafikoa.	Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, sexuaren arabera (%)	136
105. grafikoa.	Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, adin-taldearen arabera (%)	137
106. grafikoa.	Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, intentsitatearen arabera (%)	137
107. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumitzaile motaren arabera (%).....	138
108. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko saialdiak adinaren arabera (%)	139
109. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko saialdiak inkestatutako pertsonaren jardueraren arabera (%)	139
110. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumoaren intentsitate objektiboaren eta subjektiboaren arabera (%)	140
111. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumoaren iraupenaren arabera (%).....	141



112. grafikoa.	Erretzeari uzten saiatzeko erretzaileen prestasuna kontsumitzaile motaren arabera (%)	142
113. grafikoa.	Erretzeari uzteko prestasuna duten ohiko erretzaileak, sexuaren eta adinaren arabera (%)	143
114. grafikoa.	Erretzeari uzteko prestasuna duten ohiko erretzaileak, jardueraren arabera (%)	143
115. grafikoa.	Erretzaileen prestasuna erretzeari uzten saiatzeko, arestian egindako saialdien arabera (%)	144
116. grafikoa.	Erretzaileen prestasuna erretzeari uzteko, kontsumoaren hautemate subjektiboaren arabera, eta kontsumoaren intentsitatearen arabera (% bertikalak)	144
117. grafikoa.	Erretzaileen prestasuna erretzeari uzten saiatzeko, kontsumoaren iraupenaren arabera (% bertikalak)	145
118. grafikoa.	Erretzeari uzteko egindako saialdien araberako erretzaileen banaketaren bilakaera 1998-2010 aldian (%) 1998-2010 (%)	146
119. grafikoa.	Erretzeari uzteko prestasunaren bilakaera kontsumo motaren arabera 2006-2010 aldian	146
120. grafikoa.	Erretzaile ohien banaketa sexuaren eta adinaren arabera (%)	147
121. grafikoa.	Tabako-kontsumoaren uzte-tasa adin-tarteen arabera (%)	148
122. grafikoa.	Erretzaile ohien kontsumoaren intentsitatea sexuen arabera (%)	149
123. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko adina sexuaren arabera (%)	149
124. grafikoa.	Kontsumitzeari uzteko batez besteko adina intentsitatearen arabera (%)	150
125. grafikoa.	Erretzaile ohien banaketa uztearen iraupenaren arabera (%)	150
126. grafikoa.	Banaketa uztearen iraupenaren eta sexuaren arabera (%)	151
127. grafikoa.	Banaketa uztearen iraupenaren eta kontsumoaren intentsitatearen arabera (%)	151
128. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak (%)	152
129. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak, sexuaren arabera (%)	153
130. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak, erretzaile tipologiaren arabera (%)	153
131. grafikoa.	Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiaren bilakaera (%)	155
132. grafikoa.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, psikofarmako motaren arabera (%)	159
133. grafikoa.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)	160
134. grafikoa.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa psikofarmako motaren arabera (%)	161
135. grafikoa.	Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)	163
136. grafikoa.	Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)	163
137. grafikoa.	Azken hilabetean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)	165
138. grafikoa.	Azken hilabetean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)	166
139. grafikoa.	Mediku-errezetarekin edo gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adina (%)	168
140. grafikoa.	Psikofarmakoak mediku-errezetarekin kontsumitzen dituztenen batez besteko adina, kontsumo motaren arabera	170
141. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa adin-taldeen arabera (%)	171
142. grafikoa.	Kontsumitzaile esperimentalen (mediku-errezetarekin) adinaren araberako banaketa (%)	172
143. grafikoa.	Jarraitutasun-tasa mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoan generoaren eta farmako motaren arabera (%)	174
144. grafikoa.	Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumo esperimentalaren banaketa sexuaren arabera (%)	175
145. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen azkenaldiko kontsumitzaileen banaketa adinaren eta generoaren arabera (%)	176
146. grafikoa.	Psikofarmakoak mediku-errezetarekin gaur egun kontsumitzen dituztenen adinaren eta generoaren araberako banaketa (%)	177
147. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak jardueraren arabera (%)	178
148. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak talde sozioekonomikoaren arabera (%)	179
149. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak ikasketa-mailaren arabera (%)	180
150. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak egoera zibilaren arabera (%)	181
151. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera. 2006-2010 (%)	186
152. grafikoa.	Mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera. 2006-2010 (%)	187
153. grafikoa.	Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren (urteak) bilakaera, psikofarmako motaren arabera. 2006-2010	187



154. grafikoa.	Errezetarekin edo gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez beste adinaren (urteak) bilakaera. 2006-2010	188
155. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen azken urteko kontsumoaren bilakaera, sexuaren arabera. 2006-2010 (%)	189
156. grafikoa.	Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen azken urteko kontsumoaren bilakaera, adin-taldean arabera. 2006-2010 (%)	190
157. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo esperimentaleko tasaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (biztanleriaren %-a)	193
158. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo esperimentala sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010 (biztanleriaren %-a)	194
159. grafikoa.	Kanabisaren azkenaldiko kontsumo-tasaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (biztanleriaren %-a)	195
160. grafikoa.	Kanabisaren azkenaldiko kontsumoa sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010 (biztanleriaren %)	195
161. grafikoa.	Kanabisaren egungo kontsumo-tasaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (biztanleriaren %-a)	196
162. grafikoa.	Kanabisaren egungo kontsumoa sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010 (biztanleriaren %)	197
163. grafikoa.	Kanabisaren kontsumoko egungo jarraitutasun-indizea (EJI), sexuaren eta adin-tarteetan arabera. 2010 (%)	198
164. grafikoa.	Intentsitate-tasa kanabisaren kontsumoan, sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010 (azken urtean gutxienez astean behin kontsumitu duten pertsonen %-a)	199
165. grafikoa.	Kanabisaren kontsumoaren intentsitate-tasaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera. 1992-2010 (%)	200
166. grafikoa.	Euskal biztanleria osoaren kanabisaren kontsumo esperimentaleko tasa bizitza osoan kontsumitutako aldien arabera eta sexuaren arabera. 2010 (%)	201
167. grafikoa.	Biztanleria kontsumitzaileen banaketa bizitza osoan kontsumitutako aldien arabera. 2010 (ehuneko bertikalak)	202



168. grafikoa.	Azken hilabeteko eguneroko kanabis-kontsumo tasaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera (1992-2010)	204
169. grafikoa.	Kanabisa egunero kontsumitzen duen biztanleriaren banaketa eta biztanleria osoaren banaketa, adin-taldean eta sexuaren arabera. 2010 (%)	205
170. grafikoa.	Kanabisa egunero kontsumitzen duen (asteko egun guztietan) biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-taldean eta sexuaren arabera. 1992-2010	206
171. grafikoa.	Kanabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartearen arabera (2010) ..	207
172. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo esperimentalaren hazkundera epe labur, ertain eta luzera, adin-tartearen arabera. 2010 (%).....	210
173. grafikoa.	Kontsumo esperimentaleko ratioen bilakaera. Pertsona gazteen bilakaera 45 urtetik gorakoekin alderatuta, eta biztanleria osoaren bilakaera 45 urtetik gorakoekin alderatuta	211
174. grafikoa.	Prebalentzia-tasaren bilakaera eta kanabis-kontsumoaren adin-taldean arabera egungo banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)	212
175. grafikoa.	Prebalentzia-tasaren bilakaera eta eguneroko edo ia eguneroko kanabis-kontsumoaren adin-taldean arabera egungo banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)	212
176. grafikoa.	Kanabisaren hainbat kontsumo motak epe labur, ertain eta luzera, sexuaren arabera. 2010 (%)... 213	
177. grafikoa.	Gizonen eta emakumeen arteko aldean bilakaera kanabis-kontsumo motei dagokienez. 1992-2010 (%)	214
178. grafikoa.	Kanabisaren azkenaldiko eta egungo kontsumitzaile esperimentalen sexuaren arabera banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)	215
179. grafikoa.	Kanabis-kontsumoaren jarraitutasun-tasaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2010 (%)	215
180. grafikoa.	Kanabisa egunero kontsumitzen dutenen banaketaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2010 (%)	216
181. grafikoa.	Kanabis-kontsumitzaileen banaketa bizitzan kanabisa kontsumitutako aldien arabera, kontsumitzen hasteko adinaren arabera. 2010 (%)	217
182. grafikoa.	Azkenaldiko, egungo eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimental talde sozioekonomikoaren arabera. 2010 (%).....	220
183. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo-ereduak talde sozioekonomikoen arabera. 2010 (%)	221
184. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo esperimentalaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 1992-2010 (%)	222
185. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo esperimentalaren hazkundera epe labur, ertain eta luzera, bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 2010 (%)	223
186. grafikoa.	Kanabisaren egungo kontsumoaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 1992-2010 (%)	223
187. grafikoa.	Kanabisaren eguneroko kontsumoaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 1992-2010 (%)	224
188. grafikoa.	Azkenaldiko, egungo eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimental hazkuntza-mailaren arabera. 2010 (%)	225
189. grafikoa.	Kanabisaren kontsumo-ereduak hazkuntza-mailaren arabera. 2010 (%)	226
190. grafikoa.	Azkenaldiko eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimental hazkuntza-mailaren arabera. 35 urtetik beherako pertsonak. 2010 (%).....	227
191. grafikoa.	Kanabis-kontsumo esperimentalaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010 (%)	229
192. grafikoa.	Azkenaldiko eta egungo kanabis-kontsumoaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010 (%)	230
193. grafikoa.	Eguneroko kanabis-kontsumoaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010 (%) ..	230



194. grafikoa.	Kanabis-kontsumo esperimentalak Euskadin eta EBn (%). 15-64 urteko biztanleria	231
195. grafikoa.	Kanabis-kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa Euskadin eta EBn (%). 15-34 urteko biztanleria	233
196. grafikoa.	Kanabis-kontsumitzaileen banaketa kontsumoaren intentsitatearen arabera EBn eta EAEn	234
197. grafikoa.	Legez kanpoko drogen kontsumo esperimentaleko prebalentzia EAEn 2010ean (%)	237
198. grafikoa.	Legez kanpoko drogen azkenaldiko kontsumoko prebalentzia EAEn 2010ean (%)	237
199. grafikoa.	Legez kanpoko drogen egungo kontsumoko prebalentzia EAEn 2010ean (%).....	238
200. grafikoa.	Legez kanpoko drogen baten kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn, kontsumo motaren arabera (%)	239
201. grafikoa.	Legez kanpoko substantzien kontsumo esperimentalaren prebalentziaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (%)	240
202. grafikoa.	Legez kanpoko substantzien azkenaldiko kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn, 1992-2010 (%)	241
203. grafikoa.	Legez kanpoko substantzien egungo kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (%)	242
204. grafikoa.	Legez kanpoko hainbat drogen azkenaldiko eta egungo kontsumoko indizeak 2010ean	243
205. grafikoa.	Legez kanpoko drogen bat erabiltzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera (1994-2010) ..	245
206. grafikoa.	Biztanleriaren kontsumitzaileen legez kanpoko edozein droga erabiltzen hasteko batez besteko adinaren araberrako banaketaren bilakaera (1994-2010).....	245
207. grafikoa.	Hainbat substantzia kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 1992-2010	246
208. grafikoa.	Legez kanpoko substantziak kontsumitzen hasteko batez besteko adina EAEn 2010ean	247
209. grafikoa.	Legez kanpoko drogen baten kontsumo-tasen bilakaera, kontsumo motaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010	248
210. grafikoa.	Legez kanpoko substantziak kontsumitzen hasteko batez besteko adina EAEn 2010ean	249
211. grafikoa.	Hainbat substantziaren kontsumo esperimentaleko tasak Europako hainbat herrialdetan eta EAEn.....	253
212. grafikoa.	Hainbat substantziaren azken kontsumo-tasak mendebaldeko hainbat herrialdetan eta EAEn	254
213. grafikoa.	Kokainaren eta basearen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, generoaren eta adin-talde handien arabera EAEn (%)	255
214. grafikoa.	Kokainaren eta basearen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, adin-tarteen arabera EAEn 2010 (%)	256
215. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa bizitza osoan kokaina kontsumituko aldien arabera (%)	258
216. grafikoa.	Kokainaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera EAEn 1992-2010 (%)	259
217. grafikoa.	Kokainaren erabilera esperimentalaren eta azkenaldiko erabileraren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%).....	260
218. grafikoa.	Kokainaren kontsumitzaile esperimentalen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)	261
219. grafikoa.	Kokainaren azkenaldiko erabileraren banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)	262
220. grafikoa.	Kokaina kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera, adin-tarte gazteagoetan. (1994-2010) (kokaina-hautsa bakarrak)	262



221. grafikoa.	Azken urtean gutxienez astero kokaina kontsumitu duten biztanleen eta kontsumitzaileen %-aren bilakaera. 2004-2010	263
222. grafikoa.	Kokaina-hautsaren kontsumo esperimentalaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)	264
223. grafikoa.	Kokaina-hautsaren azkenaldiko kontsumoaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)	264
224. grafikoa.	Kokaina-hautsaren egungo kontsumoaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)	265
225. grafikoa.	Anfetaminen kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa EAEn 2010ean (%)	266
226. grafikoa.	Anfetaminen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, adin-tarteen arabera (2010)	266
227. grafikoa.	Anfetaminen erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera. 1992-2010	267
228. grafikoa.	Anfetaminen azkenaldiko kontsumoaren eta kontsumo esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera 1992-2010 aldian (%)	268
229. grafikoa.	Anfetaminen edo speedaren kontsumo esperimentalaren banaketaren bilakaera, adin-tarteen eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)	269
230. grafikoa.	Anfetaminen edo speedaren azkenaldiko kontsumoaren banaketaren bilakaera, adin-tarteen eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)	270
231. grafikoa.	Anfetamina-kontsumitzaileen hasitako adin-tarteen arabeko banaketaren bilakaera. 1994-2010 (%)	271
232. grafikoa.	Anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 29 urtetik beherako gazteen artean (1994-2010)	271
233. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa bizitza osoan anfetaminak kontsumitutako aldien arabera EAEn 2010ean (%)	272
234. grafikoa.	Azken urtean gutxienez astero anfetaminak kontsumitu dituzten biztanleen eta kontsumitzaileen %-aren bilakaera. 2004-2010	273
235. grafikoa.	Anfetaminen azkenaldiko erabileraren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)	275
236. grafikoa.	Estasiaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa adin-taldean eta sexuaren arabera EAEn, 2010 (%)	276
237. grafikoa.	Estasiaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa adin-taldean arabera EAEn, 2010 (%)	277
238. grafikoa.	Estasiaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera EAEn 1992-2006 aldian (%)	277
239. grafikoa.	Estasiaren erabilera esperimentalaren eta azkenaldiko erabileraren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera EAEn 1992-2010 (%)	278
240. grafikoa.	Estasiaren kontsumitzaile esperimentalen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)	279
241. grafikoa.	Estasiaren azkenaldiko kontsumitzaileen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)	279
242. grafikoa.	Estasia kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera adin-tarteen arabera (%)	280
243. grafikoa.	Estasi-kontsumitzaileen hasitako adin-tarteen arabeko banaketaren bilakaera (1994-2010) %...	281
244. grafikoa.	Biztanleriaren banaketa bizitza osoan estasia kontsumitutako aldien arabera (%)	281
245. grafikoa.	Zenbait substantziaren azken urte honetako erabilera-maiztasuna gutxienez hilekoa eta gutxienez astekoa egiten duten kontsumitzaileen chunekoa	282



246. grafikoa.	Biztanleriaren %-aren eta azken urtean astean gutxienez behin estasia kontsumitu dutenen bilakaera.	
	2004-2010	283
247. grafikoa.	Estasiaren azkenaldiko erabileraren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn	284
248. grafikoa.	LSDaren kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa (%)	286
249. grafikoa.	LSDaren kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa, adin-tarteen arabera (%)	286
250. grafikoa.	Perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)	287
251. grafikoa.	Perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa, adin-tarteen arabera (%)	287
252. grafikoa.	Gizonen eta emakumeen arteko aldeak LSDaren eta perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimentalari dagokionez, adin-tarteen arabera (%)	288
253. grafikoa.	LSDaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera (%)	288
254. grafikoa.	LSDaren azkenaldiko erabileraren eta erabilera esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)	289
255. grafikoa.	LSDaren erabilera esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)	290
256. grafikoa.	Substantzia haluzinogenoen azkenaldiko erabileraren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn	290
257. grafikoa.	LSDaren kontsumitzaileen banaketaren bilakaera hasitako adin-tarteen arabera (1994-2010)	292
258. grafikoa.	Europako hainbat herrialdeetako LSDaren kontsumo esperimentalaren eta azkenaldikoaren prebalentzia biztanleria osoari dagokionez (%)	294
259. grafikoa.	LSDaren kontsumo esperimentalaren prebalentzia Europako zenbait herrialdetan 15-34 urteko biztanleriari dagokionez (%)	295
260. grafikoa.	Heroinaren azkenaldiko kontsumoa eta kontsumo esperimentalak (%)	296
261. grafikoa.	Heroinaren kontsumo esperimentalak eta azkenaldikoa, adin-tarteen arabera (%)	296
262. grafikoa.	Heroinaren erabilera esperimentalaren bilakaera 1992-2010 aldian (%)	297
263. grafikoa.	Heroinaren erabilera esperimentalaren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn	298
264. grafikoa.	Legez kanpoko drogen (kanabisa eta psikofarmakoak izan ezik) kontsumo problematikoaren bilakaera biztanleria osoari dagokionez (%)	299
265. grafikoa.	Drogen erabilera problematikoaren prebalentzia EAEn eta EBko zenbait herrialdetan (%)	300
266. grafikoa.	EAEn hainbat drogen kontsumoari egotzitako larritasuna (%)	304
267. grafikoa.	Hainbat drogen kontsumoari egotzitako larritasuna, sexuaren arabera (%)	305
268. grafikoa.	Hainbat drogen kontsumoari egotzitako larritasuna, adinaren arabera (%)	306
269. grafikoa.	Zenbait drogen larritasunaren pertzepzioa, kontsumitzaileen tipologiaren arabera (%)	307
270. grafikoa.	Hainbat kontsumo motari egotzitako arazoei buruzko pertzepzioa (%)	309
271. grafikoa.	Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, sexuaren arabera (%)	310
272. grafikoa.	Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, kontsumo motaren arabera (%)	311
273. grafikoa.	Hainbat drogen kontsumoaren bilakaerari buruzko pertzepzioa EAEn (%)	313
274. grafikoa.	Hainbat drogen kontsumoa igo dela uste duten pertsonen ehunekoa, adin-taldeen arabera (%)	313
275. grafikoa.	Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean (%)	314



276. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, adin-taldeetan banatuta (%)	315
277. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, sexuaren arabera (%)	315
278. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, kontsumitzaile tipologiaren arabera (%)	316
279. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean, duela hamar urte egungo egoerarekin alderatuta (%)	317
280. grafikoa. Biztanleriaren banaketaren bilakaera, hainbat substantziaren kontsumoari egotzitako larritasunaren arabera (%)	319
281. grafikoa. Azken urte hauetan hainbat drogaren kontsumoa igo izanari buruz biztanleriak duen pertzepzioaren bilakaera (%)	320
282. grafikoa. Droga mota batzuen eskuragarritasunaren pertzepzioa (%)	323
283. grafikoa. Droga mota batzuk eskuratzea nahiko erraza edo oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera (%)	324
284. grafikoa. Droga mota batzuk eskuratzea nahiko erraza edo oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)	325
285. grafikoa. Droga mota batzuk kontsumitzen dituzten edo droga mota batzuekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea (%)	326
286. grafikoa. Droga mota batzuk kontsumitzen dituzten edo droga mota batzuekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea, adin-taldearen arabera (%)	326
287. grafikoa. Biztanleriaren banaketa drogekin duten inplikazio-mailaren arabera, sexua eta adin-taldeak kontuan hartuta (%)	328
288. grafikoa. Hainbat droga eskuratzea oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoaren bilakaera	329
289. grafikoa. Hainbat droga eskuratzea ia ezinezkoa dela uste duten pertsonen ehunekoaren bilakaera (2002-2010)	330
290. grafikoa. Biztanleria gaztearen eta guztizkoaren banaketaren bilakaera, legez kanpoko drogen kontsumitzaileak ezagutzearen arabera (%)	331
291. grafikoa. Hainbat drogarekin arazoak dituzten pertsonak ezagutzen dituen biztanleria gaztearen eta guztizko biztanleriaren bilakaera (%)	331
292. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera (%)	333
293. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, adin-taldeak kontuan hartuta (%)	334
294. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, sexua kontuan hartuta (%)	334
295. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, kontsumitzaile tipologia kontuan hartuta (%)	335
296. grafikoa. Biztanleriaren banaketa droga-mendetasunen arloko jardun batzuei buruzko adostasun-mailaren arabera (%)	336
297. grafikoa. Droga-mendetasunen arloan hainbat jardunekin nahiko edo erabat ados dagoen biztanleria, adin-taldearen arabera (%)	338
298. grafikoa. Biztanleriaren banaketaren bilakaera hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera (2000-2010)	339
299. grafikoa. Kanabisa eta beste droga batzuk legeztatzearekin nahiko edo oso ados dagoen biztanleria EAEn eta Estatu espainolean (%)	339
300. grafikoa. Droga-mendetasunen arloko zenbait jardunekin nahiko edo oso ados dagoen biztanleriaren banaketaren bilakaera (2002-2010)	340



TAULEN AURKIBIDEA

1 taula.	EAEko 15-74 urteko biztanleria, 2010eko laginaren banaketa ez-proportzionala eta horren ondoriozko errorea	29
2 taula.	Kontsumitutako alkohol kantitateen arabera arrisku-mailak	61
3 taula.	Biztanleriaren banaketa alkohol-kontsumoko arrisku-mailen arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta	62
4 taula.	Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, alkoholdun edarien kontsumoko prebalentziak, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)	66
5 taula.	Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, alkoholdun edarien kontsumoko prebalentzien bilakaera. 1992-2008 (%)	69
6 taula.	Alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoi nagusiak	84
7 taula.	Alkohol-kontsumoa murriztu duten eta hainbat faktoreri eragin handia edo nahiko handia egotzen dieten pertsonen proportzioaren bilakaera (%)	86
8 taula.	Azken urtean 15-34 urteko gazteen alkohol-kontsumoa kalean (%)	93
9 taula.	Azken urtean kalean alkohola hilean behin edo aldi gehiagotan edan duten gazteen arteko eta 15-34 urteko gazte guztien arteko arriskuaren barruko ohitura jakin batzuen prebalentzia (%)	95
10 taula.	Bestelako gaien azkenaldiko kontsumoaren prebalentzia 15-34 urteko gazteen artean, alkohol-kontsumoko hainbat ereduaren arabera (%)	96
11 taula.	Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitu ondoren 15-34 urteko gazteek izandako arazoaren prebalentzia, ezaugarri pertsonalen arabera (%)	101
12 taula.	Ohiko kontsumo-tasen bilakaera okupazio-egoeraren arabera 2006-2008 aldian	109
13 taula.	Eguneko (Espainia) eta ohiko (EAE) kontsumoaren bilakaera 15-34 urteko biztanlerian sexuaren arabera	128
14 taula.	Eguneko (Espainia) eta ohiko (EAE) kontsumoaren bilakaera 35-64 urteko biztanlerian sexuaren arabera	129
15 taula.	Bizitza osoan mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak (%)	158
16 taula.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, beste psikofarmako batzuen kontsumoaren arabera (% horizontalak)	160
17 taula.	Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak azken urtean (%)	162
18 taula.	Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (% horizontalak)	164
19 taula.	Azken urtean mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)	164
20 taula.	Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak azken hilabeteen (%)	165
21 taula.	Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)	166
22 taula.	Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)	167
23 taula.	Mediku-errezetarekin psikofarmakoak kontsumitzen hasteko adina, hasitako adin-taldeetan banatuta (noizbait kontsumitu dituzten pertsonen gaineko %-a)	169
24 taula.	Mediku-errezetarik gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko adina, hasitako adin-taldeetan banatuta (noizbait kontsumitu dituzten pertsonen gaineko %-a)	169



25 taula.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia adin-taldeen arabera (%)	172
26 taula.	Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa, adinaren arabera banatuta (%) 173	
27 taula.	Mediku-errezetarekin psikofarmakoen kontsumoko prebalentziak sexuaren arabera (%).....	173
28 taula.	Bestelako substantzia psikoaktiboen kontsumo problematikoaren prebalentzia psikofarmakoak kontsumitu dituzten eta kontsumitzen dituzten pertsonen artean (%)	182
29 taula.	Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzien bilakaera. 1992-2010.....	184
30 taula.	Errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera, hasitako adin-taldeetan banatuta. 2006-2010 (%).....	189
31 taula.	Kanabisaren kontsumoaren egungo jarraitutasun-indizearen (EJI) bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera. 1992-2010	199
32 taula.	Gizonen eta emakumeen kanabisa kontsumitzeko tasak EAEn	202
33 taula.	Euskal biztanleria osoaren banaketa azken 12 hilabeteetan kanabisa kontsumitu den maiztasunaren, adinaren eta sexuaren arabera (%)	
	2010 (%).....	203
34 taula.	Kanabisa kontsumitzen duen biztanleriaren banaketa sexuaren eta adin-taldeen arabera, azken 12 hilabeteetan kontsumitu duten maiztasunaren arabera.	
	2010 (%).....	205
35 taula.	Kanabisaren kontsumoari buruzko autopertzepzioa kontsumo motaren arabera. 2010 (%)	207
36 taula.	Hasteko batez besteko adinaren bilakaera adin-taldeetan banatuta. 1994-2010 (%)	208
37 taula.	Jada kontsumitzen hasi diren pertsonen eta biztanleriaren ehunekoa, hasitako adinaren arabera (adintarteetan banatuta).....	208
38 taula.	Kanabisaren jarraitutasun-, intentsitate- eta eguneroko kontsumo-tasak, kontsumitzen hasitako adinaren arabera. 2010 (%).....	217
39 taula.	Bestelako substantzien kontsumoaren adierazleak, kanabisa kontsumitzen hasitako adin-tartearen arabera. 2010 (%).....	218
40 taula.	Alkohol-kontsumoaren adierazleak, kanabisa kontsumitzen hasitako adin-tartearen arabera. 2010 (%)218	
41 taula.	Jarraitutasun-, intentsitate- eta eguneroko kontsumo-tasak, talde sozioekonomikoen arabera. 2010 (%)221	
42 taula.	Kanabisaren azkenaldiko eta egungo kontsumoa Euskadin eta EBn (%).	
	15-64 urteko biztanleria	232
43 taula.	Kanabisa ez diren legez kanpoko beste droga batzuen kontsumo esperimentalak, azkenaldikoak eta egungoak dituzten pertsonen kopuruaren bilakaera. 1996-2010	242
44 taula.	Substantzia guztientzako AKIaren eta EKIaren tasen bilakaera 2006-2010 aldian	244
45 taula.	Legez kanpoko drogaren baten kontsumo-tasen aldaketa epe luzean, ertainean eta laburrean, adintartean arabera.....	250
46 taula.	Kontsumo-mailaren autopertzepzioa azkenaldian legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutenen artean (2010)251	
47 taula.	Kontsumoaren onuren eta kalteen balioespena azkenaldian legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutenen artean (2010)	251
48 taula.	Kokaina-kontsumitzaileen banaketa generoaren eta adin-taldeen arabera EAEn (2010).....	256
49 taula.	Kokaina eta basea kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartean arabera	257
50 taula.	Kokaina-kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoari eta gazte-biztanleriari dagokienez (%)	258
51 taula.	Anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartean arabera	270
52 taula.	Anfetaminen kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoan eta kontsumitzaileen artean (%)	273



53 taula.	Anfetaminen kontsumo esperimentalak eta azkenaldikoa EAEn eta EBko herrialde batzuetan, adin-taldean arabera (hainbat urte)	274
54 taula.	Estasia kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartean arabera	280
55 taula.	Estasiaren kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoari dagokienez (%)	282
56 taula.	Estasiaren kontsumo esperimentalak eta azkenaldikoa EAEn eta EBko zenbait herrialdetan, adin-taldean arabera (hainbat urte))	284
57 taula.	Substantzia haluzinogenoen kontsumo esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa EAEn, 2010 (%) ..	285
58 taula.	Arnastekoen, perretxiko haluzinogenoen eta ketaminaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera (%)	291
59 taula.	LSDa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartean arabera (%).....	291
60 taula.	Perretxiko haluzinogenoak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tartean arabera (%)	291
61 taula.	Bizitza osoan LSDa eta perretxiko haluzinogenoak kontsumitu diren aldiak (%).....	293
62 taula.	LSDa eta perretxiko haluzinogenoak azken urtean kontsumitu diren aldiak (%).....	293
63 taula.	Drogen kontsumo problematikoaren prebalentzia sexuaren eta adin-tartean arabera (%).....	299
64 taula.	Drogen kontsumo problematikoaren prebalentzia sexuaren eta adin-tartean arabera (%).....	301
65 taula.	Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, EAEn eta Estatu espainolean (%).....	312
66 taula.	Hainbat kontsumo-patroik arazo asko edo dezente ekartzen dituztela uste duen biztanleriaren bilakaera (%)	321
67 taula.	Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasunaren bilakaera ingurune hurbilean (%).....	322
68 taula.	Biztanleriaren banaketa drogekin duten inplikazio-mailaren arabera (%).....	327
69 taula.	Legez kanpoko drogekin biztanleriak duen hurbiltasunaren bilakaera (%).....	332
70 taula.	Droga-mendetasunen arloan hainbat jardunekin nahiko edo erabat ados dagoen biztanleria (%)	337



I. KAPITULUA
AURKEZPENA ETA METODOLOGIA



1. AURKEZPENA: 20 URTE DROGAK KONTSUMITZEN EAEn

1992. urtean, EAeko biztanleriaren % 37,7k ohiko moduan erretzen zuen, % 21,9k kanabisa gutxienez behin kontsumitu zuen eta % 3,2k kokaina inoiz probatu zuen. Urte hartan, EAeko historian inoiz baino jende gehiago sartu zen substantzia psikoaktiboen kontsumoagatiko tratamenduetan —2.500 pertsonatik gora hartu zituzten tratamendurako— eta, drogak, oro har, arazo nagusietako bat ziren herritarren ustez¹. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera orokorra ez zen ona: ETAk 26 pertsona hil zituen, langabezia biztanleria aktiboaren % 20 inguru zen eta biztanle bakoitzeko errenta, euro konstantetan, gaur egungoaren bi heren baino ez zen. EINEk egindako Familien Aurrekontuari buruzko Inkestaren arabera, EAEn pobrezia-tasa historia guztiko mailarik handienera iritsi zen 90eko hamarkadaren hasieran.

1992. urteaz geroztik, gauza asko eta asko aldatu dira euskal gizartean; besteak beste, droga-mendetasunen fenomenoak bilakaera oso handia izan du. Azken urteotan kontsumo-mailetan jaitsierak izan diren arren, droga-kontsumoak gora egin du 90eko hamarkadaren hasierako urte haietatik, baina, aldi berean, kontsumo horien ondorio negatiboenak murriztu egin direla pentsa dezakegu, baita alarma gehien eragiten zuten erabilera-patroiak ere. Legez kanpoko drogak —batzuk, bederen— gure gizartean normalizatu egin direla esan dezakegu, eta ez daude hain lotuta gizarte-bazterkeriarekin; gai

¹ Ikerketa Soziologikoen Zentroaren Barometroak seriaren arabera, 1993. urtean, Espainiako herritarren % 35arentzat herrialdeko hiru arazo nagusietako bat drogak ziren. Gaur egun, herritarren % 1,1arentzat, soilik.

horri buruzko politika publikoetan bilakaera oso nabarmena gertatu da, bereziki, urte haietan kalteak murrizteko lehenengo politikak aplikatzen hasi zirenetik.

□

- Urte hartan, Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Idazkaritza Nagusiak honako txosten hau argitaratu zuen: *Euskadi eta drogak 92. Azken hamar urteetako tabakoaren, alkoholaren eta gainerako drogen kontsumoa dela-eta izandako bilakaerari eta jarrerei buruzko txosten soziologikoa (Euskadi ante las drogas 92. Informe sociológico sobre la evolución y actitudes ante el consumo de tabaco, alcohol y demás drogas en los últimos diez años)*. Harrezkero, eta droga-gaietako araudi autonomikoa betez —droga-mendekotasunen eragina, prebalentzia eta problematika ezagutzeko aldizkako inkestak eta ikerketa epidemiologiko, ekonomiko eta sozialak sustatzeko erantzukizuna esleitzen dion aldetik— Eusko Jaurlaritzak guztira etxez etxeko hamar inkesta egin ditu, bi urtean behin, EAEn substantzien kontsumoa noraino zabalduta dagoen jakiteko, kontsumo-jarraibide nagusiak identifikatu eta horien bilakaera balioesteko, baita EAEko herritarrek droga-fenomenoari buruz eta droga-mendetasunen arloan aplikatutako politika publikoei buruz duten iritzia ebaluatzeko ere.

□

- 1992. urteko txosten hura abiapuntu izanik, *Euskadi eta Drogak* seriea gure inguruko herrialdeetan egiten den azterlan epidemiologiko erregular osatuenetakoa da, betiere droga-kontsumoari eta droga-mendetasunen arloko politika publikoei dagokienez. EAEko administrazioak eskatuta urte haietan garatutako antzeko beste ekimen batzuekin batera², *Euskadi eta Drogak* seriea garai jakin baten fruitua da; hain zuzen ere, erakunde publikoek herritarren bizi-kalitatean eragiten zuten eta euren eskumenekoak —gutxienez, arautzeari eta plangintzari zegokienez— ziren fenomenoak ikertu eta aztertzearen gaineko erantzukizunak euren gain sendotasunez hartu zituzten garai baten fruitu. 1997. urtean sortutako Droga-mendekotasunen Euskal Behatokiaren esparruan, *Euskadi eta Drogak* seriea osatzeko, Behatokiak bi urtean behin txosten bat egiten du eta urte hartaz geroztik, drogekin eta droga-mendetasunekin loturiko EAEko adierazle nagusiak biltzen ditu, kontsumoaren nahiz tratamenduaren ikuspegitik, edo drogen ondoriozko ospitaleko larrialdien edo heriotzen ikuspegitik.

□

- Txosten honetan 2010. urteko inkestaren emaitzak azalduko ditugu eta 1992. urtean seriea hasi zenetik izandako bilakaerari buruzko datu nagusiak ere bai. Beraz, txostenean, Euskadin droga-mendetasunen fenomenoak ia bi hamarkadatan izan duen bilakaera

² Honako hauek aipa ditzakegu, adibidez: 1986. urtean hasitako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI), edo 1994. urtean abiarazitako Gizarte-zerbitzuei eta gizarte-ekintzari buruzko Inkesta (GZGEI). Ekimen horiek aitzindari ez ezik, Espainia osoan —baita Europan ere— bakarrak direla ere esan dezakegu, denboraren ikuspegitik begiratuta, bederen.

□

□

□

□

□

aztertuko dugu eta, zehazkiago, euskal biztanleriak gure inguruan lor daitezkeen substantzia psikoaktiboekin izan duen 18 urteko kontaktua: legezko substantziekin (alkohola, tabakoa eta psikofarmakoak) eta legez kanpokoekin (kanabisa, kokaina, heroina, haluzinogenoak, sintesi-drogak, anfetaminak...). Kontsumo horiek garrantzitsuak izan dira gure gizartean; erreparatu, bestela, datu honi: euskal biztanleriaren % 8k soilik ez du izan inolako kontakturik bizi osoan txosten honetan aztertutako gutxienez substantzia batekin (psikofarmakoak alde batera utzita). Herritarren % 82k, gainera, azken hamabi hilabeteetan gutxienez substantzia horietako bat kontsumitu du.

Hortaz, EAEko herritarren eta drogen arteko lotura handia dela esan dezakegu, gure inguruko herrialdeetan bezalaxe, eta oso interesgarria da kontsumo-mailen bilakaera aztertzea, baita drogen erabilera-patroiak nola aldatzen diren ikustea ere. Laburbilduta, eta 2008ko txostenean aipatzen zenari jarraiki, txosten honen helburua interesa duten erakunde eta pertsona guztiei behar duten informazioa ematea da, euskal biztanleriak drogekin duen kontaktua ikusi ahal izateko eta horien ezaugarriak eta erabilera problematikoak hobeto ulertzeko aukera emango duen ikuspegi globala eskaintzeko, eta baita arlo honetan ikusitako joera berriak ikusteko ere.

2. TXOSTENAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK

- Txostenaren aurkezpena egiteko garaian, ez dugu ahaztu behar txostenaren helburu nagusia honako hau dela: egindako inkestaren datuak modu sistematiko eta ordenatuan aurkeztea eta emaitzak testuinguruan kokatu edo interpretatzea. Dena den, garrantzitsua da kontuan izatea inkesta honen erabilera ez dela agortzen txosten hau idaztearekin, eta Droga-mendekotasunen Euskal Behatokiaren esparruan, seriearen datuak edonoren esku daude, 20 urte hauetan euskal herritarrek drogekin izan duten harremana ikertu eta aztertu nahi izanez gero.

Emaitzen txosten honetako kapituluak bat datoz, gehiago edo gutxiago, galdesortan egindako galderekin, baina kapitulu guztiek ez dute egitura berdina eta galdesortako galdera guztiak ez ditugu maila berean aztertu. Zenbait kasutan, aztertutako substantziaren eta gaiaren ezaugarrien arabera, arreta berezia eman diegu aldagai eta/edo faktore pertsonalei –adina, sexua, okupazioa eta abar–, droga-kontsumoen norainokoa eta kontsumo-praktikak ulertzeko eragin handiena baitute. Beste zenbait kasutan, kapituluaren egitura galdesortaren egiturarekin loturik dago, eta erantzunetan eragin dezaketen aldagai indibidualei ez diegu hainbesteko arretarik eman. Nolanahi ere, aztergai izan ditugun gaiak, modu batera edo bestera ordenatuta, antzekoak dira aztertu ditugun substantzia guztien kasuan. Funtsean, honako gai hauek aipatzen dira kapituluetan:

- kontsumoen prebalentzia (bestela esateko, substantzia jakin bat kontsumitzen dutela edo kontsumitu izan dutela diotenen kopurua eta proportzioa), kontsumo horiek esperimentalak (bizitza osoan noizbait), azkenaldikoak (azken hamabi hilabeteetan) edo egungoak (azken hilabeteetan) izanik;
- kontsumitzen hasteko adina;
- kontsumitutako kantitateak;
- kontsumo-maiztasunak;
- jarraipen-tasak edo substantzia bat probatu ondoren kontsumitzen jarraitu duten kontsumitzaileen proportzioa, eta uzte-tasak;
- kontsumoen balioespena;
- aldaketak kontsumo-jarraibideetan.

Aipatu berri ditugun gai horiek ezaugarri soziodemografikoen arabera aztertu ditugu, hau da, inkesta erantzun duenaren eta galdesortan zehatz daitezkeen ezaugarri soziodemografikoen arabera: adina eta sexua, bi faktore horiek oso garrantzitsuak direla frogatu baita kontsumo guztiei dagokienez, eta arreta handiena bi faktore horiei eman diegu; baina beharrezko iritzi izan diogunean, emaitzak beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera ere aztertu ditugu, esate baterako, heziketa-mailaren, jarduera nagusiaren, bizilekuaren, okupazioaren edo gizarte-mailaren arabera.

Seriearen hasieratik egin den moduan, azterketaren aztergai nagusien arabera egituratzen da txostena. Irizpide horri jarraituta, txostena zazpi kapitulutan banatzen da:

– Lehenengo kapitulua sarrera da eta txostenaren aurkezpena egingo dugu, azterlana egiteko erabili den metodologia ere zehaztuta.

– Bigarren kapituluan EAEko alkohol-erabilera aztertuko dugu: hedapena, maiztasuna eta kontsumitzen diren kantitateak; eta garrantzi berezia emango zaie arrisku handiena ekar dezaketen eredu edo patroiei. Era berean, lehen aldiz erabili den adina, jarraipena eta kontsumitzeari uztea aztertuko dira, baita biztanleria gazteak alkohola erabiltzeko modu jakin batzuei buruzko hainbat gai ere, modu espezifikoa.

– Hirugarren kapituluan tabako-kontsumoaren ohitura aztertuko dugu. Bertan kontsumoaren hedapena, intentsitatea eta iraupena aztertuko dira, eta baita lehen aldiz kontsumitzen den adina ere. Era berean, kontsumoaren autopertzepzioarekin eta tabako-kontsumoko ohiturak uzteko saialdiekin edo aukerekin lotutako gai multzo zabal bat aztertuko dugu zehaztasunez, baita erretzaile ohien egoera ere.

– Laugarren kapituluan kanabisaren kontsumoa aztertuko dugu, legez kanpoko gainerako gaietatik bereizita, gizartearen iritzia eta gizartean duen txertatze-maila ezberdina delako. Kapitulu honetan kontsumoaren prebalentziaren, intentsitatearen, maiztasunaren, hasteko adinaren eta jarraipenaren eta uztearen oinarritzko adierazleak aztertuko dira. Horretaz gain, kapitulu horretan ezaugarri soziodemografiko eta kontsumo-patroi jakin batzuen arteko lotura aztertuko dugu, eta EAEn lortutako emaitzak Estatuko eta Europako antzeko azterlan epidemiologikoen emaitzekin alderatuko ditugu.

- Bosgarren kapituluan EAEko lasaigarrien, somniferoen eta antidepresiboen kontsumoaren prebalentzia aztertuko da, eta baita kontsumitzen dituztenen edo noizbait probatu dituztenen ezaugarri pertsonalak eta kontsumo horiek azkenaldian izandako bilakaera ere.
-
- Seigarren kapituluan kanabisaz bestelako legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoa izango da aztergai, eta puntu horrekin, droga-kontsumoen banandutako azterketa amaituko da. Kapitulu honek legez kanpoko gai nagusien erabileran ikusitako joeren eta prebalentziaren panoramika orokorra ematen du, eta gaiaren araberako prebalentzia, hasteko adina eta kontsumo-maiztasuna sakonki aztertzen dituen bigarren atal batekin osatuko da.
-
- Amaitzeko, zazpigarren kapituluan euskal biztanleriak drogen kontsumoari buruz duen pertzepzioa aztertuko dugu, eta baita droga-mendetasunen arloan garatutako politiken eta neurrien inguruko balioespena ere.

Metodologiaren ikuspegitik begiratuta, eta aurreko txostenetan bezalaxe, *Euskadi eta Drogak* seriearen hasieratik bildu diren bilakaera-datuak zabaldu eta zehazteko egin den ahalegina azpimarratu nahi dugu; zalantzarik gabe, bilakaera-datu horiek azterlanaren aberastasun nagusietako bat dira. Galdesorta lantzerakoan hainbat aldaketa izan dira, baina horrek eragindako zailtasunak gorabehera, inkestaren boladei dagozkien datu-baseen homogeneizazioari esker, serie berriak txertatu ahal izan dira. Hori dela-eta, kasu gehienetan, 2010. urteko datuen aurkezpena osatzeko, bilakaerarekin loturiko joera nagusiak aztertu ditugu, joera horiei esker gaur egungo errealitatea behar bezala koka baitezakegu dagokion testuinguruan.

Aurreko edizioetan bezalaxe, txosten honetan ere arreta berezia eman diogu konparazioari, hau da, inkesta honen emaitzak gure ingurunean egindako antzeko beste azterlanen emaitzekin konparatzeari. Horretarako, erreferentziatzko bi iturri nagusi erabili ditugu:

- alde batetik, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren Drogei buruzko Plan Nazionalak 2010eko azaroan argitaratutako Alkoholari eta Drogei buruzko 2009/2010eko Inkestaren aurrerapenaren datuak. *Euskadi eta Drogak* bezalaxe, legezko nahiz legez kanpoko drogei buruzko inkesta epidemiologiko bat da, etxez etxe egiten dena, eta herritar guztiei zuzenduta.

-
- -
 -
 -
 -

- bestetik, Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiak argitaratutako 2010eko Estatistika Buletina, Europar Batasuneko herrialdeetan legez kanpoko substantzien kontsumoari buruzko adierazle nagusiak biltzen dituen.

Hala ere, aurreko txostenetan bezalaxe, zehaztu beharra dago datu hauetariko batzuk oso zaharrak direla eta herrialde batzuetan erabilitako metodologia desberdina dela; horren guztiaren ondorioz, kasu batzuetan, EAEko datuekin egindako konparazioa orientaziorako baino ez da. Nolanahi ere, datu horiek txertatzea erabat justifikatuta dago; izan ere, datu horiei esker, EAEko kontsumoaren jarraibideak eta mailak testuinguruan koka ditzakegu, gure hurbileko ingurune geografiko, politiko eta soziokulturalari dagokionez.

- Emaizten txosten hau 2010eko irailtik abendura bitarte idatzi da, Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzak eskatuta, eta Eguía Careaga Fundazioaren SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak landu du, Ikertalde enpresak egindako inkestaren emaitzetan oinarrituta.

3. METODOLOGIA

3.1. Galdesorta

Inkestaren hamargarren edizio honetan informazioa biltzeko erabilitako galdesorta Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzako ekipo teknikoak diseinatu du, eta funtsean *Euskadi eta Drogak* lanaren azken bi edizioetan erabilitako berbera da; galdera nagusiei dagokienez, aurreko urteetan erabilitakoen oso antzekoa.

Galdesorta hiru zatitan banatzen da, eta guztira 70 galdera ditu, gehienak itxiak. Lehenengo zatian 9 galdera egiten dira, drogen kontsumoaren inguruan euskal biztanleriak duen pertzepzioa ikusteko, eta arlo horretan erabakitako jardun-ildo nagusiei eta politikei buruz duen iritzia jakiteko. Bigarren zatia galdesortaren muina da eta 51 galdera ditu, gehienak tabakoaren, alkoholaren, psikofarmakoen eta gehien zabaldutako legez kanpoko droga nagusien intzidentzia eta kontsumo-ereduak ezagutzeko. Amaitzeko, hirugarren galdera multzoan guztira 9 galdera egiten dira, identifikatzeko helburuarekin, eta galdetutako pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak biltzen ditu.

Dena den, aipatu behar dugu 2010eko edizioan erabili dugun galdesortak badituela hainbat aldaketa 2008. urtekoarekin alderatuta, batik bat, psikofarmakoen kontsumoari dagokionez. Aldaketa nagusiak hauek izan dira: galdera kopuru esanguratsu bat gehitu da, errezetadun kontsumoei dagokienez erantzuteko aukerak argitzearren, eta errezetarik gabeko psikofarmakoei dagokionez, kontsumoan sakontzearren, betiere azterlanaren aurreko edizioekiko konparagarritasunik galdu gabe.

Horixe izan da galdesortan izandako aldaketa nagusia, baina aurtengo edizioan galdera berriak ere txertatu dira; hona hemen:

- Kontsumoen onuren eta kalteen arteko balantzea: 19., 35. eta 57. galderak.
Galdesortan hiru galdera sartu dira tabakoa, alkohola eta bestelako substantziak kontsumitzen dituztenek euren kontsumoen onura eta kalteei buruz egiten duten balantzeari dagokionez.
- Psikofarmakoen atala: 42. galdera eta hurrengoak.

Errezetadun eta errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoan sakontzeko asmoz, galdesortan galdera berriak txertatu dira. Galdera horietan, aldaketa nagusia bi alderdiri dagokio:

- a. kontsumoaren denbora-erreferentziari: edizio honetan, azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan egindako kontsumoaren erreferentziari eutsi zaio, eta epe luzeagoaren erreferentzia gehitu zaio, bizitza osoan noizbait substantzia horiek kontsumitu izan dituen galdetuz elkarrizketatuari.
 - b. mediku-errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoa sartu dugu edizio honetan, aurrekoetan ez bezala; izan ere, orain arte errezetadun psikofarmakoen kontsumoa baino ez zen aintzat hartzen, eta errezetarik gabeko medikamentuen kontsumoa legez kanpoko drogen atalean sartzen zen.
- Legez kanpoko drogen norberaren kontsumoari buruzko pertzepzioa, kontsumoa uztea eta kontsumoa murriztea: 56a eta 56b, 58. eta 59. galderak.
Aurtengo ediziora bitarte, legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko galderak legez kanpoko drogaren bat noizbait kontsumitu izan dutenei soilik egiten zitzaizkien. Nolanahi ere, jende askok une honetan substantziarik ez kontsumitzeko aukera bazegoenez, edizio honetan, azken urtean legez kanpoko drogaren bat kontsumitu izan dutenei baino ez zaie egin galdera hori. Antzeko zerbait gertatzen zen legez kanpoko drogak kontsumitzeari uztearekin eta kontsumoa murriztearekin; izan ere, azken 12 hilabeteetan maiztasun handienaz kontsumitu den substantziari buruzko galderak soilik egiten dira.
 - Ikasketa-maila: 66. galdera
Edizio honetan, aurreko urteetako ikasketen zerrenda eguneratu egin dugu eta orain sinpleagoa da.

3.2. Lagina eta landa-lana

Euskadi eta Drogak 2010 txostenaren azken lagina Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15-74 urteko 2.016 biztanleri egindako elkarrizketekin osatuta dago. EAEko Lurralde Historiko bakoitzeko lagin adierazgarria da, adinaren eta sexuaren arabera sailkatuta eta lagin-



oinarri ez-proporzionalak esleituta. Hamargarren edizio honetan, informazio-bilketa 2010eko martxoaren 9tik 26ra bitarte egin zen³. Landa-lana Ikertalde Grupo Consultor enpresak egin zuen, egituratutako galdesorta baten bitartez, EAEko Lurralde Historiko bakoitzaren lagin adierazgarria baten etxerako hurbilketa baten ondoren.

Laginaren diseinua Lurralde Historikoaren arabera esleipen ez-proporzionalarekin eta errolda atalaren arabera esleipen proporzionalarekin geruzatutako lagin aleatorio baten diseinuari dagokio. Geruza horiek egiteko habitataren tamaina kontuan hartu da, honako bost kategoria hauetan banatuta: 2.500 biztanle baino gutxiago; 2.500etik 10.000 biztanlera bitarte; 10.001etik 40.000 biztanlera bitarte; 40.001etik 150.000 biztanlera bitarte; eta 150.000 biztanletik gora. Bizilekuaz gain, laginaren banaketa adin- eta sexu-irizpideen arabera egin da, eta, gero, biztanlerian ezaugarri indibidual horien presentzian oinarrituta haztatu dira emaitzak, lagin-segmentu bakoitzarentzat ondorioztatutako lagin-tasen alderantzizkoak igogailu gisa erabilia.

% 95,5eko konfiantza-mailarako, eta biztanleriaren gehieneko aldakortasuna $p=q=0,5$ izanik, EAE osorako lagin-akatsa \pm % 2,2 da. Lurralde-azpilagin bakoitzerako, eta baldintza beretan, akatsa \pm % 4,6 da Arabaren kasuan, \pm % 3,2 Bizkaiaren kasuan eta \pm % 3,9 Gipuzkoaren kasuan. Orientazio modura zera aipatuko dugu, Alkoholari eta Drogei buruzko 2009/2010eko Inkestaren lagin-errorea \pm % 0,77 da eta 20.109 pertsonaz osatutako laginari egindako inkesta batean oinarritzen da.

1. taula. EAEko 15-74 urteko biztanleria, 2010eko laginaren banaketa ez-proporzionala eta horren ondoriozko errorea

Lurralde Historikoa	Unibertsoa	Lagina	\pm Errorea (%)
Araba	246.949	450	$\pm 4,6$
Gipuzkoa	538.227	648	$\pm 3,9$
Bizkaia	887.916	918	$\pm 3,2$
EAE	1.673.092	2.016	$\pm 2,2$

Iturria: 2010eko urtarrilaren 1eko Erroldaren aurrerapena (EIN)

³ Oraingoan, txostena argitaratuko den urteko udaberrian egin da inkesta, eta ez aurreko urteko udazkenean, orain arte bezala. Nolanahi ere, inkesta hilabete *neutro* batean egiteko aukerari eutsi egin diogu, hau da, kontsumo-jarraibideak alda ditzakeen jai edo ospakizun berezirik gabeko hilabete batean.

-
-
-
-
-

Datuen fidagarritasuna eta baliozkotasuna bermatuta dago, EAE osoarentzat zein Lurrealde Historiko bakoitzarentzat eredu egoki gisa balio duen lagin baten erabileragatik, eta egindako kontrolengatik⁴ eta drogen kontsumoarekin lotutako magnitude nagusien hedadura neurtzeko erabilitako galdesortaren gaitasun aitortuagatik.

3.3. Erabilitako aldagai independenteak

Txosten honetan aztertu diren kontsumo moten osaera soziodemografikoa zehazteko unean, hainbat aldagai hartu dira kontuan. Aldagai garrantzitsuenak sexua eta adina izan dira, joerak bereizterakoan oraindik ere oso garrantzitsuak direlako, eta, neurri txikiagoan, legezko zein legez kanpoko drogei lotutako portaerak. Horretaz gain, analisi espezifikagoak ere erabili dira, beste aldagai batzuk kontuan hartu dituztenak, hala nola, hezkuntza-maila, jarduera nagusia edo bizi diren Lurrealde Historikoa, besteak beste. Nolanahi ere, erabilitako aldagai nagusiak honako hauek izan dira:

- Sexua.
- Adina. Normalean, droga-kontsumoei eta pertsona gazteen kontsumo-ereduak zehaztasunez ezagutzeko premiari dagokienez aldagai honek duen garrantzia aintzat hartuta, zortzi adin-tarte erabili dira (15-19, 20-24, 25-29, 30-34, 35-44, 45-54, 55-64 eta 65-74). Adinaren aldagaiari garrantzi hori eman ez zaion kasuetan, eta analisisia sinplifikatzeko helburuarekin, banaketa sei tartetan edo gutxiagotan egitera mugatu da.
- Bizi diren lurrealde Historikoa. Droga-kontsumoari dagokionez lurrealde-oinarriko aldeak dauden balioesteko, bizi diren Lurrealdearen arabera multzokatu da biztanleria (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), eta baita bizi diren udalerriaren tamainaren arabera ere.
- Bizi diren udalerriaren tamaina. Biztanleriaren arabera, udalerriak honako bost talde hauetan banatu dira: 2.500 biztanle baino gutxiago, 2.500etik 10.000 biztanlera bitarte, 10.001etik 40.000 biztanlera bitarte, 40.001etik 150.000 biztanlera bitarte, eta 150.000 biztanletik gora; azken horiek hiriburuak dira.
- Jarduera nagusia. Honako kategoria hauek biltzen ditu: lanean, langabezian, ikaslea, etxeko andre/jauna, eta pentsioduna/erretiratua/elbarria.
- Talde sozioekonomikoa. Eustatek egindako Osasun Inkestan oinarrituta, inkestatutako pertsonak eskala sozioekonomikoan duen kokapenarekin lotutako tipologia bat landu

⁴ Egindako gainbegiraketa-ehunekoa betetako inkesten % 55 izan da.



da, eta eskala hori jarduera nagusiaren arabera egindako bost taldeekin osatzen da: I. taldean (Eustaten Osasun Inkestako I. eta II. taldeak hartzen ditu barnean) zuzendariak, goi-mailako teknikariak eta profesional liberalak; II. taldean kargudunak eta erdi-mailako agintariak; III. taldean kualifikatutako eskuzko langileak; eta IV. taldean kualifikaziorik gabeko langileak.

- Ikasketa-maila. Honako kategoria hauek biltzen ditu: ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketekin, bigarren mailako ikasketekin, eta unibertsitateko ikasketekin.

4. EMAITZA NAGUSIAK: ERRONKA ETA IDEIA NAGUSIAK

Emaitzen txosten honetatik nabarmentzeko modukoak diren ideia nagusiak honako hauek dira:

- a) Legez kanpoko drogen kontsumo-adierazleen jaitziera nabarmena; izan ere, kasu askotan kontsumo-maila hamarkadaren hasierako balioetara ere murriztu da.
- b) Oro har, aztertutako legezko substantzien kontsumo-adierazle gehienek mailari eutsi diote, edo agian zertxobait behera ere egin dute, batik bat, alkoholarekin loturiko adierazleetan.
- c) Drogen erabilera gehienetan intentsitatea jaitsi egin da eta kontsumo-jarraibideak — legezko nahiz legez kanpoko substantzietan dagokienez— gero eta noizbehinkakoagoak dira, eta ez hain intentsuak.
- d) Oro har, gizonezkoen eta emakumezkoen kontsumoen arteko aldeak murriztu egin dira eta gehienbat gizonezko ohituratzat aztertutako kontsumo gehienak finkatu.
- e) Iraganean legez kanpoko drogen kontsumoaren inguruan zegoen belaunaldi-hesia apurtzen ari da arian-arian. Gazteen eta helduen kontsumo-tasak hurbildu egin dira, eta gazte/helduek nahiz pertsona helduek kontsumitzaile guztien multzoan duten garrantzia gero eta handiagoa da. Legez kanpoko drogen kontsumoak gero eta lotura txikiagoa du gaztaroarekin.

Inkestaren emaitza nagusiak xehetasun handiagoz aztertuz gero, honako oinarritzko elementu hauek ikusiko ditugu:

- 2008-2010 aldian alkohol-kontsumoan beheranzko joera txikia gertatu da, bereziki, gazteen artean eta arrisku handieneko kontsumoei dagokienez. 2006tik 2010era bitarte, 15-34 urtekoen taldean alkoholaren egungo kontsumoa (azken hilabeteetan) % 79tik % 64ra murriztu da. Biztanleria guztia hartuta, ia egun guztietan eta/edo asteburu eta jaiegun gehienetan edaten dutenen ehunekoak ere behera egin du.



- 2004. urtetik aurrera, asteburuetako alkoholaren gehiegizko eta arriskuko kontsumoa ia erdira jaitsi da; gaur egun, biztanleriaren % 9,6 sartzen da kontsumo horretan. Gazteen artean, kontsumo mota hori % 34tik % 19ra jaitsi da, eta gizonen artean, % 24tik % 12ra.
- Alkohol-kontsumoak murriztu dituzten edarizaleen ehunekoak ere gora egin du (% 31tik % 50era), eta mozkortzen direnen ehunekoa jaitsi egin da, bereziki, gizon gazteen artean: 2004-2010 aldian, 15-34 urteko gazteen artean, azken urtean noizbait mozortu direla dioten ehunekoa % 53tik % 33ra jaitsi da, eta soilik azken bi urteotan 10 puntuko jaitsiera gertatu da. Gizon helduei dagokienez, % 25etik % 13ra murriztu da ehunekoa.
- Gazteen kaleko alkohol-kontsumoak antzeko mailari eutsi dio; kontsumo mota hori beste droga-kontsumo batzuekin estu-estu loturik dago oraindik ere, baita arrisku-portaera askorekin eta kontsumoaren ondoriozko arazo gehiago izatearekin ere. Nolanahi ere, eta gazteek alkohol gutxiago kontsumitzen duten heinean, alkohol-kontsumoaren ondoriozko arazoak dituzten gazteen ehunekoak ere behera egin du.
- Tabakoaren kontsumoa ez da aldatu Euskadin, baina tabakoa erretzeari uzteko tasak gora egin du. Gainera, kontsumoen intentsitatea murriztu egin da eta erretzaileen erdiak dio erretzeari uzten saiatzeko prest dagoela.
- Hala ere, azken urteotan beherakadak izan diren arren, 20-30 urtekoen artean tabako-kontsumoa oso handia da oraindik ere, gizonen eta emakumeen kasuan. Tabakoaren kalteei buruzko pertzepzioa, gainera, txikiagoa da. Zaharragoen kasuan ez bezala, adin horietako biztanleak hazi diren testuinguru soziokulturalean tabakoa kontsumitzearen kalteak aski ezagunak ziren; beraz, tabako-kontsumoari dagokionez, biztanle horiei zuzendutako prebentzioko eta osasun-hezkuntzako mezuen eraginkortasuna oso txikia izan dela esan dezakegu.
- 2010. urtean argi eta garbi finkatu egin da Euskadin kanabisaren kontsumo-jaitsiera, bai azkenaldiko kontsumoari dagokionez (azken hilabeteen), bai egungo kontsumoari dagokionez (azken urtean). 2010. urteko kanabisaren egungo kontsumoaren tasa 2000. urtetik izandako tasarik txikiena da, azken lau urteotan 63.000 kontsumitzaile gutxiago



izanik. Horretaz gain, kanabisaren eguneroko kontsumoa nabarmen murriztu da, bereziki, gazteen artean: 15-24 urteko taldean, eguneroko kontsumoaren prebalentzia % 10etik % 4ra jaitsi da. Hala eta guztiz ere, kanabis-kontsumoari dagokionez, EBko datuei erreparatuta Euskadi da buru oraindik.

- Bestalde, kanabis-kontsumoa gehienbat noizbehinkakoa da: substantzia hori azkenaldian kontsumitu dutenen % 60k azken urtean, gehienez ere, hilean hiru aldiz kontsumitu du.
- Halaber, jaitsiera oso handia gertatu da gainerako legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, eta kontsumoen intentsitatea murriztu da. Kontsumo-tasak hamarkadaren hasierako mailetara jaitsi dira, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera izandako hazkundea leheneratuz. 2004tik aurrera, kokainaren azkenaldiko kontsumoa % 50 txikitu da, eta anfetaminen kontsumoa % 60.
- 2010. urtean kalteak murrizteko neurriei herritarrek emandako laguntza murriztu egin da, baita legez kanpoko drogak —kanabisa ere bai— legeztatzearen alde dauden herritarren ehunekoak ere.
- Legez kanpoko drogen kontsumoan inplikaturtat har daitezkeen (alegia, substantzia horiek kontsumitzen dituztenak eta/edo kontsumitzaile asko ezagutzen dituztenak) ehunekoak ere behera egin du, hein txikiagoan. Aitzitik, kontsumo horiekin loturarik ez duten herritarren ehunekoak gora egin du, kontsumitzailerik ezagutzen ez duten heinean eta zuzeneko kontsumo-esperientziarik ez duten heinean.
- Bestalde, aztergai dugun aldi historiko osoan, eutsi egin zaio aztertutako droga guztien —legezko nahiz legez kanpoko— kontsumoan hasteko adinari.
- Era berean, kontsumoei dagokionez, klase sozialarekin eta maila sozioekonomikoarekin loturiko aldeei ere eutsi egin zaie; goi-mailako klaseetan erabilera esperimentalen prebalentzia handiagoa da eta, aldiz, maila sozioekonomiko txikiagoko klaseetan erabilerak intentsuagoak eta maiztasun handiagokoak dira.
- Substantziei leporatutako arriskuaren pertzepzioari dagokionez, arrisku gutxienerako substantziatutako alkohola hartzen da; biztanleriaren ia % 40k uste du EAEen alkoholaren



kontsumoa ez dela batere larria edo larritasun txikikoa dela. Gazteenen artean, ehunekoa % 50era igotzen da.

- Oro har, eta goranzko joera izan duen arren, Euskadiko droga-kontsumoen larritasunaren pertzepzioa txikiagoa da Estatuko gainerakoan baino.
- Legez kanpoko drogen kontsumoetan izandako aldaketak aldaketa, eta kontsumoarekin loturiko egoera gehienak (droga esnifutzen edo injektatzen duen jendea, xiringak lurlean sakabanatuta eta abar) oso agerikoak ez diren arren, biztanle gehienek uste dute agerikotasun hori ez dela murriztu azken urteotan.

Ondorio horietan oinarrituta —eta droga-mendetasunei buruzko politiken planteamenduan kontsumo-adierazleez gain beste adierazle batzuk (herritarren bizi-kalitatean eta ongizatean kontsumo horiek duten eraginari buruzkoak) ere kontuan izan behar direla aintzat hartuta—, EAEko droga-mendetasunei buruzko politiken funtsezko erronkak proposa daitezke; hona hemen:

- a) Substantzien kontsumo-prebalentzian beheranzko joera finkatzea, bereziki, azkenaldiko eta egungo kontsumoei dagokienez, eta batik bat legezko drogei erreparatuta, azken urteotan jaitsiera txikienak izan baitituzte.
- b) Halaber, kontsumoen intentsitatea murrizteko joera ere finkatzea, bereziki, asteburuetako gehiegizko eta arriskuko kontsumoei dagokienez eta kanabisaren eguneroko kontsumoari dagokionez.
- c) Drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea, aurreragoko kontsumoen intentsitatean eta maiztasunean aldagai horrek eragin handia duela kontuan izanik.
- d) Prebentzioko eta osasun-hezkuntzako neurri espezifikoak bultzatzea, betiere kontuan izanik legez kanpoko drogen kontsumitzaile gero eta gehiago gazte/helduak direla, edo baita pertsona helduak ere; beraz, prebentzioko mezuak kontsumitzaileen profil-aldaketetara egokitu behar dira.

- e) Prebentzioko ahalegin handienak maila sozioekonomiko txikieneko taldeetan egitea; izan ere, oro har, gainerako biztanleriak baino kontsumo-jarraibide intentsuagoak dituzte eta, hortaz, osasun-hezkuntzako mezuekiko ez dira hain harberak, antza.
- f) Tabakoaren kasuan bereziki, kontsumo-tasen egungo egonkortasuna leheneratzeaz gain, tabakoaren erabileran hasten diren gazteen ehunekoa murriztu ere egin behar da, tabakoarekin loturiko arrisku-pertzepzioa areagotuz gazteen artean.
- g) Alkoholaren gehiegizko kontsumoak murrizteko lanean jarraitzea eta kontsumoak murrizten edo ezabatzen dituen biztanleriaren ehunekoa handitzea, baita sentsibilizazioan indar gehiago egitea ere alkoholaren gehiegizko kontsumoaren ondoriozko arriskuei dagokienez, bereziki, gazteen artean, gazteek egozten baitiote alkohol-kontsumoari arrisku-maila txikiena.
- h) Alkohola kalean kontsumitzen duten gazteei zuzendutako prebentzioko, tratamenduko eta gizarte-laguntzako neurriak areagotzea, frogatua baitago kontsumitzaile horien artean arrisku-praktika asko metatzen direla.


II. KAPITULUA
ALKOHOL KONTSUMOA EAEn

1. EAEko ALKOHOL KONTSUMOARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK

1.1. Alkohol-kontsumoaren prebalentziak

Txosten honetan aztergai ditugun substantzia guztien artean, zalantzarik gabe, alkohola da gizartean gehien errotuta dagoena: alkohol-kontsumoa —esperimentalak, gutxienez— 15 urteko eta hortik gorako euskal biztanleria ia guztiarengan hedatua dago; gazteen artean, nerabezaroan hasten dira alkohola kontsumitzen, eta beste edozein substantzia baino lehen; era berean, aztertutako substantzia guztien artean, neurrian erabiliz gero arrisku-maila txikiena egozten diote; eta, beste substantzien kasuan ez bezala, alkoholaren kasuan, egungo kontsumoak —noizbehinkakoak edo ohikoak— euskal herritarren proportzio oso handia biltzen du.


1. grafikoa. Alkohol-kontsumoaren prebalentziak (%)



Euskadi eta Drogak 2010 inkestako datu epidemiologikoen arabera, 15-74 urteko euskal biztanleriaren % 90,8k alkohola kontsumitu du bizi osoan noizbait, eta % 77,1ek eta % 65,3k, hurrenez hurren, inkesta egin aurreko azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan. Dena dela, etxe gehienetan egoten den substantzia izaki, eta etxetik kanpo harremanetarako aisialdi-jarduera gehienetan ere presente egoten den arren, euskal biztanleriaren % 15,4k baino ez du esan alkohola eguneroko kontsumitzen duenik.


Gainerako substantzia psikoafektiboen —psikofarmakoak alde batera utzita— kasuan bezalaxe, gizonen artean ohikoagoa da emakumeen artean baino, eta aldeak gero eta handiagoak dira kontsumo-jarraibidea zenbat eta berriagoa izan; alde oso nabarmenak daude eguneroko kontsumoari dagokionez, gizonen prebalentzia emakumeena baino hiru aldiz handiagoa baita. Gainera, eta oraingoz alderdi erabakigarriak —kontsumitutako alkohol kantitatea edo kontsumitzeko uneak— alde batera utzita, alkoholaren erabilera esperimentalak, azkenaldikoa eta egungoa nahiko homogeneoa dela esan dezakegu adin ezberdineko taldeetan; aldiz, eguneroko kontsumoa biztanle zaharretan metatzen da. Lurralde Historikoaren arabera, datuen arabera esan dezakegu kontsumo-mailak antzekoak direla Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Araban zertxobait handiagoak.

2. grafikoa. Alkohol-kontsumoaren prebalentziak, adin-taldeen, sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)



Egia esan, alkoholarekin esperimentazioa da nagusi euskal biztanleriari dagokionez, baita egungo kontsumoa ere, baina kontsumitzeko uneak eta, zehazkiago, edari alkoholodunak kontsumitzen diren egun motak ere, kontuan hartuta, alkoholaren erabilera-jarraibideei dagokienez, herritarren artean faktore diferentzial garrantzitsu bat txertatu da. Hori horrela izanik, herritarren geruza esanguratsu batzuen kasuan, egun oso berezietan kontsumitzen dute (% 22,3) eta zati garrantzitsu batek jaiegun eta asteburutan baino ez du kontsumitzen, ohiko moduan edo noizean behin (% 39). Guztirako biztanleriaren % 18,6k dio egun gehienetan kontsumitzen dituela edari alkoholodunak, eta euren burua abstemiotzat jotzen dute 15-74 urtekoen % 10,7k.





3. grafikoa. Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen den uneen arabera (%)



1.2. Euskal biztanleriaren harremana alkoholarekin, perspektiban

Azken hamarkadan egonkortasuna sumatu da alkoholaren kontsumoen prebalentziei dagokienez, kontsumo esperimentalean, egungoan, azkenaldikoan, baita eguneroko kontsumoan ere; hala ere, azken lau urteotan egonkortasun hori murrizketa txiki bihurtu da, aztertutako kontsumo-maila guztietan. Egungo datuei erreparatuz gero, 2008an jada sumatzen zena berretsi egin dela ikusiko dugu. Izan ere, egungo kontsumo-prebalentziak duela hamar urtekoekin alderatzen baditugu, konturatuko gara kontsumo esperimentala eta azkenaldikoa murriztu egin direla portzentajezko ia bosna puntutan; aldiz, eguneroko kontsumoa sei puntu txikitu da azken hamarkadan.


4. grafikoa. Alkoholaren kontsumo-prebalentzien bilakaera. 1998-2010 (%)



Zaila da murrizketa horren arrazoiak finkatzea, baita joera horrek datozen urteotan jarraituko ote duen aurreikustea ere; baina zalantzan jarri ezinezkoa da talde sozial guztietan ez duela eragin berdina izan. Ildo beretik, esan dezakegu beheranzko joera arin hori 2008tik aurrera kontsumo-maila guztietan gertatutako murrizketa argiaren ondorioz gertatu dela, hein batean, baina, aldi berean, baita emakumeen artean eta, bereziki, 15-34 urteko gazteen artean izan den murrizketa nabarmenaren ondorioz ere. Talde horretan, azkenaldiko kontsumoa ia hamabost puntu murriztu da 2006. urtetik hona, hau da, biztanleria guztiari dagokionez azkenaldiko kontsumoa murriztu denaren ia bikoitza.

Euskadiko alkoholaren kontsumo-datu orokorren mailak Espainiakoeekin alderatuta, aztertutako urte guztietan tasak oso antzekoak dira azkenaldiko nahiz egungo kontsumoei dagokienez. Alkoholaren eguneroko kontsumoan ikus daitezke alde esanguratsuagoak. Izan ere, datu horiek erregistratzen direnetik —hamarkada bat baino gehiago—, Euskadik prebalentzia handiagoa izan du beti eguneroko kontsumoan; gaur egun, EAEko biztanleriari dagokionez % 15,4 da eta Espainian % 11.


5. grafikoa. Alkoholaren kontsumo-prebalentzien bilakaera. Espainia eta Euskadi (%)



Iturria: EDADES (Espainiako drogen gehiegizko erabilerari buruzko etxeko inkesta) 2009/10 eta E&D2010.

Euskadin kontsumoak izan duen bilakaerari dagokionez, egun mota eta kopuruaren arabera, azken bi urteotan ez da aipatzeko moduko aldaketarik gertatu eta, nolahi ere, joera handirik sumatu gabe, azken lau urteotan biztanleria abstentioa zertxobait handitu dela esan dezakegu, baita ia egunero eta/edo ia astebururo alkohola kontsumitzen dutenak murriztu direla ere. Aldaketak txikiak dira, baina hala ere, 2006. urteaz geroztik maiztasun handieneko kontsumoaren jarraibideak murriztu direla erakusten dute.

6. grafikoa. Alkohola kontsumitzen den uneen bilakaera guztizko biztanleriaren barruan. 2000-2010 (%)




1.3. Kontsumitzen hasteko adina

- Oso goiz hasten da, normalean, alkohola kontsumitzen eta, oro har, nerabezaroaren hasieran izaten da: 16 urterekin, 15-74 urteko euskal biztanleriaren % 46,8k probatua zuen edari alkoholdunen bat, eta 18 urte —edari alkoholdunak erosteko legezko adin-muga— bete aurretik alkohola probatua zuten % 57k, hau da, herritarren erdiak baino gehiagok. Bestalde, oso gutxitan gertatu da lehen kontsumoa 20 urte bete ostean egitea —% 15,6 baino ez dira hogeitiki aurrera edari alkoholdunak kontsumitzen hasi direnak—, eta halaber, oso arraroa da alkohola lehen aldiz kontsumitzea 15 urte bete baino lehen (biztanleriaren % 16,4 eta kontsumitzen hasi direnen guztien % 18,1).

□

7. grafikoa. Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen hasteko adinaren arabera (%)



□ Oro har, gizonak emakumeak baino lehenago hasten dira alkohola kontsumitzen: 15 urterekin, gizonen heren batek baino gehiagok alkohola probatua zuen jada; emakumeen artean, aldiz, soilik laurden batek.


□

□ Adinaren kasuan, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, aldeak ez dira hain argiak, baina hala ere, esanguratsuak dira. 25 urtetik gorakoei erreparatuta, eta, beraz, gehientsuenak alkohola kontsumitzen hasiak direla kontuan izanik, 25-44 urtekoen artean alkohola lehen aldiz 16 urterekin edo gutxiagorekin kontsumitu dutenen proportzioa egonkorra dela esan daiteke. Izan ere, adin-tarte horretan, hamar lagunetik bostek baino gehiagok edari alkoholduak kontsumitzen zituen jada 16 urte betetzerako; aldiz, 45 urtetik gorakoetan, ehuneko hori txikiagoa da eta heren bat izan daitezke. Datu horien argitara, belaunaldi-aldaketa gertatzen ari dela pentsa dezakegu alkoholarekin kontaktuan jartzeko uneari dagokionez, azken hamarkadetan, alkohola kontsumitzen hasteko adina aurreratu egin baita. Jarraian bilakaeraren datuak ikusiko ditugu eta konturatuko gara inpresio hori ez dela egia.

□

□

8. grafikoa. Biztanleriaren banaketa alkohola kontsumitzen hasteko adinaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera (%)




□

□ Alkohola kontsumitzen hasteko adina —askotan batez besteko balio moduan ematen da— gaur egun 17,1 urte da, betiere *Euskadi eta Drogak 2010* seriearen datuen arabera. Hala ere, horrek ez du esan nahi biztanle gehienak 17 urterekin hasi direnik alkohola kontsumitzen, zeren, ikusi dugunez, alkohola probatu dutenen artetik hamar pertsonatik batek baino gehixeagok soilik probatu baitu adin horretara iritsi aurretik.

□

9. grafikoa. Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



□


□ Kontsumitzen hasteko batez besteko adinari dagokionez, sexuaren eta adin-taldearen araberrako alde horiek berretsi egin dute lehen esandakoa. Ikus daitekeenez, alkohola lehen

□

aldiz kontsumitzeko batez besteko adina gizonen artean (16,4 urte) ia urte eta erdi txikiagoa da emakumeen artean baino (17,8 urte); alabaina, adin-taldee dagokienez, batez besteko adina txikiagoa da 25-44 urtekoen artean (16 urte inguru), hortik gorakoen artean baino (16 urtetik gora). Izan ere, aztertu ditugun substantzia guztietan eta inkestaren fase guztietan bezalaxe, pertsonaren adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta beranduago hasi da kontsumitzen.

Nolanahi ere, eta bilakaerari dagokionez, alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina ia ez da aldatu azken bi urteotan: *Euskadi eta Drogak 2008* inkestaren arabera, hasteko batez besteko adina (17,3 urte) gaur egungoa baino soilik bi hamarren handiagoa zen. Are gehiago, 1996. urtetik aurrera —urte horretan bildu zen lehen aldiz datu hori— ez da aldaketa esanguratsurik gertatu adierazle horretan, denbora-serie osoan finko agertu da 17 urteren inguruan. Soilik 2002-2006 aldian, batez besteko adina 17 urtetik behera dago, baina betiere 16,7 urtetik gora. Gainera, egonkortasuna talde guztietan ikus daiteke; beraz, inkesta-serie honetan oinarrituta, behintzat, zera esan dezakegu, gaur egungo gazteak lehengo gazteak baino lehenago hasten direla alkohola kontsumitzen.

10. grafikoa. Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)



- Datu horien arabera, alkohola kontsumitzen hasteko adinaren aldagaia ez da izaten gizarteak uste duen bezain koitunturala (ez, behintzat, azken hamarkadatik hona), eta datuei erreparatuta, inolaz ere ezin dugu esan alkohola kontsumitzen hasteko adina etengabe aurreratzen ari denik gazteen artean. Gizartearen imaginarioan txertatutako ideia horiek alde batera utzita, *Euskadi eta Drogak* denbora-serieak agerian utzi du, alde batetik, azken hamabi urteotan gazteak adin berean edo antzekoan hasi direla alkohola erabiltzen, eta

bestetik, gizonen eta emakumeen arteko aldeei eutsi egin zaiela, alkoholaren erabileran hasteko batez besteko adinari dagokionez.

-
-


1.4. Kontsumoaren maiztasuna

1.4.1. Alkohol-kontsumoaren maiztasuna azken urtean: biztanleriaren % 21ek maiz edaten du

Azken 12 hilabeteetan euskal herritar gehienek alkohola kontsumitu dute —kontsumo-prebalentzia biztanleriaren % 77,1 izatera iritsi da Euskadin—, baina kontsumo-maiztasunarekin loturiko aldeei erreparatuta, gizartean dibertsitate handia dago: edari alkoholdunak hilean behin edo gutxiagotan kontsumitu dituztenak (% 19,7), edo hilean noizbehinkako kontsumoak izaten dituztenak (% 16,5), edo astean behin kontsumitzen dutenak (% 25,5), edo baita egunero ere (% 15,5). Maiztasun txikienetik handienera mailakatuta, hiru talde nagusi bereiziko ditugu: abstemioak edo ia abstemioak, hau da, alkoholik kontsumitu ez dutenak edo hilean egun batean edo gutxiagotan kontsumitu dutenak (% 42,2); noizbehinka edaten dutenak, hau da, noizean behin —alegia, astean egun 1 edo 2, edo hilean 2 edo 4 egun— kontsumitzen dutenak (% 36); eta, azkenik, ia egunero eta egunero edaten dutenak, hau da, astean 3 egun edo gehiagotan (% 21,5).

-

11. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera (%)



-
-


- Alkohola kontsumitzeko maiztasunak ba al du loturirik elkarrizketatutako pertsonen adinarekin edo sexuarekin? Euskadi eta Drogak seriearen fase honetatik ondorioztatutako datuek baietz adierazten dute. Eguneroko edo ia eguneroko kontsumoaren prebalentziari

-

erreparatuz gero, ikus dezakegu elkarrizketatua zenbat eta zaharragoa izan prebalentzia orduan eta handiagoa dela, eta nolahi ere, 30 urtetik beherakoen artean kontsumo-jarraibide hori oso gutxi hedatuta dagoela, 19 urtetik beherakoen artean ia ezdeusa izanik. 45 urtetik gorakoen artean soilik izaten da handia eguneroko edo ia eguneroko alkohol-kontsumoaren tasa, 54 urte bitarteko biztanle helduen laurden bat baino gehiago sartzen baita talde horretan, eta 55 urtetik gorakoen artean, heren bat baino gehiago. Sexuaren arabera, aldeak ere nabarmenak dira eta, oro har, kontsumo-jarraibide oso ezberdinak ikus daitezke gizonen eta emakumeen artean. Termino kuantitatibotan, edaten ez dutenen edo oso noizean behin edaten dutenen proportzioa 1,8 aldiz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino; aldiz, egunero edo ia egunero edaten dutenei dagokienez, gizonen kasuan proportzioa ia hiru aldiz handiagoa da.



12. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)




1.4.2. Alkohol-kontsumoaren maiztasuna azken hilabeteetan



□ Kapitulu honen hasieran aipatu dugunez, alkoholaren egungo kontsumo-tasa —hau da, inkesta egin aurreko 30 egunetan edari alkoholduen bat kontsumitu dutenen proportzioa— biztanleriaren % 65,3 da Euskadin. Biztanleriaren bi heren horietatik, ia erdiak dio hilean gehienez 5 egunetan kontsumitu duela (% 31,3), eta gainerakoak honela banatzen dira: ohiko moduan edaten dutenak, hau da, hilean 6-20 egun artean (% 17,5) eta 21 egunetan edo gehiagotan edaten dutenak, hau da, alkohola egunero edo ia egunero kontsumitzen dutenak (% 16,4).




13. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera (%)




Alkoholaren egungo kontsumo-maiztasuna aztertuz gero —azkenaldiko kontsumo-prebalentziaren eta alkoholaren erabilerarekin loturiko aldagai gehienek kasuan bezalaxe—, konturatuko gara lotura handia duela elkarrizketatutako pertsonen adinarekin eta sexuarekin. Are gehiago, adinaren kasuan, azken hilabeteetan alkohola kontsumitu dutenen taldean lotura estatistikoki esanguratsua dago pertsona horien adinaren eta edari alkoholodunak kontsumitutako egun kopuruaren artean. Horren ondorioz, zera esan dezakegu, alkohola egunero edo ia egunero kontsumitzea kontsumo-jarraibide esanguratsua dela, batik bat, 55 urtetik gorakoek artean; izan ere, adin-tarte horretatik aurrera hamar lagunetik hiruk baino gehiagok jarraitzen diote jarraibide horri. Halaber, alkohola maiztasun txikienez —hilean egun batetik bost egunera bitarte— kontsumitzen dutenen artean kontrakoa gertatzen da, gazteak baitira nagusi: izan ere, 15-29 urtekoen artean % 43k maiztasun horrekin erabiltzen du alkohola.

14. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den maiztasunaren arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)



Elkarrizketatutakoen sexuari dagokionez, aldeak ere nabariak dira. Emakumeen artean egungo kontsumoaren prebalentzia (% 55,2) gizonena baino askoz ere txikiagoa izateaz gain (% 75,4), azken hilabetean edari alkoholduen bat edaten dutenak soilik kontuan izanez gero, emakumeek batez beste egun gutxiagotan kontsumitzen dute (8,3 egun, eta gizonak 13,6 egun).

15. grafikoa. Azken 30 egunetan alkohola kontsumitu den batez besteko egunen banaketa azken hilabetean alkohola kontsumitu dutenen artean, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



1.5. Kontsumitutako alkohol kantitatea

□ 1992. urtetik, Euskadi eta Drogak txostenek oro har sistema berbera erabili dute biztanleria kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera sailkatzeko. Erabilitako prozedura da lanegunetan egindako kontsumoak (astelehenetik ostegunera bitarte) eta asteburuan egindakoak bereiztea (ostiraletik igandera bitarte), erreferentzia gisa hartuta

inkesta egin aurreko 30 egunetan egindako alkohol-kontsumoa, eta kontsumitutako kantitatetat hartuta inkestatutako pertsonak batez besteko edo ereduako egun batekin lotzen duena. Edari alkoholdun guztiek alkohol kantitate berbera ez dutela aintzat hartuta, kalkulurako oinarri gisa hartzen da edari guztiek 10°ko ardoarekin duten baliokidetasuna. Guztizko kontsumoak kalkulatu ondoren, honako kategoria hauen arabera sailkatzen da biztanleria:

□

- Abstemia: azken 30 egunetan alkoholik kontsumitu ez duen pertsona.
- Ia abstemia: batez besteko egun batean 10°ko ardoaren 300 cc-tik beherako kantitate baliokidea (24 g alkohol baino gutxiago) edaten duena.
- Gutxi edaten duena: batez besteko egun batean 10°ko ardoaren 301-800 cc-ko kantitate baliokidea (24-64 g alkohol) kontsumitzen duen pertsona.
- Gehiegi edaten duena: batez besteko egun batean 10°ko ardoaren 801-1.500 cc edo horren baliokidea beste alkoholdun edari batean edaten duena (65-120 g alkohol).
- Arriskuaren barruko edalea: batez besteko egun batean 10°ko ardoaren 1.500 cc-tik gorako kantitate baliokidea (120 g alkohol baino gehiago) edaten duen pertsona.

□

Alkohol-kontsumoa neurtzeko eta horren arabera biztanleria sailkatzeko orain arte erabili den metodoari esker Euskadiren txosten-seriea denborari dagokionez estatu osoko zabalena bada ere, ezin dira ahaztu eskala horren muga jakin batzuk, horietako gehienak aurreko txostenetan aipatuak eta ezagunak. Horien artean, honako hiru hauek azpimarra daitezke:

- Kontsumitutako alkohol kantitatea zehazteko metodo gisa ereduako edo batez besteko egunak erabiltzea sinpleegia dirudi, eta, egun guztietan –lanegunak nahiz asteburuko egunak– antzeko kontsumoa egiten den kasuetarako egokia izan daitezkeen arren, ez da egokia kontsumoa desberdina edo aldizkakoa den kasuetan.
- Erabilitako terminologiak kontsumitutako alkohol kantitatea gutxiesten du, batez ere erdiko kategorien kasuan (ia abstemiaok eta gutxi edaten dutenak). Horren ildotik, ez dirudi oso egokia denik ia abstemiotzat jotzea batez besteko egun batean 1-3 kaña kontsumitzen duten pertsonak, eta, are gehiago, ez da batere egokia ardo botila oso bat edatera iritsi daitezkeenak gutxi edaten dutela esatea.
- Sexu bakoitzerako atalase desberdinak ez ezartzea, betiere alkohola kontsumitzeko organismoaren tolerantziari dagokionez sexuaren ikuspegitik aldeak daudela aintzat hartuta.

□


Horregatik, kapitulu honetan dagoeneko egin zenez, Euskadi eta Drogak txostenetan erabilitako sailkapen arrunta beste sailkapen batekin osatu da, egungo egoera eta horren bilakaera beste ikuspuntu batetik aztertzeko aukera ematen duena.

1.5.1. Alkoholen kontsumoa lanegunetan

□

- *Euskadi eta Drogak 2010* txosteneko datuek adierazten dute zer neurritaraino har daitekeen lanegunetako alkohol kontsumoa euskal biztanlerian nahiko gutxi hedatutako kontsumo-jarraibidetzat, batez ere asteburuetan egiten den kontsumoarekin konparatzen bada. Inkestako datuen arabera, euskal biztanleriaren ia hiru laurdenak (% 74,1) ez du alkoholik kontsumitzen astelehenetik ostegunera bitarte, hau da, duela bi urte baino ehuneko 6,9 puntu gehiago; zifra horrek laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieraz geroztik lanegunetako kontsumo-tasa baxuenean kokatu du Euskadi 2010ean. Lanegunetan egindako kontsumoari dagokionez, esan daiteke maila oso neurritsuetan mantentzen dela: astean zehar edaten dutenen kasuan, inkestatutako biztanleriaren % 19,2 har daiteke abstemiotzat kontsumitutako alkohol kantitateari dagokionez, % 5,2k gutxi edaten duela esan daiteke, eta gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumo bati buruz hitz egin daiteke soilik biztanleriaren % 1,5aren kasuan, hau da, 24.300 lagun inguru.

16. grafikoa. Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)




- Adin-taldeen arabera alderatuz, lanegunetako abstemioen proportziorik handiena biztanleria gazteenean ikusten da, eta proportzioa argi eta garbi murrizten da elkarrizketatutako pertsonen adina handitzen den heinean. Era berean, gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoari dagokionez, adierazi behar da tasa askoz handiagoa dela

□


gizonen artean (% 2,5, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 0,4), eta, batez ere, 55-64 urteko biztanleen artean. Izan ere, azken adin-tarte horretan tasa % 2,7an kokatzen da, eta ia bikoiztu egiten du biztanleria osoaren tasa.

17. grafikoa. Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



Ba al dago harreman motaren bat azken hilabeteke eguneko kontsumo-maiztasunaren eta kontsumitutako alkohol kantitatearen artean? Edo, bestela esanda, esan al daiteke eguneroko kontsumo-jarraibideak dituztenak direla batez beste alkohol kantitate handiena kontsumitzen dutenak? *Euskadi eta Drogak 2010* txosteneko datuek horren inguruan adierazten dutenez, lanegunetan gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoaren prebalentzia alkohola egunero kontsumitzen dutenen artean handiagoa dela egia bada ere (% 6,5, aitzitik, biztanleria osoaren % 1,5), ezin da ondorioztatu pertsona horiek egiten duten kontsumoa oro har problematikoa denik. Are gehiago, eguneroko kontsumo-jarraibidea normalean otorduekin lotzen duten pertsona gehienek alkoholaren neurritzko erabilera-patroiak dituzte: izan ere, *Euskadi eta Drogak* txosten-sericaren hasieratik erabili den sailkapenari jarraitzen badiogu, egunero edaten dutenen % 68,1 ia abstemia dira, eta % 25,5 gutxi edaten dutenak.


18. grafikoa. Biztanleriaren banaketa lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, eta kontsumo-egunen kopuruaren arabera (%)



1.5.2. Asteburuko kontsumoa


Biztanleriaren banaketa oso desberdina da asteburuetako edari alkoholdunen kontsumoaren arabera edo lanegunetako kontsumoaren arabera egiten bada. Abstemioen kopurua erdira murrizten da, hau da, guztizko biztanleriaren % 74,1etik % 37,4ra, eta gainerako biztanleriak adierazten du neurri handiagoan edo txikiagoan kontsumitzen duela alkohola. Azken horien artean, kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera ia abstemio gisa eta gutxi edaten duena gisa sailkatutako pertsonen proportzioa biztanleriaren % 31,4 eta % 21,5 da, hurrenez hurren, eta gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa dutenen proportzioa –lanegunetan biztanleriaren % 1,5 bakarrik zegoen egoera horretan–, aldiz, biztanleriaren % 9,6ra iristen da astean zehar.

19. grafikoa. Biztanleriaren banaketa asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)



Zer neurritan daude erlazionatuta lanegunetako kontsumoa eta asteburuetako kontsumoa? Euskal biztanleriaren % 25,9k bakarrik kontsumitzen du alkohola lanegunetan, baina asteburuetan alkohola neurri txikiagoan edo handiagoan edaten dutenen proportzioa herritarren % 62,6raino iristen da. Datu horiek esan nahi dute lanegunetan alkoholik edaten ez duen biztanleriaren zati handi batek –zehazki % 50,8– edari alkoholdunak kontsumitzen dituela asteburuetan, eta horrek adierazten digu zer neurriraino dagoen hedatua gure gizartean ‘jaieguneko’ alkohol-kontsumoa (hau da, asteburuetan bakarrik edaten dutenak). Ikuspegi horretan oinarrituta, baieztatu daiteke, biztanleria abstemioa alde batera utzita, hau da, lanegunetan nahiz asteburuetan alkoholik edaten ez dutenak alde batera utzita –biztanleriaren % 36,4–, alkohola asteburuetan soilik kontsumitzen dutenen proportzioa biztanleriaren heren bat pasatxo dela (% 37,7), aste osoan zehar alkohola kontsumitzen dutenen proportzioa (% 24,8) eta, batez ere, alkohola soilik lanegunetan kontsumitzen dutenena nabarmen gaituz (% 1,1).

20. grafikoa. Biztanleriaren banaketa lanegunetan eta asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera (%)




Lanegunetako eta asteburuetako alkohol-kontsumoen arteko aldeak ez dira mugatzen soilik kontsumoaren hedadurari, ikusi dugunez handiagoa dena jaiegunetan; izan ere, kontsumitutako alkohol kantitatea eta substantzia hori kontsumitzen dutenen profil soziologikoa ere hartzen dituzte eraginpean. Horren ildotik, asteburuen kasuan lanegunetan ikusitakoaren ia kontrakoa gertatzen da, hain zuzen ere, oro har, abstemioen eta ia abstemioen ehuneko txikiena biztanleria gazteenaren artean ikusten baita, funtsean 20 urtetik gorakoaren artean, eta alkohola modu problematikoa kontsumitzen dutenen ehunekoia, aldiz, handiagoa da talde horretan. Hori guztia aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke eguneroko kontsumoa helduenen adin-taldeei hertsiki lotuta dagoen bitartean, nagusiki asteburuetan egiten den kontsumo intentsiboagoa eta aldizkakoagoa, aldiz, gazteengan gehiengoa ez bada ere, horien artean zabaldua dago batez ere.

Horren ildotik, azpimarratu behar da 15-29 urteko biztanleriaren kasuan bereziki handia dela kantitatearen arabera problematiko gisa defini daitekeen kontsumoaren prebalentzia, hain zuzen ere adin-tarte horretan gehiegizko edo arriskuaren barruko edaleen kopurua biztanleriaren % 22,4raino iristen baita.

Sexuari dagokionez ere, alde nabarmenak ikusten dira kontsumoari eta asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitateari dagokionez. Emakumeen artean abstemioen proportzioa (% 48,1) gizonen artean ikusitakoaren ia bikoitza da (% 26,8), eta, arriskuaren barruko eta gehiegizko alkohol-kontsumoari dagokionez, aldiz, gizonen tasak (% 12,8) emakumeena bikoizten du (% 6,5).


21. grafikoa. Biztanleriaren banaketa asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



1.5.3. Kontsumitutako kantitateen eta kontsumo-egunen bilakaera


Bilakaerari dagokionez, lanegunetako kontsumoari buruzko gaur egungo datuek adierazten dute hazkunde handia izan dela abstemioen biztanlerian duela bi urteko datuekin alderatuta, izan ere horien proportzioa % 67,2tik % 74,1era igo baita. Joera bat ezartzeko oraindik goiz den arren, eta, bestalde, nahiko egonkorra den serie baten barruan egonik, 2008ko zifratik ehuneko 8 puntu gorago kokatutako zifra horrek azken hamar urteetako tasarik altuena adierazten du, baita azken hemezortzi urteetako bigarren altuena ere. Gainerakoan, ia abstemioen (% 22,2tik % 19,2ra), gutxi edaten dutenen (% 8,7tik % 5,2ra) eta gehiegizko eta arriskuaren barruko edaleen (% 2tik % 2,5era) ehunekoa murriztu egin da.

22. grafikoa. Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)




Gizonen eta emakumeen arteko aldeei dagokienez, adierazi behar da abstemioen proportzioa gehiago handitu dela gizonen artean –lanegunetan ezer edaten ez duten gizonen ehuneko % 55,3tik % 64ra igo da–, baina emakumeena ere handitu egin da (% 84,2), eta gizonena baino askoz handiagoa da oraindik. Adin-taldean arabera ere abstemioen proportzioaren hazkunde pixka bat handiagoa ikus daiteke gazteen artean –15etik 34 urtera bitarteko lagunen artean proportzioa ehuneko hamar puntu baino gehiago handitu da–; hala ere, 35-74 urteko lagunen kasuan erregistratutako tasa da serie osoko tasarik altuena. Problematikotzat jo daitezkeen kontsumoei dagokienez, 2010eko datuek, biztanle helduen artean gehiegizko eta arriskuaren barruko edaleen proportzioaren beherakada txiki batekin batera, hazkunde txiki bat adierazten dute biztanle gazteen artean.

23. grafikoa. Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-talde handietan banatuta (%)




24. grafikoa. Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Lanegunetan egiten den alkohol-kontsumoa ia aldatu ez bada ere, azken hemezortzi urteetan trinkotasun handia erakutsiz, asteburuetakoko alkohol-kontsumoak eraldaketa handiagoa izan du, hain zuzen ere abstemioen proportzioa pixkanaka murriztu egin baita: 1992tik 2010era bitarte, asteburuetakoko abstemioen proportzioa ehuneko ia hogeita hamar murriztu da, % 57tik % 37ra jaitsiz. Azken hori serie osoko joera argiena badirudi ere, epe laburragoan, ezin da alde batera utzi abstemioen proportzioak azken bi urteetan izan duen ehuneko bost puntuko hazkundera, izan ere % 32,6tik % 37,4ra igo baita; gainera, asteburuetakoko abstemioen ehunekoak azken hamarkadan izan duen lehenengo hazkundera izan da hori. Hazkunde hori gorabehera, ia abstemioen, gutxi edaten dutenen eta, batez ere, kontsumo handiena adierazten dutenen proportzioa murriztu egin da. Gehiegizko eta arriskuaren barruko edaleen ehunekoa % 13,7tik % 9,7ra murriztu da, eta ondorengo hirugarren urtea da jaisten dela. Hortaz, ondoriozta daiteke kantitate handiagoan edaten dutenen proportzioa asteburuetan murrizteko joera argia dagoela. 2004. urtean gehiegizko eta arriskuaren barruko edaleen proportzioa historiako zifra handienara iritsi zen (% 17,4), eta urte horretatik gaur egun arte, ehuneko hori ia zortzi puntu murriztu da.

25. grafikoa. Asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)




Bilakaerari dagokionez, adinaren eta sexuaren arabera aldeen ere datu interesgarriak eman dituzte alkoholaren asteburuetakoko kontsumoari dagokionez. Lortutako datuen arabera, baieztatu daiteke 2008arekin alderatuta abstentzioaren proportzioan izandako hazkundera funtsean gazteen abstinentzia handiago baten ondorio dela, eta ez hainbeste helduen abstinentziaren ondorio. Hain zuzen ere, gazteen kasuan ehuneko hori % 18,8tik % 38,9ra igo bada ere, 35-74 urteko pertsonen kasuan % 34,6tik % 36,8ra igo da bakarrik. Adinaren arabera aldeen jarraituta, azken bi urteetan arriskuaren barruko eta gehiegizko kontsumoa ere pixka bat gehiago murriztu da helduen artean gazteen artean baino.

26. grafikoa. Asteburuetakoko kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-talde handietan banatua (%)




27. grafikoa. Lanegunetan eta asteburuetakoko kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)



Sexuaren arabera aldeei dagokienez ere, azken bi urteetan abstemioen proportzioaren hazkunde erlatibo handiagoa ikusten da gizonen artean, baina emakumeena gizonena baino askoz txikiagoa da oraindik ere; era berean, erabilera problematikoak dituztenen proportzioan beherakada nabarmena ikusi da, eta horren kasuan ere gizonena handiagoa da. Horren ildotik, baieztatu daiteke 2004tik gaur egun arte asteburuetan gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoak dituzten gizonen proportzioa bitan zatitu da, eta % 24,8tik % 12,5era murriztu da 2010. urtean.

28. grafikoa. Lanegunetan eta asteburuetan kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera egindako biztanleriaren banaketaren bilakaera (%)



Era berean, kontsumitutako kantitateaz haratago, eta kontsumo-egunei buruzko datuak aintzat hartuta, joera oso garrantzitsu bat adieraz daiteke alkoholaren kontsumo-jarraibideei dagokienez. Hain zuzen ere, grafikoa ikus daitekeenez, 1992az geroztik, aste osoan zehar alkohola edaten dutenen proportzioa eta soilik lanegunetan egiten dutenena ia ez dira aldatu. Hala ere, hemezortzi urte hauetan, abstemioen kopuruan izandako beherakada harrigarri batekin batera –biztanleriaren % 57 izatetik heren bat pasatxora jaitsi da–, alkohol-kontsumo guztiak asteburuan metatzen dituztenen ehunekoaren hazkunde oso nabarmena gertatu da.

1.5.4. Sailkapen alternatibo bat

Euskadi eta Drogak txostenean neurketak eta sailkapenak egiteko normalean erabilitako sistemari esker, gure inguruko kontsumo-serierik osatuenetako bat daukagun arren, muga batzuk ditu, arestian esan dugunez. Horien artean, garrantzitsuenak honako hauekin daude lotuak: alde batetik, kontsumitutako kantitateak irizpide ez oso zehatz baten bitartez zehaztearekin, hain zuzen ere ereduazko edo batez besteko egun bat erabiltzen baita, eta, bestetik, kontsumoaren erdiko kategoriak zehazteko sailkapen nahiko biguna diseinatzearekin. Era berean, adierazi beharra dago neurri berberak erabiltzen direla gizonen eta emakumeen kontsumoak neurtzeko.

Atal horretan bi gauza egin nahi dira funtsean. Alde batetik, balioestea, beste metodologia batzuekin konparatuta, *Euskadi eta Drogak* txostenak normalean erabiltzen duen metodoa zer neurritan izan daitekeen baliagarria, eta, bestetik, beste sailkapen bat proposatzea Euskadiko kontsumoen egoera beste parametro batzuen arabera deskribatzeko, agian egungo egoerari hobeto egokitutako parametroen arabera.

Horretarako, Drogei buruzko Plan Nazionalerako Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzaren Batzorde Klinikoak alkoholari buruzko txosten monografiko batean proposatzen zuen sailkapena erabili da, arrisku-maila jakin batzuen ezarpenean oinarrituta, Edari Unitate Estandarren (EUE) asteko kontsumoa erabiliz, edo, ardo-edalontzi baten edo kaña baten baliokidetzat jotzen dena erabiliz⁵. Sailkapen hori 2008ko txostenean ere erabili zen, eta lau taldetan banatzen ditu biztanleak, horien kontsumoei esleitutako arriskuaren arabera: abstemioak, arrisku baxuko edaleak, arrisku ertaineko edaleak, eta arrisku altuko edaleak. Era berean, arrisku-muga desberdinak ezartzen dira gizonentzat eta emakumeentzat, eta kontsumoa zenbatzeko neurri gisa ez da hartzen batez besteko egun batean edandakoa, baizik eta aste oso batean kontsumitutakoa⁶. Txosten horretatik ateratako sailkapena hurrengo taulan ikus daiteke. Hasiera batean ez zegoen bereizketarik lanegunetako eta asteburuetako kontsumoen artean, baina oraingo honetan bereizketa horiek egin dira emaitzak Euskadi eta Drogak inkestaren betiko sailkapenaren emaitzekin konparatzeko.

2. taula. Kontsumitutako alkohol kantitateen arabeko arrisku-mailak

⁵ Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzaren Batzorde Klinikoak (2007). *Alcohol*, seriea: Batzorde Klinikoaren Txostenak. Madril: Osasun eta Kontsumo Ministerioa.

⁶ Kalkulu hori ez litzateke posiblea izango *Euskadi eta Drogak* inkestan batez besteko egun batean kontsumitutako kantitateari buruzko ohiko galderarekin. Hala ere, duela bi urte galdesortan beste galdera bat eranstea erabaki zen, edari alkoholodunen kontsumoari buruz eta inkesta egin aurreko azken hilabetearen egindako erabileraren maiztasunari buruz. Betiko metodoarekin kontsumitutako alkohol kantitatea soilik batez besteko edo ereduazko egun batean kontsumitutakoaren bitartez zehaztu zitekeela aintzat hartuta, galde berri horren asmoa zen azken 30 egunetako benetako kontsumora askoz gehiago egokitutako neurri bat lortzea; izan ere, edari alkoholodun bakoitzarentzat, asteko kontsumoaren maiztasun zehatzari buruz galdetzen zen.

		Gizonak	Emakumeak
Guztira	Arrisku baxua	<17 EUE asteen	<11 EUE asteen
	Arrisku ertaina	≥17 - <28 EUE asteen	≥11 - <17 EUE asteen
	Arrisku altua	≥28 EUE asteen	≥17 EUE asteen
Lanegunak (Astelchenetik ostegunera)	Arrisku baxua	<9,7 EUE asteen	<6,3 EUE asteen
	Arrisku ertaina	≥9,7 - <16 EUE asteen	≥6,3 - <9,7 EUE asteen
	Arrisku altua	≥16 EUE asteen	≥9,7 EUE asteen
Asteburuak (ostiraletik igandera)	Arrisku baxua	<7,3 EUE asteen	<4,7 EUE asteen
	Arrisku ertaina	≥7,3 - <12 EUE asteen	≥4,7 - <7,3 EUE asteen
	Arrisku altua	≥12 EUE asteen	≥7,3 EUE asteen

Iturria: Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzaren Batzorde Klinikoak egindako *Alcohol* txostenean oinarrituta landua.

Sailkapen hori inkestan lortutako emaitzei aplikatuta, eta, bestalde, Euskadi eta Drogak txostenetan erabili ohi den edari alkoholunen baliokidetasun-eskala aldatu gabe erabiliz, honako hau lortzen da laburbilduta:

3. taula. Biztanleriaren banaketa alkohol-kontsumoko arrisku-mailen arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta

		Adin-taldeak		Sexua		Guztira
		15-34	35-74	Gizonak	Emakumeak	
Lanegunak	Abstemioa	86,9	68,5	64,0	84,2	74,1
	Arrisku baxua	9,4	20,7	23,9	10,6	17,2
	Arrisku ertaina	1,9	5,3	5,8	2,8	4,3
	Arrisku altua	1,8	5,5	6,4	2,3	4,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Asteburuak	Abstemioa	38,9	36,8	26,8	48,1	37,4
	Arrisku baxua	33,8	41,8	44,2	34,5	39,3
	Arrisku ertaina	10,4	10,6	14,9	6,3	10,6
	Arrisku altua	16,9	10,8	14,2	11,1	12,7


	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Astean guztira	Abstemioa	38,5	35,4	26,1	46,6	36,4
	Arrisku baxua	47,4	50,4	55,5	43,5	49,5
	Arrisku ertaina	7,3	7,5	10,4	4,6	7,5
	Arrisku altua	6,8	6,7	8,1	5,3	6,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Sailkapen horren arabera, asteko guztizko kontsumoa begiratzen badugu (lanegunak nahiz asteburuak), Euskadin % 36,4 abstemioa izango litzateke, eta, kontsumitutako kantitatearen arabera, % 49,5ek arrisku baxuko kontsumo gisa kalifika litekeen kontsumoa egiten du. Horretaz gain, biztanleriaren % 7,5 arrisku ertaineko kategorian sartuko litzateke, eta, kontsumitutako alkohol kantitatearen arabera, % 6,7 une honetan arrisku altuko egoeran egongo litzateke. Horrek esan nahi du gizonen % 8,1ek eta emakumeen % 5,3k astean 28 edo gehiago Edari Unitate Estandar (EUE) eta 17 edo gehiago kontsumitzen dituztela, hurrenez hurren. Asteko guztizko zenbaketa kontuan hartuta, ia ez litzateke alderik izango horri dagokionez gazteen (% 6,8) eta helduen (% 6,7) artean, baina aintzat hartu behar da sailkapen horrek ez duela kontuan hartzen kontsumoaren metaketa denboran. Hau da, badakigu gazteek beren kontsumoa asteburuetan metatzeko joera dutela, eta helduen kasuan, aldiz, ohikoagoa da eguneroko eta, beraz, astean zehar hobeto banatutako kontsumo-jarraibideak ikustea.

Lanegunetan eta asteburuetan bereizitako kontsumoa begiratzen badugu, arestian adierazitako egoera nabarmen aldatzen da. Lanegunetan kontsumitutako alkohol kantitatean oinarrituta, 35-74 urteko pertsonen artean % 5,5 arrisku altuko edaletzat jo daiteke, eta 15-34 urtekoen kasuan, aldiz, % 1,8 bakarrik. Bestalde, asteburuetan arrisku altuko kontsumo-tasa askoz handiagoa da gazteen kasuan (% 16,9, eta helduen kasuan, aldiz, % 10,8). Sexuen arabera, eta arrisku altuko edaleen taldearekin jarraituz, era berean, ikus daiteke aldeak zertxobait handiagoak direla lanegunetan (gizonen % 6,4, eta emakumeen % 2,3) asteburuetan baino (% 14,2 eta % 11,1, hurrenez hurren).

Hurrengo grafikoak lanegunetako kontsumoari dagokionez sailkapen honen eta Euskadi eta Drogak seriearen hasieratik erabili den sailkapenaren artean ikus daitezkeen aldeak adierazten ditu. Horretarako, eta konparaketa errazte aldera, honako kategoria hauen baliokidetasuna erabaki da: ia abstemioak eta arrisku baxuko kontsumoa, gutxi edaten dutenak eta arrisku ertainekoa, eta gehiegi eta arriskuaren barruan edaten dutenak eta DPNrako Gobernuaren Ordezkaritzaren Batzorde Klinikoak proposatutako sailkapenean arrisku altukotzat hartzen dena.


29. grafikoa. Lanegunetako alkohol kontsumoaren arabera biztanleriaren sailkapenaren konparaketa (%)



Egindako konparaketan lortutako datuak aztertzen badira, esan daiteke oro har nahiko antzeko egoera adierazten dutela. Aldeak muturreko bi kategorietan ikusten dira nagusiki, hain zuzen ere DPNaren esparruan proposatutako sailkapenak arrisku-tasa handiagoak adierazten baititu kasu guztietan. Adibidez, *Euskadi eta Drogak* txostenaren arabera arriskuaren barruan eta gehiegi kontsumitzen dutenen proportzioa % 1,5 da, eta DPNaren sailkapenak % 4,4an kokatuko luke arrisku altuko alkohol-kontsumoa duten pertsonen proportzioa. Horren arrazoia da arestian adierazi duguna, *Euskadi eta Drogak* txosteneko sailkapena kontsumoak ebaluatzean nahiko laxoa dela esan dugunean.

Era berean, ikus daitekeenez, Euskadi eta Drogak txosteneko sailkapenean gehiegi eta arriskuaren barruan edaten dutenek ia proportzio berbera dute gazteen artean (% 1,2) eta helduen artean (% 1,5), eta beste sailkapenean, aldiz, bi taldeen arteko aldeak nabariak dira. Horren arabera, lanegunetan gazteen % 1,8k eta helduen % 5,5ek izango luke arrisku altuko kontsumoa. Horren ildotik, pentsa daiteke, helduek gazteek baino maiztasun handiagoarekin kontsumitzen dutela aintzat hartuta, *Euskadi eta Drogak* txosteneko sailkapenean erabilitako metodologiak, batez besteko egun batean egindako kontsumoan oinarritzen denez gero, multzo berean sartzen dituela noizean behin kontsumitzen dutenak eta egunero egiten dutenak.

30. grafikoa. Asteburuetako alkohol kontsumoaren arabera biztanleriaren sailkapenaren konparaketa (%)




Bi sailkapenen arteko aldeak pixka bat handiagoak dira biztanleria asteburuetakoko kontsumoaren arabera aztertzen denean. Abstemiaok alde batera utzita, kasu horretan bi sailkapenen arteko aldeak nabariak dira adierazitako hiru arrisku-kategorietan. Arrisku altuko kontsumoari dagokionez, DPNaren sailkapenak ematen duen prebalentzia ere (% 12,7) handiagoa da Euskadi eta Drogak txostenekoa baino (% 9,7), baina gazteen eta helduen arteko aldeak txikiagoak dira azken kasu horretan baino. Euskadi eta Drogak txosteneko sailkapenean gehiegizko eta arriskuaren barruko kontsumoak dituzten gazteen eta helduen proportzioa % 19,4 eta % 5,4 izan da, hurrenez hurren, eta DPNaren sailkapenak ematen dituen proportzioak, aldiz, % 16,9 eta % 10,8 dira, hurrenez hurren. Hau da, kasu horretan Euskadi eta Drogak txosteneko sailkapenaren gainbalioespen bati buruz hitz egingo genuke asteburuetan asko kontsumitzen duten gazteei dagokienez. Bestalde, eta kontuan hartuta DPNaren metodologiak modu desberdinean zenbatzen dituela kantitateak kontsumitzaileen sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ere txikiagoak izango lirateke DPNaren sailkapenean. Horren ildotik, sailkapen horren arabera gizonen % 14,2k eta emakumeen % 11,1ek egiten dituzten arrisku altuko kontsumoak asteburuetan, eta *Euskadi eta Drogak* txosteneko sailkapenaren arabera, aldiz, tasa hori gizonen eta emakumeen % 12,8an eta % 6,5ean kokatzen da, hurrenez hurren.

Beste neurketa-sistema horren analisia amaitzeko, eta bilakaerari begiratuta, adierazi behar da, asteko kontsumo osoa kontuan hartzen bada, 2008-2010 aldian abstemioen ehunekoa egonkor mantendu dela, eta arrisku baxuko edaleen ehunekoa pixka bat murriztu dela. Arrisku apaleko edaleen proportzioa % 8,5etik % 7,5era jaitsi da, eta arrisku altukoaren proportzioa, aldiz, % 5,7tik % 6,7ra igo da.

1.6. Kontsumitutako edari motak

Euskal biztanleriak lanegunetan eta asteburuetan kontsumitzen duen alkohol kantitatearen analisiak, arestian adierazi dugunez, asteburuetan kontsumo hedatuagoa adierazteaz gain, jaiegunetan kontsumo handiagoa ere adierazten du. Hortaz, argi dago lanegunetan nagusitzen diren kontsumo-jarraibideen eta asteburuetan nagusitzen direnen arteko bereizketa bat gertatu dela. Asteko une batean edo bestean kontsumitzen diren edari motek ere horixe adierazten dute. Izan ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, asteburuetan alkohol gehiago kontsumitzeaz gain, edari alkoholodunen sorta handiago bat kontsumitzen da, eta, are gehiago, gehien kontsumitutako edari mota ere aldatu egiten da. Izan ere, lanegunetan ardoa kontsumitzen da nagusiki, eta asteburuetan, aldiz, garagardoa.

31. grafikoa. Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, edari alkoholodunen kontsumoko prebalentziak (%)



Adin-taldeen araberako aldeak lanegunetan nahiz asteburuetan ikusten dira. Astelehenetik ostegunera bitarte edari nagusia ardoa da, biztanleriaren % 18,9k kontsumitzen baitu, eta, horren atzetik garagardoa dago, % 11,6ko kontsumo-tasarekin. Hala ere, ardo-kontsumoa soilik helduen artean da esanguratsua, gazteen artean oso gutxi edaten baita, baina garagardoaren kontsumoa ia berbera da bi taldeetan. Asteburuen kasuan, dagoeneko adierazi dugunez, garagardoak lekua kentzen dio ardoari gehien kontsumitutako edari gisa, baina bere irismena ez da berdina kasu guztietan. Gazteen % 40ek baino gehiagok kontsumitzen dut, eta 35 urtetik gorakoek heren batek baino pixka bat gehiagok. Ardoaren kasuan, aldeak are nabariagoak dira: asteburuetan gazteen % 11,8k bakarrik kontsumitzen du edari hori, aitzitik,


35-74 urtekoen hamarretik lauk. Era berean, likoreen kasuan, eta, batez ere, konbinatuen eta kalimotxoaren kasuan, gazteen taldea nagusitzen da kontsumitzaile handiena gisa, eta bermutaren kasuan, aldiz, adin gehiagoko pertsonak kontsumitzen dute nagusiki.

4. taula. Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, alkoholdun edarien kontsumoko prebalentziak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)


	Guztira	Adina		Sexua	
		15-34	35-74	Gizonak	Emakumeak
Lanegunak					
Ardoa / Xanpaina	18,9	4,5	25,3	25,6	12,3
Garagardoa	11,6	11,0	11,9	17,6	5,6
Bermuta	0,2	0,2	0,1	0,2	0,1
Fruta Likoreak	0,7	0,3	0,9	1,2	0,3
Graduazio altuko likoreak	0,3	0,3	0,3	0,6	0
Konbinatuak	0,4	0,8	0,3	0,5	0,4
Kalimotxoa	0,7	1,3	0,5	0,8	0,6
Asteburuak					
Ardoa / Xanpaina	31,7	11,8	40,4	37,9	25,5
Garagardoa	37,4	42,4	35,2	47,8	27
Bermuta	3,3	1,9	4,0	2,3	4,4
Fruta Likoreak	5,5	9,4	3,8	6,6	4,4
Graduazio altuko likoreak	3,7	5,3	3,0	5	2,4
Konbinatuak	15	31,5	7,8	17,6	12,5
Kalimotxoa	7,3	16,7	3,1	7,2	7,3

Era berean, azpimarratzekoak dira gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak kontsumitutako edari motei dagokienez. Horren ildotik, esan daiteke, oro har, lanegunetan nahiz asteburuetan, kontsumitzaileen proportzioa handiagoa dela gizonen artean, edari mota guztien kasuan, betiere asteburuetakako bermutaren kasuan izan ezik.

32. grafikoa. Azken 30 egunetan, lanegunetan, alkoholdun edari nagusien kontsumoko prebalentziak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



33. grafikoa. Azken 30 egunetan, asteburuetan, alkoholdun edari nagusien kontsumoko prebalentziak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



Adin-taldean eta sexuen arabera xehatutako edari moten analisi batek adierazten duenez, belaunaldien eta generoen arabera bereizitako jarraibideak daude kontsumitutako edari alkoholdun motei dagokienez. Lanegunei dagokienez, edari alkoholdunak kontsumitzen dituzten gazte gutxiago daude, baina kontsumitzen dutenek garagardoa edaten dute nagusiki eta, neurri txikiagoan, ardoa. Hori gertatzen da 15-44 urteko biztanleriaren kasuan. 45 urtetik aurrera, eta, batez ere, gizonen kasuan, ardoaren kontsumoa askoz ere zabalagoa egiten da biztanleriaren barruan, eta garagardoaren kontsumoa, aldiz, gutxitu egiten da.

Asteburuetan bi edari horien kontsumoari dagokionez, nahiko antzeko joera ikusten da, goranzkoa pixkanaka ardoaren kasuan, eta gazteen artean metatzeko joera garagardoaren kasuan. Kasu horretan, aldiz, lanegunetan ikusitakoa ez bezala, beste edari batzuen

kontsumoak garrantzi handiagoa hartzen du, batez ere biztanleria gazteenaren artean, eta bereziki konbinatuen edo kubaten eta, oro har, likoreen kontsumoak. Zentzu horretan adierazgarria izan daiteke honako analisi hau: ardoaren kasuan, asteburuetan kontsumitzen dutenen batez besteko adina 52,1 urtera iristen da, eta garagardoaren kasuan, 40,2 urtera, eta asteburuetan likoreak edo konbinatuak edaten dituztenen batez besteko adina 38,5 eta 32,4 urtera jaisten da, hurrenez hurren.

1.6.1. Kontsumitutako edari moten bilakaera

Edari alkoholduen moten kontsumoak izan duen bilakaerari buruz *Euskadi eta Drogak* serie osoan bildutako datuek berretsi egiten dute edari-patroien aldaketari buruz beste azterlan askok jada adierazi dutena. Azterlan horien arabera, gure gizartean ardoaren nagusitasunak edari mota gisa, kontsumo mota tradizional bati lotua, lekua utzi dio pixkanaka beste edari batzuen kontsumoari, batez ere garagardoari, baina baita beste edari mota batzuei ere, hala nola konbinatuei, nagusiki (baina ez bakarrik) gaueko aisialdiko inguruneekin lotuak. Hain zuzen ere, ardoa kontsumitzen dutenen proportzioan izandako bilakaera aztertzen bada, ikus daitekeenez, lanegunen kasuan proportzioa ehuneko ia bost puntu murriztu da azken hemezortzi urteetan, hau da, garagardoak aldi berean irabazi dituen puntuen kopuru berbera.

Asteburuei dagokienez, berez beherakada bati buruz hitz egin ezin bada ere, beste edari batzuen kontsumoarekin konparatuta eta, bereziki, garagardoaren kontsumoarekin konparatuta garrantzi erlatiboa galdu duela berretsi daiteke. Izan ere, garagardoak hazkunde nabaria izan du azken bi hamarkadetan, 2008. urtetik aurrera gehien kontsumitutako edari alkoholduen gisa ardoari lekua kentzera iritsiz.

5. taula. Azken 30 egunetan, lanegunetan eta asteburuetan, alkoholdun edarien kontsumoko prebalentzien bilakaera. 1992-2008 (%)

	1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Lanegunak										
Ardoa / Xanpaina	23,6	27,1	23,6	21,8	23,6	23,5	22,5	24,4	19,8	18,9
Garagardoa	6,7	6,3	8,3	5,3	7,8	7,9	12,1	12,1	13,3	11,6
Bermuta	0,8	0,5	0,3	0,4	0,2	0,1	1,0	0,3	0,5	0,2
Likoreak	3,7	4,9	2,8	1,7	1,2	0,9	2,9	1,4	3,2	1,0
Konbinatuak	0,6	0,6	0,1	0,3	0,5	0,6	0,6	0,2	0,8	0,4
Kalimotxoak	0,3	0,2	0,3	0,1	0,5	0,4	0,3	0,3	0,6	0,7
Asteburuak										
Ardoa / Xanpaina	25,3	31,2	27,7	25,5	30,4	30,5	40,3	43,1	36,0	31,7
Garagardoa	18,8	19,1	22,4	16,7	13,7	17,1	32,3	41,6	37,4	37,4
Bermuta	3,7	4,0	3,5	2,2	1,8	1,6	5,3	5,9	4,1	3,3
Likoreak	11,1	13,8	12,7	5,8	4,7	5,2	17,7	17,3	15,1	8,1
Konbinatuak	6,8	6,3	6,5	4,5	2,6	5,2	16,9	17,3	16,2	15,0
Kalimotxoak	3,7	4,5	5,5	3,9	1,8	2,5	9,2	7,4	8,0	7,3

Seriean ikusitako joera handiak aipatu ondoren, era berean, adierazi behar da epe oso laburrean edari alkoholdun guztien kontsumoak 2008az geroztik oro har murriztu direla, eta, batez ere, ardoaren eta likoreen kontsumoak asteburuetan, ehuneko lau eta sei puntu jaitsiz, hurrenez hurren.

1.7. Alkohol-kontsumo intentsiboa


Euskadiko alkohol-kontsumoari buruzko oinarritzko datuekin amaitzeko, alkohol-kontsumo intentsibotzat har daitekeenaren barruan kokatzen diren alkohol-kontsumoko bi patroik desberdinek euskal biztanlerian duten intzidentzia aztertzen dugu atal honetan. Alde batetik mozkorraldiak ditugu, ohiko moduan azken urtean egunetan izandako maiztasunaren bitartez neurtuak, eta beste aldetik alkohol-kontsumo intentsiboko aldiak ditugu, azken hilabetean pertsona jakin batzuek nahiko epe laburrean alkohol kantitate handiak zein maiztasunarekin kontsumitu dituzten jakiteko erabiltzen den aldagai berria.

1.7.1. Mozkorraldiak




Intoxikazio etilikoaren fenomenoaren erlatiboki minoritarioa da euskal biztanleriaren barruan. 2010eko inkestako datuen arabera, biztanleriaren % 15,7k bakarrik aitortzen du azken urtean mozkortu dela. Azken hamabi hilabeteetan edari alkoholodunen bat kontsumitu dutenen artean, proportzio hori % 20,3raino iristen da, baina horien barruan ere, nahiko maiz (sei aldiz edo gehiago urtean) mozkortu direla aitortu dutenen ehunekoak azken urtean alkohola kontsumitu duten lagun guztien % 6,9 metatzen du bakarrik.

34. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera (%)




Zer neurritaraino esan daiteke mozkorraldiak gazteekin lotutako kontsumo-jarraibideak direla nagusiki? *Euskadi eta Drogak* txosteneko datuek berriz ere adierazten dutenez, intoxikazio etilikoak ez dira ohiko moduan gertatzen helduen artean, eta, hain zuzen ere, 15-29 urtekoen artean erregistratzen dira tasa altuenak. Hala ere, horrek ez du esan nahi mozkortzea ohikoa denik gazteen artean, hain zuzen ere, gazteek alkoholaren erabilera kontrolatzeko gaitasun gutxiago duten arren, mozkortzen ez direnen proportzioa da gehiengoa. Gainera, mozkortzen direnen artean, gehiengoa dira, era berean, azken urtean batetik bost aldira bitarte bakarrik mozkortu direnak. Gazteen artean ez ezik, mozkorraldien prebalentzia handiagoa da ere gizonen artean (gizon guztien % 19,4 mozkortu da noizbait) emakumeen artean baino (% 12,1).

35. grafikoa. Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



Jakina, kontsumitutako alkohol kantitateak lotura estua dauka mozkorraldien maiztasunarekin, baina ez hainbeste lanegunetan, baizik eta asteburuetan nagusiki. Biztanleria osoaren barruan hamabi aldiz edo gehiago mozkortu direla baieztatzen dutenen ehuneko % 2,5 da, eta gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoak adierazten dituztenena, aldiz, % 12,3 eta % 44,3, hurrenez hurren.


36. grafikoa. Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, alkohol-kontsumoaren tipologiaren arabera (%)



Azken urteko mozkorraldien maiztasunari buruzko galdera *Euskadi eta Drogak* seriean dagoenetik, ikusitako joera pixkanaka murriztekoa izan da, bai azken hamabi hilabeteetan mozkortu direnen proportzioari dagokionez –horien ehuneko % 29,5etik % 15,7ra murriztu da 2010ean–, bai maiztasunarekin egin dutenen proportzioari dagokionez: azken sei urtetan, urtean hamabi aldiz baino gehiago mozkortu direla baieztatzen dutenen proportzioa % 9,9tik % 2,5era murriztu da. Ikusi dugunez, intoxikazio etilikoaren fenomenoak nagusiki gazteen artean


gertatzen dela aintzat hartuta, baiezta daiteke beherakada orokor hori, neurri handi batean, talde horretako mozkorraldien maiztasunaren beherakada baten ondorioa izan dela. Hain zuzen ere, biztanleria gaztea bakarrik kontuan hartzen badugu, ikus daiteke inoiz mozkortu ez direnen proportzioa nabarmen handitu dela, eta, batez ere, azken urtean hamabi aldiz baino gehiago mozkortu direnen taldea hirutan zatitzen dela.

37. grafikoa. Guztizko biztanleriaren banaketa azken 12 hilabeteetan izandako mozkorraldien maiztasunaren arabera, adin-taldeetan banatua (%)



Euskadiren datuen eta Espainian alkoholari eta drogei buruz etxe etxe egindako inkestako datuen arteko konparaketak adierazten duenez, egungo datuak bakarrik kontuan hartzen baditugu, azken 12 hilabeteetan mozkortu direnen proportzioa handiagoa da: 15-64 urteko Espainiako biztanleriaren % 23,1, eta Euskadiko adin berekoen % 17,7. Hala ere, Euskadiren kasuan, tasa hori pixka bat handiagoa da emakume gazteen kasuan (% 27,9, eta Espainian, aldiz, % 25,9), eta, era berean, txikiagoak dira ere gaur egun sexuen artean erregistratzen diren aldeak. Espainian kontsumo intentsiboaren tasa nahi egonkor mantendu da, baita goranzko joera txiki batekin ere, eta Euskadiren datuek, arestian adierazi dugunez, azken urteetan pixkanaka murriztu dela adierazten dute.

38. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan noizbait mozkortu diren 15-64 urteko pertsonen proportzioaren bilakaera. Euskadi eta Espainia




1.7.2. "binge drinking" edo alkohol-kontsumo intentsiboa

Alkohol-betekaden fenomenoak –ingelesez *binge drinking* gisa ezagutzen den jarraibidea– substantzia horren kantitate handi bat saio bakar batean edateari egiten dio erreferentzia, eta duela gutxi sartu da gure inguruneko azterlan epidemiologikoetan, alkoholaren kontsumo intentsiboarekin lotuta Europaren iparraldeko herrialdeetan eta Ipar Amerikan ohikoak diren alkohol-kontsumoko jarraibideak gure gizartean zer neurritaraino garatu diren neurtzeko. 2008an sartu zen lehen aldiz galdesortan hipotesi hori egiaztatzeko formula, hau da, azken hilabetean alkohola kontsumitu dutenei bi orduko epean 5 edari alkoholduen edo gehiago edan dituzten egunen kopuruari buruz galdetzea, betiere zenbaketa horretarako otorduetan edandako alkohol kantitatea barnean hartuta.


Alkohol-betekadak euskal gizartean hedatutako kontsumo-jarraibide bat al dira? Egungo datuek adierazten dutenez, duela bi urtekoek dagoeneko egiten zuten moduan, gure ingurunean jarraibide berritzailea izan daitekeen arren, horren intzidentzia ez da batere txikia. 2010. urtean, alkohol-betekaden prebalentziak guztizko biztanleriaren % 15,7 biltzen du Euskadin, eta azken hilabetean alkohola kontsumitu dutenen % 20,3. Azken horien artean, ia proportzio berbera dute azken hilabetean jarraibide horri behin edo bi aldiz jarraitu diotenen (% 8,7), hiru edo lau aldiz egin dutenek (% 7,3), eta bost aldiz edo gehiago egin dutenek (% 8,8). Biztanleria osoa kontuan hartuta, baita abstemioak ere, baieztatu daiteke hamarretik pertsona batek hiru aldiz edo gehiago errepikatu duela azken hilabetean alkohol-kontsumo intentsibo bat.

39. grafikoa. Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan izandako alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera (%)




Azken urtean sei aldiz edo gehiago mozkortu direnen batez besteko adina 29 urte da, eta azken hilabetean hiru aldiz edo gehiago alkohola modu intentsiboan edan dutenena, aldiz, 40,2 urte da. Lehen begiratuan, datu horiek adierazten dute mozkorraldien kasuan batez ere gazteen kontsumoari buruz hitz egiten zela, baina alkohol-kontsumo intentsiboaren kasuan, aldiz, kontsumoa neurri txikiagoan lotzen da gazteekin. Maiztasuna alde batera utzita, azken hilabetean gutxienez behin alkohola modu intentsiboan edan dutenei dagokienez, ikus daiteke kontsumo-jarraibide horren hedadura handiena 20-29 urteko gazteen taldean gertatzen dela – talde horrek hamarretik lau pertsona biltzen ditu–, baina biztanleriaren % 20tik gorako mailan mantentzen da 54 urtekoetara iritsi arte. Bestela esanda, alkohol-betekadak gazteen artean neurri handiagoan egiten badira ere, helduen artean ere, minoritarioa izatetik urrun, eta mozkorraldien kasuan bezala, alkohol-kontsumitzaileen proportzio nahiko handia biltzen du. Elkarrizketatutako pertsonen sexuari dagokionez ere, kasu horretan alkohol-kontsumo intentsiboaren prebalentzia handiagoa da gizonen artean (% 28,9) emakumeen artean baino (% 19,4).

40. grafikoa. Guztizko biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



Euskadi eta Drogak txosteneko datuek, alkohol-betekadekin lotuta, denboran joera argi bat zehazteko informazio nahikoa ematen ez badute ere, 2008ko datuekin konparatuta ondoriozta daiteke *binge drinking* deitutakoa ez dela azkar hedatzen ari den praktika bat, hain zuzen ere duela bi urteko egoerarekin alderatuta aldeak oso txikiak direlako.

41. grafikoa. Guztizko biztanleriaren eta 15-34 urteko gazteen banaketaren bilakaera azken 30 egunetan alkohol-kontsumo intentsiboko aldien maiztasunaren arabera (%)




2. KONTSUMOAREN AUTOPERTZEPZIOA, JARRAIPENA ETA UZTEKO ARRAZOIAK

2.1. Norberaren kontsumoaren balioespena eta kontsumitzeko arrazoiak

2.1.1. Norberaren kontsumoaren pertzepzio baxua

Ohikoa da, are gehiago kontuan hartuta askotan oso gutxi normalizatutako eta sozialki zuzenean zigortutako kontsumoak aztertzen direla, horrelako azterlanetan ikustea kontsumitzaileek beren kontsumo propioa gutxiesteko joera dutela, hau da, benetan egiten dutena baino gutxiago kontsumitzen dutela pentsatzeko joera dutela. Alkoholaren kasuan, eta kontsumitutako kantitatea oraingoz kontuan hartu gabe, azken hilabeteen edari alkoholdunen bat hartu duten ia % 87k uste du gutxi edo ezer ez edaten duela. Bestetik, soilik % 9,6k baieztatu du dezente edaten duela, eta % 1,2k uste du asko edaten duela. Bestela esanda, eta eskal biztanleria osoa kontuan hartuta, euskaldunen % 7,1ek bakarrik uste du asko edo dezente edaten duela kontsumitutako alkohol-kantitatean oinarrituta.


42. grafikoa. Norberaren alkohol-kontsumoaren pertzepzioa (%)



Zer neurritan datoz bat norberaren kontsumoaren pertzepzioa eta alkoholaren benetako erabilera? Bi aldagai horiek gurutzatzen direnean, datuek adierazten dutenez, lehenik, badago harreman bat horien artean: alkohol kantitate handiagoa kontsumitzen dutenek neurri handiagoan erantzuten dute beren kontsumoa handia dela, eta alkohola oso gutxi kontsumitzen dutenen artean, aldiz, gehiengoaren pertzepzioa da kontsumoa baxua dela. Hala ere, era berean, argi ikusten da kasu batzuetan kontsumo nahiko handiak dituzten pertsonek beren kontsumoaren pertzepzio okerra dutela. Horren froga dugu, alkohola gehien edaten dutenak maiztasun handiagoarekin mozkortzen diren arren edo kontsumo intentsiboko aldi

gehiago dituzten arren, “gutxi” edo “ezer ez” edaten dutela baieztatzen dutenen erantzunak ere garrantzitsuak direla. Ezohiko gisa har daitekeen fenomeno horren garrantziaren edo, are gehiago, larritasunaren oinarrian dago, beti ez bada ere, kasu batzuetan problematikoa izan daitekeen eta autokontrol handiagoa edota tratamendu terapeutikoa eska dezakeen alkoholaren erabilera bat aitortzeko unean kontsumo propioaren *pertzepzio baxuak* suposatzen duen zailtasuna.

43. grafikoa. Norberaren alkohol-kontsumoari buruzko pertzepzioa hainbat kontsumo-jarraitzailearen arabera (%)




2.1.2. Alkoholaren kontsumoa: onurak bezainbeste kalte?

Azken hilabetean edari alkoholdunen bat kontsumitu dutenen heren batek balioesten du bere egungo kontsumoak kalteak nahiz onurak ekartzen dizkiola; beste heren batek baieztatzen du




onura baino kalte gehiago edo kalteak bakarrik ekartzen dizkiola; eta, % 27,9k onura gehiago edo soilik onurak ikusten ditu. Azken batean, ez dago gehiengo pertzepziorik norberaren kontsumo partikularrak norberari ekartzen dizkion abantailei edo desabantailei buruz.

44. grafikoa. Alkoholaren kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa (%)



Zeintzuk dira nagusiki alkohol-kontsumoa modu kaltegarriagoan ikusten dutenak? Alkoholaren kontsumitzen duen biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoetan oinarrituta, esan daiteke, taldeen arteko aldeak oso handiak ez badira ere, helduak eta adinekoak baino neurri handiagoan gazteak direla alkoholaren kontsumoaren kalteak neurri handiagoan ikusten dituztenak, eta, aldiz, adin gehiagoko pertsonak dira nagusiki egiten duten kontsumoa onuragarritzat hartzen dutenak.

45. grafikoa. Alkoholaren kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta (%)



Norberak bere kontsumoari buruz duen pertzepzioa benetan egiten duen kontsumoarekin erlazionatzen denean, emaitzak ez dira espero zitekeen bezain argiak. Hain zuzen ere, aztertutako aldagaien artean bada harreman bat kontsumo handiagoaren eta kontsumo horiek dakartzaten ondorioak kaltegarritzat balioesten dituzten emaitzen proportzio handiago baten artean; hala ere, kontsumo handienen artean ere, iradokitzailea da soilik onurak ikusten dituztenen edo, gutxienez, kalteak bezainbeste onura ikusten dituztenen proportzio handia.

46. grafikoa. Alkoholen kontsumo propioak dakartzan onurei eta kalteei buruzko pertzepzioa, alkoholen kontsumo-jarraibideen arabera banatuta (%)




Zalantzarik gabe, kontuan hartu behar da pertsona bakoitzak bere kontsumoari buruz egiten duen balioespenean osasunarekin eta ongizate fisikoarekin lotutako alderdiek garrantzia dutela, baina baita dibertsioarekin eta aisiarekin lotutako beste alderdi batzuek ere, eta, ziur asko, azken horiek epe laburreko ebaluazio batean garrantzitsuagoak izango dira.

2.2. Kontsumitzen jarraitzea eta aldatzeko arrazoiak

2.2.1. Kontsumoaren jarraipen-indizea

Txostenean aztertzen diren substantzia guztietatik, alkohola da kontsumoko jarraipen-indize handiena duena. Horrek esan nahi du, alkoholaren kontsumo-tasa esperimentalak (% 90,8) aztertutako tasa guztietatik altuena izateaz gain, substantzia hori probatu dutenen artean azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan kontsumitu dutenen proportzioak ere oso altua izaten jarraitzen duela (% 84,9 eta % 71,9, hurrenez hurren). Kasu bati eta besteari buruz hitz egiteko, azkenaldiko kontsumo-indizea (AKI) eta egungo kontsumo-indizea (EKI) erabiltzen dira normalean, hurrenez hurren. Lehenak azken 12 hilabeteetako kontsumoaren prebalentzia eta kontsumo esperimentalak erlazionatzen ditu –horrek adierazten digu substantzia probatu ondoren zenbat lagunek jarraitu duten kontsumitzen duela gutxi arte–, eta egungo kontsumo-indizeak –hori ere kontsumo esperimentalean oinarrituta–, aldiz, egungo kontsumoaren prebalentzia erlazionatzen du, eta, kontsumitzen hasi ondoren, gaur egun kontsumoa errepikatzen dutenen proportzioa adierazten du.


47. grafikoa. Substantzia nagusien azkenaldiko eta egungo kontsumoen jarraipen-indizeak (%)



Hortaz, alkoholari buruzko bi indizeak (AKI=% 84,9 eta EKI=% 71,9) txosten honetan aztertutako gainerako substantzien indizeekin konparatzen baditugu, alde handia ikus daiteke tabakoaren (AKI=% 60,9 eta EKI=% 56,4), kanabisaren (AKI=% 30,3 eta EKI=% 21,1) edo kokainaren (AKI=% 24 eta EKI=% 15,7) jarraipen-indizeekin alderatuta. Horrek argi uzten du alkoholaren kontsumoaren jarraipena zer neurritaraino dagoen hedatua biztanlerian, edo,

bestela esanda, substantzia horietako bakoitzaren kontsumo-jarraibideak zer neurritan diren gizarte eta kultura mailan desberdinak beren iraunkortasunari dagokionez.

48. grafikoa. Alkoholen azkenaldiko eta egungo kontsumoaren jarraipen-indizeak, adin-taldean eta sexuaren arabera banatuta (%)



Era berean, alde interesgarriak ikus daitezke jarraipen-tasei dagokienez, bi indizeak elkarriketatutako pertsonen adina eta sexua kontuan hartuta aztertzen direnean. Horren ildotik, ikus daitekeenez, azkenaldiko nahiz egungo kontsumoaren jarraipena handiagoa da gizonen artean –AKIaren kasuan izan ezik 15etik 19 urtera bitarteko pertsonen artean–, eta alde horiek handiagoak dira egungo kontsumoari dagokionez, eta, batez ere, adin gehiagoko pertsonen artean. Bestalde, azkenaldiko kontsumo-indizearen balioak adin desberdineko biztanleen artean nahiko homogeneoak badira ere, egungo kontsumo-indizearen balioek, aldiz, sentsibilitate handiagoa dute. Ikus daitekeenez, 25etik 34 urtera bitarte, hau da, bikotean bizitzen hasten den eta/edo seme-alabak izaten diren garaian, gizonak eta emakumeak jarraipen txikiagoa dute. Horretaz gain, 44 urtetik aurrera, era berean, ikus daiteke emakumeen kasuan egungo kontsumoaren jarraipena murriztu egiten dela, eta gizonen kasuan, nagusiki, mantentzeko joera ikusten da.


2.2.2. Aldaketak kontsumo-jarraibideetan

Ikusi dugunez, alkohola pertsona gehienek bizitzaren zati oso handi batean aurkitzen den substantzia denez gero, gizartearen ohiturekin eta erabilerekin –horietako batzuk belaunaldien araberrakoa– oso lotua egonik, zentzugabea izango litzateke pentsatzea gaur egun alkohola kontsumitzen dutenek aldaketarik gabeko kontsumo-jarraibide bat izan dutela bizitza osoan zehar (edo pertsona bakoitzaren egungo jarraibideek aldaketarik gabe jarraituko dutela denboran zehar). Ondoren aurkeztzen dugun grafikoa ikus daitekeenez, alkohola probatu

□


dutenei beren bizitzan egungoa ez den beste modu batean edan duten aldiren bat izan den galdetzen zaienean, inkestatutako biztanleriaren ia erdiak baieztatzen du antzeko moduan edaten duela (% 48,1). Gutxi dira kontsumo handiagoa adierazten dutenak (% 2,4), eta, aldiz, ehuneko handi batek (% 40,2) gutxiago edaten duela baieztatzen du, eta % 9ak, pasatxo, kontsumitzeari guztiz utzi diola.

49. grafikoa. Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren banaketa, izandako aldaketen arabera (%)




Lortutako erantzunen arabera, emakumeak gizonak baino pixka bat konstanteagoak dira beren kontsumo-jarraibideei eusteari dagokionez. Izan ere, emakumeen % 54,7k baieztatzen du lehen bezala edaten duela gutxi gorabehera, eta gizonen kasuan, aldiz, % 41,9k adierazten du hori. Bestalde, gizonen artean, kontsumoa murriztu dutenak nagusitzen dira (gizonen % 47,9, eta emakumeen % 31,9). Adina kontuan hartzen bada, era berean, ikus daiteke bizitzako beste aldi batzuekin konparatuta kontsumoa gehien gutxitu dutenak 30-44 urteko pertsonak direla –adin horretan, biztanleriaren % 55ek baino gehiagok baieztatzen du gutxiago edaten duela edo edateari guztiz utzi diola–, eta gehiago edaten dutela uste dutenak, hain zuzen ere, gazteenak direla, hau da, duela gutxi kontsumitzen hasi direnak.

50. grafikoa. Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren banaketa izandako aldaketen arabera, adin-taldeen eta sexuaren arabera banatuta eta alkohol kantitatearen arabera (%)



Kontsumo-jarraibideetan izan dituzten aldaketen gainean alkohol-kontsumitzaileek duten pertzepzioaren bilakaerari buruzko datuen arabera, beren kontsumoa gutxitu dutela esaten dutenen proportzioa pixkanaka handitu egin da (ehuneko horren barruan sartzen dira ere edateari utzi diotenak): 2002. urtetik gaur egun arte, proportzio hori % 31,1etik ia % 50era igo da. Joera horren aldi berean, gutxi gorabehera berdin edaten dutela baieztatzen dutenen proportzioa txikitu egin da, eta gehiago edaten dutela baieztatzen dutenen ehunekoa, oso txikia bada ere, ia guztiz konstantea izan da.

51. grafikoa. Noizbait alkohola kontsumitu duen biztanleriaren bilakaera, izandako aldaketen arabera (%)



2.2.3. Alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoiak

Aurreko datuetatik ondorioztatu da noizbait alkohola probatu dutenen ia erdiak (% 49,5) kontsumoa murriztu duela edo guztiz utzi duela. Termino absolututan, une honetan beren bizitzako aurreko beste aldi batzuetan baino alkohol gutxiago kontsumitzen duten 752.000 pertsona izango lirateke. Hurrengo taulan, alkohol-kontsumoa murrizteko inkestatutako pertsonen aurkezten zitzaizkien arrazoen zerrenda bat biltzen da. Arrazoi horien artean, gizarte-harremanekin, osasun-arazoekin eta ugalketarekin eta seme-alaben zaintzarekin lotutako arrazoiak zeuden.

6. taula. Alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoi nagusiak

	Ezer ez	Gutxi	Dezente	Asko	ED/EE	Guztira
Medikuaren aholkua	78,2	5,4	8,9	6,2	1,4	100
Seme-alabak izatea	80,0	3,5	6,7	8,0	1,9	100
Osasun-arazoak	79,5	5,8	7,2	6,0	1,5	100
Bikote-harremana, ezkontza edo bikote-bizikidetzak	77,5	8,3	8,6	4,1	1,5	100
Haurdunaldia	86,3	2,4	3,7	5,1	2,5	100
Lanean hastea edo lana aldatzea	87,7	4,3	4,7	1,7	1,7	100
Presioak edo arazoak familian	86,9	5,6	4,0	2,0	1,4	100
Lagunak aldatzea	93,1	3,0	1,4	0,8	1,7	100
Presioak edo arazoak lagunekin	93,4	3,5	1,1	0,5	1,4	100
Etxebizitzaz aldatzea	95,3	1,7	0,6	0,5	2,0	100
Laneko arazoak	97,0	1,1	0,2	0,3	1,4	100


Taulan bildutako datuen arabera, adierazi behar den lehen gauza da inkestatutako pertsonen proportzio oso txiki batek bakarrik ikusten duela bere burua identifikatuta galdesortan zehaztutako arrazoiarekin. Horren ildotik, gehienek uste dute beren kasuan galdesortan zehaztutako arrazoiak edo zirkunstantziak ez zutelako zerikusirik izan kontsumoa murriztearekin. Nolanahi ere, baieztatu daitezke nolabaiteko garrantziarekin aipatu diren arrazoen artean medikuaren aholkua (% 15ak adierazi du zirkunstantzia horrek eragin handia izan duela), seme-alabak izatea (% 14,6), osasun-arazoak (% 13,2), edo bikote-harremanak, ezkontza edo bikote-bizikidetzak nagusitzen direla.

Analisisa soilik lau arrazoi horietan oinarritzen badugu, eta horietako bakoitza elkarrizketatutako pertsonen sexuaren eta adinaren arabera aztertzen badugu, ikus daitezke

□

osasunarekin lotutako alderdiak gizonak eta adin gehiagoko pertsonak aipatzen dituztela proportzio handiagoan, eta bizitza-zikloko aldaketekin eta familia-erantzukizunekin lotutakoak, aldiz, beren hogeita hamargarren hamarkadan daudenean aipatzen dituzten nagusiki. Bikote-harremanarekin edo bikote-bizikidetzarekin lotutako arrazoia emakumeen eta gizonen ia proportzio berberak aipatzen du, eta seme-alabak izatea, aldiz, emakumeen artean gizonen artean baino eragin handiagoa duen arrazoia da.

52. grafikoa. Alkohol-kontsumoa murriztu duten pertsonen arrazoi nagusiak, adin-taldean eta sexuaren arabera (beren kontsumo-aldaketan arrazoi bakoitzari garrantzi handia ematen dioten pertsonen %)




Euskadi eta Drogak serieko azken lau txostenetan bilakaerari buruz bildutako datuek ez dute joera argirik adierazten alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoen artean. Soilik nolabaiteko egonkortasun bati buruz hitz egin daiteke zirkunstantzia batzuen nagusitasunari dagokionez.

7. taula. Alkohol-kontsumoa murriztu duten eta hainbat faktoreri eragin handia edo nahiko handia egozten dieten pertsonen proportzioaren bilakaera (%)

	2004	2006	2008	2010
Medikuaren aholkua	10,3	12,7	14,4	15,0
Seme-alabak izatea	12,1	21,8	15,8	14,6
Osasun-arazoak	11,5	14,4	17,8	13,2
Bikote-harremana, ezkontza edo bikote-bizikidetzak	12,6	22,4	10,9	12,7
Haurdunaldia	8,7	10,3	7,7	8,7
Lanean hastea edo lana aldatzea	5,4	5,7	5,1	6,4
Presioak edo arazoak familian	2,9	4,8	3,2	6,0
Lagunak aldatzea	4,5	2,3	3,3	2,2
Presioak edo arazoak lagunekin	1,5	0,6	0,9	1,6
Etxebizitzaz aldatzea	1,2	0,5	0,9	1,0
Laneko arazoak	1,1	0,6	0,5	0,6

Azkenik, kontsumoak aldatzeko arrazoiak hiru kategoria handitan biltzen dira –osasunarekin lotutakoak, bizitza-egoerako aldaketekin lotutakoak, eta laneko arazoekin edo presioekin, familiarekin edo lagunekin lotutakoak–, eta, ikus daitekeenez, epe luzean, osasunarekin eta presioekin edo arazoekin lotutako arrazoiak ugartu dira, eta zirkunstantzia pertsonalak (haurdunaldia, seme-alabak izatea, lagunak edo etxebizitza aldatzea, eta abar), aldiz, egonkor mantendu dira arrazoi nagusi gisa.

53. grafikoa. Alkohol-kontsumoa murrizteko arrazoiaren bilakaera, arrazoi moten arabera (beren kontsumo-aldaketan arrazoi bakoitzari garrantzi handia ematen dieten pertsonen %)



3. ALKOHOL KONTSUMOA GAZTEEN ARTEAN


EAEko alkohol-kontsumoari buruzko azken atal honetan biztanleria gaztea aztertzen da nagusiki, hau da, 15-34 urteko pertsonak. Analisia edari alkoholduinak eskuratu eta kontsumitzen dituzten lekuekin, kalean alkohola kontsumitzen duten maiztasunarekin, eta alkohola edatetik edo beste droga batzuk kontsumizetik ondorioztatutako arazoekin lotutako alderdiei buruzko galdesorta bateko –2006an egin zen lehen aldiz– erantzunetan oinarritzen da. Hortaz, azken atal honetan ez dira aztertzen biztanleria gaztearen kontsumo-patroi orokorrak nahiz kontsumo-tasak, aurreko ataletan dagoeneko aztertu baitira, eta, horren ordez, gazteen alkohol-kontsumoko jarraibide berezietan espezifikoki oinarritutako moduluari buruzko datuak aztertzen dira.

3.1. Alkohol-kontsumoa gazteen artean, perspektiban

Nolanahi ere, atal honetako xedea osatzen duten galdera espezifikoen analisiarekin hasi aurretik, gazteen arteko alkohol-kontsumoaren azken urteetako bilakaeran ikusitako joera nagusiak gogoratzea komeni da.

Kontsumitzen hasitako adinari dagokionez, lortutako datuek honako bi interpretazio hauek egiteko aukera ematen dute: alde batetik, datuak ikuspegi sinkroniko batean aztertuta, ikus daiteke kontsumitzen hasteko adina sistematikoki txikiagoa dela pertsona gazteenen taldean, eta horrek kontsumoaren hasiera geroz eta goiztiarragoa izateko joera –askotan hitz egin da horri buruz– berresten duela interpretatu da. Hala ere, datu horien ikuspegi diakroniko bateko irakurketak interpretazio hori baztertzen du, hain zuzen ere aztertutako aldiari kontsumitzen hasteko adinari nolabait eutsi egin zaiola egiaztatuta baita, 15-34 urtekoetan nahiz aztertutako beste adin-talde guztietan. Hortaz, esan daiteke gazteen taldeen artean kontsumitzen hasteko batez besteko adinean ikusten diren aldeak itxurazkoak besterik ez direla, hain zuzen ere hasteko batez besteko adina, nahitaez, adin-tarte bakoitzean kontsumitzen hasi direnentzat kalkulatu delako. Horren ondorioz, hasteko adina adin-tarte oso gazteetan (15-19 urte) sistematikoki txikiagoa da beste adin-tarte batzuetan baino (bertan beranduago kontsumitzen hasi diren pertsonak barne hartzen dira). Hortaz, baieztatu daiteke alkohola kontsumitzen hasteko adina egonkor mantendu dela 2000. urtetik, eta, nolanahi ere, hazkunde txiki bat izan da urte horretatik 2010era bitarte.


54. grafikoa. Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera eta abstemioak diren edo oso gutxitan edaten duten 15-34 urteko gazteen proportzioaren bilakaera. 2000-2010 (%)



Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren nolabaiteko egonkortasun horrekin batera, aurreko grafikoa ikus daitekeenez, gazte abstemioen edo oso gutxitan kontsumitzen duten gazteen proportzioaren hazkunde nabarmen bat izan da, batez ere 2006. urtetik; izan ere, urte horretan, 35 urtetik beherako biztanleen taldean abstemioen edo oso gutxi edaten dutenen proportzioa % 3,8ko gutxiengo historikora iritsi zen. 2010. urtean, aldiz, adin horretatik beherako hamaikak batak eta 20 urtetik beherako bosten batak baieztatu dute abstemioak direla edo oso gutxitan edaten dutela. Joera-aldaketa oso garrantzitsu bat da, eta, bestalde, horrekin batera, beste substantzia batzuen kontsumo-tasak murriztu egin dira gazteen artean, eta, nolabait, txosten honetako beste kapitulu batzuetan adierazi dugun drogen kontsumoaren 'heltzeko' joerarekin bat dator.

Gazteen artean gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoaren bilakaerari dagokionez, gogoratu behar da *Euskadi eta Drogak 2008* txostenean dagoeneko atzematen zen murrizteko joera sendotu egin dela. Edaten duten alkohol kantitatearen arabera, gehiegizko edo arriskuaren barruko edaletzat har daitezkeen 15-34 urteko gazteen proportzioa ehuneko bost puntu murriztu da inkestaren aurreko boladarekin alderatuta, eta ia erdira murriztu da 2004. urtetik; izan ere, asteburuetak gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoaren gehiengo historiko erregistratu zen urte horretan. Dena den, zifrak 2000. urtean lortutako % 5aren oso gaintetik mantentzen dira oraindik.

55. grafikoa. Gehiegi eta arriskuaren barruan edaten duten 15-34 urteko gazteen proportzioaren bilakaera. 1992-2010 (%)




3.2. EAEko gazteek alkohola erosteko eta kontsumitzeko tokiak

3.2.1. Alkohola erostea


Supermerkatuekin batera, tabernak dira nagusiki euskal gazteek alkohola eskuratzen duten lekuak. Hala ere, aipatu behar da gazteek alkohola eskuratzeko lehentasunezko leku gisa tabernekin garrantzia pixkanaka galdu egin dutela, betiere horri buruzko informazioa bildu den lau urte hauetan: 2006an, aldiz, kontsumitzen hasitako lau gaztetik hiruk baieztatzen zuten alkohola tabernetan eskuratzen zutela, eta 2010. urtean, aldiz, proportzio hori erdira baino pixka bat gehiagora murriztu da, edariak supermerkatuetan erosten dituztela baieztatzen dutenen proportzioaren ia parean kokatuz. Baliteke joera hori gazteek azken urteetan erosteko ahalmena galdu izanarekin lotuta egotea, eta, beraz, alkohola prezio baxuagoetan eskura daitekeen beste salmenta-leku batzuk bilatzearekin.

56. grafikoa. 15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak erosten dituzten lekuak (%)



Bestalde, gazteen artean gehiengoaren aukera alkohola supermerkatuetan erostea izateak agian esan nahi du –talde horrek prezioaren aldaketekiko sentsibilitate berezia izateaz gain– nolabaiteko anonimatuarekin eros dezaketela alkohola establezimendu horietan.

57. grafikoa. 15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak erosten dituzten lekuak, adin-taldean eta asteburuko kontsumitzailearen tipologiaren arabera banatuta (%)




Edari alkoholdunen erosketari dagokionez, azkenik, azpimarratu behar da kontsumo handiago batek (logikoa denez) erosketa-lekuen sorta zabalago bat dakarrela. Horrela, gehiegizko edo arriskuaren barruko edaleek adierazten dute gainerako gazteak baino neurri handiagoan joaten direla tabernak ez diren beste establezimenduetara.

3.2.2. Alkoholaren kontsumoa

Azken urteetan, tabernekin protagonismoa galdu dute bai gazteek edari alkoholdunak eskuratzen dituzten leku gisa, bai edari horiek kontsumitzeko leku gisa: 2006an, dagoenean alkohola kontsumitzen hasi ziren Euskadiko hamarretik zortzi gazte bako bako gehiagok aipatzen zituzten tabernekin kontsumitzeko ohiko leku gisa, eta lau urte ondoren proportzio hori hamarretik zazpi bako gutxiagora murriztu da. Zalantzarik gabe, gehiengo praktika bat da oraindik, baina – etxean kontsumoarekin batera– aurreko urteekin alderatuta beherakada bat ikusi duen kontsumo modalitate bakarra da. Diskoteketan, lonjetan eta kalean egindako kontsumoa txikiagoa ez bada ere –gazteen % 15,9-34,3k praktikatzeko dute–, egonkor mantendu da aztertutako aldirian.


58. grafikoa. 15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak kontsumitzen dituzten lekuak (%)



Alkohola kontsumitzeko leku ohikoenei buruzko adin-taldearen arabera analizatzen ondoriozta daitezke kalean eta lonjetan egindako kontsumoa nagusitzen dela adin txikiagokoaren artean, eta 25 urtetik gorakoaren artean leku horietan kontsumitzen dutenen proportzioa nabarmena murrizten da. Bestalde, etxeetan edo tabernetan egiten diren kontsumoen joera kontrakoa da: ingurune horietan lehentasunak gora egiten du argi eta garbi adinarekin batera, eta hori alkoholen kontsumoko jarraibide tradizionalagoen garapenarekin lotzen da normalean.

Asteburuko kontsumitzaileak gehien joaten diren kontsumo-lekuei dagokienez, gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumitzaileen kasuan, aisialdiko ohiko lekuetan erantzuten metaketa txikiagoa ikusten da, baita alkohola kontsumitzeko ohiko leku gisa etxea edo kalea aipatzeko joera handiagoa ere.

59. grafikoa. 15-34 urteko gazteek alkoholdun edariak kontsumitzen dituzten lekuak, adin-taldean eta asteburuko kontsumitzailearen tipologiaren arabera (%)




3.2.3. Botiloia egitea

Sortzen duen eztabaidagatik sozialki asko nabarmentzen den arren, nolabaiteko maiztasunarekin *botiloia* egiten duten gazteak gutxiengoa dira: alkohola probatu duten 15-34 urteko gazteen % 4,2ak bakarrik edaten du kalean astero edo ia astero, eta % 12ak hilean behin edo bi aldiz egiten du. Abstemioak ez diren gazteen % 57,8k, aldiz, ez du inoiz egin *botiloia*, eta % 22,2k oso gutxitan egiten du, urtean behin edo bi aldiz gehienez ere. *Botiloia* egiten dutenei buruzko zifrak pentsa litekeena baino txikiagoak direla egia bada ere, azpimarratu behar da gazteen artean nahiko hedatua dagoen fenomeno delako: alkohola kontsumitzen hasi diren 19 urtetik beherako gazteen % 73k –edo adin horretako biztanleriaren % 57k– egin du noizbait, eta % 41,1ek (hasitakoen artean) gutxienez hilean behin egiten du.

Sexuen arabera, *botiloia* egiteko joera handiagoa ikusten da mutilen artean, bai *botiloia* egiten duten mutilen proportzioari dagokionez, bai egiteko maiztasunari dagokionez, baina maiztasunaren kasuan aldeak ez dira hain handiak. Horrela, adibidez, alkohola kontsumitzen hasi diren mutilen artean, % 44,6k egin du *botiloia* noizbait, eta nesken artean, aldiz, proportzioa % 32ra murrizten da. Hala ere, *botiloia* noizbait egin dutenak bakarrik aztertzen badira, ikus daiteke mutilen % 40,5ak eta nesken % 35,5ak –proportzio nahiko antzekoak, beraz– gutxienez hilean behin egingo luketela.

60. grafikoa. Azken urtean 15-34 urteko gazteen alkoholaren kontsumoa kalean, adin-taldean eta sexuaren arabera banatua (%)




Fenomeno horrek azken urteetan izan duen bilakaerari dagokionez, biztanleria gazte osoa aztertzen badugu, alkohola kalean kontsumitzearen praktika pixka bat murriztu dela dirudi: 2010. urtean, 15-34 urteko gazteen % 33,4k baieztatzen du noizbait egin duela horrelako kontsumoa, eta 2008an eta 2006an, aldiz, proportzioa % 34,2 eta % 37,4 zen, hurrenez hurren. Hala ere, beherakada horren arrazoia izan da 2010ean gazte abstemioen edo oso gutxi edaten duten gazteen kopurua murriztu dela, eta ez alkohola kontsumitzen dutenen artean fenomenoaren prebalentzia txikiagoa dela. Hain zuzen ere, taulan ikus daiteke alkohola kontsumitzen hasi diren gazteen artean noizbait botiloia egin dutenen proportzioa nahiko egonkor mantendu dela, eta, are gehiago, 2008an pixka bat ere handitu da.

8. taula. Azken urtean 15-34 urteko gazteen alkohol-kontsumoa kalean (%)

	14-34 urteko gazte guztien %-a			Alkohola probatu duten 15-34 urteko gazte guztien %-a		
	2006	2008	2010	2006	2008	2010
Inoiz ez	57,6	52,7	50,3	59,9	57,1	57,8
Noizbait	37,4	34,2	33,4	38,9	37,0	38,4
- Behin edo bi aldiz urtean	21,0	21,0	19,3	21,8	22,7	22,2
- Behin edo bi aldiz hilean	11,4	8,1	10,4	11,9	8,8	12,0
- Aste edo ia aste guztietan	5,0	5,1	3,7	5,2	5,5	4,3
ED/EE	1,2	5,5	3,3	1,2	5,9	3,8
Ez du alkohola probatu	3,8	7,6	13,0	-	-	-
Guzтира	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, kalean lagunekin egiten den alkohol-kontsumoak harreman argia dauka adinarekin. 15-34 urteko gazteen artean, botiloia egiteko ohitura dutenen (hilean behin gutxienez) proportzioa % 14,1era iristen da, baina 15-19 urteko gazteen kasuan, aldiz, proportzioa ia % 32,1era iristen da, eta 20-24 urtekoen kasuan, % 21era. Ehuneko hori nabarmen murrizten da 25 urtetik aurrera, eta hogeita hamarreko hamarkada hasterakoan ia guztiz desagertzen da. Era berean, ikus daiteke kalean nolabaiteko maiztasunarekin kontsumitzea pixka bat hedatuagoa dagoela gizonen artean (% 17) emakumeen artean (% 11,2) baino, eta horrek argi eta garbi lotura dauka alkohola goizegi kontsumitzen hastearrekin: 15 urte izan baino lehen alkohola kontsumitzen hasi zirenen % 23,5ek hilean behin gutxienez kontsumitzen du alkohola kalean, 19-20 urterekin kontsumitzen hasi zirenen kasuan, aldiz, % 4,8k egiten du, eta 21 urte bete ondoren hasi zirenen kasuan % 6,3k.

61. grafikoa. Azken urtean, hilabetean behin edo aldi gehiagotan kalean alkohola kontsumitu dutenen prebalentziak ezaugarri pertsonalen arabera (%)



Bestalde, inkestaren aurreko bi boladatan dagoeneko ikusten zenez, interes handieneko datua da alkoholaren kaleko kontsumoak lotura estua duela arriskuaren barruko ohitura jakin batzuekin, hala nola kanabisa eta legez kontrako beste droga batzuk ohiko moduan kontsumitzearekin, edo asteburuetan alkohol kantitate handiak kontsumitzearekin. Esate baterako, ikus daiteke gutxienez hilean behin *botiloia* egiten duten gazteen erdia baino gehiago gehiegizko edo arriskuaren barruko edaleak direla, eta 15-34 urteko biztanleria osoaren kasuan,

aldiz, proportzioa % 19,4 da. Era berean, *botiloia* egiten duten gazteen artean ohikoagoa da nolabaiteko maiztasunarekin mozkortzea (% 18,1, eta biztanleria gazte osoaren kasuan, aldiz, % 5,9), kontsumo intentsibokoaldiak izatea (% 27,3, eta, bestea, aldiz, % 10,8), kanabisa ohiko moduan kontsumitzea (% 24,7, eta % 9,7), edo legez kontrako beste droga batzuk kontsumitzea (% 11,5, eta % 5,6).

9. taula. Azken urtean kalean alkohola hilean behin edo aldi gehiagotan edan duten gazteen arteko eta 15-34 urteko gazte guztien arteko arriskuaren barruko ohitura jakin batzuen prebalentzia (%)

	Botiloia ohitura gazteak	egiteko duten	Gazte guztiak
Tabakoa erretzen dute egunero	40,7		34,8
Gehiegizko eta arriskuko alkohol-kontsumoa asteburuetan	51,7		19,4
Azken urtean 12 aldiz baino gehiagotan alkohola mozkortu arte kontsumitu dute	18,1		5,9
Azken hilabeteetan, lau egunetan edo gehiagotan, bi orduko epean 5 edari alkoholdun edo gehiago kontsumitu dituzte	27,3		10,8
Azken urtean kanabisa kontsumitu dute astean behin gutxienez	24,7		9,7
Legez kontrako drogaren bat kontsumitu dute azken urtean (kanabisa izan ezik)	11,5		5,6

Datu horiek guztiak ikusirik, eta alkohola kalean ohiko moduan kontsumitzeak pentsarazten dena baino hedadura txikiagoa duen arren, eta, gainera, lehen gaztarora nahiko mugatua dagoen arren, arriskuaren barruko beste praktika batzuekin eta/edo bestelako drogen kontsumoarekin lotura estua duen kontsumoa dela ondoriozta daiteke. Hortaz, errepikatu beharra dago *–Euskadi eta Drogak* seriearen aurreko txostenetan egiten zen moduan–, horrelako kontsumoak saihesteaz gain –ez dira bildutako arriskuaren barruko ohituren eragileak–, kalteen prebentzioari eta murrizteari buruzko mezuak gazte horiengana eta erabilera-leku horietara zuzendu behar direla nagusiki, hain zuzen ere biztanleria talde horretan dituzten arriskuaren barruko ohitura horiek murrizte aldera.

3.3. Alkohola eta drogen polikontsumoa

2010. urtean –aurreko txostenetan ere iruzkindu da–, gazteen artean alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumo-jarraibideen eta legez kontrako beste droga batzuen azkenaldiko erabileraren arteko harremana berretsi egin da.

10. taula. Bestelako gaien azkenaldiko kontsumoaren prebalentzia 15-34 urteko gazteen artean, alkohol-kontsumoko hainbat ereduren arabera (%)

		Tabakoa egunero kontsumitzea	Astean behin kanabisa kontsumitzea azken urtean	Kontsumoa azken urtean			
				Kokaina	Speeda	LSDa	Estasia
Asteburuko kontsumoaren tipologia	Abstemioa	25,2	4,6	0,0	0,3	0,0	0,0
	Ia abstemioa	37,1	3,5	1,7	1,7	0,3	0,9
	Gutxi edaten duena	41,8	11,1	4,4	2,0	2,1	1,4
	Gehiegi edaten duena	42,8	20,6	11,3	9,7	5,5	4,7
	Arriskuaren barruan edaten du	43,6	29,0	6,8	2,5	5,7	2,0
Botiloia egitea	Inoiz ez	32,9	5,3	1,7	0,9	0,3	0,4
	Behin edo bi aldiz urtean	40,0	14,1	6,0	4,1	3,7	2,5
	Behin edo bi aldiz hilean	39,8	27,0	6,4	6,4	4,9	4,2
	Astero edo ia aste guztietan	43,3	18,0	10,6	7,2	7,2	2,6
Mozkorraldien maiztasuna	Inoiz ez	29,3	5,1	2,0	0,8	0,7	0,7
	1-5 aldiz urtean	39,6	12,2	2,3	1,0	1,7	0,6
	6-12 aldiz urtean	46,4	19,6	9,0	9,4	5,1	4,6
	12 aldiz baino gehiago urtean	48,2	33,5	12,1	11,8	9,6	4,7
Kontsumo intentsiboko aldien maiztasuna	Inoiz ez	30,8	7,0	1,7	0,6	0,6	0,6
	1-2 aldiz hilean	45,3	12,9	7,1	5,3	4,4	3,9
	3-4 aldiz hilean	38,5	16,2	4,3	3,1	1,5	0,0
	5 aldiz edo gehiago hilean	62,1	32,2	16,7	18,5	10,6	7,6
15-34 urteko biztanleria guztira		34,8	9,7	3,3	2,3	1,7	1,3

Hain zuzen ere, aurreko taulan ikus daitekeenez, kanabisaren ohiko kontsumoa, eta kokainaren, anfetaminen, LSDaren eta estasiaren azkenaldiko kontsumoa, 8 aldiz handiagoa izatera iristen da alkoholarekin lotutako arriskuaren barruko ohiturak dituztenen artean biztanleria gazte osoan baino. Esate baterako, hilean alkohola modu intentsiboan 5 aldiz edo gehiagotan kontsumitzen dutenen kasuan: anfetaminen kontsumoaren prebalentzia 8 aldiz handiagoa da gazte-talde horretan (% 18,5) adin bereko gazte guztien taldean baino; kokainaren kontsumoa 5 aldiz handiagoa da, eta azidoaren eta estasiaren kontsumoa 6 aldiz handiagoa gutxi gorabehera. Beste horrenbeste esan daiteke urtean 12 aldiz baino gehiago mozkortzen direnei buruz –kasu horretan, legez kontrako drogak kontsumitzearen arriskua 3,5-5,6 aldiz handiagoa da–, astero botiloia egiten dutenei buruz –arriskua 2-4 aldiz handiagoa

da-, edo asteburuko gehiegizko edaleak direnei buruz. Azken horien kasuan, legez kontrako drogak kontsumitzeko arriskua 3-4 aldiz handiagoa da.


Alderantziz, alkoholaren neurrizko kontsumoa legezko eta legez kontrako beste droga batzuen kontsumoaren aurkako babes-faktore gisa agertzen da. Kontsumitzen hasi direnek baino proportzio txikiagoan erretzen dute tabakoa abstemioek: abstemioen % 25,2k erretzen du tabakoa egunero, gazte guztien kasuan, aldiz, % 34,8k egiten du, eta asteburuetako arriskuaren barruko edaleen kasuan % 43,6k. Era berean, kanabisaren ohiko kontsumoaren maiztasuna bi aldiz txikiagoa da abstemioen artean gazte guztien artean baino, eta legez kontrako bestelako substantzien kontsumoa ia ez da ikusten talde horretan.

Hortaz, egiaztatu da alkoholaren gehiegizko kontsumoak drogen polikontsumo-patroiekin lotzen direla, eta substantzia horren neurrizko kontsumoa, aldiz, polikontsumoaren eta arriskuaren barruko ohituren prebalentzia txikiago batekin lotzen da.

3.4. Gazteen alkohol-kontsumoarekin lotutako arazoak

2010ean, 15-34 urteko gazteen % 44,5ek –eta alkohola kontsumitzen hasitakoen % 48,9– baieztatu du horren kontsumotik ondorioztatutako arazoren bat izan dutela. Termino absolututan, eta gazte biztanleria osoaren emaitzak estrapolatuta, ondorioa izango litzateke 35 urtetik beherako 226.000 gaztek pairatu dituztela alkoholaren erabileragatiko ondorio txarrak: 82.000 pasatxok arazo bakar bat izan du, 48.000 inguruk bi arazo izan ditu, eta 96.000 gaztek, gutxi gorabehera, hiru arazo edo gehiago izan ditu.


62. grafikoa. Alkohola probatu duten 15- 34 urteko gazteen banaketa, kontsumo horretatik ondorioztatutako arazo kopuruaren arabera (%)









Alkoholaren kontsumotik ondorioztatutako arazoak agertzearekin lotu daitezkeen faktoreei dagokienez, logikoa denez, loturiko problematika handiagoa ikusten da alkoholaren abusuzko kontsumoa egiten dutenen artean. Horrela, esate baterako, ikus daiteke asteburuetan alkohola gehiegi kontsumitzen duten hamarretik zortzi gaztek eta arriskuaren barruko kontsumoak egiten dituzten hamarretik bederatzik gaztek arazoren bat izan dutela kontsumo horren ondorioz. Era berean, azken urtean nolabaiteko maiztasunarekin mozortu diren gazteek eta ohiko moduan alkohola kalean edaten dutenek ere –adierazi dugunez, abusuzko kontsumo-patroiak neurri handiagoan dituztenak– proportzio oso handian adierazten dute kontsumoaren ondorio txarrak pairatu dituztela (% 89,9 eta % 94,6, hurrenez hurren).

Azkenik, arestian adierazi dugunez, alkoholaren kontsumoarekin zeharkako harremana duten beste ezaugarri batzuek ere –hala nola, legez kontrako drogak azkenaldian erabiltzea, edo kontsumo-leku jakin batzuekiko lehentasuna– eragina dute arazoak agertzeari dagokionez: azken urtean astero kanabisa kontsumitu duten gazteen % 72,6k eta elkarrizketa egin aurreko 12 hilabeteetan legez kontrako drogaren bat kontsumitu dutenen % 84,6k baieztatu dute alkoholaren kontsumotik ondorioztatutako arazoak izan dituztela (aitzitik, esan dugunez, gazte biztanleria osoaren % 44aren kasua da hori); era berean, diskoteketan edo kalean alkohola kontsumitzen duten hamarretik ia zazpi gaztek eta lonjetan edaten duten hamarretik ia zortzi gaztek izan dituzte alkoholaren kontsumoarekin lotutako arazoak.

63. grafikoa. 15-34 urteko gazteek alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzeagatik izandako arazoen kopurua, ezaugarri pertsonalen arabera (%)*






*Oharra: alkoholaren kontsumoagatik arazorik izan ez dutenen artean biltzen dira alkohola inoiz probatu ez duten gazteak.

Bestalde, adierazi behar da alkoholaren abusuzko kontsumoak eta horrelako kontsumoekin zeharkako harremana duten faktoreek, loturiko ondorio txarrak izateko aukerak handitzeaz gain, izandako arazoaren kopurua ere aldatzen dute: alkohola kontsumitzearen ondorioz 3 arazo edo gehiago izan dituztela baieztatzen duten 15-34 urteko gazteen proportzioa bereziki handia da botiloia nolabaiteko maiztasunarekin egiten dutenen artean (% 72,1, aitzitik, gazte biztanleria osoaren % 18,9), azken urtean 12 aldiz baino gehiago mozkortu direnen artean (%

68,3), edariak etxetik eskuratzen dituztenen artean (% 64,6), eta azkenaldian legez kontrako drogak kontsumitu dituztenen artean.

Izandako arazo motei dagokienez, honako hiru hauek dira gehien aipatzen direnak: *ajearekin* lotutako urdaileko minak edo buruko minak (15-34 urteko gazteen % 27,6k pairatu du noizbait), haserrealdiak lagunekin edo bikotearekin (% 13,6), eta erortzeak edo nahigabe egindako kolpeak (% 12,5). Ondorio txar larrienak, hala nola babesik gabeko edo nahi ez diren sexu-harremanak, trafikiko-istripuak, arazoak poliziarekin edo arazoak ikastetxean, EAEko gazteen % 3k pairatzen ditu.

64. grafikoa. Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitu ondoren gazteek izandako arazo nagusiak.



Arazo ohikoenak motaren arabera taldekatzen direnean, ikus daitekeenez, gazteen % 36,1ek osasun-arazoak izan ditu, ia laurden batek harremanen inguruko gatazkak edo arazoak izan ditu, eta % 22k, gutxi gorabehera, gertakari pertsonalen bat edo trafikiko-istripuren bat izan du. Gainera, % 10,6k segurtasuneko eta ordena publikoko arazoak izan ditu, eta % 5,3k arriskuaren barruko sexu-portaerak izan ditu.

11. taula. Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitu ondoren 15-34 urteko gazteek izandako arazo-
prebalentzia, ezaugarri pertsonalen arabera (%)

		1.	2.	3.	4.	5.
		Osasun- arazoak	Istripuak	Harremanen arloko gatazkak	Arriskuaren barruko sexu- portaerak	Segurtasunik ezeko eta ordena publikoko arazoak
Adin-taldeak	15-19	28,2	21,6	20,7	4,5	8,3
	20-24	41,3	30,6	31,2	5,5	16,1
	25-29	40,5	21,9	23,7	4,7	9,5
	30-34	33,2	17,0	21,7	6,0	9,3
Sexua	Gizonak	31,7	16,3	21,8	4,9	9,6
	Emakumeak	20,6	8,4	10,6	1,9	3,1
	Guztira	26,1	12,4	16,2	3,4	6,3
Alkohol-kontsumoa asteburuetan	Abstemioa	14,3	5,4	7,9	1,4	2,8
	Ia abstemioa	18,5	6,8	10,2	1,2	2,5
	Gutxi edaten duena	37,8	16,8	24,8	6,0	9,3
	Gehiegi edaten duena	65,4	43,3	46,8	10,1	20,3
	Arriskuaren barruko edalea	84,1	60,2	53,3	20,8	41,3
Azken urtean botiloia egin izana	Inoiz ez	28,0	12,5	14,5	2,7	6,1
	Behin edo bi aldiz urtean	44,6	29,7	39,6	9,2	16,2
	Behin edo bi aldiz hilean	56,6	47,3	39,1	8,4	19,2
	Astero edo ia aste guztietan	87,0	79,1	75,1	24,5	32,5
Mozkorraldiak azken urtean	Inoiz ez	17,8	5,7	9,7	1,6	3,2
	1-5 aldiz urtean	58,2	33,6	39,1	7,8	17,1
	6-12 aldiz urtean	71,0	44,0	56,1	13,8	18,4
	12 aldiz baino gehiago urtean	83,2	74,0	63,7	18,0	41,2
Kontsumo intentsiboko aldiak azken hilabetean	Batere ez	21,6	8,7	12,0	2,1	4,5
	1-2 aldiz hilean	48,5	29,4	38,4	9,0	14,7
	3-4 aldiz hilean	48,8	31,1	36,4	7,2	16,1
	5 aldiz edo gehiago hilean	49,5	31,9	35,6	12,4	17,2
15-34 urteko gazte biztanleria		36,1	21,9	24,1	5,3	10,6

1. Osasun-arazoak: urdaileko, buruko minak. 2. Istripuak: erortzeak, nahigabe egindako kolpeak, eta trafiko-istripuak. 3. Harremanen arloko gatazkak: haserrealdiak lagunekin edo bikotearekin, aitarekin, amarekin, anai-arrebekin, eta botata geratzea. 4. Arriskuzko sexu-jokabideak: babesik gabeko sexu-harremanak eta nahi ez diren sexu-harremanak. 5.

Segurtasunik ezeko eta ordena publikoko arazoak: borrokak ezezagunekin eta arazoak poliziarekin.

Aipatutako bost arazo mota horietariko bat izan duten gazteen ezaugarriak aztertzen badira, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Mutilek neskek baino neurri handiagoan izaten dituzte adierazi ditugun arazo mota guztiak, batez ere indarkeriako eta desordena publikoko arazoei dagokienez.
- 30 urtetik gorakoek gazteagoek baino neurri txikiagoan izaten dituzte harremanen arloko arazoak, istripuak, eta gatazkak segurtasun-indarrekin. Hala ere, kontsumoaren ondoriozko osasun-arazoak izateko eta arriskuaren barruko edo nahi ez diren sexu-portaerak izateko aukera gehiago dituzte.
- Abusuzko kontsumo-patroiak eta horrelako kontsumoekin zeharkako harremana duten faktoreak dira arazoak agertzearen arrazoiak ongian azaltzen dituztenak: oro har, asteburuan gehiegi edaten dutenek aukera bikoitza baino gehiago dute osasunean ondorioak izateko, ia aukera hirukoitzak istripuak izateko, eta ia lau aldiz aukera gehiago segurtasunik gabeko sexu-harremanak izateko edo kaleko gertaeretan eta borroketan parte hartzeko. Botiloia ohiko moduan egiteak ere nabarmen handitzen du mota guztietako ondorioak izateko arriskua, batez ere segurtasunik gabeko edo baimenik gabeko sexu-harremanak izateko arriskua. Azkenik, ohiko kontsumo intentsiboak eragin berezia dauka gazteen gaitasunean kaleko istripuetatik eta poliziarekiko arazoetatik aldenduak egoteko.

Alkoholaren kontsumoaren ondorioz euskal gazteen pairatzen dituzten arazoei dagokienez, eta aurreko grafikoan bildutako datuen arabera, azkenik aipa daiteke aztertutako problematiken prebalentzia nabarmen murriztu dela 2006arekin alderatuta (bestalde, kapitulu honetan jasotako abusuzko kontsumoen beherakadarekin bat etorriz). Beherakada nabariena honako kasu hauetan ikusi dira: alkohola edatearen ondorioz babesik gabeko sexu-harremanak izan dituztela adierazten duten gazteen proportzioan (-% 50,5), nahigabe erori eta kolpeak egin dituztenen proportzioan (-% 48,8), eta kaleko gertaeretan parte hartu dutela edo poliziarekin arazoak izan dituztela adierazten dutenen proportzioan (-% 47,8).

III. KAPITULUA

TABAKOAREN KONTSUMOA EAEn

1. EAeko TABAKO KONTSUMOARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK


1.1. Tabako-kontsumoaren ereduak 2010ean

1.1.1. Kontsumo tipologia: erretzaileen % 28 eta erretzaile ohien % 25 dira

Tabakoarekin duen harremanari dagokionez, EAeko biztanleria honako era honetan banatu da 2010ean: % 34,1ek erretzailezat du bere burua –570.789 pertsona guztira–; horien artean, % 28,9k ohiko moduan erretzen du –483.698 pertsona– eta % 5,2k noizbehinka erretzen du, ospakizunetan edo gertakari berezietan. Erretzaile ohiak biztanleriaren % 25,2 dira –421.558 pertsona–, eta gainerako % 40,7ak ez du gaur egun erretzen, ez da lehen ere.


Kapitulu honetako hurrengo orrialdeetan bilakaeraren datuak xehetasun gehiagorekin aztertzen badira ere, 2008ko txostenean jasotako datuekiko erretzaileen ehunekoak zertxobait gutxitzen dela atzematen dela esan daiteke oraingoz, bai aldizka erretzen dutenen artean, bai, batez ere, ohiko moduan erretzen dutenen artean; azken horiek % 30,5 ziren 2008an eta % 28,9 2010ean. Ordainetan, erretzaile ohien eta inoiz erre ez dutenen ehunekoak igo dira, biak ere ehuneko puntu batean 2008ko *Euskadi eta Drogak* txostenean jasotako datuekiko. Nolanahi ere, ezin da esan atzerakada handia izan denik, eta hobe da esatea, gero adierazten den bezala, tabako-kontsumoaren adierazle nagusietan egonkortasuna dagoela.

65. grafikoa. Biztanleriaren banaketa, tabako-kontsumoaren motaren arabera (%)



Tabako-kontsumoa kontsumo motaren ikuspegitik aztertu beharrean, pertsona bakoitzak bere bizitzan substantzia horrekin duen edo izan duen kontaktuaren ikuspegitik egiten bada (txosten honetan aztertutako gainerako substantziekin egin den bezala), inkestatutako biztanleriaren % 60k –992.346 pertsonak– bere bizitzan behintzat behin (kontsumo esperimental) tabakoa kontsumitu duela ikusten da; aldiz, azkenaldiko kontsumoak (behintzat behin azkeneko urtean) eta egungoak (behintzat behin azkeneko hilabetean) % 35eko tasa jasotzen dute. Gainera, biztanleriaren % 31,3k –milioi erdi pertsona baino pixka bat gehiagok– tabakoa egunero kontsumitzen du gaur egun. Eguneroko, egungo edo azkenaldiko kontsumoaren prebalentzian ez dago alde handirik, eta horrek agerian uzten du tabako-kontsumoaren izaera ez dela oso noizbehinkakoa, eta horregatik txosten honetan aztertutako substantzia gehienetatik bereizten da, bestetan kontsumoa aldizkakoa edo noizbehinkakoa izaten baita.


66. grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentziak EAEko biztanlerian (%)



Kontsumo motaren ikuspegitik, ohiko moduan erretzen duten gizonen proportzioa emakumeena baino gehiago da oraindik ere –% 32,5 eta % 25,3–; kontrakoa gertatzen da tabakoa inoiz kontsumitu ez dutenen kasuan: emakumeen % 47,1 gizonen % 34,3aren aldean.


Hala ere, aldizkako kontsumoa duten pertsonen proportzioa berdina da bi sexuetan. Beraz, oro har, tabako-kontsumoa batez ere gizonen ohitura izaten jarraitzen du.

67. grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentziak sexuaren arabera (%)



Zenbaitetan adierazi den bezala, azkeneko urteetan berdintasunerako joera bat jaso da tabako-kontsumoaren genero-ikuspegitik, eta hori hobe ikus daiteke gizon-emakumeak adin-tarte ezberdinetan zatituz. 2010. urteari dagokionez, 15-34 urteko gizonen eta emakumeen ohiko kontsumo-tasak oso antzekoak direla esan daiteke behintzat, eta hortik gora ohiko emakume erretzaileen ehunekoak gizonena baino gutxiago izatera jotzen du. Izan ere, gazteen tarte batzuetan emakumeen kontsumoak gizonena gaintitzen du: 25-29 urte artean, emakume erretzaileen ehunekoa handiagoa da ohiko moduan erretzen dutenen artean –% 38 eta % 37,1– zein aldizka erretzen dutenen artean baino –% 9,4 eta % 6,6– eta erretzen ez duten gizonak gehiago dira: % 42,9 emakumeen % 38,7aren aldean. Egoera alderantzizkoa da adin handieneko tartetean; horietan 65 urte baino gehiagoko hamar emakumeetatik zazpik (% 76,9) ez dute erretzen, hamar gizonetatik bik ohiko moduan erretzen dute eta hamarretik bostek kontsumitzeari utzi diote, erretzaile ohi diren adineko emakumeen % 15,2aren aldean. Hortaz, tabako-kontsumoaren erduei dagokionez generoen arteko parekatzea 15-34 urteen artean gertatzen da, funtsean.

68. grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentziak sexuaren eta adinaren arabera (%)




Nolanahi ere, gizonen nahiz emakumeen artean ohiko kontsumo-tasa handienak gazteen taldeetan jasotzen dira: 20-29 urteko emakumeen kasuan eta 20-24 urteko gizonen kasuan, nahiz eta azken horien artean oso tasa handia ikusten den 35-44 urtekoen artean. Adin handiagoko pertsonen aldean, tabako-kontsumoaren aurreiritziak oso ezagunak ziren testuinguru soziokultural batean hezi ziren kohortea dira horiek, eta egitate horrek agerian uzten du orain arte biztanleria horri zuzenduriko prebentzioaren eta osasunerako hezkuntzaren mezuen eraginkortasunik eza erlatiboa.

Pertsonaren jardueraren edo okupazio nagusiaren ikuspegitik (edo haren erreferentziarako familia-unitatetik) kontsumo-tasa handienak langabeei dagozkie: langabezia-egoeran dauden hamar pertsonatik lauk ohiko moduan erretzen dute, eta horien hurrengoak langileak dira, horien % 33,1ek ohiko moduan erretzen baitu. Erretzaile ohien ehuneko handiena erretiratu eta pentsiodunak dira (% 44), agian kolektibo horretan 65 urte baino gehiagoko gizonen garrantzia dela-eta eta tabako-kontsumotik eratorritako osasun-arazo larriagoak izan

ditzaketelako. Beren aldetik, etxeko lanetan jarduten duten pertsonak ez-erretzaileen oso ehuneko handiak dituzte –ia hamarretik sei pertsona–, baina hori espero zitekeena da gehienak adineko emakumeak baitira. Gauza bera gertatzen da ikasleen kasuan, horien erdia baino gehiago ez-erretzaileak baitira (% 58,2). Alde horien atzean, benetan, berez okupazio-egoerari baino adinari eta sexuari lotuta kontsumo-jardunbide ezberdinak daudela ikusten da (salbu eta langabezian, izan ere adinari eta sexuari dagokionez horien profila okupatuen antzekoa da).

69. grafikoa. Biztanleriaren banaketa tabako-kontsumo motaren arabera eta inkestatutako pertsonaren jardueraren arabera (%)



Hala ere, badago inkestatutako pertsonen laneko okupazioari lotutako aspektu bat ez zaiona hainbeste sexuaren eta adinaren faktoreari lotzen, baizik eta –neurri batean behintzat– 2006an estatu osoan tabakoaren aurkako osasun-neurriei buruzko eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legearen sarrerari. Benetan, 2006-2010 aldian biztanleria osoan ohiko kontsumo-tasak % 6,4 jaitsi badira, langileen artean % 8,3 jaitsi dira, eta hori lantokietako tabako-kontsumoari lotutako araudi zorrotzaren hasiera dela-eta izan daiteke. Nolanahi ere datuak ez dira kategorikoak, langabeen artean jaitsiera % 12 izan baita eta ikasleen artean –araudiak ere eraginpean hartzen ditu– % 33ra heltzen da. Dena dela, aipagarria da laneko guneko tabako-kontsumoaren arautzearekin batere zerikusirik ez duten bi kolektiboaren artean jaso direla gutxiagotze txikiak, hau da, pentsiodunak eta etxeko andreak.


12. taula. Ohiko kontsumo-tasen bilakaera okupazio-egoeraren arabera 2006-2008 aldian

	2006	2010	Jaitsiera
Lana du	36,2	33,1	8,3
Langabea	46,2	40,3	12,8
Etxeko andrea	18,7	17,2	8
Erretiratua	20	21	-5
Ikaslea	32,4	21,7	33
Guztira	30,9	28,9	6,5

1.1.2. Kontsumoaren modalitateak eta intentsitateak

Galdetutako pertsonari egunean erretzen dituen zigarreta, puru edo pipa kopurua adierazteko eskatzen duen galdera bat hartzen du barnean txosten honen oinarri den droga-kontsumoei buruzko inkestak. Jasotako datuek azaltzen dute erretzaileen gehiengo zabal batek tabakoa zigarreta moduan erretzen dutela (% 91,4), eta % 4,8k puruen kontsumoarekin nahasten duela. 2010ean, EAEko biztanleria erretzailearen % 2,7k bakarrik erretzen ditu puruak huts-hutsik, 2008an jasotakoa baino askoz gutxiago, alegia (% 6,3). Jaitsiera horren arrazoia izan daiteke kontsumitzaile gehienak adineko gizonak izatea, eta horiek dira erretzaile ohien proportzio handieneko adin-tartea, aurreko puntuan ikusi den eran. Pipan erretzen duten pertsonak zein egunero erretzen ez dutelako tabako mota eta kontsumitzen duten kantitatea adierazi ez dutenak hartzen dira barne besteak kategorian, eta talde hori erretzaile guztien % 1,1 da bakarrik.

70. grafikoa. Noizbait erre dutenen banaketa, kontsumitzen duten tabako motaren arabera (%)




Inkestatutako pertsonak adierazitakoari jarraiki, ezin da tabako-kontsumoa bereziki trinkoa denik esan. Zigarreten batez besteko eguneko kontsumoa 12,8 da; puruena 2,5 eta pipena 3,2. Zigarreta-erretzaileek pakete bat egunean ohiko moduan (edo era modalean) erretzen dutela adierazten dute –20 zigarretaren baliokidea–, aldiz, puruen eta pipen erretzaileek puru bat edo pipa bat erretzen dute egunean. Beraz, esan daiteke kontsumoaren intentsitatea asko aldatzen dela kontsumitzen den tabako motaren arabera eta kontsumoaren izaera ohikoa edo aldizkakoa bada.

Egunean zigarreta-pakete bat baino gutxiago erretzen dutela adierazten dute ohiko erretzaileen ia % 90ek. Erretzen zutenean, erretzaile ohien artean ehunekoa txikiagoa zen –% 83–, eta horren arrazoa izan daiteke erretzaileen kontsumoa benetan trinkoagoa izatea –eta horrek kontsumitzeari uztera eraman ditu–, zein adinetik eratorritako erabileren jarraibideengatik –erretzaile ohiak maiztasun handiagoz adineko pertsonak izaten baitira–. Nolanahi ere, erretzaile ohien artean aipagarriak dira tabakoa erretzeari utzi aurretik egunean 31-40 zigarreta erretzen zituzten % 7a eta egunean bi pakete baino gehiago erretzen zituzten % 1,7a. Ohiko erretzaileen kasuan ehuneko horiek askoz txikiagoak dira, % 1,1 eta % 0,4 hurrenez hurren.

Puru-erretzaileen profila aldizkakoaren hurbilena da. Ohiko erretzaileen artean, nahiz aldizkakoen eta erretzaile ohien artean, gehienek ez dute egunean puru bat baino erretzen. Hala ere, erretzaile ohien artean kopuru esanguratsu batek erretzeari utzi aurretik bi puru erretzen zituzten egunean, eta ohiko erretzaileen % 27,8k egunean hiru puru edo gehiago erretzen dituzte.


71. grafikoa. Zigarreta-kontsumoaren intentsitatea kontsumitzaile motaren arabera



Sexuaren ikuspuntutik, esan bezala, gizonak gehiago dira ohiko erretzaileen artean –% 56,2 eta % 43,8–; talde horren barnean, gizonak dira ere intentsitate handiagoz erretzen dutenak. Ohiko moduan erretzen duten emakumeen % 54,4k egunean gehienez hamar zigarreta

erretzen dutela esan dute, ohiko moduan erretzen duten gizonen % 42,8aren aldean. Era berean, pakete bat baino gehiago erretzen duten emakumeen ehunekoa (% 5,1) gizonen artean erregistratutakoa baino dezente txikiagoa da (% 12). Erretzaile ohien kasuan, alde horiek handiagotuta errepikatzen dira. Hortaz, adin jakin batzuetan emakumeen kontsumo-tasek agian gizonenak berdindu badituzte ere, gizonen kontsumoak izaera trinkoagoa du oraindik.


72. grafikoa. Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea sexuen arabera (%)



Eguneko kontsumoaren intentsitatea ohiko erretzaileen adinaren ikuspuntutik aztertzen bada, erretiroaren adinera arte pixkanaka handitzen dela ikus daiteke, eta hortik aurrera kontsumoaren intentsitatea zertxobait murrizten da. Grafikoan ikus daitekeenez, kontsumoko intentsitate gehieneko adinak 30 urtetik 64 urtera doazenak dira gutxi gorabehera, eta eguneko pakete bat baino gehiagoko erretzaileen ehunekoak 55-64 urtean du bere gehienekoa, eta bizitzako azkeneko urteetan berriz ere behera jotzen du.


Erretzeari utzi dioten pertsonen kasuko datu berak aztertzen baditugu, joera ezberdina da. Alde batetik biztanleria gazteenak, 15-29 urtekoek, orokorrean kontsumo-intentsitate txikiak dituela ikusten dugu, eta urte hauetan guztietan gehienez eguneko pakete bat erretzen zutenak gehienago ziren. Hala ere, hogeita hamar urtetik gora gehienez hamar zigarreta erretzen zituzten pertsonen kopuruak nabarmen behera egiten duela ikusten da, baita eguneko 20 zigarreta baino gehiago kontsumitzen duten pertsonen hazkunde progresiboa ere, eta 65-74 urteko biztanleriarengan heltzen da gehieneko baliora (% 21,8). Kasu honetan, oker egoteko beldurrik gabe esan daiteke adineko pertsona horietako gehienak medikuaren aginduz edo kontsumotik eratorritako osasun-arazoaren ondorioz direla erretzaile ohiak.

73. grafikoa. Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea adinaren arabera (%)



Erretzaileen adinean eta sexuan oinarrituz aztertzen bada, adin-tarte guztietan gizonen kontsumoaren intentsitatea handiagoa dela esan daiteke. Nerabezaroan, hamar emakume erretzailetatik bederatzik egunean gehienez hamar zigarreta kontsumitzen dituzte, eta intentsitatea adina handitzen den heinean handitzen doa. Gizonen kasuan joera antzekoa da, baina tarte guztietan intentsitate handiagoa du, eta 55-64 urteko adin-tartean eguneko 20 zigarreta baino gehiago erretzen duten gizonen % 24ra heltzen da. Emakumeen kontsumo-intentsitatearen maila handiena 45-54 urte-tartekoa da, eta tarte horretan erretzaileen ehuneko 11,3k bi pakete baino gehiago erretzen ditu egunean. Nolanahi ere, esanguratsua da adin gehienekoen arteko kontsumo trinkoko patroia oso antzeko eran jasotzen dela gizonen eta emakumeen artean.

74. grafikoa. Ohiko erretzaileak. Kontsumoaren intentsitatea adinaren eta sexuaren arabera (%)




Aurreko txostenetan adierazten zen moduan, galdetutako pertsonaren jarduerak lotura handia azaltzen du kontsumoaren intentsitatearekin, betiere adinaren eta sexuaren eraginarekin.

Gainera esan behar da, kontsumoa gune publikoetan mugatzeko eta lantokietan debekatzeko neurri berriak ezarri zirenetik, pertsonak euren jardueraren baldintzapean baliagarri duten denborak ere eraginpean har dezakeela korrelazio hori, laneko denboran erretzeko aukerak gogor murriztu diren heinean estatuan sartutako tabako-kontsumoaren araudi erregulatzailaren ondorioz.

Hortaz, kontsumo trinkoena duen taldea erretiratuena, pentsiodunena eta baliaezintasunagatikiko prestazioak jasotzen dituztenena dela ikus daiteke, hori baita adineko gizonen kopuru handiena biltzen duen taldea eta ikasleak dira, aldiz, mudo apalagoan kontsumitzen dutenak. Langileek kontsumoaren intentsitate handia dute, baina Espainiako estatu osoan Tabakoaren Aurkako Legea ezarri zen 2006ko datuekiko murrizketa nabarmena ikusten da: % 53,1ek gehienez hamar zigarreta erretzen ditu egunean, 2006ko % 40,2aren eta 2008ko % 41aren aldean; % 37,2k 11-20 zigarreta erretzen ditu egunean, 2006ko % 49aren aldean; eta etxetik kanpo ohiko moduan erretzen duten % 9,8ak egunean pakete bat baino gehiago erretzen dute, 2006ko % 10,7aren aldean. Beraz, kontsumo trinkoena duten langileen artean jaitsierarik ez dela egon esan daiteke –% 10ean irauten dute–; aitzitik, kontsumo moderatua zutenek –10-20 zigarreta egunean– are gehiago murriztu dute beren kontsumoa.


75. grafikoa. Ohiko erretzaileak eta erretzaile ohiak. Kontsumoaren intentsitatea galdetutako pertsonaren jardueraren arabera (% horizontalak)



Aurreko txostenetan bezala, kontsumoaren iraupenaren eta egunero erretzen diren zigarreten kopuruaren arteko lotura argia dagoela egiaztatzen da beste aldetik. Kontsumo-ibilbide luzeeneko erretzaileak dira ere trinkoen kontsumitzen dutenak, nahiz eta ehunekoak oso antzekoak izan 20 urte baino gehiagoz erretzen ari direnentzat zein erretzeko ohitura 11—20 urte lehenago hartu zutenentzat. Hala ere, aurreko urteetan ez bezala, intentsitatea era esanguratsuan jaitsi da erretzen 20 urte baino gehiago daramaten pertsonen artean: % 46,5ek

egunean pakete-erdia erretzen du gehienez, 2008ko zenbateko bera erretzen zuen % 31,2aren aldean; halaber, erretzen 20 urte baino gehiago daramaten pertsonen % 8,5ek bakarrik erretzen dute pakete bat baino gehiago egunean, eta horien aldean, 2008an hamarretik bik baino gehiagok kopuru hori erretzen zuten (% 24,7). Erretzen bost urte baino gutxiago daramaten pertsonetik, hamarretik ia bederatzik hamar zigarreta kontsumitzen ditu egunean, eta % batek soilik pakete bat baino gehiago erretzen du egunean.


76. grafikoa. Kontsumoaren intentsitatea kontsumoaren iraupenaren arabera (% horizontalak)



1.1.3. Kontsumoa 16 urterekin hasten da


Inoiz erre duten EAeko pertsonen, noizbehinka nahiz ohiko moduan, nerabegaroko azkeneko urteetan hasi zuten kontsumoa, zehazki 16,7 urterekin batez beste. Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, kontsumitzaile tipologiaren arabera ez dago hasteko adinari buruzko ezberdintasun handirik, ez oraingo erretzaileen zein erretzaile ohien artean, ez ohiko moduan zein noizbehinka erretzen dutenen artean.

77. grafikoa. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, kontsumitzaile moten arabera



Aitzitik, sexuaren eta adin-taldearen arabera kontsumoa hasteko batez besteko adinean ezberdintasunak atzematen dira, eta emakumeengan bereziki esanguratsua da. Alde batetik, 65-74 urteko emakumeen taldeak kontsumoa 21,6 urterekin hasi zuten batez beste, eta beste aldetik 15-24 urteko nerabe eta emakumeek 15 urterekin hasi zuten batez beste, aurrekoek baino sei gutxiagorekin eta horrek, jakina, agerian uzten du nolako neurrian aldatu diren tabako-kontsumorako sarrera-jarraibideak urteek aurrera egin ahala. Nahiz eta gizonen kasuan ezberdintasunak ez izan hain nabarmenak, adin-talde gazteenen eta zaharren arteko desoreka-egoera berdina gertatzen da. Tarteko taldeak, 25-54 urtekoak, kontsumoa hasteko batez beste orokorretik hurbilen daudenak dira, eta biztanleria zahartu ahala igo eta gartzetu ahala jaitsi egiten da. Bestalde, aurreko txostenetan iragartzen zenez, kontsumoa hasteko adinari dagokionez gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunek talde gazteenetan desagertzeko joera dutela aipagarria da, azken hamarkadetakako emakume biztanleriaren artean tabakoaren erabilera pixkanaka normalizatu baita.


78. grafikoa. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-taldearen arabera



Kontsumoa hasteko adinari lotuta kontsumoaren intentsitatearen aldaketari dagokionez, datuek bi dimentsioen arteko korrelazio esanguratsua dagoela azaltzen dute. Hurrengo


grafikoan ikus daitekeenez, kontsumoa gazte-gazte hasia kontsumoaren intentsitate handiagoari lotuta dago, eta horregatik egunean 1-5 zigarreta erretzen dituztenen eta bi pakete baino gehiago kontsumitzen dituztenen arteko kontsumo-hasieraren batez bestekoaren aldea 3 urtekoa da, gutxiago azken horientzat. Beraz, tabako-kontsumoa hasteko adinaren atzerapenak erabilera-patroi trinkoak ez hartzeko babesten duela pentsa daiteke –beste substantzien kasuan bezala–, neurri batean behintzat.

79. grafikoa. Erretzaileen hasteko batez besteko adina kontsumoaren intentsitatearen arabera



Jardueraren araberako ezberdintasunak ere aipagarriak dira baina interpretatzeko zailak, adin- eta sexu-faktoreek baldintzatzen dutela baitirudi. Hortaz, etxekoandreak dira kontsumoa beranduen hasi dutenak eta ikasleak tabakoa gazteago probatu dutenak, eta adin-tarteak bat datoz sexuaren eta galdetutakoen adin-tarteen arabera jasotako zenbatekoekin. Beraz, beste jarduera-taldeena baino adin handiagoa izatea tabako-kontsumoa hasi zuteneko etxekoandreen, erretiratuen eta pentsiodunen batez besteko adin handiaren arrazoia dela esan daiteke – emakumeek kontsumoa beranduago hasten dutela erantsi behar zaie etxeko andreei–, eta kontrakoa gertatzen da ikasleen kasuan.


80. grafikoa. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina jardueraren arabera



1.1.4. Kontsumoaren iraupena: kontsumoko 23 urte batez beste

Batez beste, inkestaren unean erretzen zuten pertsonen, ohiko moduan nahiz aldizka, 23,8 urte zeramatzen hori egiten; erretzaile ohiak erretzeari utzi ziotenean ez ziren kontsumoko 20 urtera iritsi (18,3 urte). Ez dago ohiko erretzaileen eta aldizkako erretzaileen arteko ezberdintasunik; antza denez; beraz, kontsumoari eustea da araua, baita aukera berezietan erretzen duten pertsonen ere, intentsitate eta maiztasun gutxiagorekin bada ere.


81. grafikoa. Kontsumoaren batez besteko iraupena kontsumitzaile tipologiaren arabera (urteak)



Galdetutako pertsonen kontsumo-iraupearen eta sexuaren arabeko banaketa ere oso antzekoa da, nahiz eta 20 urte lehenagotik erretzen duten gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa izan: hamar gizonetik ia seik bi hamarkada baino gehiago daramate erretzen, hamarretik bostek emakumeen kasuan. Hala ere, emakumeek gizonena gainditzen dute erretzeko ohitura duela hamarkada bat baino gehiago hartu zuten erretzaileen taldean – emakumeen % 36,6 gizonen % 24,1aren aldean–. XX. mendeko bigarren erditik aurrera emakumeak tabako-kontsumo normalizatuan pixkanaka sartu zela baieztatzen dute emaitzek,

agian, beste drogen kasuan baino neurri handiagoan. Berdintze-joera hori ohitura duela bost urte baino gutxiago hartu duten pertsonengan egiaztatzen da –eta gazteago direla aurreuposatzen da–; eta horiengan emakumeen proportzioa (% 5,7) gizonena baino zertxobait handiagoa da (% 5,6).


82. grafikoa. Erretzaileen banaketa kontsumoaren iraupenaren arabera eta sexuaren arabera (% bertikalak)



1.1.5. Uzte-tasa: hasi duten hamarretik laurk kontsumitzaeri utzi diote


Uzte-tasak beren bizitzan inoiz tabakoa kontsumitu duten pertsona guztien artean erretzaile ohien proportzioa jasotzen du. 2010ean tasa hori % 42,5 da, generoaren araberako ezberdintasun ia sumagaitzekin (emakumeen uzte-tasa % 42,4 da eta gizonena % 42,5). Aitzitik, ezberdintasunak atzematzen dira, espero zitekeenez, adierazle hori adin-taldean arabera aztertzen bada. Uzte-tasa handiena da adin handieneko pertsonen artean, besteen gaineko ezberdintasun handiarekin. 65-74 urteko pertsonak dute tasa handiena –zehazki % 66–, aldiz 20-24 urteko gazteak dira tasa txikiena dutenak –% 15,4–. Era berean, biztanleria gazteenaren uzte-tasa, 15-19 urtekoena, % 23,7 dela adieraztea garrantzitsua da, hau da, 2006an jasotakoa baino askoz ehuneko handiagoa, urte horretan adin-talde horren uzte-tasa % 12,2 baitzen. Aurrerago aztertzen da, nolana ere, adierazle horren bilakaera.

83. grafikoa. Kontsumoaren uzte-tasa adin-taldearen arabera (%)




Pertsonen okupazioa ere badirudi ohitura uzteari lotuta dagoela, nolahi ere adinaren, sexuaren eta jardueraren arteko erlazioa dela-eta. Hortaz, uzte-tasa handiena erretiratuen eta pentsiodunen artean jasotzen da (% 63,3), eta horiek gehienetan adin handieneko taldeei dagokien pertsonak dira. Horien atzetik, nahiz eta hamar puntuko aldearekin, etxeko andreak eta lanaren aldetik okupatuta dauden pertsonak dira. Langabeak eta ikasleak dira uzte-tasa txikienak dituzten kolektiboak; bietako bat ere ez da kasuen % 30era iristen 2010ean.

84. grafikoa. Kontsumoaren uzte-tasa okupazioaren arabera (%)




Kontsumitzen hasteko eta uzte-tasaren arteko batez besteko adinaren erlazioari buruz, nahiz eta ezberdintasunak ez izan oso nabarmenak, dirudienez orokorrean ohitura are eta beranduago hartu, uzte-tasa gero eta handiago dela adierazten dute emaitzek.

85. grafikoa. Kontsumoaren uzte-tasa hasteko adinaren arabera (%)



Kontsumoaren intentsitateak badu uzte-tasarenganako eragin nabarmena: Erretzen zutenean zigarreta gehien kontsumitzen duten pertsonak dira ere tabakoari neurri handienean uzten diotenak. Zehazki, eguneko 31-40 zigarreta erretzen dituztenen edo zituztenen kontsumoaren uzte-tasa % 85,6 da, eta zertxobait gutxiago (% 78,7) eguneko bi pakete baino gehiago kontsumitzen dutenen edo zutenen artean. Eguneko zigarreta bat eta 30 bitartean kontsumitzen dutenen edo zutenen uzte-tasa ez da ezein kasutan % 50era iristen.

86. grafikoa. Uzte-tasa kontsumoaren intentsitatearen arabera (%)



1.2. EAEko tabako-kontsumoaren ereduaren bilakaera


1.2.1. Ohiko erretzaileen eta erretzaile ohien ehunekoaren egonkortasuna, jaisierarako joera txiki batekin

Bilakaeraren ikuspegitik, eta tabako-kontsumoarekiko harremanaren arabera biztanleriaren banaketari dagokionez, ia erabateko egonkortasunaz hitz egin daiteke oraindik, 2008ko txostenean bezalaxe, kontsumo-tasetan behera egiteko joerarekin, gehien jota. Benetan, aurreko aldiaren aldean, erretzaileen proportzioa zertxobait jaisten da (aldizka zein ohiko

moduan erretzen dutenak hartzen ditu barnean horrek), eta handitzen da, zertxobait ere, erretzaile ohiena eta inoiz ere ez dutenena. Nahiz eta aldaketak oso arinak izan –2006. eta 2008. urteekiko ehuneko puntu bat gutxi gorabehera kontsumitzaile tipologia guztietan–, badirudi erretzaileen ehunekoak zertxobait behera egiten duela EAEn, agian osasun-arloko oharrei, osasunerako hezkuntzari eta toki publikoetan tabako-kontsumoa mugatzeko hartutako neurri arautzaileei arian-arian erantzun dielako biztanleriak.


Nolanahi ere, datu horien interpretazio ezkorrago batek adieraz dezake 90ko hamarkadako erdialdera gertatu zen erretzaileen ehunekoaren jaitsiera gelditu dela, erretzaile ohien ehunekoa ez dela hazten eta, jaisteari utzi badio ere, tabakoa inoiz kontsumitu dutenen ehunekoa ez dela ia igotzen Euskadin. Ikuspuntu horretatik, baita ere adieraz daiteke tabako-kontsumoko jaitsierak legez kanpoko drogetan gertatutakoak baino txikiagoak direla, horiek kontsumoko jaitsiera argiagoak jasotzen baitituzte orokorrean.

87. grafikoa. Kontsumoaren prebalentziaren bilakaera kontsumitzaile tipologiaren arabera. 1992-2010 (%)




Nolanahi ere, baikorragoa dirudi tabako-kontsumoaren uzte-tasaren bilakaera. Nahiz eta erritmo geldoagoan, erretzaile ohien ehunekoa hazten ari da substantzia hori inoiz kontsumitu duten pertsonetik eta, izan ere, 2010ean jasotako uzte-tasa aztertutako aldi osoko handiena da.

88. grafikoa. Tabakoa kontsumitzeari uzteko tasaren bilakaera. 1992-2010 (%)




Kontsumo-prebalentzien bilakaerari dagokionez, generoagatiko ezberdintasunei erreparatuz, eta honako grafiko honetan argi ikus daitekeenez, erretzaile tipologia guztietan zenbatekoak berdintzeko joera egon da, batez ere mende berria hasi zenetik; izan ere, 2000tik, gizon erretzaileen eta emakume erretzaileen arteko ratioa 1,2 gizon erretzailearen inguruan egonkor geratu da emakume erretzaile bakoitzeko. Zentzu horretan, eta emakume gazteek gaur gizon gazteek adina erretzen badute ere, ezin da esan gizonen eta emakumeen kontsumo-tasak hurbiltzen ari direnik.

89. grafikoa. Kontsumoaren prebalentziaren bilakaera kontsumitzaile tipologiaren eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)




Benetan, epe ertainera, bi sexu-erako askotariko erretzaile-tipologiaren bilakaera ikusten da, hortaz, ezin da esan sexu-ezberdintasunak handitzen edo murrizten ari direnik tabako-kontsumoari dagokionez, 2000. urtetik behintzat.

90. grafikoa. Gizonen kontsumo moten ratioen bilakaera emakumeeneko. 1992-2010 (%)



Erretzaileen adinaren arabera kontsumo-prebalentzien bilakaerari buruz adin-tarte guztietan egonkor egoteari eusten diola esan daiteke, 25-34 urteko pertsonak salbu; horien artean oraindik handiena bada ere, 2008an jasotakoari dagokionez 7 puntuan jaisten da. 1992an datu hori neurtzen hasi zenetik, 55 urte baino gehiagoko pertsonen taldea da kontsumo-prebalentzia gutxienekoa, nahiz eta horren kontsumoa izan gehien igotzen dena eta aldi berean adin txikiagoko taldeen artean prebalentzia txikitu. Beraz, beste substantziekin bezala nolabaiteko bateratasuna sortzen da adin-taldeetako kontsumo-tasetan.


91. grafikoa. Azkeneko hilabeteko kontsumo-prebalentziaren bilakaera adin-taldeen arabera. 1992-2010 (%)



Hurrengo grafikoak epe motzera, ertainera eta luzera jasotako kontsumo-tasei buruzko aldaketak jasotzen ditu adin-tarteen arabera. Hor argi ikusten da kontuan hartutako epea

edozein izanik ere nola talde gazte eta helduen kontsumoa murrizten den, 55 urte baino gehiagokoena igotzen den bitartean (salbu eta epe motzera).

92. grafikoa. Tabako-kontsumo egungo aldaketa epe motzera, ertainera eta luzera, adin-taldean arabera



Oharra: Epe luzerako aldaketa 1992-2010 aldiko aldaketei buruzkoa da; epe ertainerakoa 2000-2010 aldikoa eta epe motzerakoa 2008-2010 aldikoa.

1.2.2. Kontsumitzen hasteko adinari eusten zaijo

Aurreko txostenetan adierazten zen bezala, tabako-kontsumoan hasteko adina serie honetako aurreko inkestekin konparatzeak zenbait muga ditu, kontsumitzen hasteko adina galdesortan 1996tik aurrera soilik hartu zelako kontuan, nahiz adin hori kalkulatzeko hautatutako biztanleria urte batzuetatik bestetara aldatu delako⁷. Muga horiek gorabehera, eta horiek kontuan hartuta, alderaketa datuak ditugun urte guztietara zabaltzeko aukera egin da, azkeneko sei inkestetara mugatu beharrean.

Azkeneko urteetan, kontsumitzen hasteko adina erlatiboki egonkor egoteari eutsi diola baieztatzen du konparaketa horrek, eta horren aldaketa minimoa 16,7 eta 17 urte bitartean dabilela, betiere 2002ko inkesta salbuetsita hor jasotako adina 17,5 baitzen. Aurreko hiru txostenetan batez besteko adinak 17 urteei eutsi zien, eta 2010ean zertxobait jaitsi zen 16,7rainoe. Nahiz eta ez izan oso jaitsiera nabarmena, etorkizuneko txostenetan adierazle horri erreparatzea garrantzitsua da eta biztanleria gazteena tabako-kontsumitzaileen kolektibora


⁷ 1996ko eta 1998ko txostenetan, erretzaile ohiak barnean hartuta noizbait kontsumitu zuten pertsona guztien hasteko adinari buruzko datuak aurkeztea erabaki zuten, eta 2002. urtetik aurrera, aldiz, konparaketa erretzaileetara mugatu zen.

biltzea gutxitzen lagunduko duten jardun-ildoak diseinatzea ere bai, batez ere adierazi den bezala, tabako-kontsumoa hasteko garaiaren atzerapenak kontsumo-patroi trinkoenen aurrean duen babes-ahalmena kontuan hartuz.

93. grafikoa.

Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera.


1996-2010⁸



Adin-tarte bakoitzean kontsumitzen hasi ziren erretzaileen proportzioa aztertzen badugu ondorioak berdinak dira. Nahiz eta joera historikoa egonkortasun gisa defini daitekeen, hasteko adinaren txikitze apala ikus daiteke, izan ere, 17 urte baino gutxiagotik 20 urtera doazen tarteen proportzioa igotzen da, eta 20 urte baino gehiagorekin kontsumitzen hasten diren pertsonen proportzioa % 11,4tik (2008an) % 9,8ra aldatzen da.

94. grafikoa. Erretzaileen banaketa kontsumitzen hasteko adinaren arabera. 1996-2010 (%)

⁸ 1996-1998 aldian, 2006-2010 aldian bezala, kontsumitzen hasteko batez besteko adina kalkulatzeko noizbait kontsumitu duten pertsona guztiak hartzen dira kontuan, baina 2002. eta 2004. urteetan une honetan erretzaileak zirela baieztatzen zuten pertsonak bakarrik hartu ziren kontuan.




1.2.3. Kontsumoen intentsitatea murrizten da

Euskal biztanleria tabakoaren erabilera zer neurritan eta zer adinetan hasten dueneko bilakaera aztertzeaz gainera, azkeneko urteetan kontsumo horren intentsitatea nola aldatu den jakitea garrantzitsua da. Hurrengo grafikoari begiratzen badiogu 2010ean 2008arekiko kontsumoaren intentsitatea jaitsi egin dela esan dezakegu, eta orokorrean 1994tik joera hori duela⁹. Pakete-erdi baino gehiago erretzen dutenen proportzioa gutxitu da, baita pakete bat baino gehiago erretzen dutenena ere, eta intentsitate gutxienerako kontsumitzaileak, egunean gehienez pakete-erdi erretzen dutenena, igo da. Erretzaile trinkoenen ehunekoaren murrizteko gaitasuna agortzeari buruz aurreko txostenean adierazten zirenen bestelakoak dira datu horiek, urte horretan unean-unean goraka egin baitzuen; izan ere, 2008ko % 11tik 2010eko % 7,5era pasatu da. Izan ere, 1992tik, adierazle hori etengabe jaitsi da, bi gorakada txiki izan ezik, 1994an eta 2008an, eta 2010ean serie osoko balio txikienera heldu da.

⁹ Zentzu horretan, tabako-kontsumoaren patroien bilakaera, legez kanpoko drogetan eta, neurri batean, alkoholean ikusitakoa berdina dela esan daiteke.

95. grafikoa. Egungo erretzaileen banaketaren bilakaera kontsumoaren intentsitatearen arabera. 1992-2010 (%)




1.3. EAEko tabako-kontsumoa, perspektiban

1.3.1. Tabako-kontsumoaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn

Sarrerako kapituluari adierazienez, 2009-2010 aldiko Alkoholari eta Drogei buruz Espainian egindako etxeko Inkestako (ADEEI) datu nagusiak aurkeztu dira berriki eta horietan kontsumoak behera sei urtez egin ondoren, ohiko tabako-kontsumoaren tasaren igoera ikusten da, gizarte-eztabaidaren eta geroagoko tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen 28/2005 Legearen aldi berean. Egoera hori EAEko kontsumo-tasaren bestelakoa da, izan ere 2008-2010 aldian ez da aldatu edo, beharbada, zertxobait gutxitu da.

Hala eta guztiz ere, eta bi lurraldeetako bilakaera beste ikuspegi batetik ikusita, hamarkada honen hasieran jasotzen ziren kontsumoetako ezberdintasun nabarmenen ondoren (2001-2002 aldian, EAEko ohiko erretzaile-tasa % 26,2 zen bitartean, Estatu espainol osoan % 35,7ra heltzen zen tasa hori), azkeneko urteetan kontsumoek berdintzeko joera izan dute, eta ia berdinak izan dira 2007-2008 aldian. Azkeneko emaitzek bi lurraldeetako kontsumo-tasak berriz aldentzen direla adierazten dutela dirudi, baina benetan horrela den edo abaguneko datu soil bat den jakiteko beste txostenei itxaron beharko zaie.

96. grafikoa. Eguneroko tabako-kontsumoaren tasaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn, 1992-2010 aldian (%).



Iturria: Euskadi eta Drogak 2010 eta Alkoholari eta Drogei buruz Espainian egindako etxez etxeko Inkesta, 2009-2010.

Aurreko grafikoa azaldutako ezberdintasunak orientatzaileak soilik direla kontuan izan behar da, honako bi arrazoi hauengatik: lehenik, biztanleria-unibertsoa ez da bera (estatuaren kasuan 15-64 urteko biztanleria hartzen da kontuan eta EAEn kasuan 15-74 urtekoa) eta, bigarrenik, adierazlea ere ez da bera, estatuaren kasuan eguneko kontsumoaren bilakaera eta Euskadirenean ohiko kontsumoa hartzen baitira kontuan (eta 2010ean egunekoa baino bi puntu gutxiago da).

Alborapen horiek, zati batean behintzat, ezabatzeko sexuen eta adin-tarteen arabeko eguneko kontsumoa (Espainiarako) eta ohiko kontsumoa (EAERako) aztertu nahi baditugu, bilakaeraren joeran alde batzuk ikusten ditugu. Hortaz, gazteen kasuan, emakumeen kontsumoak argi egiten du behera, Euskadin nahiz estatu osoan; aldiz, gizonenak behera egiten du Euskadin azkeneko sei urteetan, baina gora egiten du Estatuan azkeneko biurtekoan.

13. taula. Eguneko (Espainia) eta ohiko (EAE) kontsumoaren bilakaera 15-34 urteko biztanlerian sexuaren arabera

	1999/2000	2001/2002	2003/2004	2005/2006	2007/2008	2009/2010
EAE gizonak	35,2	36,3	31,8	39,8	38,6	32,9
Estatua gizonak	36,3	39,8	40	37,1	31,5	35,9
EAE Emakumeak	41,7	40,3	38,9	36,1	33	32
Estatua emakumeak	34,2	36,4	36,8	33	29,7	28

Helduen kontsumoaren kasuan, 2007-2009 aldiko joerak zertxobait egonkorragoak dira, nahiz eta estatuan gorakada txikiak gertatu eta EAEn ez; aitzitik, Euskadin, beherakada erlatiboki garrantzitsua gertatzen da bereziki emakumeengan azkeneko bi urteotan.

14. taula. Eguneko (Espainia) eta ohiko (EAE) kontsumoaren bilakaera 35-64 urteko biztanlerian sexuaren arabera


	1999/2000	2001/2002	2003/2004	2005/2006	2007/2008	2009/2010
EAE gizonak	35,3	34	35,7	35,7	35,8	35
Estatua gizonak	39,5	41,8	43,7	36,9	33,9	36,4
EAE Emakumeak	22,1	26,1	28	27,4	28,9	25,4
Estatua emakumeak	25,1	25,9	27	25,3	24,4	26,7

1.3.2. Euskadiko kontsumo-tasa handiagoak EBrekiko

Europako edo munduko beste herriekin alderatzeari dagokionez tabako-kontsumoari buruz nazioarteko eremuan baliagarri dauden azkeneko datuak 2007koak dira, eta horrek txosten honetan eskaintzen diren EAEn buruzko datuekiko alderaketa mugatzen du nolabait. Hala ere, Estatu espainoleko gainerako lurraldean eta Europako beste herrietan lortutakoekin alderatuz aurkeztu diren emaitzak aztertzea garrantzitsutzat jo da.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, EAEnko erretzaile guztien proportzioa (ohikoak zein aldizkakoak) Europa osokoa baino zertxobait gehiago da: zehazki % 34,1 Europako % 31,5aren aldean. Alde nagusiak emakumeen kontsumotik datoz, kontsumoa lau puntu gehiagokoa baita euskaldunen artean Europako artean baino; halaber, Europako hamar emakumetik sei ez ziren erretzaileak 2007an, aldiz, EAEn 2010ean ez ziren hamarretik bostera iristen. Aitzitik, tabakoa kontsumitzen duten gizonen proportzioak ez du alde esanguratsurik lurraldearen arabera.


97. grafikoa. Tabako-kontsumoaren prebalentziaren alderaketa Europa eta EAEn artean (%)



Iturria: Euskadi eta Drogak 2010 eta EIN, Europako Osasun Inkesta, 2007.

Europako eguneko tabako-kontsumoaren tasan jartzen badugu arreta, 2007ko tasa handienak Holandakoak eta Irlandakoak direla ikus dezakegu (% 29), eta beste aldetik Suedia da tasa txikiena duen herria (% 14,5), eta Portugal (% 19,6) ondoren. EAEn eta Estatu kontsumo-tasak 2009-2010 aldiko Europako herrietako emaitzekin alderatuz gero, EAE handienetakoa dela egiaztatzen da, % 31,3arekin, Estatu espainolaren ondoren, azken horrek 2010ean eguneko kontsumo-tasa % 31,8 baitzuen. Hortaz, datuek itxuraz azaltzen dutenez, prebentzio-kanpainen bidez eta araudi erregulatuaren zorrotzagoaren aplikazioaren bidez tabako-kontsumoa murrizteko ahalegina egin arren eta alderaketa honen mugak kontuan hartuz, EAE da tabako gehien kontsumitzen duen Europako lurraldeetako bat.

98. grafikoa. Europako eta EAEn tabakoaren eguneko kontsumo-tasa, 2007an eta 2010ean (%)



Iturriak: ADEEI 2009/10, Euskadi eta Drogak 2010 eta ELGA (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea), Health at glance, 2009.


2. KONTSUMOAREN BALIOESPENA ETA UZTEKO AUKERAK

Euskadi eta Drogak inkesten serieak hasieratik jasotzen ditu zenbait galdera kontsumitzaileek beren ohiturari buruz egiten duten balioespena eta uzteko gaitasuna neurtzera bideratuta. Gainera, 2010eko inkestan erabiltzaileen aurreiritziei eta kontsumo-onurei buruzko pertzepzioari buruzko galderak erantsi dira; galdera horiek tabakoaren aurkako kanpainen eta kontsumoa mugatzeko azken urteetan burututako neurrien eraginkortasun-maila balioesteko balio dezakete.

2.1. Kontsumo-mailaren pertzepzioa: gaur egungo egoera eta bilakaera

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, inkestatutako hamar erretzaileetatik ia lauk gutxi erretzen dutela uste dute, eta % 34,6k dezente erretzen duela uste du. Erretzaile guztien % 15,3k bakarrik erantzun du asko erretzen duela; % 6,5ek ezer ez eta gainerako % 4ak galderari ez erantzutea aukeratzen du. Kontsumitzaile tipologia bereizten bada, aldizkako hamar erretzaileetatik bederatzik gutxi erretzen duela edo ez duela ezer erretzen uste du, eta % 3,3k bakarrik esaten du dezente edo asko erretzen duela. Ohiko erretzaileekiko ezberdintasunak nabarmenak dira, eta horien artean gehiengo zabal batek (% 40,5) tabako dezente eta % 17,7k asko erretzen duela uste dute. Hala ere, gutxi erretzen duela uste duen erretzaileen ehunekoa ere garrantzitsua da, guztien % 37,3 zehazki. Hala ere, kontsumitzaile mota horretan atzemateko ia ezinezkoa da ezer erretzen ez dutenen ehunekoa.


99. grafikoa. Tabakoaren kontsumo-mailaren hautemate subjektiboa (%)



Genero ezberdintasunek eragin garrantzitsua dutela dirudi erretzaileen kontsumo-mailaren pertzepzioan. Lehenago esan dugu gizonek baino intentsitate gutxiagorekin erretzen dutela emakumeek; hala ere, emakumeak dira beren kontsumoari buruzko pertzepzio apur bat handiagoa dutenak, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez. Emakumeen erdiak baino gehiagok esan du dezente edo asko erretzen duela, baina gizonen artean –objektiboki, intentsitate gehiagoko erretzaileak–, beren kontsumoa dezente edo oso handia dela uste dutenak ez dira % 50era iristen.

Adinari dagokionez, pertsona gazteenak eta zaharrenak dira beren kontsumoa garrantzizkotzat edo gehiegizkotzat balioesteko joera txikiena dutenak, eta hori errealitate objektiboari erantzuten dion zerbait izan daiteke: Egunean gehienez hamar zigarreta erretzen dituzten 55-74 urteko pertsonen erdia baino gehiago (eta 15-19 urteko gazteen kasuan), kantitate hori erretzen dutenen ehunekoa % 81,3ra igotzen da. Beraz, datuek adierazitakoaren arabera, dirudienez, adinetik eratorritako kontsumoko pertzepzio subjektiboko ezberdintasunek, generoaren ezberdintasunetik eratorritakoek baino gehiago dagozkie kontsumoen errealitateari.



100. grafikoa. Tabakoaren kontsumo-mailaren pertzepzio subjektiboa sexuaren eta adinaren arabera



Kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren eta erretzaileek kontsumitzen dituzten zigarreta kopuruaren arteko alderaketa bereziki interesgarria da, izan ere erretzaileen kontzientziazio-mailaren eta benetako kontsumoaren arteko erlazioaren adierazle gisa balio dezake. Euskadi eta Drogak txostenaren aurreko edizioetan bezala, analisi hau egiteko erretzaileak hiru taldetan sailkatu dira, horien kontsumo-intentsitatearen arabera: egunean bost zigarreta baino gutxiago kontsumitzen dutenek gutxi erretzen dutela hartzen da kontuan, dezente erretzen dutela 5-20 zigarreta erretzen dituztenak, eta asko erretzen dutela eguneko paketea gainditzen dutenak.

Datu horiek aztertzerakoan, pertzepzioaren eta inkestaturakoen kontsumo-intentsitatearen arteko lotura orokorra ikusten da. Hala ere, deigarria da lotura hori kontsumo gutxieneko erretzaileen kasuan gertatzea batez ere, baina ez kontsumo gehienekoen kasuan. Hortaz, egunean bost zigarreta erretzen dituzten hamar pertsonatik zazpik gutxi gorabehera gutxi erretzen dutela uste dute eta horietako % 25ek ez duela ezer erretzen uste du. Egunean 5-20 zigarreta erretzen dituztenen artean lotura hori murrizten da; horietako % 65,3k beren kontsumoa dezentea edo handia dela uste dute, aldiz, hamar pertsonatik hiruk gutxi erretzen dutela uste dute. Azkenik, eguneko tabako-pakete bat baino gehiago kontsumitzen duten pertsona gehienek asko edo dezente erretzen duela uste dute (% 42,8 eta % 42 hurrenez hurren), baina deigarri da behintzat, % 6,4k gutxi erretzen dutela uste izatea. Nolanahi ere, eta datu horien arabera, badirudi kontsumoa are eta trinkoagoa izanik, lotura gutxiago dagoela kontsumo-kategoria objektibo eta subjektiboaren artean, edo beste era batean esanda, gero eta gehiago erre, hori onartzeko joera txikiagoa da.


101. grafikoa. Kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren eta egunero kontsumitutako zigarreta kopuruaren arteko harremana (%)



Grafiko erradialaren irakurketa: Kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren eta kontsumitutako zigarreta kopuru objektiboaren arteko gutzizko elkarrekotasunak emango lukeen grafikoan kolorezko lerro bat, kontsumitutako zigarreta kopuru objektiboan oinarritutako kontsumitzaile mota bat adierazten duena, dagokion ardatzean zehar luzatuko litzateke; ardatzak kontsumoaren pertzepzio subjektiboa adierazten du. Ardatzarekiko desbideratzea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta desberdinagoak dira kontsumo erreala eta kontsumoaren pertzepzioa.

Urteetan *Euskadi eta Drogak* seriearen inkestetan zertxobait aldatu da kontsumoaren pertzepzio subjektiboari buruzko galdera, eta hori horrela, ez da posible inkestak betetzen duen aldi osoaren alderaketa egitea. Aukera hori egin da egindako galdera eta erantzuteko aukerak berdin izan diren urteetako emaitzak alderatzeagatik; 2004-2010 aldiko txostenak, zehazki. Bilakaerari dagokionez, ez dago ezberdintasun handirik aldi horretan, nahiz eta pertzepzioan aldaketa txiki batzuk azpimarra daitezkeen, ohiko erretzaileen kasuan zein noizbehinka erretzen dutenen kasuan. Izan ere, gutxi edo ezer erretzen ez dutela adierazten dutenen ehunekoaren igoera kontsumo-intentsitatei buruz lehen adierazitako murrizketari lotuta dagoela esan daiteke, teoriar behintzat.

102. grafikoa. Ohiko eta noizbehinkako erretzaileen kontsumoaren pertzepzio subjektiboaren bilakaera (%)




2.2. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa

Euskadi eta Drogak inkestean lehen aldiz, 2010eko galdesortak erretzaileek kontsumoari egozten dizkieten kalteei eta onurei buruzko galdera bat hartzen du barnean. Aztertzekeo gai interesgarria da, batez ere azkeneko urteetan egiten ari diren osasunerako hezkuntza-kanpainak eta 28/2005 Legearen aplikazioa kontuan hartuz, eta tabakoak eragin ditzakeen kalteei buruz erabiltzaileen pertzepzioan eragina izan zezaketen horri buruzko lege berriak EAEn zein Estatu osoan sartzeari buruzko eztabaida ere kontuan hartuz.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, erabiltzaileen pertzepzioa beren tipologiaren arabera (aldizkako erretzaileak, ohiko erretzaileak eta erretzaile guztiak) oso antzekoa da. Hala ere, adierazgarria da gutxienez, tabako-kontsumoa kaltegarria dela neurri handienez uste dutenak ohiko erretzaileak direla egiaztatzea. Zehazki, ohiko erretzaileen % 37,4k tabako-kontsumoak kaltea besterik ikusten ez dituzten bitartean, aldizka kontsumitzen dutenen artean ehuneko hori % 30era jaisten da. Halaber, aldizkako erretzaileen % 3,8k esan du tabakoak onura besterik ez duela ekartzen, aldiz, ohiko erretzaileen artean aukera horrek % 1,6 bakarrik ordezkatzen du. Beraz esan daiteke, ohiko erretzaileak tabako-kontsumoaren kalteez gehiago jabetzen direla, neurri handiago batean bizi dituztelako aldizka erretzen dutenek baino. Hala ere, gehien erretzen dutenen artean uste negatibo horiek kontsumo hori uzteko bultzada gisa nolako neurrian balio dezaketen jakin beharko litzateke.


103. grafikoa. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, erretzaile tipologiaren arabera (%)



Gai bera genero-ikuspegitik aztertzen badugu, kontsumoaren katei eta onurei buruz gizonen eta emakumeen pertzepzioa antzekoa dela dirudi, nahiz eta emakumeek gizonek baino ikuspegi pixka bat baikorragoa azaldu; horren arrazoia izan daiteke emakumeek intentsitate gutxiagorekin kontsumitzen dutela oraindik, kapitulu honetako lehen puntuan ikusi den bezala.

Tabako-kontsumoa ohitura argiki negatibo gisa kontuan hartzen da, onurak onura: gizonen % 80,8k eta emakumeen % 75,7k erretzeak kalteak besterik ez diela ekartzen uste dute, edo gutxienez, onurak baino kalte gehiago. Bi sexuen arteko ezberdintasun handiena tabako-kontsumotik eratorritako kalteak baino onura gehiago ikusten dituztenen artean ikusten da; eta hori emakumeen kasuan biztanleria erretzailearen % 4 da, aldiz, gizonen artean % 1,3 bakarrik. Gizonen % 1,7k eta emakumeen % 22k bakarrik uste dute tabako-kontsumoak onurak besterik ez diela ekartzen.

104. grafikoa. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, sexuaren arabera (%)




Adin-taldearen arabera zatiketaz ezberdintasunak ere azaltzen ditu kontsumoaren alde onen eta txarren pertzepzioari dagokionez. Oro har, adin-tarte guztietako biztanleriaren ia % 80k sumatzen ditu kalteak soilik edo onurak baino kalte gehiago tabako-kontsumoan, hala ere ezberdintasun esanguratsuak ikus daitezke talde batzuetan. Tabako-kontsumoak kalteak besterik ez dituela eragiten gehien pentsatzen dutenak 30-34 urteko pertsonak dira (% 46,6); bestalde, kalteen eta onuren pertzepzioa oso antzekoa da 35 urte baino gehiagoko adin-tarte guztietan.

Adinaren ikuspuntutik, biztanleria gazteenaren kasua bereziki aipagarria da, 15-19 urtekoena, besteen oso bestelako datuak eskaintzen baitituzte eta tabako-kontsumoak dakarren arriskuaren pertzepzio txikiagoa erakusten du. Lehenik, hamarretik bik baino gutxiagok (% 18,9) uste dute tabako-kontsumoak kalterik besterik ez dituela ekartzen, eta hori adin-tarte guztietako ehunkoa baino gutxiago da. Gainera, % 5,4k uste du kontsumoak dakartzan onurak kalteak baino gehiago direla, eta % 4,1ek uste du ez duela kalterik ekartzen. Kontsumitzen denbora gutxien daramaten pertsonak adin-tarte horretakoak direla eta horietako % 81,3k egunean gehienez hamar zigarreta erretzen dituztela kontuan hartuz, uler daiteke haiek izatea kontsumoari lotutako kalteak neurri txikienean ikusi dituztenak. Hala ere,


gazteen kolektiboari berariaz zuzendutako prebentzioa eta informazioa hobetzeko kontuan hartzeko datua da.

105. grafikoa. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, adin-taldean arabera (%)



Kontsumoaren intentsitatea tabako-kontsumoaren onuren eta kalteen pertzepzioak alderatzeko adierazle egokiena dela adierazi da, eta benetan, alderaketa horrek ez du ustekabe handirik azaltzen. Erretzaile guztientzat –edozein intentsitatearekin erretzen dutela ere– kontsumoak onura baino kalte gehiago izatetik abiatuz, egunean bost zigarreta baino gutxiago kontsumitzen dituzten pertsonak dira ohitura horren onurak neurri handienean hautematen dituztenak, agian beren aurreiritzien eragin txikiena dutenak direla-eta, kontsumo txikiagoa izanagatik. *Euskadi eta Drogak* serieko galdera berria denez, ez da posible aurreko urteetan inkestatutako pertsonekin alderaketa egitea, ezta lege-arloko eta sentsibilizazioko neurriek tabako-erabiltzaileen pentsatzeko moduari eragin ote dioten balioestea ere.


106. grafikoa. Kontsumoaren kalteen eta onuren pertzepzioa, intentsitatearen arabera (%)



2.3. Kontsumitzeari uzteko saialdiak


Orain arte tabakoaren onurei eta kalteei buruz erretzaileek duten pertzepzioari lotuta adierazitakoa alde batera utzita, 2010ean, hamar erretzaileetatik lau ez da inoiz kontsumitzeari uzten saiatu. Ehuneko hori % 55,1era igotzen da aldizka erretzen duten pertsonen kasuan, eta % 38,7ra murrizten da tabakoa ohiko moduan kontsumitzen dutenen artean. Benetan, ohiko erretzaileak dira erretzeari uztenaldi gehien saiatu den kolektiboa (hamarretik sei behin edo gehiagotan saiatu dira uzten, aldizkako erretzaileen % 33,8aren aldean).

107. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumitzaile motaren arabera (%)




Aurreko urteetan bezala, kontsumitzeari uzteko saialdiei dagokionez ez da ezberdintasun esanguratsurik sumatzen erretzailea gizona edo emakumea izatearen arabera. Hala ere, eta agian espero zitekeen bezala, adinak badu inoiz erretzeari uzten saiatzearekin nolabaiteko lotura. Logikoa denez, gazteak dira gutxien saiatu direnak, eta uzten saiatu direnen ehunekoa hogeita hamar urtetik era esanguratsuan gora igotzen da, batez ere saialdi bat baino gehiago egin dutenena. 55-64 urteko pertsonak dira gehien saiatu direnak.

108. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko saialdiak adinaren arabera (%)



Inkestatutako pertsonen betetzen duten jarduerako aldagaiak ere datu interesgarriak azaltzen ditu, batez ere erretiratuen eta pentsiodunen kasuan, hori baita erretzeari uzteko saialdi gehien egin dituen kolektiboa. Horietatik erdia baino gehiago zenbaitetan saiatu da, eta % 16,9 behin saiatu da. Logikoa denez, ikasleak dira tabakoa kontsumitzeari uzten inoiz saiatu ez diren pertsonen proportzio handiena duen taldea, agian iraupen gutxieneko kontsumoa duen kolektiboa ere direlako.

109. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko saialdiak inkestatutako pertsonaren jardueraren arabera (%)




Kontsumoaren intentsitateak, objektiboak zein subjektiboak, erretzeari uzteko saialdietan era esanguratsuan eragiten du, nahiz eta lotura bereziki estua izan kontsumoaren hautemate subjektiboaren eta uzteko saialdia kopuruaren artean. Hala, tabako-pakete bat baino gehiago erretzen duten pertsonen % 34,7 zenbaitetan uzten saiatu diren bitartean, asko erretzen dutela uste duten hamar pertsonatik ia bost behin baino gehiagotan saiatu dira (% 49,1). Hau da,

□

beren burua oso erretzailatzat hartzeak, egunean kontsumitzen dituen zigarreten zenbateko objektiboa alde batera utzita, ohitura uzteko saialdi gehiago iragartzen ditu (edo, aitzitik, egindako saialdi kopuruak, arrakastarik gabeak ziur aski, norbere kontsumoaren aintzatespenean eragin dezake). Gauza bera gertatzen da aurkako zentzuan, beren kontsumoa hain txikia izanik ezer ez dela uste duten pertsonen artean, horrek uzteko saialdi gutxiago egitera eramaten baititu. Izan ere, gutxi erretzen dutela esan duen pertsonen % 44,9 ez dira inoiz kontsumitzeari uzten saiatu.


Kontsumoaren intentsitate objektiboa uzteko saialdiei lotzeko kontuan hartzen badugu, dezente –bost eta 20 zigarreta artean– eta asko –20 zigarreta baino gehiago– erretzen duten pertsonak proportzioa handiengan uzten saiatu direla ikus dezakegu. Neurritzko erretzaileen % 61,4k kontsumitzeari uzteko saialdi bat baino gehiago egin du, aldiz asko erretzen dutenen proportzioa zertxobait txikiagoa da % 59,1 zehazki.

110. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumoaren intentsitate objektiboaren eta subjektiboaren arabera (%)



Era berean, eta logikoa den bezala, erretzeari uzteko saialdien kopurua kontsumoaren iraupenari oso lotuta dago. Hala, hurrengo grafikoa ikus daitekeen bezala, 20 urte erretzen daramaten pertsonak dira ere uzteko saialdi gehien egin dituztenak, eta kontsumoko bost urte baino gutxiago daramatenak dira gutxien saiatu direnak, etengabeko progresioan.


111. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko saialdiak kontsumoaren iraupenaren arabera (%)



2.4. Kontsumitzeari uzteko prestasuna: erretzaileen erdia uzteko prest dago


Kontsumitzeari uzteko huts egindako saialdiek ez dute nahitaz esan nahi erretzaileek ahaleginean amore eman dutenik. Horregatik, EAEko tabako-kontsumoaren egoera hobekitzeko adierazle egoki bat da pertsonen uzteko duten prestasuna. Izan ere, erretzaile guztien ia erdiak (% 49,1) erretzeari uzten saiatzeko prest dagoela esan du, lehen aldiz izan nahiz beste saialdi batean. % 33,1ek saiatzeko prest ez dagoela esan du, eta % 14,4k ez daki saiatuko den edo ez. Ohiko erretzaileei dagokionez, ohitura galtzeko prest daudela esan dutenak kolektibo guztiaren erdia baino gehiago dira (% 51,1), hamarretik hiruk ordea uzteko asmorik ez dutela esan dute eta % 15,6k ez daki. Espero bezala, aldizkako edo noizbehinkako erretzaileak dira erretzeko ohitura galtzeko prestasun gutxien azaltzen dutenak, eta gehiago dira erretzeari uzteko prest ez daudenak (% 41,2) horretarako prest daudenak baino (% 37,5). Hala ere, 2008arekiko talde horren prestasuna igo dela esan behar da.

112. grafikoa. Erretzeari uzten saiatzeko erretzaileen prestasuna kontsumitzaile motaren arabera (%)




Tabakoa ohiko moduan kontsumitzen duten erretzaileen azterketan arreta jarri eta adinaren ikuspegitik aztertuz gero, kontsumitzeari uzteko prestasun handiena duten pertsonak 30-44 urtekoak direla ikusten da (% 50,7); prestasun hori murrizten doa horren neurri txikieneraino 65 urte baino gehiagoko erretzaileen artean (% 40,7). Ohiko moduan erretzen duten gizonen artean, 35-44 urteko adin-tartean daudenak dira, alde handiarekin, tabakoa erretzeari uzteko prestasun handiena dutenak (% 57,4), aldiz, emakumeen artean prestasun handia dute 20-24 urte dituztenek (% 54,8) zein 30-34 urteko adin-tartekoek (% 54,4). 44 urtetik gora, erretzeari uzteko prestasuna argi jaisten da gizonen artean, baina igo egiten da emakumeen artean.

113. grafikoa. Erretzeari uzteko prestasuna duten ohiko erretzaileak, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Ohiko moduan erretzen duten pertsonen jarduerak ere nolabaiteko eragina izan dezake kontsumitzeari uzteko beren prestasunean. Hurrengo grafikoak azaltzen duen bezala, prestasuna antzekoa da jasotako okupazio guztietan –kasu guztietan tabakoa erretzeari uzteko prest daudenen % 48-50 gutxi gorabehera–, erretiratuak, pentsiodunak edo baliazintasuneko pentsiodunak salbu, ohitura hori galtzeko prestasun txikiagoa dutela baitirudi.

114. grafikoa. Erretzeari uzteko prestasuna duten ohiko erretzaileak, jardueraren arabera (%)



Uzteko aurretik egindako saialdiak dira berriz saiatzeko prestasunean eragin handiena dutenak: Inoiz erretzeari uzten saiatu diren pertsonen % 74,1ek esan du berriz saiatzeko prest dagoela; horien aldea inoiz saiatu ez diren % 24,7 dago. Halaber, tabakoa kontsumitzeari uzten behin bakarrik saiatu diren hamar pertsonatik seik, ahalegina berriz egin nahiko lukete.


115. grafikoa. Erretzaileen prestasuna erretzeari uzten saiatzeko, arestian egindako saialdien arabera (%)



Benetan egindako saialdien kasuan bezala, norbere kontsumoaren hautemate subjektiboa ere dago erretzeari uzteko motibazioari lotuta, baina ez intentsitate objektiboari. Datu objektiboetan kontsumitzaile handiak direnek gutxi kontsumitzen dutenen prestasun berdina


azaltzen dute gutxi gorabehera, eta neurrizko kontsumoa duten pertsonak dira tabakoa erretzeari uzteko prestasun handiena erakutsi dutenak. Ez da berdin gertatzen kontsumoaren hautemate subjektiboaz ari garenean: kasu horretan, asko erretzen dutela uste duten pertsonek gainerako erretzaileek baino prestasun handiagoa erakutsi dute. Hain zuzen ere, beren burua oso erretzaile gisa kalifikatzeak uzten saiatzeko prestasuna handitzen duela dirudi, egunero erretzen diren zigarreten kopurua alde batera utzita.

116. grafikoa. Erretzaileen prestasuna erretzeari uzteko, kontsumoaren hautemate subjektiboaren arabera, eta kontsumoaren intentsitatearen arabera (% bertikalak)



Aztertutako gainerako aldagaiak bezala, uzteko asmoari lotu daiteke kontsumoaren iraupena, nahiz eta erretzeko ohitura azken bost urteetan hartu zutenen kasuan bakarrik atzematzen den ezberdintasun esanguratsuren bat. Alde batetik erretzen denbora gehien daramatenen artean zalantzatiaren proportzio handia dago –kolektiboaren erdia gutxi gorabehera–, eta bestetik kontsumoa berriki hasi duten pertsonak zati ia berdinetan banatzen dira, kontsumitzeari uzteko prest daudenen (% 43) eta utzi nahi ez dioten artean (% 36,5). Zalantzatiak % 10,7 dira bakarrik.


117. grafikoa. Erretzaileen prestasuna erretzeari uzten saiatzeko, kontsumoaren iraupenaren arabera (% bertikalak)



2.5. Kontsumitzeari uzteko saialdiak eta erretzeari uzteko prestasuna handitu dira

2010eko egoera ikusi ondoren, 1998tik erretzaileek tabakoa erretzeari uzteko saiakerak direla eta pairatu duten bilakaera aztertzen bada, joera erlatiboki orekatuaz hitz egin daiteke. Inkesta honetako datuak eta aurreko urteetakoak lotzen baditugu, erretzeari uzten inoiz saiatu ez diren pertsonen proportzioa 2002tik jaitsi dela ikusten dugu. Zentzu horretan, kontsumitzeari uzten zenbaitetan saiatu diren pertsonen tasa igo egin da aurreko urteekiko eta Euskadi eta Drogak seriea datu hori neurtzen hasi zenetik handiena da.


118. grafikoa. Erretzeari uzteko egindako saialdien arabeko erretzaileen banaketaren bilakaera 1998-2010 aldian (%)



Bestalde, ohiko erretzaileen artean, noizbehinkako erretzaileen artean eta erretzaile guztien artean tabakoa kontsumitzeari uzten saiatzeko prestasunaren bilakaera 2006tik aztertzen badugu, 2008-2010 aldian pixka bat errekeratzen dela ikusten dugu; nolana ere, ez da lortzen 2006an tabakoa kontsumitzeari uzteko prest zeudela esan zuten erretzaileen ehunekora

hurbiltzea –agian orduan berriki izandako Tabakoaren Aurkako Legeari buruzko eztabaidaren ondorioz– .

119. grafikoa. Erretzeari uzteko prestasunaren bilakaera kontsumo motaren arabera 2006-2010 aldian




3. ERRETZAILE OHIEN EGOERA

EAEko tabako-kontsumoari buruz kapitulu honetako lehen puntuan esan den bezala erretzaile ohien kolektiboa 421.558 pertsonak osatzen dute 2010ean, hau da, 15-74 urteko euskal biztanleriaren laurdena (% 25,2), eta tabako ohiko moduan zein noizbehinka, inoiz kontsumitu dutenen % 42,5. Kolektiboaren erdia baino pixka bat gehiago (% 55,4) gizonak dira eta 55-64 urtekoak dira talde handiena.


Logikoa denez, eta lehen esan dugun bezala, erretzeko ohitura uzten dioten pertsonen proportzioa adinean aurrera egin ahala handitzen da, eta horrek orokorrean lotura izan dezake kontsumoaren iraupen handiagoarekin eta osasun-egoeraren eragin agerikoagoarekin. Erretzaile ohien artean gazteenak kolektiboko % 1,7 dira soilik, eta proportzio hori balio handieneraino handitzen doa 55-64 adin-tartekoaren artean, alegia erretzeari utzi dioten hamar pertsonatik hiru gutxi gorabehera biltzen dituena (% 27,2). Proportzioa zertxobait murrizten da azkeneko adin-tartean, agian beren bizitzan inoiz erretzaile izan diren 65 urte baino gehiagoko emakumeen kopuru txikiagoa dela-eta.

120. grafikoa. Erretzaile ohien banaketa sexuaren eta adinaren arabera (%)



Hurrengo grafikoak adinaren arabeko uzte-tasa jasotzen du, hau da, beren bizitzan inoiz tabakorik kontsumitu duten pertsona guztien artean erretzaile ohien proportzioa, adin-tarteen arabera zehaztuta. Uzte-tasak adinarekin gora egiten duela argi ikus badaiteke ere, garrantzitsua da aipatzea 15-19 urteko nerabeen % 23,7k eta erretzaile ohizat hartzen dutela beren burua. Horri buruz 2006an jasotako datuak kontuan hartzen badira, erretzaile ohien proportzioa argi handitzen dela nabari da adin-tarte horretan (% 12,2tik % 23,7ra), eta horrek lotura izan dezake tabakoari lotutako kalteez gehiago jabetzearekin biztanleria gazteenean¹⁰. Uzte-tasa txikiena 20-24 urteko gazteen artean (% 15,4) ikusten da eta handiena biztanleria zaharrenean, zehazki 65-74 urteko pertsonen artean (% 66).

121. grafikoa. Tabako-kontsumoaren uzte-tasa adin-tarteen arabera (%)




Zein da, tabako-kontsumoari dagokionez, erretzaile ohien profila? Tabakoa erretzeari utzi baino lehen, erretzaile ohiek 14 zigarreta kontsumitzen zituzten batez beste, eta batezbesteko hori dezente handiagoa da gizonen kasuan (16,8 zigarreta) emakumeen kasuan baino (10,6 zigarreta). Erretzaile ohien hamarretik ia seik hamar zigarreta erretzen ditu egunean utzi baino

¹⁰ Hala ere, argumentu horrek ez du bat egiten talde horren iritziarekin, tabako-kontsumoari gainerako biztanleek baino onura gehiago ikusten baitiote.

egun bat lehenago; emakumeen kasuan ehuneko hori hamarretik zazpi baino gehiagora igotzen da. Hurrengo grafikoak argi erakusten duenez, gizon erretzaile ohien kontsumoa emakumeena baino askoz handiagoa zen, eta kolektibo osoarena baino dezente handiagoa. % 21,3k egunean pakete bat baino gehiago erretzen zuen, baina hamar emakumeetatik batek bakarrik kontsumitzen zuen horrenbeste. Nolanahi ere, erretzeari utzi aurretik bi sexuetako erretzaile ohiek zuten batez besteko kontsumoa oraingo ohiko erretzaileena baino trinkoagoa zela esan daiteke, izan ere, esan bezala, horietatik apenas % 10ek erretzen du eguneko zigarreta-pakete bat baino gehiago.


122. grafikoa. Erretzaile ohien kontsumoaren intentsitatea sexuen arabera (%)



3.1. Kontsumitzeari uzteko adina


Erretzaile ohiek kontsumitzeari utzi zioteneko adinaren batez bestekoa 36,2 urte da. Oro har, emakumeek gizonek baino lehen uzten dute kontsumoa, 32,8 urterekin batez beste, gizonen 39ren aldean. Tabakoa erretzeari utzi zioten emakumeen ia erdiak (% 49,3) 31 urte izan baino lehen utzi zion, eta % 7,5ek bakarrik utzi zioen 51 urtetik aurrera. Gizonen artean, kontsumitzeari uzteko adinak askoz sorta zabalagokoak dira: hamarretik hiruk 31 urte bete baino lehen utzi zion, laurdenak hogeita hamar bete ondorengo hamarraldian eta % 21,6k 51 urtetik aurrera.

123. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko adina sexuaren arabera (%)



Kontsumoaren intentsitatea kontsumitzeari uzteko adinari lotuta dago argi eta garbi. Intentsitateak gora egiten duen heinean uzteko batez besteko adinak ere gora egiten du, egunean gehienez hamar zigarreta kontsumitzen zituzten erretzaile ohien 33,1 urtetik, egunean pakete bat baino gehiago erretzen zutenen 42 urteraino.


124. grafikoa. Kontsumitzeari uzteko batez besteko adina intentsitatearen arabera (%)



3.2. Kontsumitzeari utziz geroztik igarotako denbora


Erretzaile ohien gehiengoak, zehazki horien guztien % 74,3k, bost urte baino gehiago darama tabakorik kontsumitu gabe. % 12,4k bi eta lau urte bitarte darama erre gabe, eta % 13,3k duela urte bat edo gutxiago utzi zion. Batez beste, erretzaile ohiek duela 13,2 urte utzi zioten kontsumitzeari.

125. grafikoa. Erretzaile ohien banaketa uztearen iraupenaren arabera (%)



Generoa dela-eta, uztearen batez besteko iraupenari dagokionez ezberdintasun aipagarriak atzematen ez bada ere, duela gutxi tabakoa erretzeari utzi dioten emakumeen eta gizonen proportzioan badago ezberdintasunik. Emakumeen % 32k erretzeko ohitura gehienez lau urte lehenago utzi bazuten ere, gizonen kasuan hamarretik bik bakarrik utzi zioten aldi horretan. Horien proportzio handienak (% 30,5) bost edo hamar urte lehenago utzi zion kontsumoari. 2006an jasotako datuei dagokienez –gizon erretzaile ohi guztien ia erdiek tabakoari zuela hamar urte baino gehiago utzi zioten eta emakumeen % 37,4k aldi bera zeraman kontsumitu gabe–, uztearen iraupenaren banaketan parekatzeko joera bat ikusten da, emakumeen kasuan zein gizonenean, baina era nabarmenagoan emakumeen kasuan.


126. grafikoa. Banaketa uztearen iraupenaren eta sexuaren arabera (%)



Kontsumoaren intentsitateak ere lotura dauka uztearen iraupenarekin. Zehazki, egunean pakete bat baino gehiago erretzen zuten hamar erretzaileetatik zortzik duela bost urte edo gehiago utzi zioten erretzeari, eta egunean gehienez pakete-erdi erretzen zutenen antzeko ehuneko batek (% 78) denbora berdina darama kontsumitu gabe. Neurrizko kontsumoa

zutenak kontsumitzeari berriki utzi diotenen proportzio handiena dira (% 21,9) eta horien uztearen iraupena orekatuen banatuta dagoena da.

127. grafikoa. Banaketa uztearen iraupenaren eta kontsumoaren intentsitatearen arabera (%)



3.3. Kontsumitzeari uzteko arrazoiak: gaur egungo egoera eta bilakaera


Txosten hau egiteko, inkestak galdera bat egiten du erretzaile ohiek tabakoa uzteko izan dituzten arrazoiari buruz. Galdera horri erantzun diote erretzaile ohiek zein erretzeari uzteko saiildiren bat egin dutenek, nahiz eta inkesta egiteko unean kontsumitzen jarraitu. 2010eko emaitzei jarraiki tabakoa erretzeari uzteko arrazoi garrantzitsuena minbiziari edo beste biriketako gaixotasunei beldurra da; zentzu horretan erretzaileen edo erretzaile ohien proportzio handienak adierazi zuten kontsumoa uzteko erabakiarekin zerikusi dezentea edo handia izan zuela.

128. grafikoa. Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak (%)




Gizonen eta emakumeen motibazioetako ezberdintasunei dagokionez, hurrengo grafikoak ia kasu guztietan garrantzitsuak direla azaltzen du. Kontsumotik eratorritako gaixotasunekiko beldurra da arrazoi nagusia bi sexuentzat, emakumeek garrantzi gehiago eman arren; bestalde, gizonak emakumeek baino neurri handiagoan uste dute ariketa egiteko ezintasuna dela kontsumitzeari uztea pentsatzeko funtsezko arrazoi bat. Emakumeek askoz era zorrotzagoan sentitzen dute beren ahaideen presioa, eta medikuen aholkuek neurri handiagoan hartzen dituzte eraginpean gizonak erretzeari uzteko garaian. Ez dago gizonik –inkestak behintzat ez ditu atzeman– Tabakoaren Aurkako Legea ohitura uzteko arrazoi garrantzitsu gisa kontuan hartu duenik, baina emakumeen kasuan horietako % 9,5arentzat bai da arrazoi. Azkenik, norberaren nahiz bikotearen haurdunaldiagatik tabakoa uzteak eraginpean emakumeak soilik hartzen dituela dirudi. Horietako % 6,2 arrazoi horrengatik erretzeari uzten saiatu da inoiz bere bizitzan.

129. grafikoa. Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak, sexuaren arabera (%)



Bestalde, kontsumitzeari uzteko arrazoiaren artean ez dago aparteko ezberdintasunik erretzaile tipologiaren arabera (ohikoak, aldizkakoak edo erretzaile ohiak). Horientzat guztientzat, gaixotasunekiko beldurra, medikuen aholkuak eta ahaideen presioa dira tabakoa erretzeari uzteko arrazoi garrantzitsuenak. Agian ezberdintasun txikiek erakusten dutena da inkestatutako pertsonak aipatzen dituzten arrazoiaren batzuk aldi baterako direla, eta ez dute behin betiko kontsumitzeari uztea esan nahi. Lanean erretzeko ezintasunaren edo Tabakoaren Aurkako Legearen kasuan (horrek indarrean hastean berehalako erreakzioa sor dezakeen), emaitzen arabera, indarra galtzen joan da denbora joan ahala.

130. grafikoa. Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoiak, erretzaile tipologiaren arabera (%)



EAEko drogen kontsumoari buruzko inkestak kontsumitzeari uzteko motibazioei buruzko galdera jaso zuen, 2004an lehen aldiz, erretzaile ohiei zein inkesta egiteko unean erretzen bazuten ere, beren bizitzako uneren batean kontsumitzeari uzteko saialdiren bat egin zutenei zuzenduta. Orduan, orain bezala, pertsona gehienek nahiko edo oso garrantzitsutzat hartzen zuten arrazoia uztea erabakitzeko minbizia edo beste biriketako gaixotasunen bat hartzeko beldurra zen. Urte hauetan zehar kontsumitzeari uzteko arrazoiak ematen zaien garrantziaren handitze orokorra atzeman da, hau da, erretzaileek eta erretzaile ohiek gero eta gehiago hartzen dituzte kontuan osasuna eta arrazoi sozialak, gizarteak orokorrean egiten duen eran.


Hurrengo grafikoan argi ikus daiteke osasunean duen eragin kaltegarriari beldurraz gain medikuen aholkuak, osasun-arazo zehatzak eta ahaideen presioa direla tabakoa erretzeari uztea azaltzeko garaian gehien hazten diren arrazoiak. Azken horri dagokionez, ahaideen presioa nabarmen igo da 2004tik; inkesta hartan erretzaileen edo erretzaile ohien % 9,7k kontsumitzeari uzteko arrazoi nahiko edo oso garrantzitsutzat hartu zuten kontuan eta 2010ean % 19,2k esan dute gauza bera. Beste aldetik kontuan hartzekoa da lanean ezin erretzea eta tabakismoaren aurkako osasun-neurriak buruzko eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea indarrean hasi izana. Lege hori oraindik indarrean ez zela hasi esan behar da urte horretako inkesta egin zenean. Beraz, 2004an ez zen legearen aplikazioa planteatu arrazoi gisa, baina lantokietan erretzeko ezintasuna tabakoa erretzeari uzteko arrazoi garrantzitsu gisa kontuan hartu zuten pertsonen ehuneko txiki batek. Urte hauetan guztietan, Legeak oihartzun txikia izan du motibazio aldetik, borne handiena 2006an izan zuen (% 2,6) eta 2010era arte pixkanaka

jaitsi zen, eta erretzaile ohien eta inoiz erretzeari uzten saiatu diren erretzaileen % 1,5 soilik ikusi du bere burua nolabait horrek baldintzatuta. 2006ko inkestan erretzeari uzteko gutxien kontuan hartutako arrazoietako bat 28/2005 Legea indarrean hastea bazen ere¹¹, aipagarria da 2010ean are pertsona gutxiagok ematen diola garrantzia lege horri, ezustekoa bada ere lanean erretzeko ezintasunarekin aurkakoa gertatu arren –gai hori Legearekin hertsiki lotuta dago–, erretzaileen edo erretzaile ohien ehuneko hazkor batek uzten saiatzeko arrazoi gisa hartu du kontuan. Ikusi beharko da, hurrengo Euskadi eta Drogak txostenean, 2011ko urtarrilaren 1etik EAEn eta Espainia osoan ezarriko den araudi berriak zer neurritan hartuko du eraginpean etorkizuneko kontsumitzeari uztea.


Kontsumitzeari uzteko motibazioak araudiari, osasunari edo familia-presioei eta besteei buruzkoak izatearen arabera multzokatzen badira, epe luzean ikusten dena da alde batetik osasunari lotutako argudioen garrantzia gero eta handiagoa dela, eta beste aldetik araudiari lotutakoak egonkorrak direla eta ahaideen presioari edo besteei loturikoa zertxobait igotzen direla 2008-2010 aldian soilik.

131. grafikoa. Tabakoa kontsumitzeari uzteko erabakian garrantzi dezentea edo handia izan zuten arrazoien bilakaera (%)


¹¹ 2006an EAEko drogen kontsumoari buruzko inkesta egin zenean, Tabakoaren Aurkako Legea ez zen indarrean hasi.




— Medikuaren aholkuarengatik
— Minbiziari edo beste biriken-gaixotasunei beldurarengatik



— Haurdunaldiarengatik (senarra ere)
— Osasun-arazo jakin bat izan zuelako
— Familiaren presioarengatik



— 2006ko Tabakoaren Legea indarrean hasi zelako
— Lanean erretzeko ezintasunarengatik
— Kirola egitea galarazten ziolako



— Osasuna
— Araudia
— Familia-presioa eta besteak

IV. KAPITULUA
PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA EAEn

Erabilera terapeutikoa duten legezko produktuak badira ere, mediku-agindupean ematen badira eta zorrotz arautzen badira, psikofarmakoak gehiegikeriaz har daitezke eta medikuaren kontrolik gabe, xede terapeutikoekin izan nahiz gogo-aldarteak aldatzeko horren propietateengatik izan. Hori da arrazoia mota horretako substantziak *Euskadi eta Drogak* seriean barne hartzeko, alkohola, tabakoa, kanabisa edo legez kanpoko gainerako drogekin batera.

Kapitulu honetan *Euskadi eta Drogak 2010* galdesortak baliatzen dituen datuetatik Euskadin psikofarmakoen erabileraren hedapena aztertzen da. Inkesta honetako aurreko boladetan bezala, aztertutako botika motak lasaigarriak, somniferoak eta antidepresiboak dira. Kapitulu honetan kontsumitzaileen ezaugarri soziodemografikoei buruzko datuak aurkezten dira –adina, kontsumoa hasteko adina, sexua, egoera zibila, talde sozioekonomikoa eta ikasketa-maila–, baita kontsumo motari eta maiztasunari buruzkoak eta kontsumo modalitateari buruzkoak ere, hori mediku-aginduz erabiltzen dena eta medikuaren errezetarekin egindakoa bereiziz. Kontsumo modalitateari buruz, medikuaren errezetarekin edo hori gabe, aurtengo Euskadi eta Drogak galdesortan aurreko edizioekiko galdera gehiago erantsi dira, mediku-aginduz kontsumitutako psikofarmakoei lotuta inkestatutakoei argiago galdetuz, eta horrela gai horretan ñabardura gehiagoko azterketa egitea ahalbidetzen da.

1. EAEko PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK

1.1. Psikofarmakoen kontsumoa bizitzan zehar

Euskadin bizi direnen artean bizitzako unerren batean psikofarmakoren bat kontsumitu duten pertsonen proportzioa handia da. *Euskadi eta Drogak 2010* inkestako datuen arabera, EAEko 15-74 urteko biztanleriaren laurdenak –% 22,8k– adierazi du azterlan honetan aztertutako hiru psikofarmako (adierazi den moduan, lasaigarriak, somniferoak eta antidepresiboak) motetako bat noizbait probatu duela. Termino absolututan, Euskadin adierazitako hiru psikofarmako horien motaren bat bizitzan behin gutxienez 380.000 pertsona inguruk hartu dutela kalkulatu da.

Kontsumo modalitateei dagokienez, kontuan izan behar dugu lasaigarriak, somniferoak eta/edo antidepresiboak kontsumitzen dituzten edo kontsumitu dituzten pertsona gehienek medikuaren agindupean egin dutela baieztatu dutela, eta gutxiengo batek bakarrik adierazi duela errezetarik gabe egin duela. Ildo horretan, kontsumitzaileen % 90ek –euskal biztanleriaren % 20k– dio farmako mota hori mediku-errezetarekin soilik kontsumitu izan duela; kontsumitzaileen % 5,3k dio bi moduak erabili dituela produktu horiek eskuratzeko eta ia % 4k dio medikuaren kontroletik kanpo kontsumitu dituela. Pertsona horiek biztanleriaren % 1,2 dira. Psikofarmakoak bi moduak erabiliz kontsumitu dituzten pertsonak osatzen duten % 0,9a batuta ere, mediku-errezetarik gabeko substantzia horien kontsumo-tasa ezagunak oso baxuak direla esan behar da, hain zuzen ere erabilera txikiagoa duten legez kanpoko drogen (estasia edo haluzinogenoak) parekoa.

15. taula. Bizitza osoan mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak (%)

		Biztanleria osoa	Kontsumitzaileak
Kontsumitu du	Mediku-errezetarekin bakarrik	20,7	90,8
	Mediku-errezetarik gabe bakarrik	0,9	3,9
	Mediku-errezetarekin edo gabe	1,2	5,3
	Guztira	22,8	100,0
Ez du kontsumitu		77,0	-
Ez daki/ Ez du erantzun		0,3	-
Guztira		100,0	-


Euskadi eta Drogak 2010 galdesortaren edizio honetan galdera berriak txertatu dira mediku-aginduarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoan sakontzeko helburuarekin. 2008ko galdesortan psikofarmakoen kontsumoari buruzko galdera multzo espezifikoak errezeta medikoarekin egindako kontsumoari zegokion eta errezeta medikorik gabe egindako psikofarmakoen kontsumoari buruz jasotako informazio espezifikoak bestelako substantziei buruzko galdera batetik zetorren. Alabaina, aurtengo edizioan (2010) psikofarmako moten – lasaigarriak, somniferoak eta antidepresiboak– eta kontsumo-modalitateen –errezeta medikoarekin edo gabe– arabera eginiko galdera espezifikoak txertatu dira. Horrela, kontsumo moten arabera bereizitako azterketa egitea ahalbidetzen da.

1.1.1. Psikofarmakoen kontsumoa mediku-errezetarekin

Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoari buruzko datuek adierazten dutenez, EAEko biztanleriaren % 20,7k noizbait kontsumitu ditu lasaigarriak, somniferoak edo antidepresiboak mediku-aginduarekin. Biztanleria-terminotan, adierazitako psikofarmako

motaren bat medikuaren kontrolpean noizbait erabili duten 15-74 urteko pertsonen kopurua 365.400 dela kalkula daiteke. Azterlanaren xede den botika mota bakoitza kontuan hartuta, esan daiteke lasaigarriak direla erabilienak. Ildo horretan, 15-74 urteko euskal biztanleriaren % 17,1ek baieztatu du noizbait lasaigarriak hartu dituela mediku-errezetarekin. Bestalde, % 8,3k adierazi du noizbait erabili dituela lo egiteko botikak eta % 7,8k dio depresio-sintomatologia tratatzeko farmakoak kontsumitu dituela.


132. grafikoa. Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, psikofarmako motaren arabera (%)



Psikofarmako horietakoren bat gutxienez kontsumitu duen biztanleriaren proportzioa aurreko hiru prebalentzien batuketaren azpitik geratzeak honako hau nabarmentzen du: hiru substantzien kontsumoaren eta aztertutako psikofarmakoen mota bat baino gehiago kontsumitu duten pertsonen kopurua handia –kontsumitzaileen ia % 40– izatearen artean lotura estua dago.

Ildo horretan, interesgarria da pertsona bakoitza botika desberdinak kontsumitzen aztertzea. Inkestak emandako datuen arabera ikus daiteke noizbait psikofarmakoak erabili dituzten pertsona guztiak kontuan hartuta hamarretik seik (% 61,6) substantzia mota bakarra kontsumitu dutela. Kontsumitzaileen % 25,4k adierazi du bi botika mota erabili izan dituela eta gainerako % 13,1ek –47.690 pertsonatik gorako kopuruaren edo biztanleriaren % 2,9aren balioa– dio hiru psikofarmako mota ere kontsumitu dituela. Datu horien arabera, honako hau esan daiteke: noizbait psikofarmakoak kontsumitu dituzten pertsonen % 38,5ek inkesta honetan aztertutako botiketako bat –lasaigarriak, somniferoak edo antidepressiboak– baino gehiago erabili ditu, bereizita edo aldi berean.

133. grafikoa. Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)



Hiru psikofarmako horien artean dagoen erlazioa aztertuta honako hau agerian geratzen da: lasaigarriak gehien kontsumitutako psikofarmakoak direnez, neurri berdinean beste psikofarmakoekin gehien konbinatzen direla. Horren haritik, somniferoak kontsumitu dituztenen % 62k eta antidepresiboak kontsumitu dituztenen % 76k beren bizitzako uneren batean lasaigarriak ere kontsumitu dituzte. Alabaina, lasaigarriak kontsumitu dituztenen % 30ek eta % 34k somniferoak eta antidepresiboak ere kontsumitu ditu, hurrenez hurren. Izan ere, bi psikofarmako mota kontsumitu dituztenen kasuen % 96,9etan, bi mota horietako bat lasaigarria izan da.

16. taula. Bizitzan noizbait mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, beste psikofarmako batzuen kontsumoaren arabera (% horizontalak)

	Lasaigarriak	Somniferoak	Antidepresiboak
Lasaigarriak	100,0	30,0	34,9
Somniferoak	62,0	100,0	36,6
Antidepresiboak	76,7	38,9	100,0

Oharra: ezkerretik eskuinera irakurrita, noizbait lasaigarriak kontsumitu dituztenen % 30,0k eta 34,9k somniferoak eta antidepresiboak ere kontsumitu ditu, hurrenez hurren.


1.1.2. Psikofarmakoen kontsumoa mediku-errezetarik gabe eta modu konbinatuan (errezetarekin edo gabe)

Drogei buruzko inkesta honen aurreko boladetan agerian jarri ziren mediku-errezetarik gabeko psikofarmakoen (galdesortan legez kanpoko drogekin batera planteatzen ziren) kontsumoaren azterketa egiteak zituen zailtasunak. Botika horien (erraz eskuratu daitezke eta erabilera zabala dute) prebalentzia baxua ikusita, galdesortan galdera berriak sartzeko premia ikusi zen, hain zuzen ere, mediku-agindurik gabeko lasaigarrien, somniferoen eta antidepresiboen kontsumoa biltzen zuten galderak.

Adierazi denez, 2010ean 15-74 urteko euskal biztanleriaren 0,9k —14.500 pertsona inguruk— baieztatzen du noizbait mediku-errezetarik gabe kontsumitu dituela psikofarmakoak eta aldiz, biztanleriaren % 1,2k dio errezetarekin edo errezetarik gabe kontsumitu dituela.

Aztertutako botika mota bakoitza kontuan hartuta, esan daiteke mediku-errezetarekin gehien kontsumitutako farmakoak lasaigarriak badira ere (% 17,1), mediku-agindurik gabe gehien erabili diren substantziak somniferoak direla. Ildo horretan, 15-74 urteko euskal biztanleriaren % 1,2k baieztatu du noizbait somniferoak hartu dituela mediku-errezetarik gabe. Bestalde, % 1,1ek adierazi du noizbait lasaigarriak hartu dituela kontrol medikorik gabe eta soilik % 0,3k baieztatu du depresio-sintomatologia tratatzeko farmakoak kontsumitu dituela errezetarik gabe. Medik-errezeta bidezko psikofarmakoen kontsumoan gertatzen zen moduan, antidepresiboei dagokien kontsumo-ehuneko gutxiena.

134. grafikoa. Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa psikofarmako motaren arabera (%)



1.2. Psikofarmakoen kontsumoa azken urtean

Azkenaldiko –hau da, inkestaren aurreko hamabi hilabeteetako– psikofarmakoen kontsumoak euskal biztanleriaren % 12,6a biltzen du, termino absolututan 15-74 urteko 210.000 pertsonatik gora. Azken urtean psikofarmakoak kontsumitu dituztela baieztatu duten pertsona guztien gehiengoak –% 93,7k– mediku-errezetarekin soilik hartu zituen, % 2,4k adierazi du mediku-aginduarekin eta gabe hartu zituela botikak eta % 4,0k dio mediku-agindurik gabe erabili zituela. Azken urteko psikofarmakoen erabileraren prebalentzia-tasa biztanleriaren % 0,5era igo da eta errezetarekin edo gabe kontsumitu dutenena, berriz, % 0,3ra.

17. taula. Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak azken urtean (%)

		Biztanleria osoa	Kontsumitzaileak
Kontsumitu du	Mediku-errezetarekin bakarrik	11,8	93,7
	Mediku-errezetarik gabe bakarrik	0,5	4,0
	Mediku-errezetarekin edo gabe	0,3	2,4
	Guztira	12,6	100,0
Ez du kontsumitu		87,0	-
Ez daki/ Ez du erantzun		0,4	-
Guztira		100,0	-


1.2.1. Azkenaldiko psikofarmakoen kontsumoa mediku-errezetarekin

Noizbait beren bizitzan psikofarmakoak erabili dituztela dioten pertsona guztien erdiek baino gehiagok (% 56,2) inkesta egin aurreko azken hamabi hilabeteetan kontsumitu dituztela adierazi dute. Horrek jarraitutasun-indizea altua dela agerian uzten du, hain zuzen ere, legez kanpoko droga gehienena baino altuagoa (kanabisa barne) delako, alkoholarena baino baxuagoa eta tabakoaren indizearen berdina.

Azken urtean medikuaren agindupean psikofarmako mota bakoitzaren kontsumoa kontuan hartuz gero, baieztatu daitezke lasaigarriak direla botikarik erabiliena, kontsumo esperimentalean edo bizitza osoko kontsumoan gertatzen zen moduan. Hurrengo grafikoan ikus daitezkeen moduan, euskal biztanleriaren % 8,1ek adierazi du azken hamabi hilabeteetan antsietatea


lasaitzeko farmakoak kontsumitu dituela. Azken urteko kontsumoaren prebalentzia % 4,6 izan da somniferoen kasuan eta % 4,0 antidepresiboen kasuan.

135. grafikoa Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)



Azken urtean psikofarmako bat baino gehiago kontsumitzeari dagokionez, aztertutako psikofarmako motetako bi edo gehiago kontsumitu dituztela adierazi duten pertsonak 15-74 urtetako euskal biztanleria osoaren % 3,6 dira. Azken urtean psikofarmakoak kontsumitu dituztenen artean hamarretik hiruk –% 29,0– adierazi dute inkesta egin aurreko urtean bi edo hiru psikofarmako mota kontsumitu dituztela.

136. grafikoa Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)



Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen konbinaketei dagokienez, berriro ere nabarmentzekoa da lasaigarriek hartzen duten zeregin nagusia: azken urtean antidepresiboak kontsumitu zituztela adierazi duten hamar pertsonatik zazpik, –% 69,9k– lasaigarriak ere kontsumitu zituztela adierazi zuten. Era berean, inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan somniferoak kontsumitu zituztela adierazi zuten pertsonen % 40k lasaigarriak ere kontsumitu zituela dio, eta aldiz, % 23k soilik dio antidepresiboak ere kontsumitu zituela.

18. taula. Azken urtean mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (% horizontalak)

	Lasaigarriak	Somniferoak	Antidepressiboak
Lasaigarriak	100	22,6	34,1
Somniferoak	39,3	100	23,7
Antidepressiboak	69,9	27,8	100

Oharra: ezkerretik eskuinera irakurrita, azken urtean lasaigarriak kontsumitu dituztenen % 22,6k eta 34,13k somniferoak eta antidepressiboak ere kontsumitu ditu, hurrenez hurren.

1.2.2. Psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa mediku-errezetarik gabe eta modu konbinatuan

Medikuaren agindurik gabeko psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, euskal biztanleriaren % 0,5ek (termino absolututan 8.300 pertsona) soilik adierazi du azken 12 hilabeteetan mediku-errezetarik gabe psikofarmakoren bat kontsumitu duenik eta % 0,3k dio erabili dituela mediku-errezetarekin edo errezetarik gabe. Aztertutako psikofarmako mota kontuan hartuta, lasaigarrien kontsumoaren ehunekoa –% 0,2– berdina da mediku-errezetarik gabe kontsumitzen duten pertsonen kasuan eta modu konbinatuan (errezetarekin edo gabe) kontsumitzen dutenen kasuan. Somniferoen kasuan, % 0,3k soilik baieztatzen du mediku-errezetarik gabe kontsumitu dituela eta % 0,2k dio modu konbinatuan kontsumitu dituela. Bestalde, taulan ikus daitekeenez, ez dago –edo inkestan ez dira atzeman– mediku-errezetarik gabe edo mediku-errezetarekin edo gabe antidepressiboak kontsumitu dituela baieztatzen duen pertsonarik.

19. taula Azken urtean mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)

	Mediku-errezetarik gabe bakarrik			Mediku-errezetarekin edo gabe		
	Bai.	Ez	Ez daki/ Ez du erantzun	Bai.	Ez	Ez daki/ Ez du erantzun
Psikofarmakoak	0,5	99,1	0,4	0,3	99,3	0,4
Lasaigarriak	0,2	99,5	0,3	0,2	99,5	0,3
Somniferoak	0,3	99,4	0,3	0,2	99,8	0,0
Antidepressiboak	0,0	99,9	0,1	0,0	99,9	0,1

1.3. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia azken hilabetean

Gaur egungo psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, datuek erakusten dute 15-74 urteko biztanleriaren % 9,5ek –termino absolututan 158.000 pertsonatik gora– inkesta egin aurreko hilabetean erabili dituela botika horiek. Kontsumitzaile horietako gehiengoak adierazi du substantzia horiek mediku-errezetarekin kontsumitu dituela eta aldiz, mediku-errezetarik gabe bakarrik erabili dituzten pertsonen % 0,2 osatzen dute eta bi moduetara erabili dituztenek, % 0,1. Kontsumitzaileen banaketa bertikalari dagokionez ikus daiteke psikofarmakoak mediku-aginduarekin lortu dituztenek (% 96) kontsumo esperimentalak izan dutenek (% 90) eta azkenaldiko kontsumoa izan dutenek (% 93) baino garrantzi gehiago hartzen dutela. Izan ere, honako hau ikus daiteke: noiz eta kontsumoa gertatu berriagoa izan orduan eta handiagoa da aztertutako substantziak mediku-agindu bidez lortu dituztenen ehunekoa.


20. taula. Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak azken hilabeteen (%)

		Biztanleria osoa	Kontsumitzaileak
Kontsumitu du	Mediku-errezetarekin bakarrik	9,2	96,8
	Mediku-errezetarik gabe bakarrik	0,2	2,1
	Mediku-errezetarekin edo gabe	0,1	1,1
	Guztira	9,5	100,0
Ez du kontsumitu		90,1	-
Ez daki/ Ez du erantzun		0,5	-
Guztira		100,0	-

1.3.1 Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen egungo kontsumoa

Gainerako kontsumo motetan gertatzen den moduan azken hilabeteen mediku-aginduarekin kontsumitutako substantzia mota kontuan hartuz gero, somniferoekin eta antidepresiboekin alderatuta lasaigarriak dira biztanleriaren gehingoak kontsumitutako farmako mota: biztanleriaren % 6,1ek kontsumitu du substantzia mota hori azken hilabeteen eta aldiz, beste bi farmako motak, % 3,3k eta % 3,2k.

137. grafikoa. Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)




Gainera, interesgarria da honako hau aipatzea: egungo (azken hilabetea) edozein psikofarmako motaren kontsumitzaileak bizitza osoan botika horiek kontsumitu dituztela baieztatzen dutenen % 42,5 dira, eta azken urtean kontsumitu dituztela baieztatzen dutenen % 76,9. Kontsumo-eredu hori berdina da hiru substantzientzat, nahiz eta antidepresiboen kasuan jarraitutasun-tasak beste bi kasuetan baino zertxobait handiagoak diren.

Inkesta hau egin aurreko hilabeteen kontsumitutako psikofarmako mota kopuruari dagokionez, 15-74 urteko euskal biztanleriaren % 6,6k adierazi du azkenaldian farmako mota bakarra kontsumitu duela eta % 2,6k dio bi edo hiru psikofarmako mota kontsumitu dituela. Horrek esan nahi du 45.000 pertsona inguru egon direla gutxienez bi psikofarmakoz osatutako tratamendu konbinatuarekin. Azken hilabeteen kontsumitutako psikofarmako mota kopurua kontuan hartuta kontsumitzaileen banaketa begiratzen bada, datuek honako hau adierazten dute: denboraldi horretan psikofarmakoak kontsumitu dituzten hamar pertsonatik seik (%)

61,9) diote botika mota bakar bat erabili dutela, lau pertsonatik batek (% 25,5) dio bi farmako mota kontsumitu dituela eta % 12,6k dio hiru motak kontsumitu dituela.

138. grafikoa. Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)



Egin litezkeen konbinaketei dagokienez, farmako antidepresiboak kontsumitzen dituzten pertsonak lasaigarri asko ere kontsumitzen dituztela ikus daiteke; alabaina, lotura hori ez da alderantziz gertatzen eta bestalde, somniferoen eta gainerako substantzien artean ere ez dirudi lotura argirik dagoenik.

21. taula. Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa, kontsumitutako psikofarmako mota kopuruaren arabera (%)

	Lasaigarriak	Somniferoak	Antidepresiboak
Lasaigarriak	100,0	18,8	36,1
Somniferoak	34,6	100,0	22,9
Antidepresiboak	68,6	23,7	100,0

Oharra: ezkerretik eskuinera irakurrita, azken hilabeteen lasaigarriak kontsumitu dituztenen % 18,8k eta 36,1ek somniferoak eta antidepresiboak ere kontsumitu ditu, hurrenez hurren.

1.3.2. Psikofarmakoen kontsumoa mediku-errezetarik gabe eta modu konbinatuan (errezetarekin edo gabe)

Mediku-errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, inkestatik ateratako datuek honako hau erakusten dute: euskal biztanleriaren % 0,2k (termino absolututan 15-74 urteko 2.800 pertsona inguru) adierazi du azken hilabeteen psikofarmakoak mediku-agindurik gabe kontsumitu dituela eta aldiz, biztanleriaren % 9,2k adierazi du psikofarmakoak mediku-tratamenduan dagoelako kontsumitu dituela. Kontsumitutako psikofarmako motari dagokionez, biztanleriaren 0,1ek soilik dio inkestaren aurreko 30 egunetan somniferoak mediku-errezetarik gabe erabili dituela eta biztanleriaren ehuneko berdinak dio modu konbinatuan (errezetarekin edo errezetarik gabe) erabili dituela.

22. taula. Azken hilabeteen mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoa (%)

	Mediku-errezetarik gabe bakarrik			Mediku-errezetarekin edo gabe		
	Bai	Ez	Ez daki/ Ez du erantzun	Bai	Ez	Ez daki/ Ez du erantzun


Psikofarmakoak	0,2	99,3	0,5	0,1	99,4	0,5
Lasaigarriak	0,0	99,6	0,4	0,1	99,5	0,4
Somniferoak	0,1	99,9	0,0	0,1	99,9	0,0
Antidepresiboak	0,0	99,9	0,1	0,0	99,9	0,1

2. PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA ETA EZAUGARRI PERTSONALAK

2.1. Kontsumitzen hasteko adina

Psikofarmakoak mediku-errezetarekin kontsumitzen hasteko batez besteko adina 40 urte ingurukoa da baina aldiz, substantzia mota horiek mediku-agindurik gabe kontsumitzen dituztenentzat, kontsumoa hasteko batez besteko adina 30 urte ingurukoa izaten da. Desberdintasun horrek ziur aski esan nahi du kasu batzuetan eta besteetan substantzia horien erabilerak ezaugarri eta motibazio oso desberdinak dituela. Kontsumitutako psikofarmako mota kontuan hartuta, lasaigarriak dira adin goiztiarrean kontsumitzen hasten diren substantziak, hain zuzen ere, 39,7 urteko adinean mediku-errezetarekin egindako kontsumoari dagokionez. Beste muturrean, antidepresiboak dira mediku-agindurik gabe lehen kontsumitzen hasten diren substantziak, batez besteko adina 22,1 urte izanik.

139. grafikoa. Mediku-errezetarekin edo gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adina (%)



Bestalde, hurrengo bi tauletan ikus daitekeen moduan, inkestatik ateratako datuek adierazten dute mediku-errezeta bidezko psikofarmakoaren kontsumoa hastea ez dela gaztaroaren ezaugarria baizik eta kontsumo hori bizitzaren etapa desberdinetan zehar banatzeko joera dagoela. Dena den, psikofarmakoak mediku-errezetarekin kontsumitu dituzten pertsona guztien % 35,3k noizbait kontsumitu ditu 34 urte bete aurretik.

23. taula. Mediku-errezetarekin psikofarmakoak kontsumitzen hasteko adina, hasitako adin-taldeetan banatuta

(noizbait kontsumitu dituzten pertsonen gaineko %)

	Lasaigarriak	Somniferoak	Antidepresiboak	Hiruetako baten bat
24 urtetik behera	15,0	15,8	14,7	14,4
25-34 urte	23,7	15,1	22,6	21,3
35-44 urte	24,5	21,7	21,4	23,2
45-54 urte	17,5	25,5	20,7	21,2
55-64 urte	14,5	12,6	14,5	13,6

65 urtetik gora	4,5	6,7	4,0	6,0
Ez daki/ Ez du erantzun	0,3	2,6	2,3	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Alabaina, aurretik adierazitako kontsumitzen hasteko batez besteko adin txikiagoarekin bat etorritik, lasaigarriak, somniferoak eta antidepresiboak mediku-errezetarik gabe kontsumitzen hasteko adina goiztiarragoa da: % 43,7k 24 urte izan aurretik hasten dute kontsumoa, % 23,1ek 25-34 urtetan eta % 21,4k 35-44 urtetan.


24. taula. Mediku-errezetarik gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko adina, hasitako adin-taldeetan banatuta
(noizbait kontsumitu dituzten pertsonen gaineko %-a)

	Lasaigarriak	Somniferoak	Antidepresiboak	Hiruetako baten bat
24 urtetik behera	45,6	40,4	34,7	43,7
25-34 urte	25,3	21,3	24,0	23,1
35-44 urte	20,3	23,2	0,0	21,4
45-54 urte	0,0	10,5	0,0	0,0
55-64 urte	5,2	4,7	0,0	6,0
65 urtetik gora	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez daki/ Ez du erantzun	3,6	0,0	41,3	5,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

2.2. Belaunaldien arteko aldeak psikofarmakoen kontsumoari dagokionez


Txosten honetan aztertzen diren bestelako substantzia batzuen kontsumoa hasteko adina ez bezala, psikofarmakoak kontsumitzen dituzten elkarrizketatuen egungo adina batez ere biztanleriaren adin ertainean kokatzen da. Inkestaren azterlanean psikofarmako motaren bat bizitzan noizbait kontsumitu dutela dioten pertsonen batez besteko adina 49,6 urte da eta egungo kontsumitzaileen –inkesta egin aurreko hilabeteen kontsumitu dutenen– batez besteko adina, aldiz, handiagoa da, 52,9 urte. Azkenaldiko kontsumitzaileena (azken urtean) oso antzekoa da (52,1 urte). Kontsumitzaileen batez besteko adinen arteko desberdintasunak oso txikiak badira ere, kontsumitutako psikofarmako motak kontuan hartuz gero, somniferoen kasuan gertatzen da batez besteko adin handiena aztertu diren kontsumo-maila guztietan (esperimental, azkenaldikoa eta egungoa).

140. grafikoa. Psikofarmakoak mediku-errezetarekin kontsumitzen dituztenen batez besteko adina, kontsumo motaren arabera




Adin-taldeen arabera kontsumo-tasei dagokienez eta hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, psikofarmakoak kontsumitzeko aukerak adinaren arabera handitzen dira eta hori dela-eta, substantzia horiek 25 urtetik beherako oso gazte gutxik kontsumitzen dituzte. Alderantziz, 55-74 adin-tartean gertatzen dira prebalentzia-tasa altuenak kontuan hartutako kontsumo eta psikofarmako guztien kasuan.

141. grafikoa. Mediki-errezetarekin hartutako psikofarmakoaren kontsumoa adin-taldearen arabera (%)



Aipaturiko prebalentzia-tasak ikusita ez da harritzekoa mediku-errezetarekin psikofarmakoak kontsumitzen dituzten pertsonen ia erdiak 55-74 adin-tartean kokatzea. Hain zuzen ere, noizbait psikofarmakoak mediku-errezetarekin kontsumitu dituzten pertsonen adinaren arabera banaketa aztertzen bada, ikus daiteke ehuneko handiena –% 45,8– 35-54 adin-tarteari dagokiola. Era berean, adin-tarte horretan –35 eta 54 urte bitartekoan– kokatzen da biztanleriaren ehuneko handiena, betiere lasaigarriak eta antidepresiboak mediku-tratamendurekin kontsumitzen dituztela dioten pertsoneri dagokienez.

142. grafikoa. Kontsumitzaile esperimentalen (mediku-errezetarekin) adinaren arabera banaketa (%)



Bestalde, mediku-errezetarik gabeko kontsumo-tasak aztertuta, esan daiteke tasarik handiena (% 2,6) 35-54 adin-tartean bildutako pertsonen taldearena dela. Medikuen kontrolrik gabe kontsumitutako substantzia mota kontuan hartzen bada, lasaigarrien kontsumo-tasa handiena (% 1,5) gazteenen kolektiboan ikusten da –15 eta 24 urte bitartean– eta ondoren 35-34 urteko taldean (% 1,4).

25. taula. Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia adin-taldean arabera (%)

	15-24	25-34	35-54	55-74
Lasaigarriak	1,5	0,9	1,4	0,9
Somniferoak	1,4	1,0	1,4	0,7
Antidepressiboak	0,3	0,3	0,3	0,2
Hiruetako baten bat	2,1	1,9	2,6	1,3

Mediku-errezetarekin kontsumitu dutenen banaketaren antzera, kontsumitzaileen ehuneko handiena 35-54 adin-tarteari dagokio, % 51,6. Gainera, adin-talde horri dagokio aztertutako hiru substantziak kontsumitzen dituztenen ehuneko handiena. Hots, lasaigarriak kontsumitzen dituztenen % 48,5, somniferoak kontsumitzen dituztenen % 50,4 eta antidepressiboak neurririk gabe hartzen dituztenen % 48,1 adin-tarte horretan kokatzen da.

26. taula. Bizitzan noizbait mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoa, adinaren arabera banatuta (%)

	15-24	25-34	35-54	55-74
Lasaigarriak	14,5	14,3	48,5	22,7
Somniferoak	14,5	16,6	50,4	18,6
Antidepressiboak	10,6	18,3	48,1	23,0
Hiruetako baten bat	12,0	17,5	51,6	18,9

2.3. Genero-desberdintasunak

Psikofarmakoen kontsumoa adineko jendeari loturiko fenomeno izateaz gain, emakumei loturiko fenomeno ere bada. Hain zuzen ere, 2010ean atzemandako prebalentzia-tasak aztertuta ikus daiteke kontsumo mota guztietan eta hiru psikofarmakoei dagokienez, emakumeen prebalentzia-tasak beti gizonenak baino handiagoak direla. Alabaina, datuak aztertuta honako hau baieztatu daiteke: hiru psikofarmako moten baten kontsumoa zenbat eta egin berriagoa izan sexuaren arabera desberdintasunak orduan eta txikiagoak dira. Ildo horretan, ikus daiteke desberdintasun handienak bizitzan noizbait egindako kontsumoan gertatzen direla (1,90eko ratio diferentziala), eta horren atzean, azkenaldiko kontsumoan (emakumeen kontsumo-prebalentziaren eta gizonen kontsumo-prebalentziaren arteko zatiketa 1,80 izanik) eta inkesta egin aurreko azken hilabetean egindako kontsumoan (1,77ko ratio diferentziala). Gainera, hurrengo taulan ikus daitekeenez, sexuaren arabera desberdintasun nabarmenagoak dira depresio-sintomatologia arintzeko farmakoen kontsumoan eta txikiagoak, somniferoen eta lasaigarrien kontsumoan**.

27. taula. Mediku-errezetarekin psikofarmakoen kontsumoko prebalentziak sexuaren arabera (%)


		Prebalentziak (%)			Ratioa*
		Gizonezkoak	Emakumeak	Guztira	
Lasaigarriak	Bizitzan noizbait	11,2	22,9	17,4	2,05
	Azken urtean	5,6	10,6	8,3	1,89
	Azken hilabetean	4,1	8,1	6,1	1,96

Somniferoak	Bizitzan noizbait	6,4	10,1	8,9	1,59
	Azken urtean	3,5	5,8	5,0	1,63
	Azken hilabetean	2,9	3,8	3,5	1,30
Antidepressiboak	Bizitzan noizbait	4,4	11,2	7,8	2,56
	Azken urtean	2,5	5,4	4,0	2,16
	Azken hilabetean	2,3	4,1	3,3	1,79
Hiruetako baten bat	Bizitzan noizbait	14,3	27,1	22,7	1,90
	Azken urtean	8,4	15,1	12,6	1,80
	Azken hilabetean	6,6	11,7	9,4	1,77

* Emakumeen kontsumo-prebalentziaren eta gizonen kontsumo-prebalentziaren arteko koizientea.


Bestalde, emakumeen prebalentzia-tasak handiagoak izateak ez du ezkutatu behar gizonen jarraitutasun-tasak (kontsumitzaile esperimentalak eta azkenaldiko kontsumitzaileak direnen ehunekoa) emakumeenak baino handiagoak direla, somniferoen kasuan izan ezik. Horren haritik, pentsa daiteke emakumeen kasuan substantzia horien erabilera noizbehinkakoa (edo ez azkenaldikoa) izan daitekeela eta gizonen kasuan, berriz, jarraitutasun handiagoa gertatzen dela.

143. grafikoa. Jarraitutasun-tasa mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoaren kontsumoan generoaren eta farmako motaren arabera (%)



Ikusitako prebalentzia-tasak aintzat hartuta, ez da harrizkoa gutxienez bizitzan behin psikofarmakoak mediku-aginduarekin edo gabe kontsumitu dituen kolektiboaren banaketa aztertuta honako hau atzematea: aztertutako substantzia guztietan emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa dela; somniferoak errezetarik gabe kontsumitzen dituzten pertsonen kasua da salbuespena, gizonen proportzioak (% 56,2) emakumeena (% 43,8) gainditzen duelako kasu horretan.

144. grafikoa. Mediki-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumo esperimentalaren banaketa sexuaren arabera (%)




2.4. Adinaren eta generoaren eragin konbinatua


Adin-tarte desberdinak konbinatuz eta gizona edo emakumea izatearen arabera azken urtean psikofarmakoak kontsumitu dituztenen banaketa kontuan hartuta interesgarria izan daiteke honako hau aipatzea: gizonen ehuneko handiena 55-74 adin-tartean banatzen da kontsumitutako substantzia edozein motatakoa izanik ere. Alabaina, emakumeen kasuan, 35-54 eta 55-74 adin-tarteetan banatzen dira. Genero-desberdintasun handienak somniferoen kontsumitzaileen artean sortzen dira; izan ere, substantzia hori kontsumitzen duten hamar gizonetatik ia sei 55-74 adin-tartean banatzen dira eta aldiz, adin horretako ehunekoa 37,9 da eta biztanleria osoan, 45,7.

145. grafikoa. Mediki-errezetarekin hartutako psikofarmakoen azkenaldiko kontsumitzaileen banaketa adinaren eta generoaren arabera (%)


Lasaigarriak




Somniferoak



Antidepresiboak




Psikofarmakoak



Bestalde, egungo psikofarmakoaren kontsumoari (inkesta egin aurreko azken hilabetea) buruzko datuak aztertzen badira, horien generoaren eta adin-tarteen arabera banaketa azkenaldiko kontsumoari dagokionaren berdina da. Azken urteko kontsumoaren datuetan bezala, genero-desberdintasunak nabarmenagoak dira somniferoen kontsumitzaileen artean; izan ere, gizonen % 60 banatzen da 55-74 adin-tartean eta emakumeen % 35,5. Gainera, loak hartzen laguntzeko farmakoak kontsumitzen dituzten emakumeen kasuan, emakumeen ehuneko handiena 35-54 adin-tartean banatzen da.

146. grafikoa. Psikofarmakoak mediku-errezetarekin gaur egun kontsumitzen dituztenen adinaren eta generoaren arabera banaketa (%)




2.5. Bestelako ezaugarri soziodemografikoak

Inkestaren datuek agerian uzten dute inkestatuek betetzen duten jarduera nagusiak eta ikasketa-mailak lotura zuzena izaten dutela mediku-aginduarekin psikofarmakoak kontsumitzearekin (dena den, txosten honen beste kapitulu batzuetan aipatu den moduan, badakigu lanbide-elementu horien atzean askotan inkestatuen adinari eta sexuari dagozkion desberdintasunak ezkututzen direla).


Hurrengo grafikoen bildutako datuen arabera, prebalentzia-tasarik handienak etxeko lanetan diharduten pertsonengan eta pentsiodunengan gertatzen dira, talde horietan biltzen baitira emakume eta adineko pertsona gehienak. Aztertutako hiru substantziak kontuan hartuz, desberdintasun esanguratsuenak gehien kontsumitzen den psikofarmakoaren inguruan gertatzen dira, lasaigarrien kasuan, alegia. Datuen arabera ikus daiteke farmako horren modu esperimentaleko kontsumoaren –bizitzan noizbait egindakoaren– prebalentziarik handiena etxeoandreei (% 23,9) dagokiola eta atzetik erretiratuak (% 23,3) eta ikasleak (% 4,1) kokatzen direla.

147. grafikoa. Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoaren kontsumoaren prebalentziak jardueraren arabera (%)




Lan honetan aztertutako beste ezaugarri soziodemografiko bat inkestan parte hartu duten pertsonak kokatuta dauden talde sozioekonomikoa –etxeko bizikide nagusiaren jardueratik eratortzen dena– izan da. Ez dirudi mediku-errezetarekin eginiko psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak oso desberdinak direnik aztertutako taldeetan (zuzendariak eta profesional liberalak, kargudunak eta erdi-mailako agintariak, kualifikatutako eskuzko langileak eta kualifikaziorik gabeko langileak). Alabaina, badaude aipa daitezkeen bi elementu interesgarri: alde batetik, eta beste substantzia batzuekin gertatzen den moduan, gizarte-maila altuenetako pertsonak orokorrean kontsumo esperimantal handiagoak izaten dituzte, baina gainerako pertsonak baino azkenaldiko eta egungo kontsumo txikiagoak (hori oso argia da lasaiagarrien kasuan). Bestalde, aintzat hartutako kontsumoaren aldia edozein izanik ere, gizarte-maila baxuenetako pertsonak psikofarmako antidepressiboez egiten duten erabilera-maila baxua nabarmentzekoa da.

148. grafikoa. Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoaren kontsumoaren prebalentziak talde sozioekonomikoaren arabera (%)




Inkestaturen ikaskuntza-mailari dagokionez, (lanbidearekin gertatzen zen moduan horretan ere adinaren eta generoaren arabera desberdintasunak ezkututzen dira), datuek erakusten dute ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen prebalentziak handiagoak direla, bai psikofarmakoak oro har hartuta (% 23,3) baita somniferoen (% 9,5) eta antidepressiboen kasuan ere (% 8,0). Alabaina, azterlan honek eskaintzen dituen datuek adierazten dutenez, lasaiagarrien kontsumoaren prebalentziak handiagoak dira unibertsitateko ikasketak dituztenentzat (% 17,6). Ildo horretan, eta aurreko urteetan ez bezala, elkarrizketatuen ikasketa-mailari buruzko datuekin ezin da baieztatu psikofarmako-kontsumoaren eta ikasketa-mailaren artean erlazio zuzena dagoenik, beharbada, egungo kontsumoaren kasuan izan ezik (horrek, bestalde, unibertsitateko ikasketak dituztenen artean jarraitutasun-tasa txikiagoak daudela agerian utziko luke).

149. grafikoa. Mediki-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak ikasketa-mailaren arabera (%)



Azkenik, inkestaturen egoera zibila edo ezkontza-egoera aztertzeak taldeen arteko desberdintasun nabarmenak atzematea ahalbidetzen du. Ildo horretan, mediku-errezeta bidezko psikofarmakoen kontsumoko maila handienak, edozein kontsumo motari – esperimentalak, azkenaldikoa edo egungoa– dagokionez, dibortziatuen, banandutakoen eta alargunen kolektiboan gertatzen dira (eta hori berriz ere, adinari eta sexuari loturik dago zalantzarik gabe). Esate baterako, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, hiru psikofarmakoetako edozeini dagokion kontsumo-prebalentzia ezkontutako pertsonen kasuan % 31,8 da eta ezkongabeen kasuan, berriz, % 5,6.

150. grafikoa. Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak egoera zibilaren arabera (%)



2.6. Psikofarmakoen eta beste gai batzuen kontsumoa

Bestelako substantzien kontsumoari dagokionez, pentsa daiteke psikofarmakoak kontsumitzen dituzten pertsonak (mediku-errezetarekin kontsumitzen dituztenek behintzat) adin ertaineko pertsonak eta emakumeen ehuneko handiaz osatutako kolektiboa osatzen dutela eta orokorrean, ez dituztela bestelako legezko edo legez kanpoko drogekiko kontsumo problematikoak agertzen. Alabaina, datuek agerian uzten dute, legezko substantziei dagokienez behintzat, psikofarmakoak kontsumitzen dituztenen beste substantzia horiekiko kontsumo-mailak biztanleria osoarenak baino pixka bat handiagoak direla.

Halaxe da, hurrengo taulako datuen arabera ikus daiteke psikofarmakoen kontsumitzaileek orokorrean biztanleriak oro har hartuta baino tabako- eta alkohol-kontsumo handiagoak dituztela. Ildo beretik, biztanleria osoaren tabako-kontsumoaren prebalentzia % 31,3 da eta aldiz, psikofarmakoak inkestaren aurreko hilabetean kontsumitu dituztenena % 35,8. Kontsumitutako substantzia mota kontuan hartuta, tabako-kontsumoaren prebalentziak handiagoak dira aztertutako hiru farmakoen –lasaiagarriak somniferoak eta antidepresiboak– kontsumitzaileen kasuan. Era berean, alkohol-kontsumoari dagokionez, prebalentzia-datuak askoz handiagoak dira somniferoak edo antidepresiboak kontsumitzen dituzten pertsonen kasuan, nahia eta ez den horrela lasaiagarrien kontsumitzaileen kasuan.

Aitzitik, –oraingoa, beren gehiengo profilarerkin bat etorritik– psikofarmakoen kontsumitzaileen ezaugarria izaten da biztanleria osoak azaltzen duen kanabis-kontsumoaren prebalentzia baino prebalentzia txikiagoak azaltzea. Ildo horretan, biztanleria osoaren kanabis-kontsumoaren prebalentzia % 10,4 izan da azken urtean eta adibidez, psikofarmakoen

kontsumitzaileena azken hilabetean % 5,8 izan da. Kanabisaz bestelako legez kanpoko substantzien kontsumoaren kasuan, are nabariagoak dira aldeak.

28. taula. Bestelako substantzia psikoaktiboaren kontsumo problematikoaren prebalentzia psikofarmakoak kontsumitu dituzten eta kontsumitzen dituzten pertsonen artean (%)

	Eguneroko tabako-kontsumoa.	Gehiegizko edo arriskuzko alkohol-kontsumoa lanegunetan	Gehiegizko edo arriskuzko alkohol-kontsumoa asteburuetan	Kanabis-kontsumoa azken urtean	Legez kanpoko beste substantzia baten kontsumoa azken urtean
Lasaigarriak					
- Azken urtean	36,5	1,0	5,0	7,3	0,7
- Azken hilabetean	37,4	1,3	4,4	4,5	0,3
Somniferoak					
- Azken urtean	34,0	3,4	5,3	7,0	0,7
- Azken hilabetean	33,8	3,4	6,2	5,3	0,0
Antidepressiboak					
- Azken urtean	37,0	2,0	3,1	7,8	0,0
- Azken hilabetean	36,3	2,5	3,8	8,3	0,0
Hiruetako baten bat					
- Azken urtean	33,6	1,3	4,8	7,3	0,4
- Azken hilabetean	35,8	1,2	4,3	5,8	0,2
15-74 urteko biztanleria	31,3	1,5	9,7	10,4	2,3

3. EAEko PSIKOFARMAKO KONTSUMOAREN BILAKAERA

Psikofarmakoen kontsumoa Euskadi eta Drogak seriearen lehen azterlanetik kontuan hartutako gaia izan da; dena den, kontsumo horren azterketak zenbait zehaztasun metodologiko eskatzen ditu, urteek aurrera egin ahala informazioa jasotzeko moduan aldaketa garrantzitsuak txertatu direlako: hainbat erreferentzialdi eta erabilera-modu dituzten farmako desberdinei buruzko mota desberdinetako galderak txertatzeak neurri handi batean substantzia horien kontsumoaren bilakaeraren azterketa denboran zehar egiteko serie egonkor samarra lortzea zaildu du.

Zailtasun horiek aintzat hartuta, eta aurreko urteetako eredia jarraituz, ondoren Euskadi eta Drogak seriean denboran zehar agertu diren kontsumo modalitate desberdinen prebalentziak aztertzen dira.

29. taula. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzien bilakaera. 1992-2010

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Bizitza osoan											
Lasaigarriak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	16,6	13,9	16,2
	Errezetarik gabe	4,3	2,3	--	--	--	--	2,4	--	--	0,3
	Errezetarekin edo gabe										0,9
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	17,4
Somniferoak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	10,7	8	7,8
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	2	--	--	0,7
	Errezetarekin edo gabe										0,5
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	8,9
Antidepresiboak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	8,9	7,1	7,5
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	--	--	--	0,0
	Errezetarekin edo gabe										0,2
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	7,8
Hiruetako baten bat	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	22,4	18,7	20,7
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	3,7	1,4	1,9	0,9
	Errezetarekin edo gabe										1,2
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	22,6	18,9	22,7
Azken urtean											
Lasaigarriak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	11,4	10,9	6,1
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	1,5	--	--	0,0
	Errezetarekin edo gabe										0,1
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	8,3
Somniferoak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	8,2	6,2	4,5
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	1	--	--	0,3
	Errezetarekin edo gabe										0,2
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	5,0
Antidepresiboak	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	6	4,6	4,0
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	--	--	--	0,0
	Errezetarekin edo gabe										0,0
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	--	--	4,0
Hiruetako baten bat	Errezetarekin	--	--	--	--	--	--	--	15,8	14,5	11,8
	Errezetarik gabe	--	--	--	--	--	--	1	0,5	1	0,5
	Errezetarekin edo gabe										0,3
	Guztira	--	--	--	--	--	--	--	15,8	14,6	12,6
Azken hilabeteetan											
Lasaigarriak	Errezetarekin	--	--	4,7	5,9	5,6	5,2	--	--	7,8	6,1
	Errezetarik gabe	2,3	0,7	0	0,3	0,2	0,2	--	--	--	0,1
	Errezetarekin edo gabe										0,1
	Guztira	--	--	4,7	6,2	5,8	5,4	--	--	--	6,1
Somniferoak	Errezetarekin			1,5	2	2,5	2,4	--	--	3,6	3,3
	Errezetarik gabe			0	0	0	0	--	--	--	0,1
	Errezetarekin edo gabe										0,1
	Guztira			1,5	2	2,5	2,4	--	--	--	3,5
Antidepresiboak	Errezetarekin			--	--	--	--	--	--	3,4	3,2
	Errezetarik gabe			--	--	--	--	--	--	--	0,0
	Errezetarekin edo gabe										0,0
	Guztira			--	--	--	--	--	--	--	3,3
Hiruetako baten bat	Errezetarekin			--	--	--	--	--	--	10,3	9,2
	Errezetarik gabe			--	--	--	--	--	0,5	0,5	0,2
	Errezetarekin edo gabe										0,1

	Guztira			--	--	--	--	--	--	10,4	9,4
--	---------	--	--	----	----	----	----	----	----	------	-----


Lortutako emaitzen arabera, 14 urte hauetan psikofarmakoen kontsumoak izan duen bilakaeraz honako ondorio hauek atera daitezke:

- Goranzko joera orokorra ikusten da mediku-errezetarekin hartutako lasaigarrien egungo (azken hilabetean) kontsumoari dagokionez. 1996-2010 aldian, medikuaren agindupeko kontsumo-maila % 4,7tik % 6,1era igo da lasaigarrien kasuan. Alabaina, mediku-agindurik gabeko kontsumoaren kasuan, kontsumo-maila jaitsi egin da urteek aurrera egin ahala; izan ere, 1992an % 2,3 izatetik 2010ean % 0,1 izatera igaro da.
- Somniferoen kasuan ere goranzko joera atzematen da azken hilabeteko kontsumoan. Zehazki, mediku-errezetarekin hartutako somniferoen kontsumo-tasa % 1,5 izan zen 1996an baina 2010ean, % 3,5.
- Kontsumitutako substantzia mota kontuan hartuta, lasaigarriak dira gehien erabilitako farmakoak eta horien atzean somniferoak eta antidepresiboak. Hiru farmako horiei dagokienez, mediku-errezetarekin egindako kontsumo-prebalentzia handienak 2006. urteari dagozkio, kontsumo esperimientaleko tasak lasaigarrientzat % 16,6, somniferoentzat % 10,7 eta antidepresiboentzat % 8,9 izanik.

3.1. Mediku-errezetarekin edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzien bilakaera (%)


Kontsumoaren prebalentziaren bilakaeraren azterketa modu zehaztuagoan egin daiteke 2006., 2008. eta 2010. urteetako txostenetako datuak erreferentziazat hartuta; izan ere, urte horietako inkestetan dagokigun gaiari buruzko galderak oso gutxi aldatu dira. Azterketa horrek aukera ematen du honako hau baieztatzeko: azken urtean psikofarmakoak kontsumitu dituztenen ehunekoa jaitsi egin da baina kontsumo esperimientala (bizitzan zehar) zertxobait igo da, bereziki lasaigarrien kasuan, horien kontsumo-prebalentzia 2008ko % 13,9tik 2010eko % 17,1era igaro baita.

151. grafikoa. Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera. 2006-2010 (%)



Mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaerari dagokionez, 2008an egiaztatutako goranzko joerak ez du irauten azkenaldiko –azken urteko– eta egungo –azken hilabeteko– kontsumoari dagokionez. Ildo horretan, baiezta daiteke 2010eko kontsumo esperimentalak zertxobait igo dela 2008koarekiko baina azkenaldiko eta egungo kontsumoak jaitxi egin direla. Azkenaldiko –inkesta egin aurreko urteko– kontsumoari dagokionez, aurtengo inkestaren datuek erakusten dute psikofarmakoen kontsumoan jaitxiera ikusten den bezalaxe legez kanpoko drogetan ere jaitxiera gertatu dela.

152. grafikoa. Mediku-errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera. 2006-2010 (%)




3.2. Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera.

Psikofarmakoak mediku-aginduarekin kontsumitzen hasteko batez besteko adina ez da modu esanguratsuan aldatu azken urteetan, nahiz eta datuak substantzia motaren arabera aztertuz, zenbait desberdintasun ikus daitezkeen. Lasaigarriak kontsumitzen hasteko batez besteko


adinak apur bat behera egin du, hau da, 2006an adin hori 40,3 urte zen eta 2010ean 39,7 urte izan da. Somniferoen kasuan, adin horrek ez du behera egin. Antidepressiboei dagokienez, aldiz, 2008an kontsumoa hasteko batez besteko adinean erregistratutako jaitsiera handiaren ondoren, 2010ean adin hori berriro igo egin da 40,3 urtetan kokatu arte, aurreko txostenean jasotakoa baino bi urte gehiago.

153. grafikoa. Psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren (urteak) bilakaera, psikofarmako motaren arabera. 2006-2010



Psikofarmakoak mediku-aginduarekin edo gabe hartzen diren kontuan hartuta, desberdintasunak daude kontsumitzen hasteko batez besteko adinean. Hain zuzen ere, psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzen dituztenak mediku-aholkuarekin hartzen dituztenak baino lehenago hasten dira kontsumitzen. Bilakaerari dagokionez, mediku-errezetarekin kontsumitzen dutenen batez besteko adina 41 urtetik 40 urtera pixka bat jaitsi da eta aldiz, farmako mota horiek errezetarik gabe hartzen dituztenen artean batez besteko adina hamar urte gutxiagokoa da eta nabarmen jaitsi da azken bi urteetan (2008an 36,2 izatetik 2010ean 30,2 izatera igaro da).

154. grafikoa. Errezetarekin edo gabe psikofarmakoak kontsumitzen hasteko batez beste adinaren (urteak) bilakaera. 2006-2010



Adierazienez, mediku-errezetarekin egindako kontsumoa 40 urte inguruan hasten da eta hurrengo taulan ikus daitekeenez, lasaigarrien, somniferoen eta antidepresiboen kontsumoaren ehuneko handiena 35-54 adin-tartean kokatzen da aztertutako urte guztietan. Lasaigarrien kasuan, adin-tarte horretan kontsumitzen hasi direnen ehunekoa igo egin da eta aldiz, 55 urtetik gora hasi direnena, jaitsi. Alderantzizkoa gertatzen da antidepresiboen kasuan, urte gehiagorekin kontsumitzen hasten direnen ehunekoa igo egin delako 2008. urtekoarekiko. Alde nabarmenenak somniferoen kasuan ikus daitezke: Somniferoen kontsumitzaile guztien ia erdiak (% 47,2) 35 urtetik 54 urtera bitartean hasten dira kontsumitzen eta 55 urtetik aurrera hasten direnak 2008an % 30,8 izatetik 2010ean % 19,3 izatera igaro dira.


30. taula. Errezetarekin hartutako psikofarmakoaren kontsumoaren bilakaera, hasitako adin-taldeetan banatuta. 2006-2010. (%)

	Lasaigarriak			Somniferoak			Antidepresiboak			Hiruetako baten bat		
	2006	2008	2010	2006	2008	2010	2006	2008	2010	2006	2008	2010
35 urtetik behera	37,8	38,0	38,7	27,8	35,6	30,9	27,8	40,1	37,2	36,1	35,4	37,4
35-54 urte	43,2	39,0	42,0	51,6	33,6	47,2	47,4	45,3	42,0	42,7	37,4	43,3
54 urtetik gora	19,0	23,0	19,0	20,6	30,8	19,3	24,8	14,6	18,5	21,3	27,2	18,8

3.3. Psikofarmakoaren kontsumoaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

2010ean, oro har, psikofarmakoaren kontsumoaren prebalentziak jaisten jarraitu du, nola gizonetan hala emakumeetan, nahiz eta oraindik ere emakumeak diren talde honetan bildutako substantzia mota guztiak gehien kontsumitzen dituztenak. Gizonen kasuan, azterlaneko hiru psikofarmako motetako (lasaigarriak, somniferoak edo antidepresiboak) edozeinen kontsumoa 2006an % 10,8 izatetik 2010ean % 8,6 izatera igaro da eta emakumeen kasuan 2006an % 20,7 izatetik gaur egun % 15,5 izatera jaitsi da. Substantzia bakoitza bere aldetik aztertuz gero ikus daiteke lasaigarrien kontsumoa modu nabarmenean jaitsi dela gizonen artean, 2006ko % 8,2tik 2010eko % 5,6ra baita emakumeen artean ere, 2006ko % 14,6tik 2010eko 10,6ra. Bi kasuetan, urte horietan gutxien jaitsi den kontsumoa antidepresiboena izan da, baina hala ere, substantzia hori da kapitulu honetan aztertutakoaren artean gutxien kontsumitzen dena oraindik ere.


155. grafikoa. Mediku-errezetarekin hartutako psikofarmakoaren azken urteko kontsumoaren bilakaera, sexuaren arabera. 2006-2010 (%)



Adin-talde desberdinei dagokienez, oraindik ere 56-74 urteko pertsonak dira psikofarmako gehien kontsumitzen dituztenak baina aldi berean, talde horretako kontsumoan gertatu da adin-tarte guztietako jaitsiera handiena –2008an bezalaxe–, 2006an % 27,3 izatetik gaur egun % 18,9 izatera igaro baita. Erdiko adin-tartean ere kontsumoa jaitsi egin da eta puntu bat igo da

biztanleria gazteenari dagokionez, biztanleriaren sektore horretan lasaigarrien kontsumoa handitu delako (2008an % 5,5 zen eta 2010ean % 6,1).

156. grafikoa. Mediki-errezetarekin hartutako psikofarmakoen azken urteko kontsumoaren bilakaera, adin-taldean arabera. 2006-2010 (%)



V. KAPITULUA
KANABISAREN KONTSUMOA EAEn

1. EAEko KANABISAREN KONTSUMOARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK


1.1. Kontsumo-ereduak: 2010eko egoera eta bilakaerari buruzko datuak

1.1.1. Kanabisaren kontsumo experimentalak

2010ean euskal biztanleriaren heren batek baino gehiagok (% 34,2) adierazi dute bizitzan behin gutxienez kanabisa kontsumitu dutela¹². Kontsumo esperimentaleko tasa da hori eta 2008an erregistratutakoa baino zertxobait handiagoa da nahiz eta 2006koa baino txikiagoa den. Ildo horretan baieztatu daiteke kanabisaren kontsumo esperimentalean zegoen joera egonkortu egin dela, 2002an eta 2006an izandako igoeren eta 2006-2008 aldian izandako jaitsiera arinaren ondoren. Dena den, oraindik ere biztanleria osoaren kontsumo-mailak oso handiak dira termino historikotan.

¹² Drogen kontsumoari buruzko galdesortan kanabisa soilik aipatzen da, bestelako izenik bereizi gabe, esaterako *haxixa, marihuana, txokolata edo kosta*. Era berean, kanabisa eskuratzeko edo banatzeko modu desberdinak ere ez dira zehazten.


157. grafikoa. Kanabisaren kontsumo esperimentaleko tasaren bilakaera EAEn, 1992-2010 (biztanleriaren %-a)



Aurreko grafikoa ikus daitekeenez, kontsumo esperimentaleko tasak oraindik ere askoz handiagoak dira gizonen artean (% 41,5) emakumeen artean (% 27) baino. Alabaina, azken bi urteetan kontsumo-tasak zertxobait jaitsi dira gizonen artean eta zertxobait igo dira emakumeen artean.

Adinaren ikuspuntutik, kanabisaren kontsumo esperimentala batez ere gazte helduetan (20-34 urte) biltzen da eta kontsumo-tasak biztanleriaren % 50aren gainetik kokatzen dira adin-tarte guztietan. Tasak txikiagoak dira inkestatutako biztanleria hazten den neurrian baina aipatu behar da 45-54 adin-tartean ere kontsumo esperimentalaren prebalentzia ia % 33 dela.


158. grafikoa. Kanabisaren kontsumo esperimentalaren sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2010
(biztanleriaren %)



1.1.2. Kanabisaren azkenaldiko kontsumoa


Azkenaldiko kontsumoa –inkesta egin aurreko urtean egindakoa– kontsumo esperimentalaren baina adierazle interesgarriagoa da; izan ere, kontsumo esperimentalaren metagarria da (eta, beraz, murrizteko zaila) eta azkenaldiko kontsumo handiak, guztiz esperimentalak izan diren kontsumoak –‘probatzeagatik’– eta aspaldian gerta zitezkeenak biltzen ditu. Azkenaldiko kontsumoari dagokionez, biztanleriaren % 10,4k adierazi du inkesta egin aurreko urtean kanabisa kontsumitu duela, 2006an baino ia lau puntu gutxiago eta 2008an baino bi puntu gutxiago. Datu hori oso interesgarritzat (agerian uzten duelako kontsumoaren beheranzko joera argia) eta gainera garrantzitsutzat (2006tik aurrera azkenaldiko kontsumoa ia % 30 jaitsi delako) har daiteke eta gizonei nahiz emakumei dagokie (nahiz eta askoz argiagoa ikusten den gizonetan). Hori horrela bada, 2010ean EAEen erregistratutako kanabis-kontsumoa hamarkadaren lehen urteetan erregistratutako maila berdinetan dago berriro ere.

159. grafikoa. Kanabisaren azkenaldiko kontsumo-tasaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (biztanleriaren %-a)



Azpitarratzekoa da emakumeen azkenaldiko kontsumoaren tasak gizonen tasen % 50 direla, nahiz eta emakumeen tasen jaitsiera txikiagoa izan den azken bi urteetan. Adin-tarteei dagokienez, nerabeak eta gazteak (15-29 urtekoak) dira kanabisa gehien kontsumitzen duten biztanleria, % 25etik % 28ra bitartean. Gainera, kasu horretan, kanabisaren azkenaldiko kontsumo-ohiturak bortizki jaisten dira 30 urtetik aurrera.

160. grafikoa. Kanabisaren azkenaldiko kontsumoa sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2010 (biztanleriaren %)




1.1.3. Kanabisaren egungo kontsumoa

Egungo kontsumoa da inkesta egin aurreko 30 eguneko kontsumoa adierazten duena, eta kontsumo “errealiko” tasen adierazle on bat da. 2010eko inkestan lortutako datuen arabera, kanabisaren egungo kontsumoaren prebalentzia biztanleriaren % 7,2ra iristen da. 2000. urtetik aurrera erregistratu den kontsumo-tasarik txikiena da hori eta azkenaldiko kontsumoan bezala, 2006an hasitako kontsumo-tasa errealean beheranzko joera finkatzen du. Azkenaldiko kontsumoan gertatu den moduan, azken bi urteetan emakumeen kontsumoaren jaitsiera gizonena baino txikiagoa izan da, baina 2006tik aurrera begiratu, jaitsiera handiagoa da emakumeen artean (% 42) gizonen artean baino (% 28). Zenbat eta azkenaldikoagoa izan adierazlea orduan eta handiagoak dira gizonen kontsumo-tasak emakumeen kontsumo-tasekiko: Izan ere, gizonen kontsumo esperimentaleko tasak 1,5ekin biderkatzen du


emakumeen tasa, azkenaldiko kontsumoarenak 1,8rekin, eta egungo kontsumoaren kasuan, aldiz, emakumeen tasaren bikoitza baino handiagoa da gizonena (2,3rekin biderkatzen du).

161. grafikoa. Kanabisaren egungo kontsumo-tasaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (biztanleriaren %-a)



Era berean, egungo kontsumoari dagokionez, argi dago tasak askoz handiagoak direla gazteen artean biztanleria osoan baino, batez ere 25-29 urteko gazteen artean: adin-tarte horretako gazteen ia laurden batek adierazi du kanabisa kontsumitu duela inkesta egin aurreko hilabetean; 2008an, ordea, % 21ek besterik ez. Adin gutxiagoko adin-taldeetan, aldiz, kontsumo-tasak nabarmen jaitsi dira 2008tik aurrera eta hori datu garrantzitsua dela dirudi: 15-19 urteko gazteetan % 20tik % 14ra eta % 30etik % 20ra 20-24 urteko gazteetan. Aurrerago ikusiko dugunez, eta legez kanpoko droga guztiakin gertatzen den moduan, substantzia horien kontsumoan izandako "heltze" edo "nagusitze" prozesu baten ondorioa da hori guztia, hain zuzen ere gai horren kontsumoa oraindik batez ere gazteen artean ematen den arren, geroz eta neurri txikiagoan gertatzen da hori. Hain zuzen ere, 30-44 urteko pertsonen % 7-8ak kontsumitu du kanabisa inkesta egin aurreko hilabetean; 2008an, ordea % 6,6ko eta % 4ko tasak izan ziren. Beraz, epe laburrean, kontsumoa gazte/helduen artean igo egin da eta gazte/nerabeen artean, jaitsi.

162. grafikoa. Kanabisaren egungo kontsumoa sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010
(biztanleriaren %)



Orain arte adierazitako datuak termino absolututan aztertzen baditugu, ikusiko dugunez, ia milioi erdi pertsonak –EAEko 572.836 herritar, zehazki– probatu dute kanabisa bizitzan noizbait, eta horrelakorik egin ez dutenak, gutxi gorabehera, milioi bat ehun mila pertsona dira. Beraz, 2008tik aurrera –urte horretan 570.000 kontsumitzaile esperimentaleko kontingentea erregistratu zen– ia ez da aldaketarik izan zifra horietan. Alabaina, kanabisaren azkenaldiko kontsumitzaileen kopurua ia 174.000ra iristen da, 2008an 203.000 zen eta 2006an, 230.000. Inkesta egin aurreko hilabetean kanabisa kontsumitu zutenen kopurua 120.774 izan zen 2010ean, 146.000 bi urte lehenago eta 183.000 2006an. Beraz, nabarmendu behar da 2006tik aurrera benetan kanabisa kontsumitzen dutenen kopurua jaitsi egin da, ia hirurogei mila kontsumitzaile gutxiago baitago orain eta datu hori substantzia horren erabilera geldiarazteari dagokionez, oso aurrerapen garrantzitsutzat har daiteke.

1.1.4. Kontsumoaren jarraitutasun-aldiak


Orain arte adierazitako datuek berresten dute –inkesta honen aurreko ediziotan bezala– kontsumo esperimentaletik egungo kontsumorako jauzia ez dela gehiengoaren fenomeno bat: Beste era batera esanda, kontsumo esperimentaleko tasa altuak egoteak ez du esan nahi egungo kontsumoa ere handia izan behar duenik, nahiz eta iritzi publikoaren arabera, kontsumo esperimentala egungoaren parean kokatzen den ¹³. 2010ean, kontsumitzaile esperimentalen % 30ek bakarrik adierazi du egungo kontsumitzailea dela, hau da, inkesta egin aurreko hilabetean kanabisa kontsumitu duela.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gizonen kontsumoaren jarraitutasun-tasak (% 32,5) emakumeen kontsumoarenak (% 27) baino handiagoak dira, nahiz eta 2008. urtearekiko egiazta daitekeen emakumeen jarraitutasun-tasetan hamar puntuko igoera esanguratsua gertatu dela. Adinaren ikuspuntutik, alde handiak ikusten dira, 15-19 urteko gazteen artean % 73,7ko jarraitutasun-tasarekin, 20-24 urtekoen artean % 46,4ko tasarekin edo 25-29 urtekoen artean % 52,6ko tasarekin. Horrek esan nahi du kanabisa probatu dutela dioten adin-talde horietako gazteen erdiek inkesta egin aurreko hilabetean ere kontsumitu zutela. Hala ere, adin horretatik aurrera, jarraitutasun hori modu bortitzean jaisten da, eta horrek adierazten duenez, 30 urtetik

¹³ Adierazi denez, kontsumo esperimentaleko adierazlea gutxienez bizitzan behin kanabisa kontsumitzea dagokio. Beraz, adierazle horretan oso egin berriak eta intentsitate handikoak izan diren kontsumoak nahiz oso kontsumo arinak eta aspaldikoak edo intentsitate handikoak izanda ere iraganen gertatutakoak biltzen dira.


aurrera eta, batez ere, 45 urtetik aurrera, kanabisa kontsumitzeari uzten diotenen tasak handiak dira.

163. grafikoa. Kanabisaren kontsumoko egungo jarraitutasun-indizea (EJI), sexuaren eta adin-tarteen arabera. 2010 (%)



Antzeko desberdintasun aurkituko ditugu intentsitate-tasak aztertzen baditugu, hau da, kanabisa probatu duten pertsona guztiei dagokienez, azken hamabi hilabeteetan gutxienez astean behin kanabisa kontsumitu dutenen proportzioa aztertzen badugu: 2010ean, intentsitate-tasa % 11,7 da biztanleria osoarentzat, % 7,5 emakumeentzat, eta % 14,4 gizonentzat. Adinei dagokienez, jarraitutasun-tasen kasuan izandakoaren antzeko joera ikusten da, hain zuzen ere 20-24 urteko gazteen artean gehienez % 27,6 da, 30-34 urtekoen kasuan % 7,4ra jaisten da, eta adin horretatik aurrera murrizten jarraitzen du.

164. grafikoa. Intentsitate-tasa kanabisaren kontsumoan, sexuaren eta adin-taldean arabera. 2010
(azken urtean gutxienez astean behin kanabisa kontsumitu dutenen %, kanabisa probatu dutenen gainean)




Nola bilakatzen ari dira tasa horiek denboran zehar? Hurrengo taulan ikusten denez, datuak ez dira kategorikoak. Epe luzera, –kontsumitzaileen biztanleria osoa kontuan hartuta– jarraitutasun-tasak igotzen joan ziren 2002. urtera arte eta hortik aurrera, gorabehera batzuekin, egonkortu egin ziren % 30 inguruan. Nerabeen artean, aldiz, esan daiteke jarraitutasun-tasak etengabe igo direla. Nolanahi ere, kanabisaren kontsumoko jarraitutasun-tasaren bilakaerari dagokionez, honako bi datu hauek azpimarratu behar dira: 90eko hamarkadan lortutakoak ia bikoizten dituzten tasen prebalentzia, eta jarraitutasun-tasa handiagoak gizonen artean emakumeen artean baino eta gazteen artean helduen artean baino.

31. taula. Kanabisaren kontsumoaren egungo jarraitutasun-indizearen (EJI) bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera. 1992-2010

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Adina	15-19	26,4	30,4	22,5	33,6	33	48,1	60,2	68,1	45,1	73,7
	20-24	17,8	26	23,7	26,8	40,4	50,7	47,3	48,2	54,4	46,4
	25-29	12,6	10,7	12,1	19,2	22,8	47,4	27,4	39,5	36,3	52,6
	30-34	12,6	16,7	13,7	19,7	14,9	31,9	26,7	32	22,2	23,4
	35-44	2,7	0,9	1,2	8,2	7,5	16,5	16,2	17,1	15,8	25,9
	45-54	0	0	0	4,1	10	8,6	14,2	5,9	12,3	11,9
	55+	0	0	0	0	0	0	0	6,1	5,3	4,6
Sexua	Gizona	17,8	18,6	15,2	20,4	23,4	35,2	33,2	32,6	30,5	32,5
	Emakumea	6,9	8,9	9,8	14,1	16,5	27,6	20,7	26,7	17,9	27,0
Guztira		13,8	15	13,3	18	20,5	32,2	28,4	30,3	25,7	30,3

Kanabisaren kontsumoaren intentsitate-indizeei dagokionez, alde txikiak ikusten dira eta batez ere, beherazko joera arina 2002. urtetik aurrera. Izan ere, biztanleria osoaren kasuan 2002an hasitako beherazko joerak jarraitzen du eta azken bi urteetan jaitsiera garrantzitsua gertatzen ari da, 1998. urtetik 2002. urtera bitarte izandako igoeraren aurreko intentsitate-indizeetara ia iritsiz. Gazteenen kasuan, bilakaera oso nabarmena da eta kontsumoaren intentsitatea asko jaitsi da 2010ean, nerabeetan (15-19 urte) nahiz gazteetan (20-24 urte).

165. grafikoa. Kanabisaren kontsumoaren intentsitate-tasaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera. 1992-2010 (%)




1.2. Kontsumoen intentsitatea eta maiztasuna

Orain arte erabilitako adierazle ia guztiak biztanleriaren zati batek une jakin batean egindako kanabis-kontsumoari soilik dagozkio: pertsona baten bizitzaren edozein momentutan, azken urtean edo azken hilabeteetan. Adierazle horiek kanabis-kontsumoak gure gizartean duen hedadura balioestea ahalbidetzen dute baita euskal biztanleriak substantzia horrekin duen edo izan duen harremana ere. Alabaina, egiten diren kontsumoen intentsitatea eta maiztasuna balioestea ere funtsezkoa da; izan ere, garrantzitsuena ez da –osasu publikoko terminotan– kanabisa kontsumitzen den edo ez jakitea (eta gutxiago, iraganean kontsumitu den ala ez) baizik eta zenbat, zein maiztasunez eta zenbateko intentsitatez kontsumitzen den jakitea.

Aurreko orrialdeetan esan da euskal biztanleriaren % 34,2k noizbait kanabisa kontsumitu duela. Hala eta guztiz ere, soilik biztanleriaren % 3,8k (kontsumitzaile guztien % 10 inguru) dio kanabisa 500 aldiz baino gehiagotan kontsumitu duela eta % 3,1ek adierazi du 50-100 aldiz egin duela bizitza osoan. Aldiz, biztanleriaren % 16k dio bizitzako uneren batean kanabisa probatu duela baina oso gutxitan errepikatu duela kontsumo hori. Kasu horretan esan daiteke benetako “kontsumo esperimentalaz” ari garela, jakin-minak eraginda egindako kontsumoa delako, substantzia bat *probatzeko* edo *esperimentatzeko* baina kontsumoa errepikatzeko asmo espliziturik gabe eta printzipioz, kontsumo-ibilbide luze baten hasiera eragin gabe¹⁴. Horrela, esperimentaltzat hartzen den kontsumo guztiaren erdia baino gutxiago da benetako kontsumo esperimentalta; gainerakoa –hamar aldiz baino gehiagotan kontsumitu bada– ezin da kontsumo esperimentaltzat hartu. Intentsitate handiko kontsumoek –bizitzan ehun aldiz baino gehiagokoek– biztanleriaren % 7,5 eta kontsumitzaile esperimentalen % 25 hartzen dituzte eraginpean.

166. grafikoa. Euskal biztanleria osoaren kanabisaren kontsumo esperimentaleko tasa bizitza osoan kontsumitutako aldien arabera eta sexuaren arabera. 2010 (%)

¹⁴ “Kontsumo esperimentalta” kontzeptu polisemikoa da, esanahi anitz biltzen dituena. Bizitzan *behin gutxienez* kanabisa probatu izanari erreferentzia egiten dion arren, kasu batzuetan kontsumitzeko asmoarekin nahasten da.




Inkestan lortutako datuen arabera, generoen arteko desberdintasunak xumeak dira ohitura esperimentalenei dagokienez (bizitzan zehar 1-100 aldiz) baina desberdintasunak areagotzen doaz kontsumo-maila handitzen doan neurrian; hau da, bizitzan 100 aldiz baino gehiagoko datutik aurrera generoen arteko desberdintasunak gero eta gehiago handitzen doaz, biz edo hiruz biderkatu arte aldi horietan kontsumitu duten gizonen ehunekoa kontsumitu duten emakumeenarekin alderatuz. Izan ere, taulan ikus daitekeenez, emakumeen kontsumo-tasak txikiagoak dira eta gainera maiz intentsitate txikiagoko kontsumoak izaten dira: gizona kontsumitzaile esperimentalen % 27k kontsumitu du kanabisa bizitzan 100 aldiz baino gehiagotan baina soilik emakumezkoen % 14k.

32. taula. Gizonen eta emakumeen kanabisa kontsumitzeko tasak EAEn

	Gizonak	Emakumeak
Biztanleria osoarekiko tasak		
100 kontsumotik behera	29,0	22,6
100 kontsumotik gora	11,0	3,9
Kontsumoren bat	40,0	26,5
Kontsumorik ez	60,0	73,5
Kontsumitzaileen banaketa		
100 kontsumotik behera	72,5	85,3
100 kontsumotik gora	27,5	14,7

Bestalde, generoen arteko desberdintasunak alde batera utzita, esan daiteke euskal biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 68,3) ez duela inoiz kanabisik kontsumitu. Alabaina, biztanleria kontsumitzailea aztertzen badugu, kanabisa modu esperimentalean kontsumitzen duten pertsonen ehunekoa nabarmentzen da (% 52,6). Garrantziaren arabera bigarren taldea bizitza osoan berrogeita hamar aldiz baino gutxiagotan kontsumitu dutenena da (% 21,8). Intentsitate gehieneko kontsumo-tasak (100-500 aldiz) kanabisa kontsumitzen duten edo kontsumitu dutenen % 22,4ari dagozkio.

167. grafikoa. Biztanleria kontsumitzaileen banaketa bizitza osoan kontsumitutako aldien arabera. 2010 (ehuneko bertikalak)



Kanabisari dagokionez, *Euskadi eta Drogak* inkestako funtsezko adierazleetako bat substantzia honen eguneroko edo ia eguneroko kontsumoari dagokiona da eta hain zuzen ere, dagokigun substantzia biztanleriaren zein ehunekoak kontsumitu duen egunero edo ia egunero adierazten du. Aurretik aipaturikoa oinarritzko adierazletzat har daiteke bereziki intentsitate handiko kontsumo-ohitura bat erakusten duelako eta ikuspuntu horretatik, baita arriskuko kontsumo-ohitura ere.

Inkestaren datuen arabera, kanabisaren eguneroko kontsumoa EAEn biztanleriaren % 2,6ari dagokio; hots, 42.800 pertsonak kontsumitzen dute egunero edo ia egunero kanabisa. Eguneroko edo ia eguneroko (4-7 egun astean) kontsumitzaileen ehunekoa handia da gizonen artean (gizonezko biztanleriaren ia % 4 edo 32.300 pertsona), eta oso txikia emakumeen artean (emakumezko biztanleriaren ia % 1,3 edo 10.500 emakume). Adin-tartean arabera, 25-29 urteko gazteak dira nagusiki eguneroko kontsumoaren tasa handienak dituztenak (% 10,2) eta horien ondoren, 20-24 urteko gazteak (% 6,1) eta 15-19 urteko nerabeak (% 5,8). Termino

□


absolututan, inkestaren datuek adierazten dute Euskadiko bost mila nerabek baino gehiagok erretzen dutela kanabisa asteko ia egun guztietan.

33. taula. Euskal biztanleria osoaren banaketa azken 12 hilabeteetan kanabisa kontsumitu den maiztasunaren, adinaren eta sexuaren arabera (%) 2010 (%)

		Astean 7 egun	4-6 egun astean	1-3 egun astean	1-3 egun hilean	6-11 egun urtean	1-5 egun urtean	Kontsumorik ez azken 12 hilabeteetan	Ez dute inoiz kontsumitu
Sexua	Gizonak	3,0	0,8	2,1	2,8	1,0	3,7	28,0	58,5
	Emakumeak	0,7	0,6	0,8	1,2	0,9	3,2	19,7	73,0
Adina	15-19	4,0	1,8	2,9	4,5	2,7	8,8	8,8	66,5
	20-24	4,6	1,5	6,8	4,7	4,2	4,5	30,4	43,2
	25-29	7,8	2,4	4,7	6,0	2,7	4,8	25,6	46,0
	30-34	2,4	1,1	0,5	3,0	0,7	5,0	41,7	45,6
	35-44	1,5	0,5	1,4	2,6	0,7	5,2	34,1	53,9
	45-54	0,4	0,4	0,4	0,0	0,2	2,4	28,5	67,6
	55-64	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	10,7	88,8
	65-74	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4	0,0	2,4	97,2
	Guztira	1,9	0,7	1,4	2,0	1,0	3,4	23,9	65,8

Nolanahi ere, bilakaerari dagokionez, kanabisaren eguneroko kontsumoa murrizten ari dela azpimarratu behar da. Azken hilabeteko biztanleria osoaren benetako eguneroko kontsumoaren (zazpi egun astean) prebalentzia soilik kontuan hartuta, kontsumo mota horren prebalentzia % 3,2tik % 1,9ra igaro dela eta jaitsierak aztertutako adin-talde guztietan (gazteen nahiz emakumeen artean) gertatu direla ikus daiteke. Jaitsiera oso handia izan da 15-24 urteko gazteen artean, hain zuzen ere eguneroko kontsumo-tasa handienak zituen taldea.

168. grafikoa. Azken hilabeteko eguneroko kanabis-kontsumo tasaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldean arabera (1992-2010)



Hurrengo taulan ikusten denez, kanabis-kontsumitzaileek azken urtean egin duten kontsumoaren maiztasunari begiratuta, hau da, eguneroko kontsumitzaileak azkenaldian (gutxienez) kontsumitu dutenekin alderatuz duten ehunekoa, honako hau interpreta daiteke:


- Genero ikuspegitik, maiztasun handieneko kontsumo-ereduak gizonen artean izaten dira (gizon kontsumitzaileen % 22,6k kontsumitu du kanabisa egunero baina emakumeen % 9,4k) eta emakumeen artean, aldiz, aldizkako kontsumo-ereduak dira ohikoenak (emakumeen % 43,4k kontsumitu du kanabisa 1-5 egun astean azken urtean eta gizonen % 27,2k soilik egin du aldizkako kontsumoa). Hala ere, azpimarratu beharra dago –gizonen artean zein emakumeen artean– aldizkako kontsumoak (hilean hiru kontsumo gehienez ere) kontsumo guztien % 50 baino gehiago direla.
- Datuak adin-tartean arabera aztertzen badira, eguneroko kontsumo-tasak ez dira oso desberdinak 15-54 urtekoen artean. Bestela esanda, tasak % 11,3tik % 27,4ra bitartekoak izango dira, tasa txikiena 45-54 urteko helduei dagokie eta handiena, berriz, 25-29 urteko gazteei. Hala ere, nekez esan daiteke kanabisaren eguneroko kontsumoa gazteei dagokien berezko fenomeno denik.

34. taula. Kanabisa kontsumitzen duen biztanleriaren banaketa sexuaren eta adin-taldeen arabera, azken 12 hilabeteetan kontsumitu duten maiztasunaren arabera. 2010 (%)

		Egunero	4-6 egun asteen	1-3 egun asteen	1-3 egun hilean	6-11 egun urtean	1-5 egun urtean
Sexua	Gizonak	22,6	6,2	15,7	20,9	7,3	27,2
	Emakumeak	9,4	7,7	10,7	15,8	13,0	43,4
Adina	15-19	16,3	7,4	11,8	18,0	11,0	35,6
	20-24	17,7	5,5	25,9	17,9	15,9	17,0
	25-29	27,4	8,4	16,6	21,0	9,6	16,9
	30-34	19,1	9,0	3,7	23,3	5,8	39,1
	35-44	12,8	4,4	11,8	21,5	5,6	43,9
	45-54	11,3	9,8	11,3	,0	6,4	61,3
	Guztira	18,0	6,7	13,9	19,1	9,3	32,9

Nolanahi ere, euskal biztanleriaren banaketa eta egunero kanabisa kontsumitzen dutenen banaketa alderatuta ikus daiteke zein neurritan 15-34 urteko gazteek eta batez ere, gizonek gehiegizko ordezkaritza duten eguneroko kontsumitzaileen kolektiboan.


169. grafikoa. Kanabisa egunero kontsumitzen duen biztanleriaren banaketa eta biztanleria osoaren banaketa, adin-taldeen eta sexuaren arabera. 2010 (%)



Alabaina, banaketa horren bilakaera aztertuta egiazta daiteke kanabisaren eguneroko kontsumoaren nolabaiteko "nagusitze" edo "heltze" prozesua gertatzen ari dela, aurreko urteko

txostenean ere aipatu zen moduan. Eguneroko kontsumoa adin-tarte helduenetara zabaltzearen eta biztanleria nerabeak gero eta garrantzi gutxiago izatearen ondorioa da prozesu hori. Hurrengo grafikoan ondo ikusten da 2010ean 15-24 urteko gazteak eguneroko kontsumitzaileen % 25 direla eta 2004an, aldiz, % 50 zirela. 35-54 urtekoak, berriz, % 26 izatera igaro dira eta 1998an adibidez, % 5 besterik ez ziren.

170. grafikoa. Kanabisa egunero kontsumitzen duen (asteko egun guztietan) biztanleriaren banaketaren bilakaera, adin-taldean eta sexuaren arabera. 1992-2010



1.3. Kontsumoaren eta kontsumitzen hasteko adinaren balioespena

Kanabisa kontsumitzen dutenen pertzepzio subjektiboari dagokionez, azken urtean kanabisa kontsumitu duten pertsonen % 53k dio gutxi kontsumitzen duela, % 34k dio dezente kontsumitzen duela, % 8k dio asko kontsumitzen duela eta % 2,6k dio ez duela ezer kontsumitzen. Antzeko datuak aurkitzen ditugu azken urtean kanabisa kontsumitu dutenei dagokienez.


Kontsumoaren pertzepzioa handitu egiten da benetako kontsumoa handitzen doan heinean, nahiz eta egunero kontsumitzen duten lau pertsonatatik batek dion gutxi kontsumitzen duela edo ia ezer. Azken hilabeteko egun guztietan kontsumitu dutenen artean, % 18k uste du asko kontsumitzen duela, % 55ek uste du dezente kontsumitzen duela, % 22k uste du gutxi kontsumitzen duela eta % 3,4k dio ez duela ezer kontsumitzen.

35. taula. Kanabisaren kontsumoari buruzko autopertzepzioa kontsumo motaren arabera. 2010 (%)

	Kanabisaren azkenaldiko kontsumoa	Kanabisaren egungo kontsumoa	Kanabisaren eguneroko kontsumoa (azken hilabeteen 4-6 egun astean)	Kanabisaren eguneroko kontsumoa (azken hilabeteen asteko egun guztietan)
Ezer ez	3,8	2,6	2,7	3,4
Gutxi	53,8	52,7	29,1	22,3
Dezente	32,5	34,3	51,7	55,4
Asko	7,8	8,2	15,4	17,4
ED/EE	2,1	2,2	1,1	1,5
Guztira	100	100	100	100

Askotan aipatu da kanabisa kontsumitzen hasteko adina garrantzitsua dela intentsitate handiko erabilerak aurreikusteko faktore gisa. 2010ean, Euskadin kanabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adina –talde honetan noizbait substantzia hori behin edo behin baino gehiagotan kontsumitu duten guztiak barne hartuta– 18,8 urte ingurukoa da. Generoaren ikuspuntutik, honako hau ikus dezakegu: gizonak (18,8 urterekin) emakumeak baino adin goiztiarragoetan hasten dira kontsumitzen, emakumeak urte bat beranduago hasten baitira (19,9 urterekin, batez beste); normalean gertatzen den moduan, galdetutako pertsonaren adina zenbat eta altuagoa izan, orduan eta berantiarraagoa da kanabisarekin aitortutako lehen kontaktua.

171. grafikoa. Kanabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera (2010)



Biztanleria osoaren kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera kontuan hartuta, azpimarratzekoa da adin-talde bakoitzean Euskadi eta Droga inkestaren beste edizioetan agerikoa izan zen egonkortasunerako joerak jarraitu duela eta, beraz, ezin da kanabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren jaitsieraz hitz egin.

36. taula. Hasteko batez besteko adinaren bilakaera adin-taldeetan banatuta. 1994-2010 (%)

		1994	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Adin-taldeak	15-19	15,8	15,9	15,3	15,1	15,3	15	15,6
	20-24	16,5	17,3	17	16,5	16,6	16,7	16,9
	25-29	17,7	17,7	17,7	17,8	17,7	17,5	17,1
	30-34	18,6	18,2	18,4	17,3	17,9	18,6	18,0

	35-44	22,1	19,7	19,8	18,4	18,8	19,7	18,6
	45-54	30,3	26,8	23,4	21,5	21,2	21,2	19,3
	55+	29,7	40,4	28,2	25,6	29,4	30,6	29,1
Adin-talde handiak	15-24	16,2	16,8	16,3	16	16,1	16,1	16,5
	25-34	18,1	18	18	17,5	17,8	18,1	17,6
	35-54	23,7	21	20,7	19,2	19,6	20,3	18,6
	55+	29,7	40,4	28,2	25,6	29,4	30,6	29,1
Laburpena	15-34	17,4	17,5	17,3	16,9	17,1	17,4	17,2
	15-74	18,8	19,1	18,8	18	18,4	19,2	18,8

Beste ikuspegi batetik, kontsumitzen hasitako pertsonen ehunekoa une horretan zeuden adin-tartea kontuan hartuta aztertzen badugu, emaitzak oso antzekoak direla ondoriozta dezakegu eta nabarmentzekoa da belaunaldiz belaunaldi kanabisa kontsumitzen hasteko erritua gutxi gorabehera adin berdinean gertatzen dela. 1992. urtetik aurrera ia ez da aldatu 15 urte baino gutxiagorekin kanabisa kontsumitzen hasten den kontsumitzaileen ehunekoa –izan ere, 2004. urtetik aurrera jaisten joan da– eta, beraz, kolektibo kontsumitzailearen kontsumoan hasteko adinaren arabera egitura egonkorra mantendu da.

37. taula. Jada kontsumitzen hasi diren pertsonen eta biztanleriaren ehunekoa, hasitako adinaren arabera (adin-tarteetan banatuta)

		1992	1994	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Biztanleria osoa	15 urte baino gutxiago	4	4,3	3,8	3,9	5	6,6	6,4	6,2	5,3
	16-17 urte	6	5,4	12,9	7,8	6,2	10	10,3	8,9	10,0
	18-19 urte	5,4	4,7	6,8	5,4	6,7	7,5	9,4	8,1	8,9
	20 urte eta gehiago	5,5	7	3,7	8,8	8,4	7,6	10,1	10,5	10,1
Biztanleria kontsumitzailea	15 urte baino gutxiago	18,4	19,7	13,9	14,9	19,1	20,7	17,7	18,3	15,5
	16-17 urte	27,3	24,8	47	30	23,6	31,7	28,3	26,3	29,2
	18-19 urte	24,9	21,8	24,8	20,9	25,3	23,8	26,1	24	25,9
	20 urte eta gehiago	25,3	32,1	13,5	34,1	32	23,9	27,9	31,1	29,4

2. KANABISAREN KONTSUMOA ETA EZAUGARRI PERTSONALAK

Kapitulu honen aurreko epigrafean kanabisaren kontsumo-ereduak aurkeztu dira biztanleria osoarentzat, sexuaren eta adinaren aldagaiak bakarrik kontuan hartuta aldagai independente gisa. Bigarren atal honetan, kanabisaren kontsumo-ereduen eta kontsumitzaileen ezaugarri pertsonalen arteko harremana deskribatzen da, jada adierazi ditugun aldagaiak (sexua eta adina) eta beste aldagai interesgarri batzuk kontuan hartuta, hala nola estatus sozioekonomikoa, bizi diren lurraldea edo hezkuntza-maila.

Ikuspegi horretatik, EAEko droga-kontsumoen jarraipen-azterketarekin jarraitze aldera, Euskadi eta Drogak serieko aurreko txostenetan erabili diren adierazle berberak erabiliko dira, hain zuzen ere aukera ematen dutelako emaitzak urteetan zehar konparatzeko eta joera nagusiak identifikatzeko. Horrela, beraz, aurreko txostenetan bezala, analisia egiteko kontuan hartuko diren adierazleak honako hauek dira:


- kontsumo esperimentala, azkenaldikoa eta egungoa;
- jarraitutasuneko, intentsitateko eta eguneroko kontsumoko tasak;
- kontsumoaren maiztasuna eta bizitzan kontsumitutako aldien kopurua;
- kontsumitzen hasteko adina;

2.1. Adina: belaunaldi-hesia desagertu da

Euskadi eta Drogak serieko aurreko txostenetan ikusten denez, inkestatutako pertsonen adina kontsumo-mailen eta kontsumo-ereduen arabera aztertzen denean, belaunaldi-hesi bat dago kanabisaren kontsumoari dagokionez: “Talde gazteen artean kanabisaren kontsumo esperimentaleko maila altuagoa emateaz gain –hori baieztatzen zen 2006ko txostenean–, ohikoagoa da kontsumo hori ohiko bihurtzea, eta, maila altuetara iritsi ondoren, kontsumoa uzteko probabilitatea txikiagoa da”. 2010ean, belaunaldi-hesi hori oraindik ere ikus daiteke, baina nabarmen txikitu da.

Hurrengo grafikoetan, adin-talde bakoitzak epe laburrean (2008-2010 aldian), ertainean (2000-2010 aldian) eta luzean (1992-2010 aldian) kontsumo esperimentaleko tasan izandako gorakada (edo beherakada) adierazten da. Grafikoaren bitartez ikus dezakegu beherakada bakarrak, epe laburrean, 15-34 urteko gazteen taldean gertatzen direla. Gainerako kasuetan gorakadak gertatzen dira, baina eskala oso desberdinekoak: epe luzean, adibidez, prebalentzia-tasa orokorra % 56 handitu bada ere, gazteen taldean % 19ra hurbiltzen da, eta helduen artean, aldiz, ehunekoak konparatiboki oso handiak dira (35-44 urteko gazte helduen % 120 baino gehiago, eta 45 urtetik gorakoen ia % 60). Epe ertainean, antzeko egoera ikus dezakegu, baina gorakadak txikiagoak dira. Epe laburrean, gazteen kontsumoa murriztu egin da, eta gazte helduena da (35-44 urtekoak) nabarmen handitu den bakarra.


172. grafikoa. Kanabisaren kontsumo esperimentalaren hazkundera epe labur, ertain eta luzera, adin-tarteen arabera. 2010 (%)



Gainera, aurreko urteko txostenean adierazten zenez, gazteen eta gainerako biztanleen kontsumo-tasen aldeak gero eta gehiago txikitzen ari dira. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 1992an 15-24 urteko gazteen kontsumo esperimentalak helduena (45 urteko edo gehiagoko pertsonak) baino 16 aldiz handiagoa zen. Aldiz, 2010ean, alde hori nabarmen murriztu da, *soilik* 2,8 aldiz handiagoa izatera iritsi arte. Bigarren ildoan, biztanleria osoaren kontsumoaren eta pertsona helduek (45 urtetik gorakoak) egiten dutenaren arteko ratioaren bilakaera ikusten da, 1995eko 9,5etik 2010eko 2,1era murriztu dena. Hala ere, eta erabilera-ereduak gero eta gehiago hurbiltzen ari badira ere, esan beharra dago hurbiltzeko erritmoa ere moteldu egin dela, baita gelditu ere, azken urteetan.


173. grafikoa. Kontsumo esperimentaleko ratioen bilakaera. Pertsona gazteen bilakaera 45 urtetik gorakoekin alderatuta, eta biztanleria osoaren bilakaera 45 urtetik gorakoekin alderatuta.

1992-2010 (%)




Nolanahi ere, garrantzitsuagoa da –jada adierazi ditugun arrazoiengatik– egungo kontsumoari edo inkestaren aurreko azken hilabeteen egindakoari dagokionez gertatzen ari diren aldaketak balioestea. Kasu horretan, adierazitako joera oso argia da: gazteenen kontsumo-tasak –eta, neurri txikiagoan bada ere, baita 45 urtetik gorakoenak– nabarmen murriztu dira, 2000. urteko mailara itzuliz, eta 35-44 urtekoen kasuan, aldiz, egungo kontsumoa nahiko modu nabarian handitu da. Kontsumo esperimentalaren kasuan egin den bezala, gazteen (15-24 urte) eta gazte helduen (35-44 urte) tasen arteko erlazioa aztertzen bada, 1992an hamahiru aldiz handiagoa izatetik 2010ean soilik bi aldiz handiagoa izatera igaro dela ikus daiteke. Adin-talde bakoitzeko kontsumitzaileek duten garrantzi espezifikoak, aldiz, begien bistakoa eta konstantea da: 35 urtetik gorakoek geroz eta garrantzi handiagoa dute taldean –heren bat–, eta 24 urtetik beherakoak, aldiz, laurden txiki bat baino ez dira. 25-34 urteko pertsonak, oro har, beren garrantzi espezifikoari atxikitzen diote, eta egungo hamar kontsumitzailetik lau dira.

174. grafikoa. Prebalentzia-tasen bilakaera eta kanabis-kontsumoaren adin-taldean araberako egungo banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)



Arestian adierazi dugunez, gauza bera gertatzen da eguneroko kontsumoaren prebalentziarekin: gazteen kontsumo-tasek zaharren tasekin bat egiteko joera dute, helduen kasuan baino neurri askoz handiagoan erortzen baitira. Izan ere, gaur egun, eguneroko kontsumoaren prebalentzia altuagoa da 25-34 urteko gazteen artean 15-24 urtekoen artean baino, eta ez zen horrelakorik gertatu 2002. urteaz geroztik. Horren guztiaren ondorioz, eta biztanleriaren adin-banaketan izandako aldaketaren ondorioz, kanabisa egunero kontsumitzen duten lau lagunetik batek 35 urte baino gehiago ditu; 1996an % 1,7 ziren.

175. grafikoa. Prebalentzia-tasen bilakaera eta eguneroko edo ia eguneroko kanabis-kontsumoaren adin-taldean araberako egungo banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)




2.2. Generoa: emakumeen kontsumoa pixkanaka handitu da, baina ez da iristen gizonen kontsumora

Generoaren arabera aldaketak ez dira adinaren arabera ikusitakoak bezain nabarmenak, eta, ikus dezakegunez, kanabisaren kontsumoa gizonen artean nagusitzen da oraindik. Gaur egun, kontsumo esperimentalaren % 60 gizonari dagokie. Hala ere, kontsumo mota guztiak generoaren ikuspegitik aztertuz gero, egiaztatzen da gizonen kontsumoa murriztu egin dela epe luze, ertain eta laburrean. Bestalde, emakumeen kontsumoa pixkanaka handitu da, kanabisaren egungo kontsumoari dagokionez 2010ean gehieneko historikoa lortu arte. Izan ere, epe laburrean nahiz ertainean eta luzean gizonen kontsumo-adierazle guztiak jaitsi egin dira, eta emakumeen kasuan, aldiz, gora egin dute kasu guztietan.

176. grafikoa. Kanabisaren hainbat kontsumo motak epe labur, ertain eta luzera, sexuaren arabera. 2010


(%)



Kontsumo mota bakoitzarentzat, gizonen tasa emakumeenarekin zatitzen bada, ikus daiteke bi sexuak bereizten dituzten alde erlatiboetan jaisteko joera –hau da, generoen arteko konbergentzia– egonkortu egin dela, gorabehera batzuekin, 2002. urtetik aurrera.


177. grafikoa. Gizonen eta emakumeen arteko alde bilakaera kanabis-kontsumo motei dagokienez.

1992-2010 (%)




Hurrengo grafikoetan, 1992. urteaz geroztik biztanleria osoaren kontsumo-ereduak aztertzen dira, eta, ikus daitekeenez, emakumeek pixkanaka handitu egin dute beren garrantzi espezifiko kanabisa kontsumitzen duten biztanleen artean, baina aldaketa motela da eta ez da nahitaez konstantea. Kanabisarekin esperimendatzeari dagokionez, kontsumitzaileen banaketak erabateko egonkortasuneko joera adierazten du, hau da, seriearen hasieratik proportzioa lau emakume bakoitzeko 6 gizon da. Azkenaldiko kontsumoari dagokionez, hazkunde nabarmena ikusten da emakume kontsumitzaileen ehunekoan 2000-2002 aldian, eta hortik aurrera beherakadak eta gorakadak izan ditu. Hala ere, emakumeak kanabisa kontsumitzen duten pertsona guztien % 35 dira soilik 2010ean. Eta egungo kontsumoari dagokionez, laurogeita hamarreko hamarkadan emakumeen garrantzia nabarmen handitu ondoren, 2002. urteaz geroztik joera ez da oso argia izan.

178. grafikoa. Kanabisaren azkenaldiko eta egungo kontsumitzaile esperimentalen sexuaren arabera banaketaren bilakaera. 1992-2010 (%)



Bestalde, kanabisaren kontsumoaren jarraitutasun-tasen bilakaera generoaren ikuspegitik aztertuz gero, hazkunde etengabea eta paraleloa ikus daiteke emakumeen eta gizonen artean 1992-2002 hamarkadan. 2002. urteaz geroztik, joera aldatu egin zen, hau da, gizonen kontsumo-ereduek behera egin zuten eta emakumeen ereduek, aldiz, hazkundeak eta beherakadak izan dituzte, 2010ean generoen arteko aldeak murriztuz.


179. grafikoa. Kanabis-kontsumoaren jarraitutasun-tasen bilakaera sexuaren arabera. 1992-2010 (%)



Azkenik, kanabisa egunero kontsumitzen duten pertsona guztien artean maiztasun horrekin kontsumitzen duten emakumeen garrantzi espezifikoari dagokionez, ikus daiteke emakumeen garrantziaren pixkanakako hazkundeak –laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera hasi zen eta gehieneko historikora iritsi zen 1998an % 24arekin– behera egin duela 2010eko % 15era

iritsi arte (2006ko % 23ko hazkunde txikiaren kasuan izan ezik). Hala ere, 2012ko hurrengo datuei itxaron beharko zaie joera hori sendotu den ala ez balioesteko.

180. grafikoa. Kanabisa egunero kontsumitzen dutenen banaketaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2010 (%)



2.3. Kanabisaren kontsumoaren hasiera goiztiarra: arrisku faktore bat?


Hurrengo taulan ikus daitekeenez, eta *Euskadi eta Drogak* txostenaren aurreko edizioetan azpimarratu denez, kanabisaren kontsumoaren hasiera zenbat eta berriago izan orduan eta handiagoak dira jarraitutasun-tasak eta intentsitate-tasak, eta ohikoagoa da eguneroko kontsumoa. Zehazki, kanabisa noizbait kontsumitu duen biztanleriaren % 5,4 eskas batek kontsumitzen du egunero gaur egun, eta 15 urte bete aurretik hasi zirenen kasuan, aldiz, proportzioa % 11 da. Bi faktoreak adinaren mende daudela dakigun arren –hasiera goiztiarra nahiz eguneroko kontsumoa ohikoagoak dira gazteen artean–, bistakoa dirudi, hurrengo taulako datuen arabera, aldagai horiek isolatuta ere, erlazio positiboa dagoela kontsumoaren jarraitutasunaren eta horren intentsitatearen eta hasteko adinaren artean. Era berean, esan beharra dago, nolahi ere, erlazioa 2010ean ez dela 2008an bezain argia: hamabost urte izan baino lehen kontsumitzen hasi zirenen eguneroko kontsumo-tasa edo intentsitate-tasa gaur egun kontsumitzaile guztienaren bikoitza da, eta 2008an 2,5ekin biderkatzen zuen. Izan ere, 2008-2010 aldian 15 urte baino gutxiagorekin kontsumitzen hasi zirenen eguneroko kontsumo-tasa % 25etik % 11ra jaitsi da, eta intentsitate-tasa % 35etik % 21era. Ziur asko horren arrazoia ez da hasiera goiztiarrak gaur egun arrisku gutxiago duenik, baizik eta talde gazteenen kontsumo-ereduak aldatu direla, hain zuzen ere inkestetan kontsumoaren hasiera goiztiarragoa adierazten baitute.

38. taula. Kanabisaren jarraitutasun-, intentsitate- eta eguneroko kontsumo-tasak, kontsumitzen hasitako adinaren arabera. 2010 (%)

	Jarraitutasun-tasa	Intentsitate-tasa	Eguneroko kontsumo-tasa
15 urte baino gutxiago	42,0	21,0	11,2
16-17 urte	40,8	15,4	5,8
18-19 urte	27,1	9,7	5,4
20 urte eta gehiago	16,4	4,7	1,9
Guztira	30,2	11,6	5,4

Antzeko zentzuan, hurrengo grafikoan kanabisa kontsumitzen dutenen banaketa ikus daiteke hasteko adinaren arabera eta bizitzan zehar kontsumitutako aldien arabera. Grafikoaren datuek berretsi egiten dute kontsumitzen hasteko adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta aukera gehiago daudela kanabisaren kontsumoan intentsitate edo arazo handiko ibilbide bat garatzeko. Adin goiztiarretan hasi zirenen artean, % 27k 10 aldiz baino gutxiago kontsumitu du bere bizitzan, ia % 24k 50 aldiz baino gutxiago, eta % 20ek 500 aldiz baino gehiago. Aitzitik, 20 urterekin (edo ondoren) hasi zirenen taldean kontsumo esperimentalak nagusitzen da (10 aldiz baino gutxiago bizitzan), kategoria horren barruan dauden % 65 bilduz, eta soilik % 6k dauka intentsitate handiagoko kontsumoa (500 aldiz baino gehiago).

181. grafikoa. Kanabis-kontsumitzaileen banaketa bizitzan kanabisa kontsumitutako aldien arabera, kontsumitzen hasteko adinaren arabera. 2010 (%)



2008ko *Euskadi eta Drogak* txostenean adierazten zenez, kanabisarekin lehen kontaktuaren goiztiartasuna beste substantzia batzuekin lotutako arriskuaren barruko kontsumo-ereduak garatzeko aukera gehiagorekin lotzen da. Hain zuzen ere, hurrengo taulan ikus daitekeenez, kanabisaren kontsumoa zenbat eta goiztiarra izan, orduan eta aukera gehiago daude legez kanpoko beste droga batzuen azkenaldiko eta egungo kontsumoa ikusteko. Era berean, tabakoaren kontsumoarekin ere nolabaiteko harremana dagoela dirudi, baina arinagoa da. Nolanahi ere, esan beharra dago 2010ean aldeak ez direla 2008an bezain kategorikoak, eta, zalantzarik gabe, horren arrazoia da drogen kontsumo-ereduak aldatu egin direla adin-talde gazteenean.

39. taula. Bestelako substantzien kontsumoaren adierazleak, kanabisa kontsumitzen hasitako adin-tartearen arabera. 2010 (%)

	Legez kanpoko beste azkenaldiko kontsumoa*	Legez kanpoko beste egungo kontsumoa*	Tabakoaren egungo kontsumoa**	Tabakoaren eguneroko kontsumoa
15 urte baino gutxiago	13,0	8,4	59,3	54,8
16-17 urte	8,7	5,7	55,8	49,6
18-19 urte	4,9	2,3	59,0	56,0
20 urte eta gehiago	0,8	0,3	53,4	51,5
Ez du kontsumitu	0,3	0,3	21,5	20,1
Guztira	2,3	1,4	33,5	31,3

* kanabisa eta errezetarik gabeko psikofarmakoak izan ezik

** tabako-kontsumoa azken hilabetean.

Alkohol-kontsumoari dagokionez –biztanleria gaztearen kasuan–, emaitzak lerro berean doaz. Arrisku-jokabideak ohikoagoak dira kanabisaren kontsumoaren hasiera goiztiarra den heinean.

40. taula. Alkohol-kontsumoaren adierazleak, kanabisa kontsumitzen hasitako adin-tartearen arabera.
2010 (%)

	Alkohol-kontsumoa kalean hilean behin gutxienez azken urtean	12 mozkorraldi edo gehiago urtean	Kontsumo intentsiboko* 4 egun edo gehiago hilean
15 urte baino gutxiago	35,8	16,6	21,8
16-17 urte	18,4	13,0	16,0
18-19 urte	14,0	8,9	11,2
20 urte eta gehiago	12,0	7,1	11,0
EE	3,8	5,5	1,8
Ez du kontsumitu	11,2	2,1	6,2
Guztira	16,2	7,1	10,8

*Kontsumo intentsiboa: aldi berean eta bi orduko epean 5 alkoholdun edari edo gehiago edatea.


2.4. Talde sozioekonomikoa: gizarte-klaseko desberdintasunak handitzen dira

Euskadi eta Drogak txosteneko datuen arabera, esan daiteke EAEko kanabis-kontsumoa klaseartekoa dela, hain zuzen ere azterketa honetan zein aurrekoetan ez baita alde handirik ikusi kontsumo-tasetan kontsumitzailearen talde sozioekonomikoaren arabera edo horren erreferentziatzko familia-unitatearen arabera.

Hala ere, desberdintasun batzuk azpimarra daitezke, lotura handiagoa dutenak kontsumoen intentsitatearekin kontsumoaren prebalentziarekin baino: horrela, kualifikaziorik gabeko langileek batez bestekoaren gaineko kontsumo-mailak izateko joera dute, betiere kontsumo esperimentalaren kasuan izan ezik, eta eskuzko langile kualifikatuek eta tarteko agintariek, aldiz, gutxi gorabehera batez bestekoaren maila berean kontsumitzen dute. Aitzitik, zuzendariak eta profesional liberalek –hala nola, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonak– biztanleria osoarenak baino kontsumo esperimentaleko tasa askoz handiagoak dituzte, baina tasak murriztu egiten dira azkenaldiko kontsumotik egungo kontsumora mugitzean, eta, batez ere, eguneroko kontsumoan.




Hain zuzen ere eguneroko kontsumoaren kasuan gertatzen da klaseen arteko aldeak nabariagoak direla: I. taldeko pertsonen artean –zuzendariak eta profesional liberalek– eguneroko kontsumoaren prebalentzia % 0,7 da, eta IV. taldearen kasuan –kualifikaziorik gabeko langileak–, aldiz, sei aldiz handiagoa da. Bestalde, 2008-2010 aldian desberdintasunak handiagoak egin direla dirudi, I., II. eta III. taldeetan eguneroko kontsumoa argi eta garbi murriztu bada ere, modu nabarmenean handitu delako IV. taldean. Gauza bera gertatu da egungo kontsumoarekin.

182. grafikoa. Azkenaldiko, egungo eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimental talde sozioekonomikoaren arabera. 2010 (%)



Maiztasunaren edo intentsitatearen arabera kontsumo-ereduei dagokienez, esan daiteke zuzendariak eta profesionalak –*Euskadi eta Drogak* serieko txosten guztietan– kontsumo-eredu seguruagoak atxikitze joera dutela, hau da, aldizkakoagoak eta intentsitate txikiagoak. Horrela, kanabisa 500 aldiz baino gehiago kontsumitu dutenen ehunekoa kualifikaziorik gabeko langileen kasuan ikusitakoaren erdia da I. taldekoen artean, eta eguneroko kontsumitzaileen ehunekoa hiru aldiz txikiagoa da. Hortaz, aldizkako kontsumoak edo kontsumo esperimentalak nagusitzen dira zuzendarien eta profesional liberalen artean, gainerako gizarte-taldeetan baino gehiago gertatzen baita horien artean. Horretaz gain, esan beharra dago, 2008arekin alderatuta, talde sozioekonomiko behartsuen eta intentsitate edo maiztasun handiko kontsumoaren arteko identifikazioa dezente argiagoa dela 2010ean.

183. grafikoa. Kanabisaren kontsumo-ereduak talde sozioekonomikoen arabera. 2010 (%)



2008an bezala, baina modu argiagoan, 2010ean egiaztatu egin da gizarte-klasearen, jarraitutasunaren eta kontsumoaren intentsitatearen artean badagoela harremana, baina kasu horretan aldeak 2008an baino leunagoak dira.

41. taula. Jarraitutasun-, intentsitate- eta eguneroko kontsumo-tasak, talde sozioekonomikoen arabera. 2010 (%)

	Jarraitutasun-tasa	Intentsitate-tasa	Eguneroko kontsumo-tasa
I. Taldea. Zuzendariak eta lanbide liberalak	24,2	5,6	1,1
II. Taldea. Ordezkeriak eta tarteko agintariak	28,5	7,8	4,2
III. Taldea. Eskuzko langile kualifikatuak	31,3	12,5	5,3
IV. Taldea. Kualifikaziorik gabeko langileak	37,4	20,3	11,6
Guztira	30,2	11,6	5,4


2.5. Bizi diren lurraldea: kontsumo-tasen konbergentzia

2006ko *Euskadi eta Drogak* txostenean adierazten da ez dagoela lurraldean oinarritutako alde handirik EAEko kanabis-kontsumoari dagokionez. Hala ere, 2008ko ikerketan, inkestako datuek ideia hori gezurtatzen zuten, eta Arabaren eta beste bi lurraldeen artean alde batzuk

zeudela adierazten zuten, zehazki egungo kontsumoko eta eguneroko kontsumoko tasei dagokienez, baina baita jarraitutasun- eta intentsitate-tasei dagokienez ere. 2010eko datuak kontuan hartzen badira, zalantzarik gabe pentsa daiteke EAE osatzen duten lurraldeen arabera erritmo desberdinarekin aurrera egiten duen kanabis-kontsumoaren mapa bat egin behar dela lehenbailehen. Alde batetik, kontsumoak aurre egiten du Araban, eta, bestetik, atzera egiten du Gipuzkoan eta, batez ere, Bizkaian¹⁵.

2010ean, inkestaren emaitzek adierazten dute kontsumo esperimentalako tasak Bizkaiko % 31ren eta Gipuzkoako % 40aren artean kokatzen direla, eta Bizkaiko lurraldearen oso hurbileko posizioan kokatzen da Araba. Bestela esanda, kontsumo esperimentalaren inguruan beti izan diren aldeak atxikitzen dira –batez bestekoaren gaineko kontsumo-tasak Gipuzkoan, eta txikiagoak Bizkaian–, eta Arabak izan duen jokabidearen joera –ez oso argia– nabarmentzen da, izan ere kontsumoa % 33ra jaitsi baita berriz ere, 2004an nabarmen handitu ondoren.


184. grafikoa. Kanabisaren kontsumo esperimentalaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 1992-2010 (%)



Hiru lurraldeen epe laburrean, ertainean eta luzean izan duten bilakaera oso ezberdina izan da. Hain zuzen ere, epe luzean, kontsumoaren hazkunde nabarmena ikusten da Araban eta Bizkaian, eta Gipuzkoan, aldiz, hazkundera batez bestekoaren azpitik dago. Epe ertainean, kontsumoaren hazkundera soilik Gipuzkoan nabarmentzen da, eta epe laburrean, aldiz, kontsumo-tasa zakarki jaitsi da Araban eta handitu egin da Bizkaian.

185. grafikoa. Kanabisaren kontsumo esperimentalaren hazkundera epe labur, ertain eta luzera, bizi diren Lurralde Historikoaren arabera. 2010 (%)


¹⁵ Datu horiek interpretatzeko unean, nolahi ere, Lurralde bakoitzarentzat hartutako laginarekin lotutako akatsaren ondoriozko aldeak kontuan hartu behar dira (ikus sarrerako kapitulua).



Egungo kontsumoari dagokionez, eta ziur asko *benetako kontsumoaren* tasen adierazle onena dela aintzat hartuta, lurralde bakoitzaren bilakaeraren joerak oso heterogeneoak dira. Hala ere, azken bi urteetan bat egiteko joera izan dute. Zehazki, 2010ean beherakada zakar bat izanik, Arabako tasak Bizkaiko tasetara hurbildu dira, eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoako tasetara, 1996-2006 hamarkadan atxikitako goranzko joeraren norabidea aldatuz. Bestalde, Gipuzkoan 2002an hasitako beherakako joerak erortzen jarraitzen du, eta kontsumoko joera pixka bat handitu da Bizkaian. Nolanahi ere, Araban izandako beherakada handia kontuan hartuta, egungo kontsumoarekin lotutako aldeak 2010ean txikiagoak izan dira azken urteetan baino.

186. grafikoa. Kanabisaren egungo kontsumoaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera.


1992-2010 (%)



Eguneroko kontsumoaren prebalentziari buruzko datuek beherakada bat adierazten dute Araban nahiz Bizkaian eguneroko kontsumo-tasetan. Tasa horiek nabarmen handitu ziren azken urteetan, batez ere Araban. Aitzitik, Gipuzkoan, goranzko joera txiki bat ikusten da 2006. urteaz geroztik.

187. grafikoa. Kanabisaren eguneroko kontsumoaren bilakaera bizi diren Lurralde Historikoaren arabera.


1992-2010 (%)



2.6. Hezkuntza-maila: intentsitate edo arazo gehiagoko kontsumo-ereduak hezkuntza-maila baxuagoa dutenen artean


Kontsumo-tasak ikasketarik gabeko pertsonen artean edo lehen mailako ikasketak dituztenen artean baxuagoak dira oraindik bigarren mailako eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean baino. Neurri handi batean, eta 2008ko txostenean adierazten zenez, hezkuntzarako sarbidean belaunaldien artean dauden aldeak dira horren arrazoia, hain zuzen ere adin gehiagoko pertsonen artean, oro har hezkuntza-maila baxuagoa izanik, kontsumo-tasa baxuagoak izateko joera ikusten baita oraindik. Horrela, esate baterako, kontsumo esperimentala altuagoa da unibertsitateko ikasketak dituztenen artean ikasketarik ez dutenen artean baino. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen gainerako kontsumo-adierazleekin, izan ere handiagoak baitira prestakuntza-maila baxuagoak dituztenentzat: eguneroko kontsumoa % 1,3ra iristen da unibertsitateko ikasketak dituztenen artean, eta gehienez ere bigarren mailako ikasketak eginak dituzten edo ikasten dituzten pertsonen artean % 3,5era iristen da.

188. grafikoa. Azkenaldiko, egungo eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimentalaren hezkuntza-mailaren arabera. 2010 (%)




Hurrengo hiru grafikoetan interpreta daitekeenez, substantzia horren kontsumoko (eta abusuzko) ereduak intentsitate handiagoak izateko joera dute hezkuntza-maila txikiagoa den heinean. Hortaz, esate baterako, azken urtean kanabisa kontsumitu zuten unibertsitateko ikasleen artean egunero egiten dutenen ehunekoak % 5 baino txikiagoa da, eta ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen artean % 33ra hurbiltzen da. Kontrako zentzuan, aurreko urtean kanabisa kontsumitu duten unibertsitateko ikasleen % 50ek aldizkako edo jolaserako kontsumo-ereduak erakusten ditu, eta hezkuntza-maila baxuagoa dutenen artean, aldiz, % 20aren kasua da hori. Era berean, azken hilean kanabisarekin egindako unean uneko kontsumoak ia % 60raino iristen dira unibertsitateko ikasleen artean, eta ikasketarik ez dutenen artean % 35era, eta eguneroko kontsumoari dagokionez, aldiz, ehunekoak % 8 eta % 41 dira, hurrenez hurren. Análisi-kategoria horiek pentsarazten digutenez –talde sozioekonomikoen arteko aldeak aztertzean adierazi dugunez–, kanabisaren kontsumorako sarbidea hezkuntza-maila altuagoko taldeetan egingarriagoa bada ere, eta taldeen barruan ikusten ditugun adinaren arabera aldeak gorabehera, substantzia horretara iristeko aukera dutenean, kontsumo-ereduak intentsitate handiagoa dute hezkuntza-prestakuntza gutxiagoko taldeetan.

189. grafikoa. Kanabisaren kontsumo-ereduak hezkuntza-mailaren arabera. 2010 (%)



Izan daitezkeen belaunaldi-joerak ahal den neurrian saihesteko, soilik 35 urtetik beherako pertsonak aztertzen ditugunean, ikusitako joerak antzekoak dira. Kasu horretan, egoera aldatu egiten da alderdi batzuei dagokienez, baina funtsezkoa berretsi egiten da: kontsumo esperimental handiagoa da unibertsitateko ikasleen artean, azkenaldiko eta egungo kontsumoa bigarren mailako hezkuntza dutenen artean nabarmentzen da, eta eguneroko kontsumoa, aldiz, handiagoa da ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen artean.

190. grafikoa. Azkenaldiko eta eguneroko kanabis-kontsumo esperimentalaren hezkuntza-mailaren arabera.
35 urtetik beherako pertsonak, 2010 (%)



Nolanahi ere, azpimarratu behar da, 2008arekin alderatuta, eguneroko kontsumoa nahiz egungo kontsumoa nabarmen murriztu direla ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean (eguneroko kontsumoaren kasuan % 16tik % 8ra), eta unibertsitateko ikasketak dituztenen kasuan, aldiz, ia ez da aldatu, eguneroko kontsumoa soilik hamarren bat murriztu baita.

3. EAEko ETA EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO KANABISAREN KONTSUMOAREN KONPARAZIO ANALISIA

3.1. Aurrekari batzuk

Kanabisa da Europan gehien hedatzen den legez kanpoko droga, eta horren kontsumoa oso azkar handitu zen 90eko hamarkadan eta 2000ko hamarkadaren hasieran. Hala ere, pentsa daiteke joera aldatu egin dela, biztanleriari egindako inkesten datuek adierazten baitute kanabisaren kontsumoa egonkortzen ari dela, baita murriztu ere; hori adierazten du, esate baterako, *Europako Droga-mendetasunaren arazoari* buruzko Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren azken urteko txostenak.

Jokaleku horretan, komenigarria da EAEko drogen kontsumoa –eta, zehazki, kanabisaren kontsumoa– testuinguru geografiko eta kultural hurbilenean kokatzea, hau da, Estatu espainolarekin eta Europar Batasuna osatzen duten herrialdeekin konparatzea. Hala ere, gogoratu behar da, metodologiaren ikuspegitik, datuak konparazio batean oinarrituta aztertzea oro har ez dela oso egokia; drogen kontsumoaren epidemiologiaren alorrean inkestek ematen dituzten emaitzek, normalean, joera-aldaketak zehazten dituzte, eta aukera ematen dute kontsumo-ereduetan gertatzen diren aldaketak ikusteko, baina askotan ez dute aukera ematen bereizketak edo zehaztapenak egiteko. Txosten honetako beste kapitulu batzuetan bezala, kanabisaren kontsumoari dagokionez Europarekin konparaketa egiteko, arestian aipatu dugun Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren urteko txostenean bildutako estatistikabuletina baliatu dugu, 2010eko azaroan argitaratua. Estatu espainolarekin konparaketa egiteko, bere aldetik, Drogei buruzko Plan Nazionalean abenduaren lehen astean argitaratutako datuak baliatu dira, Espainian alkoholari eta drogei buruz etxex etxe egindako inkestakoak (EDADES) eta 2009-2010 aldiari buruzkoak.


3.2. Beheranzko joera bateratua Euskadin eta Estatu espainolean

Ikuspegi konparatu batean oinarrituta, inkestetan bildutako zifrek adierazten dute Euskadik, termino erlatibotan, kanabis-kontsumoko tasa altuak erregistratzen jarraitzen duela, Estatu espainolarekin nahiz Europako beste herrialde batzuekin konparatuta. Hala eta guztiz ere, Estatu espainolarekin egindako konparaketari dagokionez –eta oraindik ere kontuan hartu gabe EAEko laginaren adinak (15-74 urte) kontsumo-prebalentzia baxuagoak sustatzen dituela estatu espainoleko laginaren adin berbera erabili izango balitz lortuko liratekeenak baino (15-64 urte)–, ikus daiteke kontsumo esperimentalari dagokionez joera antzekoa dela, baita 2010ean erregistratutako prebalentziak ere (% 34 EAEn, eta % 32 Estatu espainolean)¹⁶.

191. grafikoa. Kanabis-kontsumo esperimentalaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010

(%)

¹⁶ Nolanahi ere, kontuan hartu behar da EAEn datuak inkestatutako biztanleriari egiten diola erreferentzia (15-74 urtekoak). Estatu osoaren kasuan bezala, unibertsoa 15-64 urteko biztanleek osatuko balute, kontsumo esperimentaleko prebalentzia-tasa % 38,5 izango litzateke, hau da, estatuko % 32aren gainetik.




Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAeko datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.

Azkenaldiko kontsumoaren eta egungoaren bilakaera konparatzen bada, egoera antzekoa da, baina ez da berdina. Izan ere, kontsumo-tasak ia berberak dira gaur egun EAEn eta Espainian. Hala ere, arestian adierazi dugunez, kontuan hartu behar da prebalentzia-tasa pixka bat handiagoa dela EAEn soilik 15-64 urteko biztanleak kontuan hartzen direnean: % 11,7 azkenaldiko kontsumoaren kasuan –aitzitik, % 10,6 Estatuan–, eta % 8,1 egungo kontsumoaren kasuan –% 7,6 Estatuaren kasuan–.

Nolanahi ere, 2006. urteaz geroztik, eta biztanleria osoa kontuan hartzen bada, kontsumoak oso modu argian murriztu dira Euskadin, eta Estatuan, aldiz, egonkor mantendu dira edo behera egin dute poliki.


192. grafikoa. Azkenaldiko eta egungo kanabis-kontsumoaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010 (%)



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAEko datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.

Azkenik, adierazi behar da 2010ean eguneroko kanabis-kontsumoaren prebalentzia (zazpi egun astean) ia berbera dela Espainian (biztanleriaren % 2) eta EAEn (% 1,9). Hala ere, horren bilakaera desberdina da; izan ere, estatuaren adierazlea 2010ean gehieneko historikoetan mantendu bada ere, EAEn murriztu egin da 2004az geroztik, betiere gorabehera batzuekin 2008an.

193. grafikoa. Eguneroko kanabis-kontsumoaren bilakaera Euskadin eta Estatu Espainolean. 1992-2010 (%)



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAEko datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.


3.3. EAEk kanabis-kontsumoko maila altuak ditu orain ere Europaren testuinguruan

Gainerako Europarekin egindako konparaketari dagokionez, bistakoa dirudi EAEn kanabisaren kontsumoan azkenaldian izandako beherakadek ez dutela lortu, legez kanpoko gainerako drogen kasuan ez bezala, Euskadiko kontsumo-tasak Europaren tasekin bat egitea.

3.3.1 Biztanleria orokorra

15-64 urteko biztanleria kontuan hartzen bada, *Euskadi eta Drogak* txostenean EAEn kasuan jasotzen duen kontsumo esperimentaleko tasa % 38,5 da. Arestian esan dugunez, Estatu espainol osoan 2010ean biztanleria talde horrentzat erregistratutako % 32aren gainetik dago tasa hori, baita Europako gainerako herrialdeetako edozein herrialdetan erregistratutakoaren gainetik ere.

194. grafikoa. Kanabis-kontsumo esperimentala Euskadin eta EBn (%).



Iturria: DTEB 2010 eta E&D2010.

Kanabisaren azkenaldiko eta egungo kontsumoa aztertzen bada, benetako kontsumo-tasak ezagutzeko interes oso handia duten adierazleak direla aintzat hartuta, Euskadiren egoera antzekoa da oraindik: EAE biztanleria osoaren azkenaldiko kontsumoko tasen buruan kokatzen da, eta soilik Italiak eta Txekiar Errepublikak gainditzen dute. Egungo kontsumoari dagokionez, Txekiar Errepublikan erregistratutako datuek bakarrik gainditzen dituzte EAEn jasotakoak.

42. taula. Kanabisaren azkenaldiko eta egungo kontsumoa Euskadin eta EBn (%).

15-64 urteko biztanleria.


	Azkenaldiko kontsumoa	Egungo kontsumoa
Txekiar Errepublika	15,2	8,5
EAE	11,7	8,1
Espania	10,6	7,6
Italia	14,3	6,9
Eskozia	11,0	6,8
Erresuma Batua	8,4	4,9
Frantziarentzat	8,6	4,8
Ingalaterra eta Gales	7,9	4,6
Herbehereak	5,4	3,3
Belgika	5,0	3,0
Ipar Irlanda	4,8	2,8
Irlanda	6,3	2,6
Portugal	3,6	2,4
Danimarka	5,5	2,2
Alemania	4,7	2,2
Norvegia	4,6	2,2
Eslovakia	6,9	2,0
Letonia	4,9	1,8
Austria	3,5	1,7
Finlandia	3,6	1,6
Bulgaria	2,7	1,4
Estonia	6,0	1,4
Zipre	2,1	1,4
Lituania	5,6	1,2
Hungaria	2,3	1,2
Grezia	1,7	0,9
Polonia	2,7	0,9
Malta	0,8	0,5
Suedia	1,9	0,5
Errumania	0,4	0,1
Eslovenia	3,1	:

Iturria: DTEB 2010 eta E&D2010.

Gauza bera gertatzen da biztanleria gaztearen (15-34 urte) prebalentzia-tasak aztertzen direnean. Adin-talde horren kontsumo esperimentaleko prebalentzia da (% 51) DTEBren inkestetan jasotako guztietatik altuena, Txekiar Errepublikaren kasuan izan ezik. Egungo eta azkenaldiko kontsumoari dagokionez, grafikoan ikus daitekeenez, EAEk 2010erako ematen dituen datuak Europako altuenen artean kokatzen dira.

195. grafikoa. Kanabis-kontsumo esperimentala, azkenaldikoa eta egungoa Euskadin eta EBn (%).


15-34 urteko biztanleria



Iturria: DTEB 2010 eta E&D2010.

Azkenik, intentsitateari eta erabilera-ereduei dagokienez, gure inguruko herrialdeekin egindako konparaketek, normalean inkesta nahiko zaharretan oinarritzen diren arren eta adierazle guztiz konparagarriak ematen ez dituzten arren, argi uzten dute aldizkako erabilera Europako herrialdeetan EAEn baino pixka bat hedatuagoa dagoela kanabisa kontsumitzen dutenen artean.

196. grafikoa. Kanabis-kontsumitzaileen banaketa kontsumoaren intentsitatearen arabera EBn eta EAEn



Iturria: DTEB 2010 eta E&D2010. Kontsumoa baxua da astean egun batetik hirura bitarte kontsumitzen denean. Ertaina da hilean 4-19 egun kontsumitzen denean, EBren kasuan, eta 4-24 egun, EAEn kasuan. Kontsumo altua 20 egunetik gorakoa da EBren kasuan, eta 25 egunetik gorakoa EAEn kasuan.

VI. KAPITULUA
LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA EAEn


1. EAEn LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOARI BURUZKO OINARRIZKO DATUAK

1.1. Kontsumoko prebalentziak 2010ean: euskal biztanleriaren % 10ek probatu du legez kanpoko drogaren bat

Euskal biztanleriaren % 10,1ek –169.000 pertsona inguru– kontsumitu du bizitzan behin gutxienez kanabisa ez den beste legez kanpoko drogaren bat (kanabisa txosten honetako beste kapitulu batean aztertzen da). Aztertutako legez kanpoko drogen artean, kokaina eta anfetamina edo *speeda* dira gehien kontsumitzen direnak: biztanleriaren % 6,8k aitortu du kokaina probatu duela noizbait bizitzan, eta beste ehuneko berdin batek –115.000 pertsonak– anfetaminak. Kontsumitzaileen kopuruaren ikuspegitik, bigarren postuan kokatuko lirateke substantzia haluzinogenoak edo psikodelikoak: LSDa edo azido lisergikoa (% 3,6), perretxiko haluzinogenoak edo *mongiak* (% 2,3), eta, sintesiko drogen artean, estasia (% 2,3). Aztertutako gainerako substantzien (heroina, ketamina, arnastekoak, substantzia dopatzaileak, eta abar) kontsumo esperimentaleko prebalentziak¹⁷ biztanleria osoaren % 1aren azpitik daude.


¹⁷ Kontsumo esperimentalak bizitzan gutxienez behin kontsumitzeari egiten dio erreferentzia. Azkenaldiko kontsumoak azken urteko kontsumoari egiten dio erreferentzia, eta egungo kontsumoak inkesta egin aurreko hilabeteko kontsumoari.

197. grafikoa. Legez kanpoko drogen kontsumo esperimentaleko prebalentzia EAEn 2010ean (%)



Biztanleriaren % 2,3k –37.837 pertsonak guztira– adierazten du substantzia horietako bat gutxienez kontsumitu duela azken urtean¹⁸. Kasu horretan, kokainaren azkenaldiko kontsumoko prebalentzia (biztanleriaren % 1,6) anfetaminena baino askoz handiagoa da (% 1,1), baita gainerako legez kanpoko substantziena baino handiagoa ere, hain zuzen ere azken horien kasuan, biztanleria osoaren barruan, inkestak ia ezin baitu identifikatu. Horrela, adibidez, heroinaren kasuan, inkestak identifikatzen duen azkenaldiko kontsumoko prebalentzia % 0,1 da, hau da, bi mila pertsona inguru EAE osoan.


198. grafikoa. Legez kanpoko drogen azkenaldiko kontsumoko prebalentzia EAEn 2010ean (%)



Azkenik, legez kanpoko drogen baten egungo kontsumoko prebalentzia –inkesta egin aurreko hilabetearen egindakoa– biztanleriaren % 1,4 da, hau da, 23.783 pertsona guztira. Berriz ere, kokaina, anfetaminak eta, kasu honetan, LSDa dira inkestatutako pertsonen azken hilabetearen kontsumitutako substantzien artean aipatzen direnak.

199. grafikoa. Legez kanpoko drogen egungo kontsumoko prebalentzia EAEn 2010ean (%)

¹⁸ Kanabisa kontuan hartuko balitz, ehuneko hori biztanleria osoaren % 6,6ra igoko litzateke.




1.2. Kontsumoko prebalentzien bilakaera: jaisteko joera sendotu eta indartzen da

2010eko *Euskadi eta Drogak* txosteneko datuek adierazten dute inolako zalantzarik gabe beherakada nabarmena gertatu dela legez kanpoko drogen kontsumoko prebalentzian Euskadin, eta geroz eta modu argiagoan sendotzen da 2004. urtean adierazitako beherakako joera, izan ere urte horretan kontsumo-mailak historikoki altuenak izan ziren. Horretaz gain, 2006-2008 aldian substantzia batzuen kontsumo-tasen beherakadaren geldialdi erlatiboa hautsi egin da 2008-2010 aldian, eta funtsezko datu bat ikusten da: legez kanpoko substantziaren bat kontsumitu duen biztanleriaren ehunekoak etengabe murriztu da 2004. urteaz geroztik, azken hilean, azken urtean edo bizitza osoan izan den alde batera utzita.

Egia da kontsumo esperimentaleko mailak historikoki altuak direla oraindik, eta legez kanpoko drogaren batekin kontaktua, 2010ean, seriearen lehen erdian erregistratutako baino handiagoa da oraindik (90eko hamarkadan eta hamarkada honen lehen urteetan). Dena den, benetan esanguratsua dena zera da, legez kanpoko substantziaren baten azkenaldiko eta egungo kontsumoa 90eko hamarkadaren amaieraz geroztik ikusten ez ziren mailetara jaitsi dela.

200. grafikoa. Legez kanpoko drogaren baten kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn, kontsumo motaren arabera (%)




Nolanahi ere, eta kontsumoaren beherakadan eragina duten faktoreen identifikazioa azterlan honen irismenetik kanpo dagoen arren, prebentziorako eta osasun-arloko hezkuntzarako mezuen inpaktua aipa daiteke, baita hamarkada honen lehen urteetan drogek –bereziki legez kanpokoek– itxuraz lortu zuten erakarpen-gaitasuna pixka bat agortzea ere. Era berean, krisi ekonomikoak drogen kontsumoan izan dezakeen eragina ere aipa daiteke, baina horri dagokionez esan beharra dago kontsumoa murrizteko joera krisiaren aurretik hasi zela eta, beraz, beste arrazoi batzuen ondorioa izan zela ziur asko.

Kontsumo esperimentalako tasen jaisteko joera substantzia guztietan ikusten da, hain zuzen ere horietan guztietan kontsumoa murriztu egin baita aurreko urteekin alderatuta. Izan ere, kokainaren kasuan izan ezik, substantzia guztien kontsumo esperimentalako tasak 2002an erregistratu zirenen azpitik daude. 2008-2010 aldian izandako beherakaden argitasuna –anfetaminen, estasiaren, LSDaren, kokainaren eta heroinaren kontsumo esperimentalako tasak % 20, % 30, % 18, % 21 eta % 50 jaitsi dira hurrenez hurren– ez dator bat 2006-2008 aldian izandako geldialdiekin eta hazkundeekin, eta antza gehiago dauka 2004-2006 aldian, oro har, izandako beherakada handiekin. Bereziki argia dirudi heroinaren kontsumo esperimentalak izan duen beherakada, baina substantzia horren kontsumoari buruzko datuak kontu handiz hartu behar dira, hain zuzen ere inkestaren errore-marjinagatik eta horrelako ethez etheko estatistikek gizartean gutxien onartutako substantzien kontsumoa atzemateko dituzten zailtasunengatik.


201. grafikoa. Legez kanpoko substantzien kontsumo esperimentalaren prebalentziaren bilakaera EAEn.

1992-2010 (%)




Azkenaldiko kontsumoko tasen beherakada kontsumo esperimentalaren kasuan baino nabariagoa da. Datu hori are positiboagoa da kontuan hartuta azken hori behin bakarrik eta/edo iragan urrun batean gerta zitezkeen kontsumoei erreferentzia egiten dien adierazle metatzaile bat dela, eta azken urteko kontsumoak, aldiz, intentsitatea edo maiztasuna adierazten ez duen arren, azken hamabi hilabeteetan gertatu diren droga-erabilerak biltzen dituela. Kasu horretan, eta substantzia nagusiak kontuan hartzen badira, kontsumoaren beherakadak % 50etik gorakoak izan dira, baina adierazi behar da, era berean, gutxien kontsumitzen den substantzietako batek –LSD– hazkunde txiki bat izan duela. Horretaz gain, ikus daiteke kontsumo-ereduak efektu moten arabera elkartzan direla, kokainaren eta anfetaminen kurbak –bestalde, gehien kontsumitzen direnak– estasiarenak eta LSDarenak baino nabariagoak izanik. Nolanahi ere, substantzia horien erabilerako prebalentziak 2004an lortutako mailen oso azpitik daude.

202. grafikoa. Legez kanpoko substantzien azkenaldiko kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn, 1992-2010 (%)



Azkenik, inkesta egin aurreko hilabetean legez kanpoko substantzien kontsumoaren epe luzeko bilakaera aztertzen badugu, substantzia guztietan pixkanaka behera egiten duela ikusiko dugu, baita kokainaren kasuan ere; izan ere, azken horren kasuan, egungo kontsumo-tasak etengabe jaitsi dira 2004az geroztik, azken bi urteetan izandako geldialdia gorabehera. Gainerako substantziei dagokienez, eta aurreko inkestarekin alderatuta, ikus daiteke beherakada nabaria izan dela anfetaminen (% 0,5 2008ko % 1aren aldean) eta estasiaren (% 0,1) egungo kontsumoko prebalentzian, eta LSDaren kontsumoak, aldiz, gora egin du (% 0,3). Nolanahi ere, kontuan hartu behar da, ehuneko horiek oso baxuak direnez gero, eta inkestaren erroremarjina aintzat hartuta (etxez etxeko inkesta baten ezaugarriez gain, soil-soilik inkestatutako pertsonen emandako informazioan oinarritzen baita), gorabehera horiek gutxi gorabeherakoak direla. Hala eta guztiz ere, joera oraindik irregularra bada ere, esan daiteke gainerako adierazleetan ikusten denari erantzuten diola, eta azkenaldiko kontsumoko tasek ez dituztela ia inoiz gaingitzen hamarkadaren hasieran erregistratzen zirenak.

203. grafikoa. Legez kanpoko substantzien egungo kontsumoko prebalentziaren bilakaera EAEn. 1992-2010 (%)



Kontsumo-tasen beherakada euskal biztanleriaren geldialdi demografikoarekin lotzen badugu, bereziki inkestak estaltzen dituen adin-tarteetan, beste datu garrantzitsu bat aurkituko dugu: termino absolututan, legez kanpoko drogen benetako kontsumitzaileen (hau da, azkenaldiko edo egungo kontsumitzaileak) kalkulaturako kopurua ez da hain baxua izan 90eko hamarkadaren amaieratik. Horrela, 2006. urteaz geroztik, legez kanpoko droga bat gutxienez azkenaldian kontsumitu dutenen kopurua ia erdira murriztu da –74.000 pertsona ingurutik 38.000ra jaitsi da–, eta egungo kontsumitzaileen kopurua 45.000tik 23.000ra jaitsi da, hau da, 2000. urtean erregistraturako 26.000ren azpitik.

43. taula. Kanabisa ez diren legez kanpoko beste droga batzuen kontsumo esperimentalak, azkenaldikoak eta egungoak dituzten pertsonen kopuruaren bilakaera. 1996-2010


	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Esperimentala	108.684	121.880	120.373	172.102	238.960	230.569	203.014	169.305
Azkenaldikoa	19.283		49.566	56.776	76.353	74.062	63.103	37.838
Egungoa	7.012	19.430	26.553	31.937	42.338	45.930	28.274	23.783

1.3. Kontsumoaren jarraitutasun-indizeak: kontsumitzaile esperimentalen heren batek baino gutxiagok kontsumitzen ditu legez kanpoko drogak gaur egun

Kontsumoaren jarraitutasun-indizea –Euskadi eta Drogak serieko beste txosten batzuetan eta txosten honetako beste kapitulu batzuetan erabilia– lortzeko aztertu behar dena da bizitzan noizbait legez kanpoko substantziaren bat kontsumitu dutela –hau da, gutxienez probatu dutela– aitortu dutenek azken urtean eta/edo inkesta egin aurreko azken hilabetean zein neurritan jarraitu duten kontsumitzen. Horrela, jakin nahi dena da erabilera esperimentalek zein neurritan ekartzen dituzten erabilera ohikoagoak edo, gutxienez, azkenaldikoak. Adierazle horiek erabilgarriak dira, alde batetik, kontsumo esperimentaleko adierazleak izan dezakeen garrantzia zehazteko (adierazi dugunez, intentsitate handiko eta egungo kontsumoak nahiz iragan urrun batean modu esperimentalean egin zirenak biltzen ditu), eta, bestetik, probatu ondoren, maiztasun handiagoarekin kontsumitzen jarraitzen diren substantziak zeintzuk izan ohi diren balioesteko.

Azkenaldiko Kontsumoko Indizeak (AKI) bizitzan gutxienez behin kontsumitu duten pertsona guztiekin alderatuta azken urtean substantzia jakin bat kontsumitu dutenen proportzioa jasotzen du. Egungo Kontsumoko Indizeak (EKI), bere aldetik, substantzia jakin bat bizitzan behin probatu duten pertsona guztien aldean azken hilabetean kontsumitu dutenen proportzioa adierazten du.

204. grafikoa. Legez kanpoko hainbat drogaren azkenaldiko eta egungo kontsumoko indizeak 2010ean



Oro har, jarraitutasun-indize handiena duen substantzia ketamina da: % 28,6 Azkenaldiko Kontsumoko Indizean, eta % 14,3 Egungo Kontsumoko Indizean. Horrek esan nahi du iraganean substantzia hori –intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin– probatu edo kontsumitu zutenen laurden batek pasatxo kontsumitzen jarraitu duela azken urtean. Aurkako ildoan, horrek ere esan nahi du hamarretik zazpi kontsumitzaile esperimentalek ez dutela substantzia horren kontsumoarekin jarraitu azken urtean gutxienez. Kokaina ere nabarmentzen da: % 23,5eko AKIarekin eta % 16,2ko EKIarekin. Perretxiko haluzinogenoek edo *mongiek*, estasiak, anfetaminek eta LSDak, ordena horretan, jarraitutasun-indize baxuenak dituzte, eta horrek esan nahi du esperimentalagoak direla, edo, lehen kontsumoa egin ondoren, uzten dutenen tasa handiagoa dela. Kanabisaren kasuan –txosten honetan aztertutako legez kanpoko beste droga–, azkenaldiko kontsumoko indizea (AKI) % 30,4 zen eta EKI % 21,2, hau da, kapitulu honetan aztertzen diren substantzien kasuan baino handiagoak.

Bilakaeraren ikuspegitik, ezin da esan joerak argiak direnik: kokainaren kasuan, adibidez, AKI jaitsi egin da 2006az geroztik, baina ez da gauza bera gertatu EKIarekin, eta anfetaminen kasuan, aldiz, bi adierazleak jaitsi egin dira. Nolanahi ere, soilik ketaminaren AKIaren kasuan esan daiteke gorakada iraunkorra eta nabaria izan dela.

44. taula. Substantzia guztientzako AKIaren eta EKIaren tasen bilakaera 2006-2010 aldian


	2006	2008	2010
AKI			
Kokaina	32,1	30,1	23,5
Ketamina	12,5	21,8	28,6
Anfetamina	27,3	27,2	16,2
LSD	20,9	8,5	13,9

Estasia	23,1	23,3	17,4
Mongiak	13,5	10,1	13,1
EKI			
Kokaina	17,3	12,5	16,2
Ketamina	12,5	13,0	14,3
Anfetamina	12,5	11,8	7,4
LSD	16,3	0,9	8,4
Estasia	11,5	5,1	4,3
Mongiak	2,7	2,8	4,4

1.4. Egonkortasuna legez kanpoko drogak kontsumitzen hasteko adinean


2010ean, legez kanpoko hainbat droga kontsumitzen hasteko batez besteko adina 19,8 urte izan da; hau da, aztertzen ditugun legez kanpoko drogetako baten bat probatzerakoan edo kontsumitzen hasterakoan biztanleria kontsumitzaileak zuen batez besteko 20 urte inguruan kokatzen da. Datu horiek ikusita, bi ondorio garrantzitsu atera daitezke: lehenik, nolabaiteko egonkortasuna dago adierazle horretan, hain zuzen ere 2008arekin alderatuta pixka bat murriztu bada ere, 19 urtetik gertu mantentzen baita, eta oso gutxi mugitu da hortik azken hiru bosturtekoetan. Datu hori da, hain zuzen ere, bigarrenik azpimarratu behar dena, argi baitago – duela hainbat urtetatik hona– 18-20 urteko tartean probabilitate handiagoa dagoela legez kanpoko drogak kontsumitzen hasteko.

205. grafikoa. Legez kanpoko drogaren bat erabiltzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera (1994-2010)



Hain zuzen ere, ikus dezakegunez, 2010ean, legez kanpoko drogaren baten kontsumoan hasi zen biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 57,1) 19 urtetik gora egin zuen, hau da, adin-nagusitasuna lortu ondoren. Bilakaeraren ikuspegitik, ezin dugu esan eredu argi bat dagoenik, baina azpimarratu behar da 18 urte izan baino lehen kontsumitzen hasi zirenen ehunekoa 2010ean serieko baxuenetako bat dela. Dena den, 2010ean, kanabisa ez den legez kanpoko beste substantziaren bat kontsumitu dutenen % 35,5ek 15-18 urte zituenean egin zuen, eta legez kanpoko drogak kontsumitu dituen biztanleriaren % 7,5 15 urte izan baino lehen hasi zen. Era berean, bereziki azpimarratzekoa da –prebentzioaren praktikan horrek izan ditzakeen ondorioengatik– drogak noizbait kontsumitu dituztenen artean % 30 21 urte baino gehiagorekin hasten direla, hau da, drogek dituzten ondorioak aski ongi ezagutu ondoren.


206. grafikoa. Biztanleria kontsumitzailearen legez kanpoko edozein droga erabiltzen hasteko batez besteko adinaren araberako banaketaren bilakaera (1994-2010)



Dena den, 15 urte izan baino lehen legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutela adierazten dutenen kopurua kontuan hartu beharreko datu garrantzitsu bat da, arrisku-jokabide bat baita zalantzarik gabe, eta prebentzioko eta osasunerako hezkuntzako politikek aurre egin behar diote. 2010ean, hamabi mila pertsona inguruk adierazi zuten legez kanpoko drogaren bat kontsumitu zutela hamabost urte izan baino lehen, hau da, esan dugunez, kontsumitzaileen % 7,5ek eta guztizko biztanleriaren % 0,75ek.


Aztertutako substantzien hasteko batez besteko adinak aztertzen baditugu, ikus daiteke legez kanpoko substantzietako bat lehen aldiz kontsumitu zutenen batez besteko adina 19,2 ingurukoa dela LSDaren lehenengo kontsumoen kasuan –adin goiztiarrean kontsumitzen hasten den substantzia– eta batez beste 20,6 kokainaren kasuan. Bilakaeraren ikuspegitik, joera ez da argia, eta, nolana ere, nolabaiteko konbergentzia sumatzen da, alde txikiagoekin substantzia bakoitzari dagokion hasteko batez besteko adinean. Horrek esan nahi du legez kanpoko droga batzuek –kanabisaz bestelakoak, eta, txosten honetako beste kapitulu batean adierazi denez, kontsumitzen hasteko adina 18,8 urtetan dutenak– sarbide-substantzia nagusi gisa jarduteko ahalmena galdu dutela.

207. grafikoa. Hainbat substantzia kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 1992-2010



Hala eta guztiz ere, eta 2010. urtean aztertutako substantzia guztien kontsumitzen hasteko batez besteko adina kontuan hartzen bada, graduazio bat ikus daiteke oraindik, eta, besteak beste, kokaina, *mongiak*, *crack* eta bestelako opiazeoak –normalean terapietan erabiliak, eta, logikoa denez, erabilera luze baten eta ohitzeko prozesu baten ondoren– dira hasteko adin berantiarrena dutenak.


208. grafikoa. Legez kanpoko substantziak kontsumitzen hasteko batez besteko adina EAEn 2010ean



1.5. Gazteen eta helduen kontsumo-tasek bat egiten dute, eta legez kanpoko drogen kontsumitzaileen batez besteko adinak gora egiten du


Legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako adinaren arabera ikusten diren aldeei dagokionez, azpimarra daiteke kontsumo-tasen konbergentzia geroz eta handiagoa da adin-taldeen artean. Hain zuzen ere, hurrengo grafikoetan adierazten denez, 55 urtetik beherako talde guztien kontsumo esperimentaleko eta azkenaldiko kontsumoko tasek hurbiltzeko joera izan dute argi eta garbi. Hala ere, egungo kontsumoaren kasuan ere bateratzeko mugimendu bat ikus daiteke, baina gazteenen kasuan kontsumo-tasa pixka bat handitu da 2008-2010 aldian. Nolanahi ere, bistakoa dirudi legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez iraganeko belaunaldi-hesia desagertu egin dela, edo, gutxienez, nabarmen leundu dela azken sei urteetan.

209. grafikoa. Legez kanpoko drogaren baten kontsumo-tasen bilakaera, kontsumo motaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010



Horregatik guztiagatik, ez da harrizkoa legez kanpoko drogen kontsumitzaileen batez besteko adina handitzen ari dela, kontuan hartzen den kontsumoa edozein izanik. Izan ere, gorabehera batzuekin bada ere, epe luzean legez kanpoko drogaren bat kontsumitzen dutenen batez besteko adina etengabe handitu da. Kontsumo esperimentalaren kasuan, jakina, datu hori ez da oso garrantzitsua, duela urte asko substantzia horietako baten bat probatu zutenen zahartzea adieraz dezakeelako. Beste bi adierazleen kasuan, aldiz, bilakaera horrek –oso nabaria 2006-2008 aldian– adierazten du batez besteko kontsumitzailearen profila zein neurritan aldatzen ari den adinaren ikuspegitik, eta substantzia horien benetako kontsumoa zein neurritan lotzen den geroz eta gutxiago gaztaroarekin soilik. Honako datu honek oso ondo adierazten du bilakaera hori: 1992. urteaz geroztik, legez kanpoko edozein substantziaren egungo kontsumitzaileen batez besteko adina zazpi urte handitu da, 22 urtetik 29 urtera igoz.

210. grafikoa. Legez kanpoko substantziak kontsumitzen hasteko batez besteko adina EAEn 2010ean



Legez kanpoko drogen batez besteko kontsumitzailearen pixkanakako zahartzea hobeto ulertzen da hurrengo taulako datuak kontuan hartzen badira. Bertan ikusten dira kontsumotasek izan dituzten gorakadak edo beherakadak –epe luzean, 1992. urteaz geroztik; epe ertainean, 2000. urteaz geroztik; eta, epe laburrean, 2008. urteaz geroztik– adin-tartean arabera. Aztertutako ia kontsumo eta epe guztietan, gorakada handiena 35-55 adin-tartean izan da. Azkenaldiko kontsumoaren epe ertaineko aldatari dagokionez, adibidez, 35-55 urtekoen tartea da aldateta positiboa izan duen bakarra, gainerako adin-tarteetan negatiboa izan baita. Egungo kontsumoaren kasuan, erlazioa ez da hain argia, eta gazteenak dira, hain zuzen ere, epe laburrean kontsumoaren hazkunde handiena izan dutenak.

45. taula. Legez kanpoko drogaren baten kontsumo-tasen aldaketa epe luzean, ertainean eta laburrean, adin-tarteen arabera.

	Luzea	Ertaina	Laburra
Esperimentalak			
15-24	1,54	0,94	0,88
25-34	1,21	1,28	0,75
35-54	9,00	2,45	0,98
55+	–	0,75	0,30
Guztira	1,98	1,49	0,83
Azkenaldikoa			
15-24	1,27	0,76	0,79
25-34	1,08	0,93	0,54
35-54	6,67	1,05	0,65
55+	–	–	–
Guztira	1,21	0,82	0,61
Egungoa			
15-24	2,65	0,96	1,10
25-34	2,89	1,37	0,70
35-54	–	1,10	1,00
55+	–	–	–
Guztira	2,33	0,93	0,82

Oharra: Lauki bakoitzeko datuak 2010eko kontsumoaren eta erreferentziako hasierako urteko kontsumoaren arteko ratioa jasotzen du, talde bakoitzarentzat.

1.6. Kontsumoaren pertzepzioa, horri aitortutako onurak, eta legez kanpoko drogak uzteko prest egotea

Euskadi eta Drogak seriearen aurreko edizioetan ez bezala, 2010eko galdesortan azken urtean legez kanpoko drogaren bat –kanabisa barnean hartuta– kontsumitu dutenei bakarrik galdetu zaie, beren kontsumoari buruz duten pertzepzioarekin, kontsumo horrek sortzen dizkien kalte eta onurekin, edo kontsumitzen uzteko prest egotearekin lotutako alderdi batzuei buruz. Polikontsumoaren kasuan, azken urtean kontsumitu dituen substantzia guztien artean gehien kontsumitzen duenari buruzkoak dira galderak. Kasuen % 91n kanabisa izan da, % 3,5ean kokaina, eta gainerako % 5a aurrekoak ez diren legez kanpoko beste droga batzuei dagokie.

Kontsumoaren autopertzepzioari dagokionez, EAEn 40.000 lagunek baino pixka bat gehiagok adierazi dute asko edo dezente kontsumitu dutela legez kanpoko drogaren bat azken urtean. Asko kontsumitzen dutela uste dutenak biztanleriaren % 0,5 eta kontsumitzaileen % 8,5 dira. Nolanahi ere, azkenaldiko kontsumitzaileen % 60 inguruk uste du gutxi edo ezer ez kontsumitzen duela.

46. taula. Kontsumo-mailaren autopertzepzioa azkenaldian legez kanpoko drogen bat kontsumitu dutenen artean (2010)

	Abs.	Biztanleriaren %-a	Kontsumitzaileen %-a
Batere ez	4839	,3	4,5
Gutxi	58952	3,5	54,7
Dezente	32127	1,9	29,8
Asko	9100	,5	8,5
ED/EE	2665	,2	2,5
Guztira	107684	6,4	100,0

Alkoholarekin eta, batez ere, tabakoarekin gertatzen dena ez bezala, legez kanpoko drogen kontsumitzaileak modu oso orekatuan banatzen dira beren kontsumoen ondorioak kontuan hartzeari buruz duten pertzepzioaren arabera. Hain zuzen ere, kontsumitzaileen ia % 30ek kalteak ikusten ditu bakarrik bere kontsumoan, edo, behintzat, onura baino kalte gehiago. Ia berdina den beste ehuneko batek –eta gainera modu berean banatzen da iritzi kategorikoagoa dutenen (% 7,7) eta xehetasun handiagoko iritzia dutenen artean (% 21)– soilik onurak ikusten ditu, edo, gutxienez, kalte baino onura gehiago; eta, gainerako % 36ak kalteak nahiz onurak ikusten ditu. Legez kanpoko drogak (kanabisa, ia kasu guztietan) kontsumitzen dituztenen % 7,7k bakarrik uste du, beraz, horien kontsumoak ez duela kalterik; eta, beste ehuneko berdin batek uste du, aldiz, horien kontsumoak ez diola onurarik ekartzen.

47. taula. Kontsumoaren onuren eta kalteen balioespena azkenaldian legez kanpoko drogen bat kontsumitu dutenen artean (2010)

	Abs.	Biztanleriaren %-a	Kontsumitzaileen %-a
Kalteak bakarrik	8343	,5	7,7
Kalte gehiago onurak baino	23194	1,4	21,5
Kalteak bezainbeste onura	39219	2,3	36,4
Onura gehiago kalteak baino	23347	1,4	21,7
Onurak bakarrik	8298	,5	7,7
ED/EE	5282	,3	4,9
Guztira	107684	6,4	100,0

Azken hilabeteen legez kanpoko drogak kontsumitu dituztenen % 66k baieztatu du nahi izanez gero erabilera uzteko gai direla, baina % 53 ez da inoiz saiatu. Nolanahi ere, oso garrantzitsua da azpimarratzea substantzia horien kontsumitzaileen % 45ek kontsumoa murrizteko saiok egin dituela: horietatik, heren batek behin bakarrik, eta bi herenek behin baino gehiagotan. Guztira, legez kanpoko drogen kontsumoa –nagusiki kanabisa– murrizten saiatu direnen kopurua 30.000tik gorakoa da.

1.7. Legez kanpoko drogen kontsumoa EAEn, perspektiban: Euskadi jada ez dago kontsumo-tasen buruan

Legez kanpoko drogen kontsumoko prebalentzia-tasak nazioarteko ikuspegitik azter daitezke beste herrialde edo autonomia-erkidego batzuetan lortutako antzeko prebalentzia-adierazleekin, baina gogoratu beharra dago konparazioak gutxi gorabeherakoak eta orientatiboak direla, hain zuzen ere inkestetan erabilitako metodologiarekin, laginen tamainarekin, aztertutako adinekin, erabilitako galdesortekin eta beste alderdi batzuekin lotutako desberdintasunengatik. Nolanahi ere, zailtasun metodologikoak alde batera utzita, 2010eko inkestako datuek *Euskadi eta Drogak* seriean lehen aldiz adierazi dute Euskadi jada ez


dagoela Europaren lehen postuetan kokainaren kontsumo experimentalari dagokionez, eta, gure inguruko herrialde askorekin distantziak oraindik mantentzen badira ere, EAEn erregistratutako kontsumo-ereduek beste herrialde batzuetan jasotakoekin bat egiteko joera dute, iraganean baino neurri handiagoan.

Horrela, Drogen eta Tokikomanien Europako Behatokiak (DTEB) emandako datuen arabera, 2010ean, EAEn kokainaren kontsumo experimentalak –biztanleriaren % 6,8, arestian adierazi dugunez– Europako batez bestekoa gainditzen du (% 4,1), baina Erresuma Batuen (% 14,9), Espainiaren (% 10,2), Danimarkaren (% 9,5) edo Irlandaren (% 8,2) tasen oso atzetik dago. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da herrialde horiei buruzko datuak, kasurik onenean, 2009ari buruzkoak direla, eta horrek balioa ken diezaioke arestian adierazitako ondorioari, hain zuzen ere herrialde horietako kontsumo-tasek gurean dituztenen antzeko beherakadak izan ditzaketelako –izan ere, badituzte¹⁹–. Era berean, adierazi behar da, aldaketa hori gertatu bada ere, Euskadiko kontsumo-tasak gure inguruko herrialde gehienetan ematen direnak baino handiagoak direla oraindik. Frantziarekin edo Alemaniarekin ditugun aldeak, adibidez, oso adierazgarriak dira.

Anfetaminen edo *speedaren* kontsumo experimentalak EAEn (% 6,8) Europako altuenetako bat da oraindik, eta soilik Eskoziak (% 14,1) eta Ingalaterrak (% 12,3) gainditzen dute, eta oso gertu dauka Danimarka (% 6,3). Horretaz gain, azpimarratzekoa da oraindik Euskadin estasiaren kontsumoak duen prebalentzia nahiko baxua (% 2,3) –Eskoziakoaren (% 9,9), Bulgariakoaren (% 9,6), edo Ingalaterra eta Galesekoaren (% 8,6) oso gainetik–, baita LSDaren presentzia handia ere (% 3,6), soilik Txekiar Errepublikak (% 5,6), Erresuma Batuak (% 5,5), edo Eskoziak (% 7,7) gainditzen dutena.

¹⁹ Horixe adierazten du, esate baterako, Drogei buruzko Plan Nazionalaren EDADES inkestak.

211. grafikoa. Hainbat substantziaren kontsumo esperimentaleko tasak Europako hainbat herrialdetan²⁰ eta EAEn²¹



Iturria: EMCDDA Estatistika Buletina, 2010, eta E&D2010.





Substantzien azkenaldiko kontsumoari dagokionez, datuak bildu diren urtean aldakortasuna handiagoa da, eta, beraz, konparazioek neurri batean zentzua galtzen dute. Hala eta guztiz ere, kasu horretan ere esan daiteke 2010ean kokaina-kontsumoak EAEn (% 1,6) jada tarteko balioetan kokatzen direla nazioarteko testuinguruari dagokionez, eta, izan ere, D'TEBk EB osorako kalkulatu duen batez besteko % 1,3ko balioa oso gutxi gainditzen dute. Horretaz gain, estasiaren kontsumoa EAEn baxuagoa da kontsumo globaleko antzeko mailak dituzten beste herrialde batzuetan baino, ziur asko LSDak eta anfetaminek hartu dutelako horren lekua: izan ere, droga horien azkenaldiko kontsumoa herrialde gehienetan erregistratzen denaren gainetik dago oraindik.

212. grafikoa. Hainbat substantziaren azkenaldiko kontsumo-tasak mendebaldeko hainbat herrialdetan eta EAEn²²

²⁰ Drogen eta Tokikomanien Europako Behatokia. (DTEB).^{*} Europar Batasuna Estatistika Buletina 2010.

²¹ Euskadi eta Drogak 2010

²² Europako herrialdeei buruzko datuak: 2008ko Estatistika Buletina. Drogen eta Tokikomanien Europako Behatokia. (DTEB).^{*} AEBko datuak: 2007 National Survey on Drug Use and Health: National Findings.U.S. Department of Health & Human Services. (SAMHSA).




2. KONTSUMOAREN PREBALENTZIAK SUBSTANTZIA MOTEN ARABERA

2.1. Kokaina eta basea²³

2.1.1. Kontsumoaren prebalentzia

Arestian adierazi dugunez, eta Euskadi eta Drogak 2010 txostenak ematen dituen datuen arabera, kokaina da kanabisaren ondoren euskal biztanleriaren barruan kontsumo-prebalentzia handiena duen legez kanpoko substantzia, eta horren atzetik oso gertu daude anfetaminak. Esan dugunez, nagusiki gizonen kontsumoa da, eta tasak normalean askoz ere handiagoak dira gazteen artean –batez ere azkenaldiko eta egungo kontsumoari dagokionez– biztanleria osoan baino. Bilakaerari buruzko datuak hurrengo orrialdeetan zehaztasun handiagoarekin aztertzen diren arren, esan daiteke 2008-2010 aldian kokainaren kontsumo-tasak funtsean murriztu egin direla gizonen artean –bi urte hauetan kontsumo-tasetan erregistratu den beherakadaren zati handi baten arduradunak zalantzarik gabe–, eta emakumeen kasuan, aldiz, egonkor mantendu dira oro har.


213. grafikoa. Kokainaren eta basearen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, generoaren eta adin-talde handien arabera EAEn (%)



Gazteen kontsumo-tasak biztanleria orokorrean ikusitakoak baino askoz handiagoak dira. Adin-taldeen arteko aldeak zehaztasun handiagoaren aztertzen badira, ikus daiteke prebalentzia-tasa handienak 20-24 urtekoen artean jasotzen direla, batez ere azkenaldiko eta egungo kontsumoari dagokionez. Kontsumo mota hori modu argian eta etengabe murrizten da adin horretatik aurrera, baina ez da gauza bera gertatzen kontsumo esperimentalaren kasuan, hain zuzen ere azken horren kasuan kontsumoa antzeko tasetan mantentzen baita, 45 urtera iritsi arte behintzat. Ziur asko horren arrazoia izan da nagusiki kokaina duela urte batzuk lehen aldiz kontsumitu zutenen zahartzea, eta ez hainbeste kokainaren kontsumoan duela gutxi adin gehiagoko pertsonak sartu izana, ezta modu esperimentalean bada ere.

214. grafikoa. Kokainaren eta basearen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, adin-tarteen arabera EAEn 2010 (%)

²³ Aurreko txostenetan bezalaxe, kapitulu honetan kokainaren eta basearen kontsumoa batera aztertzen ditugu; horregatik, kontsumoaren ehunekoa pixka bat handiagoa da, soilik kokaina-kontsumoari buruzko tasekin alderatuta.



Oraintxe ikusi dugunez, kontsumo-prebalentzia handienak 20-24 urtekoen artean izaten diren arren, kokaina-kontsumitzaileen osiera sexuaren eta adinaren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu zein neurritan den gizonen kontsumoa eta, nolabait esateko, *bigarren gaztaroarekin* edo heldutasunarekin lotutako kontsumoa: egungo kontsumoaren kasuan, emakumeak kontsumitzaileen % 29 dira bakarrik, eta 20 urtetik beherakoak % 1,3 (hala ere, % 6,6 iristen dira egungo kontsumoaren kasuan). Dena den, garrantzitsua da kontsumitzaile esperimentalen % 70ek eta azkenaldiko eta egungo kontsumitzaileen % 50-55ek 30-34 urte dituela.

48. taula. Kokaina-kontsumitzaileen banaketa generoaren eta adin-taldearen arabera EAEn (2010)

	Esperimentala	Azkenaldikoa	Egungoa
Gizonak	69,5	77,8	71,1
Emakumeak	30,5	22,2	28,9
15-19	1,3	5,4	6,6
20-24	11,9	19,0	16,5
25-29	16,5	21,2	25,1
30-34	16,8	16,1	18,0
35-44	43,7	31,3	28,7
45-54	9,8	6,9	5,2
55-64	0,0	0,0	0,0
65-74	0,0	0,0	0,0

Gazteek EAEn kokaina gehiago kontsumitzen dute Europako gainerako lekuetan baino? DTEBren arabera, Europako 15-34 urteko gazteen % 5,9k kontsumitu du kokaina noizbait bizitzan, % 2,3k inkestaren aurreko urtean egin du, eta % 0,9k aurreko hilean. Adin-tarte berean, EAEn datuak, esan dugunez, honako hauek dira: % 10,8, % 3,4 eta % 2,4. Nolanahi ere, DTEBren arabera, Erresuma Batuak, Espainiak edo Irlandak EAEn baino gazteen erabilera-prebalentzia handiagoak dituzte, kontsumo esperimentalari, azkenaldikoari nahiz egungoari dagokionez.

2.1.2. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina

2008an gertatzen zena ez bezala, kokaina kontsumitzen hasteko batez besteko adina gizonen artean (20 urte) pixka bat txikiagoa da emakumeen artean baino (22,2 urte). Adinaren ikuspuntutik, ikus daiteke –2008ko E&D txostenean jada adierazten zenez– adin-talde gazteenak direla goiztiartasun handienarekin hasi direnak substantzia hori kontsumitzen, eta horrek esan nahi du, laster ikusiko dugunez, substantzia hori kontsumitzen hasteko batez besteko adina aurreratu egin dela denboran zehar. 29 urtetik beherako gazteen artean, kokainaren lehen kontsumoa 15-20 urteko tartean mugitzen da, eta goiztiarra da inkestatutako pertsona guztiak kontuan hartzen baditugu, kokaina lehen aldiz batez beste 21,7

□

5

urterekin kontsumitu dutela baieztatzen baitute. 15-19 urteko gazteen kasuan, logikoa denez, kontsumitzen hasteko adina batez bestekoaren azpitik dago, eta 16-17 urteko tartean mantendu da E&D serie osoan zehar 2000. urteaz geroztik.


49. taula. Kokaina eta basea kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera

Generoa		Adina							Adin-talde handiak	
Gizona	Emakumea	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	15-74	15-34
20	22,2	16,8	18,3	21,4	20,1	21,4	24,6	24,2	21,7	19,3

2.1.3. Kontsumoaren maiztasuna

Kokainaren kontsumoaren maiztasunari dagokionez, esan daiteke egoera ia ez dela aldatu 2008arekin alderatuta, eta kontsumitzaile gehienek substantzia horren oso aldizkako erabilera egiten jarraitzen dutela: kontsumitzaileen ia % 60ek 10 aldiz baino gutxiago kontsumitu dute bitzita osoan, eta % 20,5ek 11-50 aldiz kontsumitu du. Hala ere, azpimarratu behar da kontsumitzaileen % 13k –2008an % 8 izan zen– 100 alditan baino gehiagotan kontsumitu duela. Kontsumitzaile intentsiboen talde hori biztanleriaren % 1 da, eta, termino absolututan, 15.000 pertsona inguru dira.

215. grafikoa. Biztanleriaren banaketa bitzita osoan kokaina kontsumitutako aldien arabera (%)



Kokainaren azken urteko erabilera-maiztasuna biztanleria osoan eta biztanleria gaztean hurrengo taulan ikus daiteke. Datuek adierazten dute azken urtean kontsumitu duen biztanleriaren ia bi herenek hilean behin egin duela –gehienez ere– eta % 45ek bost aldiz egin duela, gehienez ere, urte osoan zehar. Azken hori aldizkako kontsumotzat jo daiteke. Kontsumitzaile horien heren batek gutxi gorabehera erabili du substantzia hori hilean behin gutxienez, biztanleria osoan nahiz biztanleria gaztean. Bada itxuraz kezkarria den datu bat, hain zuzen ere kontsumitzaileen % 4k –2008an, aldiz, % 1,7k– adierazten duela kokaina egunero kontsumitzen duela. Talde txikia da –1.600 pertsona, inkestako datu guztien arabera–, baina biztanleriaren barruan garrantzi nahikoa dauka horrelako etxez etxek inkesta batek atzemateko.

50. taula. Kokaina-kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoari eta gazte-biztanleriari dagokienez (%)


	15-74 urte	15-34 urte
--	------------	------------

	Kontsumitzaile guztien gainean (% bertikalak)	Biztanleria osoaren gainean (% horizontalak)	Kontsumitzaile guztien gainean (% bertikalak)	Biztanleria osoaren gainean (% horizontalak)
Egunero	4,0	0,1	0,0	0,0
4-6 egun astean	0,0	0,0	0,0	0,0
1-3 egun astean	3,1	0,0	4,9	0,2
1-3 egun hilean	27,9	0,5	26,7	0,9
6-11 egun urtean	19,3	0,3	19,3	0,6
1-5 egun urtean	45,7	0,7	49,1	1,6
Guztira	100,0	1,6	100,0	3,3

2.1.4. Kokaina-kontsumoarekin lotutako adierazle nagusien bilakaera



Arestian adierazi dugunez, 2010eko *Euskadi eta Drogak* inkestaren bitartez lortutako datuen arabera, kokaina-kontsumoa pixka bat murriztu da azken urteekin alderatuta. Hain zuzen ere, aurtengo inkestak agerian jarri duen funtsezko berrikuntzetako bat da, 2006an hasitako beherakako joera indartu eta sendotzen baitu. Azkenaldiko kontsumoaren prebalentzia-tasak balio baxuena lortu du 2000. urteaz geroztik, eta kontsumo esperimentalarenak, metatzailea bada ere, ia bi puntu galdu ditu 2008arekin alderatuta, agian kontsumo berrien kopuru txikitu delako, biztanleria gaztean nahiz helduan. Hortaz, beherakako joera sendotu da -90eko hamarkadan izandako hazkundeen ondoren, eta hamarkada honen hasieran izandako hazkunde azkarraren ondoren-, eta horrek aukera ematen du kontsumo-tasak nolabait txikitzeko (nolanahi ere, aztertutako urte gehienetan erregistratutako mailen gainetik mantentzen dira).

216. grafikoa. Kokainaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera EAEn 1992-2010 (%)



Kokaina-kontsumoaren bilakaera adin-tarteen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu, arestian adierazitakoaren ildotik, gazteen kontsumo esperimentalean beherakako joerari eusten zaiola. 15-34 urteko gazteen kontsumo-tasa hiru puntu jaitsi da 2008tik, eta zazpi 2004tik. Izan ere, datu interesgarria da kokainaren kontsumo esperimentaleko tasetan izandako beherakada are nabariagoa dela gazteen artean biztanleria osoan baino. Generoaren ikuspuntutik, beherakaden tamaina antzekoa da gizonen eta emakumeen kasuan, eta, beraz, kontsumoetan gizonen nagusitasuna mantendu egiten da. Bereziki interesgarria da 2004. urteaz geroztik azkenaldiko kontsumoko tasetan izan den beherakada handia, izan ere % 52ko beherakada izan baita 2004. urtetik emakumeen kasuan, eta gazteenen kasuan ia % 60 izan da.


217. grafikoa. Kokainaren erabilera esperimentalaren eta azkenaldiko erabilaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)



Aurreko bi grafikoetan oso ongi ikusten da kokainaren kontsumoak Euskadin izan duen bilakaera azken urteetan: 1996. urtean hasi zen kokaina-kontsumoaren goranzko kurba, eta 2004an lortu zen kontsumo-mailarik altuena gizonen nahiz emakumeen kasuan, baita gazteen nahiz biztanleria orokorraren kasuan ere. Urte horretatik aurrera, 2006an jaisteko joera hasi zen, eta 2010ean sendotu da, azkenaldiko kontsumoko tasak 2000. urtean erregistratutakoak baino txikiagoak ere izanik.


Gazteen kontsumo-tasetan izandako beherakadari dagokionez agerian jarri diren joerak aintzat hartuta, eta noizbait substantzia hori probatu zuten edo kontsumitzen hasi ziren taldeak zahartu direla kontuan hartuta, ez da harriztekoa helduek kokaina-kontsumitzaile esperimentalen artean duten garrantzia geroz eta handiagoa izatea: 1992-2010 aldian 30 urtetik gorakoak kontsumitzaile esperimental guztien % 35 izatetik % 70era igaro dira, baina azken bi urteetan beherakada argia gertatu da 44 urtetik gorako garrantzi espezifikoan. Nolanahi ere, 20 urtetik beherakoek geroz eta ehuneko txikiagoa dute urtero kontsumitzaile esperimental guztien barruan. Generoari dagokionez, datuak ez dira hain kategorikoak, eta ez dirudi eredu orokor bati jarraitzen diotenik: 2008-2010 aldian emakumezko kontsumitzaileen garrantzia % 30eraino igo da; nolanahi ere, ez dira gaintu 2000-2006 aldian erregistratutako mailak.

218. grafikoa. Kokainaren kontsumitzaile esperimentalen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tartearen arabera. 1992-2010 (%)




Azkenaldiko kontsumitzaileen taldearen banaketa aztertzen bada –zalantzarik gabe, interes handiagoa dauka, hain zuzen ere intentsitatea alde batera utzita, *jardunean* dauden kontsumitzaileen taldea delako–, ondorio biribilagoak lortzen dira: 30 urtetik gorakoek azkenaldiko kontsumitzaileen taldean duten garrantzia % 32tik ia % 55era igo da 2002-2010 aldian; aitzitik, 1992. urtetik, 20 urtetik beherako kontsumitzaileen garrantzia % 25etik % 5era jaitsi da. Generoaren ikuspuntutik, emakumeen presentzia handitu egin da azken bi urteetan kontsumitzaileen taldean –% 13tik % 22ra–, baina ezin dugu, dena den, joera-aldaketa bati buruz hitz egin.

219. grafikoa. Kokainaren azkenaldiko erabileraren banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tartearen arabera. 1992-2010 (%)




Bestalde, kokaina kontsumitzen hasteko batez besteko adinari dagokionez, gazteenen artean oraindik egonkortasun argia ikus badaiteke ere, 2006. urteaz geroztik bi adin-talde gazteenetan lehen kontsumoa egiteko adina pixka bat atzeratu dela dirudi. Nolanahi ere, epe luzean, nerabeen hasteko adina (15etik 19 urtera bitarte) ia bi urte atzeratu da (ikusiko dugunez, gauza bera gertatzen da anfetaminen eta estasiaren kasuan).

220. grafikoa. Kokaina kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera, adin-tarte gazteagoetan. (1994-2010) (kokaina-hautsa bakarrik)



Azkenik, zer bilakaera izan du kokaina-kontsumoen intentsitateak? Substantzia horren kontsumitzaileen ehunekoa edo bizitza osoan 100 aldiz baino gehiago kontsumitu duen biztanleriaren ehunekoa 2004. urtetik abiatuta aztertzen badugu, hazkunde etengabe bat ikus dezakegu, 2006ko kontsumitzaileen % 7,6tik eta biztanleriaren % 0,6tik 2010eko % 13 eta % 0,9ra, hurrenez hurren. Metatutako kontsumoak direla aintzat hartuta, eta, gainera, duela urte asko utzi ahal izan zituztela kontuan hartuta, nolani ere, datuak irudi partzial bat ematen digu. Horregatik, azken urtean gutxienez astero egindako kokaina-kontsumoak azken sei urteetan izan duen bilakaera aztertzen badugu –hobeto adierazten du ohiko kontsumo aktiboa–, ikusten duguna da joera nahiko alderrai bat, nolani ere, beheranzkoa dena, batez ere epe luzean aztertzen denean.

221. grafikoa. Azken urtean gutxienez astero kokaina kontsumitu duten biztanleen eta kontsumitzaileen %-aren bilakaera. 2004-2010




2.1.5. Kokaina-kontsumoarekin lotutako adierazle nagusien konparaketa

Aurreko epigrafe batzuetan, E&D2010 txostenak jaso dituen tasa eta eredu batzuk Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren Estatistika Buletinaren azken edizioak –urteko txostena 2010eko azaroan argitaratu zen– eskaintzen dituenekin konparatu dira. Behatokiaren datuek Espainiari buruzko datuak ematen dituzte, eta, zehazki, 2007-2008 aldian Espainian alkoholari eta drogei buruz etxe egindako Inkestari (EDADES) buruzkoak. Hala ere, aurreko beste kapitulu batzuetan adierazienez, txosten honen idazkuntza ixteko unean 2009-2010 aldiko EDADES inkestako emaitzak argitaratu ziren, eta, beraz, EAEren datuak, oro har, DTEBk eskaintzen dituenak baino duela gutxiagoko emaitzekin konpara daitezke.

E&D010 eta EDADES 2009/2010 inkestaren arteko konparaketak nolabaiteko antzekotasuna erakusten du oinarritzko joeretan, gutxienez legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez eta, zehatzago, kokainaren kontsumoari dagokionez. Horrela, esate baterako, bi herrialdeetan kokainaren azkenaldiko eta egungo kontsumoa murriztu egin da biztanleria orokorrari dagokionez, eta kontsumo esperimentalaren kasuan, aldiz, EAEko tasak 2006. urteaz geroztik murriztu badira ere, Estatu osoan etengabe handitu dira.

222. grafikoa. Kokaina-hautsaren kontsumo esperimentalaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)




Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAEko datuak 15-74 urteko

biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.

Azkenaldiko kontsumoaren kasuan, arestian esan dugunez, bi kasuetan argi eta garbi beherakada bat izan da, baina EAEn kasuan Estatu osoaren kasuan baino dezente nabariagoa eta lehenagokoa dela dirudi. Nolanahi ere, 2004an izan ezik, kokainaren azkenaldiko kontsumoko tasak beti izan dira txikiagoak EAEn Estatu osoan erregistratutakoak baino.


223. grafikoa. Kokaina-hautsaren azkenaldiko kontsumoaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAeko datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.

Azkenik, egungo kontsumoari dagokionez, tasak eta horien bilakaera oso antzekoak dira EAEn eta Estatuan, baina kasu horretan ere kontsumo-mailak pixka bat txikiagoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

224. grafikoa. Kokaina-hautsaren egungo kontsumoaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAEn datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.


2.2. Anfetaminak edo *speeda*

2.2.1. Kontsumoaren prebalentziak: egungo egoera eta bilakaera

Anfetaminen kontsumoari dagokionez, kokainaren kasuan bezala, kontsumo esperimentaleko tasa % 6,8 da biztanleria orokorraren kasuan. Europako estandarrekin alderatuta kontsumo esperimentaleko tasa altua da hori, hain zuzen ere, DTEBren azken Estatistika Buletinaren arabera, EBko batez besteko kontsumoa biztanleriaren % 3,7 baita.


Anfetaminen edo *speedaren* kontsumoa azken urtean eta azken hilabeteen kokainaren kasuan baino pixka bat txikiagoa da: alde batetik, biztanleria orokorraren % 1,1 eta, kokainaren kasuan, % 1,6, eta, bestetik, % 0,5 azken hilean, eta kokainaren azken hilabeteko kontsumoaren prebalentzia % 1,1. Aztertutako gainerako substantzien kasuan bezala, kontsumo-tasak –esperimentala, azkenaldikoa nahiz egungoa– handiagoak dira gizonen eta gazteen artean emakumeen artean edo biztanleria orokorrean baino. Guztira, 18.000 lagunek kontsumitu dituzte anfetaminak edo *speeda* azken urtean EAEn, eta horietatik, erdiak gutxi gorabehera azken hilabeteen ere egin dute.

225. grafikoa. Anfetaminen kontsumo esperimentala, azkenaldikoa eta egungoa EAEn 2010ean (%)




Kontsumo-tasak adin-tarteen arabera aztertzen badira, azkenaldiko kontsumoari dagokionez alde handirik ikusten ez bada ere, bistakoa da 20-24 urtekoen taldea dela kontsumoaren prebalentzia handiena duena: 20-24 urteko gazteen % 4,5ek adierazi du substantzia hori kontsumitu duela azken urtean, eta biztanleria orokorraren kasuan, % 1,1ek adierazi du hori.

226. grafikoa. Anfetaminen kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren tasak, adin-tarteen arabera (2010)




Anfetaminen kontsumoko prebalentziaren bilakaerak beherakako joera argia adierazten du. Horren ildotik, kokainaren pareko bilakaera-lerroa ikusten da, kontsumo-erpin batekin 2004an eta horren ondorengo beherakako joerarekin, 2008-2010 aldian nabariagoa egin dena. 2004. urteaz geroztik, kontsumo esperimentala lau puntu inguru murriztu da biztanleria orokorrari dagokionez. Horrek esan nahi du, % 40 inguruko beherakada izan dela, eta, beraz, esan daiteke EAE hamarkadaren lehen urteetan erregistratutakoen antzeko kontsumo-mailetara itzuli dela. Bestalde, pentsa daiteke kokainaren eta anfetaminen kasuan ikusitako antzeko kontsumo-tasen, eta horien antzeko bilakaeraren arrazoia dela substantzia horiek antzeko kontsumo-ereduak dituztela, efektu estimulatzaileekin eta asteburuetakoko kontsumoarekin lotuak.

227. grafikoa. Anfetaminen erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera. 1992-2010




Hurrengo grafikoa ikusten da 2004an izandako kontsumo-prebalentziaren erpina aztertutako talde guztietan agertzen dela: emakumeen artean, gizonen artean, biztanleria orokorrean nahiz biztanleria gaztean. Gazteen kasuan, 2004. urteaz geroztik izandako beherakada oso nabarmena da, kontsumo esperimentalaren prebalentzia ia % 50 murriztuz, eta kontsumo-tasak 1996ko mailetara itzuliz. Eta talde horren azkenaldiko kontsumoko tasen beherakada proportzionalki nabarmenagoa da, % 60 inguruko beherakadarekin. Horretaz gain, bereziki deigarria da 2004-2010 aldian izandako beherakada 15-34 urteko gazteen artean nabarmenagoa izatea, substantzia horren kontsumoari dagokionez biztanleria orokorretik banantzen dituen hesia argi eta garbi murriztuz.

228. grafikoa. Anfetaminen azkenaldiko kontsumoaren eta kontsumo esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera 1992-2010 aldian (%)




Kokainaren kasuan agerian jarri den eta kanabisari buruz hitz egitean ere adierazi den zahartzea edo *heltzea* bereziki bistakoa da anfetaminen kasuan, eta horrek adierazten du gazte edo nerabe gutxi hasten direla substantzia hori kontsumitzen (agian, adin jakin batetik aurrera ere erabilera-ohiturei eusten zaiela). Serie osoan zehar alderdi horren inguruan izan diren eta 2004-2010 aldian nabarmendu diren aldaketak apartekotzat jo daitezke: 1992an anfetaminen kontsumitzaile esperimentalen % 82 30 urtetik beherakoak ziren, 2004an % 68, eta 2010ean zifrak ia ez du % 25 gainditzen. Generoaren ikuspuntutik, 2008-2010 aldian emakumeen garrantzi espezifikoaren gorakada bat ikusten da kontsumitzaileen taldean, kokainaren kasuan gertatzen zen bezala, aurreko joera hautsiz, baina, nolahi ere, kontsumitzaileen taldean emakumeen presentzia 1998-2006 aldian erregistratutakoen antzeko balioetan mantenduz.

229. grafikoa. Anfetaminen edo *speedaren* kontsumo esperimentalaren banaketaren bilakaera, adin-tarteen eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)



Joera berbera ikusten da azken urteko kontsumoan, batez ere 2004. urteaz geroztik; kasu honetan, datu garrantzitsuagoa da, azkenaldiko kontsumoko egoerei buruzkoa delako eta ez urruneko iragan batekoak izan zitezkeen kontsumo-egoerei buruzkoa. 29 urtetik gorako kontsumitzaileen proportzioak gora egiten jarraitzen du, eta nerabeen garrantzia kontsumitzaileen taldean, aldiz, geroz eta txikiagoa da. Horrela, 2004. urteaz geroztik, 29 urtetik gorako pertsonen proportzioa % 32tik % 56ra igo da; zalantzarik gabe, funtsezko aldaketa gisa ikusi behar da hori. Horregatik, azkenaldiko kontsumoko prebalentziak oraindik talde gazteenetan handiagoak diren arren, ezin dugu anfetaminen kontsumoa nagusiki gazteen jokabidetzat hartzen jarraitu, hain zuzen ere azkenaldiko kontsumitzaileen erdia baino gehiago 30 urtetik gorakoa baita. Sexuaren araberako aldeei dagokienez, azken urteetan emakumeen garrantzia egonkor mantendu da, 2008an jada ikusi zenez, 2002-2004 aldian izandako beherakadaren ondoren.

230. grafikoa. Anfetaminen edo speedaren azkenaldiko kontsumoaren banaketaren bilakaera, adin-tarteen eta sexuaren arabera. 1992-2010 (%)



2.2.2. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina


Speeda edo anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adina 19,9 urtetan kokatzen da 2010ean. Ez dago ezberdintasunik gizonen eta emakumeen artean kontsumitzen hasteko batez besteko adinean, eta ez dira batezbesteko desberdinak agertzen 15-34 urteko biztanleria hartzen badugu. Anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adina kokaina kontsumitzen hasteko batez besteko adina baino txikiagoa da (21,7 urte).

51. taula. Anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera

Generoa		Adina								GUZTIRA	
Gizona	Emakumea	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74	15-74	15-34
19,9	19,9	15,7	17,2	19,0	20,3	20,4	21,6	20,0	—	19,9	19,1


Bilakaerari dagokionez, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten. Adin goiztiarretan kontsumitzen hasitako ehunekoak 2008-2010 aldirian aldatu dela egia bada ere -% 5,9tik % 8,6ra-, 18 urte izan baino hasten diren ehunekoak jaisten jarraitzen du 2004an lortutako gehieneko zifratik. Dena den, adierazi behar da noizbait anfetaminak probatu zituzten edo kontsumitzen hasi ziren pertsonen ia % 40ek adin-nagusitasunera iritsi aurretik egin zutela.

231. grafikoa. Anfetamina-kontsumitzaileen hasitako adin-tarteen arabera banaketaren bilakaera. 1994-2010 (%)



Anfetaminaren hasitako adinaren arabera banaketaren bilakaera aztertu ordez, adin-tarte guztietako pertsonen lehen kontsumoak egin zituzten batez besteko adinaren bilakaera aztertzen badugu, denboran nolabaiteko egonkortasuna izan dela ikusiko dugu, adin-tartearen arabera 15-19 urteko tartean mugituz.


232. grafikoa. Anfetaminak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 29 urtetik beherako gazteen artean (1994-2010)



2.2.3. Kontsumoen maiztasuna

Biztanleria osoa erreferentzia gisa hartzen bada, bistakoa da anfetaminaren erabilera intentsiboa gutxiengo baten ohitura dela: euskal biztanleriaren % 0,9k bakarrik kontsumitu du substantzia hori ehun aldiz baino gehiago bizitza osoan. Arreta biztanleria kontsumitzailean bakarrik jartzen badugu, aldizkako kontsumoa da oraindik joera orokorra: substantzia hori probatu dutenen erdiak hamar aldiz baino gutxiago kontsumitu dute bizitza osoan, eta, beraz, arlo honetan ere nagusiki erabilera experimental edo, noski, aldizkako erabilera bati buruz hitz egin beharko genuke. ehun aldiz baino gehiago kontsumitu dutenak kontsumitzaileen % 12 dira, eta 50-100 aldiz egin dutenak biztanleria kontsumitzailearen % 6,8 dira.

233. grafikoa. Biztanleriaren banaketa bizitza osoan anfetaminak kontsumitutako aldien arabera EAEn 2010ean (%)




Bizitza osoan kontsumitutako aldiak aztertu ordez, azken urteko kontsumoaren maiztasuna aztertzen badugu –adierazle interesgarriagoa, esan dugunez, substantzia hori gaur egun kontsumitzen duten biztanleak hobeto jasotzen dituelako–, aurreko beste azterlan batzuetan adierazi diren datu berberak ikusten dira: *speedaren* ohiko erabileraren prebalentzia (hilean behin gutxienez) % 0,4 da gizarte osoan, hau da, 7.000 pertsona inguru. Azken urtean anfetaminak kontsumitu dituztenen ia erdiak 1-5 aldiz egin dute. Horrek berretsi egiten du kontsumitzaile gehienentzat substantzia horren erabilera aldizkako dela.

52. taula. Anfetaminen kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoan eta kontsumitzaileen artean (%)

	15-74 urte	
	Kontsumitzaile guztien gainean B (%)	Biztanleria osoaren gainean H (%)
4-6 egun astean	0,0	0,0
1-3 egun astean	7,9	0,1
1-3 egun hilean	31,1	0,3
6-11 egun urtean	12,7	0,1
1-5 egun urtean	48,3	0,5
Guztira	100	1,0

Bilakaerari dagokionez, ezin dugu esan, azken urteetan behintzat, *speedaren* ohiko kontsumoa handitzen ari denik; kontrakoa baizik. Ohiko kontsumitzaile horiek biztanleria osoan duten garrantzia –eta, are gehiago, kontsumitzaileen taldean– etengabe murriztu da sei urte hauetan. Horrela, beraz, esan daiteke, kontsumo-tasak jaisteaz gain, kontsumitzen jarraitzen dutenek maiztasun txikiagoarekin egiten dutela (edo, gutxienez, oso maiz egiten dutenak proportzionalki gutxiago dira²⁴).

234. grafikoa. Azken urtean gutxienez astero anfetaminak kontsumitu dituzten biztanleen eta kontsumitzaileen %-aren bilakaera. 2004-2010



2.2.4. Konparaketa EBko herrialdeekin

Europar Batasuneko gainerako herrialdeei dagokienez, arestian adierazi dugunez, anfetaminen edo *speedaren* kontsumoa handia da EAEn. EBko herrialdeentzat kalkulaturako kontsumo esperimentaleko prebalentzia % 3,7 da, eta EAEn kasuan, aldiz, % 6,8raino iristen da. Europar Batasunean, batez besteko azkenaldiko kontsumoa % 0,6 da, hau da, EAEkoaren ia erdia (% 1,1). Dena den, anfetaminen kontsumoak oraindik Erresuma Batuan baino askoz txikiagoak dira, hain zuzen ere DTEBren arabera bertan kontsumo esperimentala % 12raino iristen baita, eta, Eskoziaren kasuan, azkenaldiko kontsumoa % 2,2 da.

53. taula. Anfetaminen kontsumo esperimentala eta azkenaldikoa EAEn eta EBko herrialde batzuetan, adin-taldean arabera (hainbat urte)


²⁴ Aitzitik, hilean gutxienez hiru aldiz kontsumitzen duten kontsumitzaileen ehunekoa handitu egin da 2008-2010 aldian, % 29tik % 39ra.

	Kontsumo esperimental	Azkenaldiko kontsumoa
15-64 urte		
EAE	6,8	1,1
EB batez beste	3,7	0,6
Eskozia	14,1	2,2
Erresuma Batua	12,3	1,2
Danimarka	6,3	1,2
Frantzia	1,1	0,1
Portugal	0,9	0,2
15-34 urte		
EAE	10,0	2,3
EB batez beste	5,2	1,2
Erresuma Batua	15,4	2,3
Danimarka	10,5	3,1
Errumania	0,1	0,1

Iturria: DTEB eta E&D010.

Kokainaren kasuan adierazi dugunez, konparaketa ere egin daiteke EDADES 2009/10 inkestako datuekin, duela gutxi argitaratua Drogei buruzko Plan Nazionalaren eskutik. Substantzia horren azkenaldiko erabileraren prebalentzia konparatzen denean –DPNak emaitzen aurrerapenean substantzia horri buruz ematen duen datu bakarra–, antzeko jaisteko joera ikusten da bi lurraldeetan. Izan ere, joera hori nabariagoa da EAEn, eta, hori gorabehera, 2010ean erregistratutako erabilera-prebalentzia Estatu osoan jasotakoa baino handiagoa da oraindik. Horrek adierazten digu bere ingurune hurbileneko eremuen aldean Euskadiren kasua oso desberdina eta isolatua dela substantzia horri dagokionez.

235. grafikoa. Anfetaminen azkenaldiko erabileraren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn (%)



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak erkidegoko estatistikarenak dira, eta bakoitiak estatukoarenak. Espainiak ez dauka daturik 2008. urterako. EAeko datuak 15-74 urteko biztanleei buruzkoak dira, eta Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleei buruzkoak.

2.3. Estasia eta beste sintesi-droga batzuk


2.3.1. Kontsumoaren prebalentzia

Estasiaren eta bestelako sintesi-substantzien kontsumoa, kapitulu honetan aztertu ditugun gainerako legez kanpoko substantzien kontsumoa bezalaxe, hiru adierazle erabiliz azter daiteke: kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa. EAeko biztanleriari dagokionez, estasiaren kontsumo esperimentalaren nagusitasun-tasa biztanleriaren % 2,3 da 2010ean, 15-34 urtekoen artean, aldiz, % 4,7 da. Azken urte honetan, biztanleriaren % 0,4k kontsumitu ditu estasia edo bestelako sintesi-drogak, eta 15-34 urtekoen artean ehuneko hori zertxobait handiagoa da: % 1,3. Azkenik, azken hilabete honetan biztanleria orokorraren % 0,1i eragiten dio estasiaren kontsumoak eta 15-34 urtekoen % 0,5i. Termino absolututan, azken urte honetan 6.300 estasi-kontsumitzaile daude EAE osoan; horietatik, gutxi gorabehera 2.500ek, gainera, azken hilabete honetan kontsumitu dute.

Generoaren ikuspegitik, emakumeen kontsumo-tasak oso txikiak dira 2010ean, hain zuzen ere inkesta honetan ez da azkenaldiko edo oraingo kontsumorik aurkitu emakumeen artean²⁵.

236. grafikoa. Estasiaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa adin-taldean eta sexuaren arabera EAEn, 2010 (%)


²⁵ Logikoa denez, horrek ez du esan nahi inkesta egin aurreko hilean edo urtean emakume bakar batek ere ez duela estasirik kontsumitu noizbait Euskadin. Nolanahi ere, adierazten du, bestelako substantziekin gertatzen ez den bezala, estasiaren kontsumoa hain txikia dela emakumeen artean ezaugarri horietako lagin batekin non ez den azkenaldiko edo oraingo kontsumo-kasurik identifikatu.



Estasiaren eta diseinu-drogen kontsumoa, Euskadi eta Drogak txostenaren aurreko serietan azaltzen denez, adin gazteekin lotzen da, eta, hain zuzen ere, litekeena da estasia izatea arestian aipatu dugun legez kanpoko drogen kontsumoaren heltze-prozesuari aurka gehien egin dion substantzia. Kokaina-hautsari eta anfetaminei buruzko aurreko ataletan azaldu da aurreko urteekin alderatzen badugu, 2010ean behera egin dutela kontsumo-prebalentziek batez ere gazteen artean. Bi substantzia horien kasuan, eta 20-24 urteko adin-tartean dagoen kontsumo-indizerik handiena bada ere, ikusten da, halaber, kontsumo-tasa esanguratsuak daudela adin helduagoetan, batez ere kontsumo esperimentalari dagokionez, eta adin jakin bateko kontsumitzaileen garrantziak igotzen jarraitu duela.

Estasiaren kasuan ikusten dugu kontsumo esperimentalaren adin-tarte guztietan azaltzen dela, 54 urteraino, eta hori 2000. urtearen inguruan estasi-kontsumoaren hedadurak izan zuen gorakadarekin lotuta dago; substantzia hori probatu zutenetik edo substantzia hori kontsumitzen hasi zirenetatik asko adin jakin bateko kontsumitzaile esperimental gisa azaltzen dira estatistika honetan. Hala eta guztiz ere, gainerako substantzietan gertatzen ez den bezala, inkestan ez dira biltzen 34 urtetik gorako azken urteko edo azken hilabeteko kontsumoak, horregatik, esan dezakegu substantzia hori batez ere gazteek kontsumitzen dutela. Izan ere, inkesta honetan 20-24 urtekoetan soilik atzeman dira estasiaren egungo kontsumo-kasuak, eta, askoz gutxiago, 30-34 urtekoetan²⁶.


237. grafikoa. Estasiaren kontsumo esperimentalaren, azkenaldikoa eta egungoa adin-taldean arabera EAEn, 2010 (%)



Zer bilakaera izan du estasi-kontsumoak azken urte hauetan? 2006-2008 aldian igoera izan bazuen ere, estasi-kontsumoaren prebalentziak jaisten ari dira 2004an izandako gehienekotik abiatuta, 2000. urtean izandako antzeko balioak baitaude kontsumo esperimentalari dagokionez. Azkenaldiko eta egungo kontsumoan, bestalde, historikotzat har daitezkeen gutxienekoak daude.


238. grafikoa. Estasiaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera EAEn 1992-2006 aldian (%)

²⁶ Baina horrek ez du esan nahi, aurreko kasuan bezalaxe, benetan ez direla gertatu substantzia horren kontsumoak adin-talde horretako pertsonen kasuan, baizik eta kontsumo horiek hain minoritarioak direla ezen inkestak, erabilitako laginaren arabera, ezin dituela identifikatu.



Sexuaren eta adinaren artean dauden aldeak ikuspegitik begiraturik, nabarmendu behar da estasiaren kontsumo esperimentalaren jaitsiera handiagoa dela 15-34 urteko gazteen artean biztanleria osoaren artean baino. Kontsumoaren jaitsiera hori gizonen eta emakumeen kasuan ikusten da, baina kontsumo hori azken urte honetan ez da ikusten emakumeen kasuan. Grafikoan ikusten denez, kontsumo esperimentalean nahiz azkenaldiko kontsumoan gorabeherak daude; horregatik, 2008an kontsumoan igoera izan zen 2006arekin alderatuta, eta 2010ean berriz ere behera egin du kontsumoak.


239. grafikoa. Estasiaren erabilera esperimentalaren eta azkenaldiko erabilerearen bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera EAEn 1992-2010 (%)



Biztanleria osoaren eta gazteen kasuan ez ezik sexuaren arabera ere ikusten diren prebalentziez gain, 2010eko estasi-kontsumoaren profila eta denboran zehar izan dituen joerak ikusteko beste modu bat kontsumitzaileak adinen edo generoaren arabera banatuta azterketa egitea da. Estasiaren kasuan, droga hori noizbait kontsumitu dutenen % 63,1ek 30 urte baino gehiago ditu, eta soilik % 1,2k 20 urte baino gutxiago ditu. Gainerako substantzietan gertatzen den bezala, 30 urtetik gorako adin-tarteak azken urte hauetan gora egiten jarraitu du proportzioan kontsumo esperimentalaren kontsumoari dagokionez, eta proportzioa alderantzikatu egin da. Hau da, 30 urtetik gorako kontsumitzaile gehiago dago adin horretatik beherakoak baino.


□

240. grafikoa. Estasiaren kontsumitzaile esperimentalen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010 (%)



Profil hori aldatu egiten da azken urte honetan izandako estasi-kontsumoa aztertzen denean. Kontsumo esperimentalean ikusten da adin gehiagoko kontsumitzaileen garrantzia igo egin dela aurreko urteekin alderatzen badugu, baina azken urteko kontsumoa batez ere gazteen artean ikusten da. 30 urtetik beherako estasi-kontsumitzaile gazteen proportzioa aurreko urteetan baino handiagoa da, eta % 65etik gorako balioetaraino iristen da. Azkenik, esan behar da kontsumitzaileen % 7,5ek 15-19 urte dituela, eta datu hori oso kontuan hartu beharrekoa da. Era berean, profila aldatu egiten da generoari dagokionez. Estasiaren azkenaldiko kontsumoa batez ere gizonen kontsumoa da; izan ere, arestian esan dugunez, inkestan ez da azaltzen azkenaldiko kontsumoaren kasurik emakumeen artean (1994an ere hori gertatzen zen).

241. grafikoa. Estasiaren azkenaldiko kontsumitzaileen banaketaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 1992-2010(%)



Estasia kontsumitzen hasteko batez besteko adina 19,9 da, eta kasu honetan ez dago ia alderik gizonen eta emakumeen artean. Aztertutako legez kanpoko beste gai batzuen kasuan ikusi dugun moduan, galdetutako pertsonen adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiago da


kontsumitzen hasteko adierazi duten adina ere. 15-24 urtekoak oso goiz hasi ziren kontsumitzen 2010ean 25 urte baino gehiago dituztenekin alderatzen baditugu, azken horiek 19 urte baino gehiago dituztenean hasi baitira kontsumitzen.

54. taula. Estasia kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera

Generoa		Adina						GUZTIRA 15-74	GUZTIRA 15-34
Gizona	Emakumea	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54		
19,9	20,0	17,0	17,6	19,9	19,7	21,0	23,0	19,9	19,0


Estasia kontsumitzen hasteko adinean epe luzera izan den bilakaerari dagokionez, ikusten da nolabaiteko igoera dagoela 15-19 urteko gazteen artean, horiek kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14,8 izatetik 17 urte izatera igaro baita 2000-2010 aldian.

242. grafikoa. Estasia kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera adin-tarteen arabera (%)



Dena den, 2010ean, estasia noizbait kontsumitu dutenen % 44k 18 urte bete aurretik egin du (anfetaminen kasuan, esaterako, zifra % 38 da). Horretaz gain, estasia noizbait kontsumitu izan dutenen artean 16 urte baino gutxiago zituztenean kontsumitzen hasi zirenen proportzioa 2008an % 2,2 izatetik 2010ean % 9,9 izatera igaro da.


243. grafikoa. Estasi-kontsumitzaileen hasitako adin-tarteen arabera banaketaren bilakaera (1994-2010)



2.3.2. Kontsumo-maiztasunak

Estasiaren kontsumoa, beharbada, orain arte aztertutako legez kanpoko gainerako substantzien kontsumoa baino noizbehinkakoagoa da. Biztanleriaren ehuneko oso txiki batek (% 0,3) kontsumitu du substantzia hori ehun alditan baino gehiagotan bere bizitzan; horrek esan nahi du substantzia hori noizbait kontsumitu dutenen kopurua % 12 dela. Gehienek, % 59k, hamar alditan baino gutxiagotan kontsumitu du.

244. grafikoa. Biztanleriaren banaketa bizitza osoan estasia kontsumitutako aldien arabera (%)



Litekeena da lehenengo harremanetik aurrera igaro den denbora dela-eta kontsumitutako aldi kopurua igo izana, baina aurreko urteko kontsumo-maiztasuna ere txikia denez, egiaztatzen da kontsumo hori noizbehinka gauzatzen dela, gainerako substantzien kasuan bezala. Estasia kontsumitzen dutenen artetik, % 13k hilean behin kontsumitzen du, % 35,5ek urtean 6 egunetik 11 egunera bitarte, eta 51,5ek urtean behin edo bost aldiz gehienez ere. Ez dago astero kontsumitzen dutenik.


55. taula. Estasiaren kontsumoaren maiztasuna azken urtean, biztanleria osoari dagokienez (%)



	Kontsumitzaile guztien gainean (% bertikalak)	Biztanleria osoaren gainean (% horizontalak)
4-6 egun astean	0,0	0,0
1-3 egun astean	0,0	0,0
1-3 egun hilean	13,0	0,0
6-11 egun urtean	35,5	0,1
1-5 egun urtean	51,5	0,2
Guztira	100,0	0,3


Arestian esan dugunez, estasia da aztertutako legez kanpoko droga nagusia, kontsumitzaileen artean erabilera-maiztasun txikiena duena. Kontsumitzaileen % 15ek soilik kontsumitu du azken urte honetan astean behin gutxienez; kanabisaren kasuan, ordea, proportzio hori % 51ra iristen da.

245. grafikoa. Zenbait substantziaren azken urte honetako erabilera-maiztasuna gutxienez hilekoa eta gutxienez astekoa egiten duten kontsumitzaileen ehunekoa



Azkenik, bilakaeraren ikuspegitik, jakin behar da, halaber, estasiaren kontsumo handia igo den edo jaitsi den denboran. Kasu horretan, bilakaera oraindik handiagoa da 2010eko inkestan ez baita azaltzen azken urte honetan gutxienez asteko kontsumoa izan duen estasi-kontsumitzailearik (2006an, kontsumo horiek azken urtean egindako kontsumo guztien % 16 ziren).

246. grafikoa. Biztanleriaren %-aren eta azken urtean astean gutxienez behin estasia kontsumitu dutenen bilakaera. 2004-2010



2.3.3. Estasiaren kontsumoa EAEn, ikuspegi konparatuan oinarrituta

Zenbait drogaren –alderatzen baditugu, bereziki anfetaminarenak– kontsumo-tasak EAEn handiak izateaz gain, EAE tradizionalki bereizi izan da estasiaren edo bestelako sintesi-drogen kontsumoa txikia izan delako, kontsumoaren prebalentziak gure inguruneko beste herrialde batzuetakoak edo gainerako substantziei dagokienez EAerekin batera kontsumo-tasa handiak dituzten beste herrialde batzuetakoak baino zertxobait txikiagoak dira. Estasi-kontsumoari dagokionez EAEn izandako murrizketak –DTEBren arabera, Europako herrialde gehienetan ere murrizketa dagoen arren– sakondu eta areagotu egin ditu alde horiek. Izan ere, hurrengo taulan ikusten denez, legez kanpoko substantzia horretan soilik kontsumo-tasak –baita gazteen artean ere– EB osoan baino txikiagoak dira EAEn.


56. taula. Estasiaren kontsumo esperimental eta azkenaldikoa EAEn eta EBko zenbait herrialdetan, adin-taldean arabera (hainbat urte)

	Kontsumo esperimental	Azken kontsumoa
15-64		
EAE	2,3	0,4
EBko batez bestekoa	3,3	0,8
Txekiar Errepublika	9,6	3,7
Erresuma Batua	8,6	1,8
Irlanda	5,4	–
Polonia	1,2	0,1
15-34		
EAE	4,7	1,3
EBko batez bestekoa	5,8	1,7
Txekiar Errepublika	18,4	7,7
Erresuma Batua	13,8	3,9
Irlanda	9,0	–
Grezia	0,6	0,4
Suedia	–	0,2

Iturria: DTEB eta E&D010.

Estasi-kontsumoak EAEn izan duen bilakaera Espainia osoan izan duenarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu beheranzko antzeko joera dagoela 2001etik aurrera Espainian eta 2004tik aurrera EAEn, azkenaldiko kontsumo-tasak, urte horretatik aurrera, txikiagoak izanik Euskal Autonomia Erkidegoan Estatu osoan baino.

247. grafikoa. Estasiaren azkenaldiko erabileraren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari dagozkio eta bakoitiak Estatuakoari. Espainian ez dago 2008ko datuak. EAEko datuak 15-74 urteko biztanleriari buruzkoak dira; Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleriari buruzkoak dira.

2.4. Substantzia haluzinogenoak: LSD, ketamina, perretxikoak eta arnasteko substantziak

□

2.4.1. Substantzia haluzinogenoak kontsumoaren prebalentziak

Atal honetan nerbio-sistemaren eginkizunak pertzepzio-, zentzumen- eta pentsamendu-arloan hondatzen dituzten ondorio haluzinogenoak dituzten drogak aztertuko dira. Merkatuan dauden guztien artetik gure ingurune soziokulturalean erabilera oinarritu samarra dutenak soilik aztertu ditugu: LSDa edo azido lisergikoa, arnasteko substantziak (kolak eta abar) perretxiko haluzinogenoak –kalean *mongi* gisa dira ezagunak– eta ketamina.


Hurrengo taulan ikusten denez, atal honetan bildu diren substantziek erabilera-prebalentzia oso txikia dute, LSDa izanik –biztanleriaren kontsumo esperimentalaren tasa % 3,6 da– hedatuena dagoena. Nolanahi ere, azkenaldiko kontsumoa aztertzen denean, lau substantzia horietako bakar batek ere ez du guztizko biztanleriaren % 1 gainditzen.

57. taula. Substantzia haluzinogenoen kontsumo esperimentala, azkenaldikoa eta egungoa EAEn, 2010 (%)

	Kontsumo esperimental	Azkenaldiko kontsumoa	Eguno kontsumoa
LSDa	3,6	0,5	0,3
<i>Mongiak</i>	2,3	0,3	0,1
Arnastekoak	0,4	0,1	0,0
Ketamina	0,7	0,2	0,1


Hurrengo grafikoetan ikusten denez, LSDaren kontsumoa batez ere gazteen artean dago. Ildo horretatik, nabarmendu behar da 15-34 urteko gazteen % 5,9k probatu duela substantzia hori; horrek esan nahi du, beraz, kontsumo esperimentalaren tasa estasiarena baino handiagoa dela, esaterako, tasa hori % 4,7 baita. 20-24 urteetan, LSDa kontsumitu dutenen ehunekoak % 8,4raino igo da; erdiek azken urtean kontsumitu dute edo kontsumitzen jarraitu dute, eta gutxi gorabehera laurden batek azken hilabeteetan. Biztanleriari dagokionez, esan daiteke bederatzi mila lagunek baino zertxobait gehiagok kontsumitu dutela LSDa azken urte honetan, eta 4.500 lagunek kontsumitu dutela azken hilabeteetan. Genero-aldean ikuspegitik, nabarmena da gizonen artean kontsumoa handiagoa dela emakumeen artean baino.

248. grafikoa. LSDaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa (%)




Bestalde, kontsumo esperimental adin-tarteen arabera aztertzerakoan, ikusten da LSDa % 7,1ek kontsumitu duela bizitzako uneren batean 30-34 urtekoen artean, eta % 6,3k elkarrizketatutako 35-44 urtekoen artean. Egia esan, eta txosten honetan aztertu diren bestelako drogen kasuan ez bezala, LSDa duela hamarkada asko azaldu zen gure kulturaren, eta adin gehiagoko biztanleria harremanetan zegoen substantzia horrekin *Euskadi eta Drogak* txostena egiten hasi zirenean, nahiz eta proportzioak oso txikiak ziren biztanleria orokorrarekin alderatuta.

249. grafikoa. LSDaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa, adin-tarteen arabera (%)




Bestelako substantzia haluzinogenoei dagokienez, LSDaren ondoren gehien kontsumitzen den substantzia perretxiko haluzinogenoak dira. 2010ean, *mongiak* edo perretxiko haluzinogenoak biztanleriaren % 2,3k kontsumitu ditu, eta tasak % 4,9ra iristen dira 15-34 urteko gazteen artean. Biztanleria orokorraren kasuan ia ez dago azkenaldiko kontsumorik eta ez da % 1era iristen gazteen artean; horrek agerian jartzen du, beraz, substantzia hori oso gutxi sartu dela oraindik legez kanpoko drogak gehien kontsumitzen dituztenen artean. Legez kanpoko gainerako substantzien kasuan bezala, *mongien* edo perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimental ia % 50 txikiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Era berean, emakumeei dagokienez azkenaldiko kontsumoa gutxienekoa da.

250. grafikoa. Perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)




251. grafikoa. Perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimental, azkenaldikoa eta egungoa, adin-tarteen arabera (%)



LSDaren eta perretxiko haluzinogenoen kontsumoak sexuaren eta adin-tarteen arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu kontsumo esperimentalaren tasak handiak direla 20-44 urteko ia adin-tarte guztietan gizonen artean, tasa horiek bereziki handiak baitira 20-24 urtekoetan. Emakumeen kasuan, kontsumo esperimental gizonen kontsumotik hurbilago dagoela ematen du perretxiko haluzinogenoen kasuan, baina bi kasuetan adinen arabera bilakaera antzeko samarra da.


252. grafikoa. Gizonen eta emakumeen arteko aldeak LSDaren eta perretxiko haluzinogenoen kontsumo esperimentalari dagokionez, adin-tartearen arabera (%)



2.4.2. Bilakaera-datuak. LSDaren kontsumoetan egonkortasuna



LSDaren kontsumo esperimentalaren bilakaerak agerian jartzen du nolabaiteko egonkortasuna dagoela azken lau urte hauetan, 2004-2006 aldian izandako jaitsiera handiaren ondoren. Azkenaldiko eta egungo kontsumoari dagokionez, aitzitik, ikusten da azken bi urte hauetan nolabaiteko igoera izan dela, baina biztanleria orokorraren gutxieneko marjinen barruan.

253. grafikoa. LSDaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera (%)




Hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, LSDaren kontsumo esperimentalak jaitsi egin da 2010ean adin guztietan eta bereziki gizonen artean, gizonen kontsumo-tasak emakumeenak baino handiagoak baitziren, baina orain hurbiltzen ari dira. Azken urteko kontsumoari dagokionez, 15-34 urteko gazteen artean kontsumoa nabarmen jaitsi zen 2008an, baina berriz ere zertxobait gora egin du 2010ean. Biztanleria orokorraren kasuan ere azkenaldiko kontsumoak 2008ko kontsumoen antzekoak dira gizonen nahiz emakumeen artean.

254. grafikoa. LSDaren azkenaldiko erabilerearen eta erabilera esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)




LSDaren kontsumitzaile esperimentalen banaketaren bilakaeraren ikuspegitik, esan dezakegu 35 urtetik gorako kontsumitzaile horien kopurua hazi egin dela –bestelako substantziekin gertatzen den bezala, eta arestian esan dugunez, substantzia hori orain dela denbora dezente sartu zelako gure ingurunean– eta, aitzitik, emakumeen partaidetzari egonkor samar eusten zaiola, gorabehera batzuk dauden arren, % 30 ingurukoa izanik.

255. grafikoa. LSDaren erabilera esperimentalaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)



LSDak Euskadin izan duen bilakaerari buruzko datu horiek Estatu osoko datuekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu Estatu mailan patroia zertxobait egonkorragoa dela eta biztanleria orokorrari dagokionez azkenaldiko kontsumo-tasa ia berdina dela.

256. grafikoa. Substantzia haluzinogenoen azkenaldiko erabilaren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari dagozkie eta bakoitiak Estatuakoari. Espainian ez dago 2008ko datuak. EAEko datuak 15-74 urteko biztanleriari buruzkoak dira; Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleriari buruzkoak dira.

Bestelako substantzia haluzinogenoen (adibidez, arnastekoak, *mongiak* eta ketamina) bilakaerari dagokionez, esan dezakegu murrizketa garrantzitsuak daudela kontsumo esperimentalaren tasetan, betiere inkestaren errore-marjina eta estatistika-eragiketa mota honek hain kontsumo minoritarioak behar bezala identifikatzeko dituen zailtasunak kontuan hartuta.

58. taula. Arnastekoaren, perretxiko haluzinogenoen eta ketaminaren erabilera esperimentalaren, azkenaldikoaren eta egungoaren bilakaera (%)

Kontsumoa bizitza osoan	1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010

Arnastekoak	0,5	0,1	0,4	1,1	--	0,9	1,3	0,4	1,3	0,4
<i>Mongiak</i>	--	--	--	--	--	2,3	4,8	3,7	4,2	2,3
Ketamina	--	--	--	--	--	0,6	0,7	0,8	1,1	0,7
Kontsumoa urtean										
Arnastekoak	0,1	0,0	0,0	--	--	0,1	0,1	0,0	0,4	0,1
<i>Mongiak</i>	--	--	--	--	--	--	1,0	0,5	0,4	0,3
Ketamina	--	--	--	--	--	--	0,3	0,1	0,2	0,2
Kontsumoa hilabetean										
Arnastekoak	0,1	0,0	0,0	0,0	--	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0
<i>Mongiak</i>	--	--	--	--	--	--	0,2	0,1	0,1	0,1
Ketamina	--	--	--	--	--	--	0,2	0,1	0,1	0,1

2.4.3. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina

LSDa kontsumitzen hasten diren batez besteko adina (19,2 urte) eta *mongiak* kontsumitzen hasten direneko adina bera da. Kontsumitzen duten gizonen artean, kontsumitzen hasten diren adina perretxiko haluzinogenoak kontsumitzen hasten diren adina baino urte bat gutxiago da, alde hori ez da emakumeen kasuan ikusten. Kontsumitzen hasteko adinean ere gorabeherak daude biztanleria-taldeetan adin-tarteen arabera: kontsumitzen hasteko adina jaitsi egiten da 20-24 urteko gazteen kasuan, 17,2 urte dituztela hasten baitira LSDaren kasuan, eta 18,8 urte dituztela perretxiko haluzinogenoen kasuan.

59. taula. LSDa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)


Generoa		Adina							
Gizona	Emakumea	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA A 15-74	GUZTIRA 15-34
19,0	19,7	17,2	19,2	19,5	22,5	---	--	19,2	18,5

60. taula. Perretxiko haluzinogenoak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)

Generoa		Adina							
Gizona	Emakumea	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA A 15-74	GUZTIRA 15-34
21,2	19,4	18,8	19,7	22,8	20,00	---	--	19,2	18,5

Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, eta arreta LSDaren kontsumoan soilik jarrita, esan dezakegu 2006. urtetik aurrera egonkortu egin dela 18 urte izan aurretik kontsumitzen hasi zirenen ehunekoa, % 50 inguru.

257. grafikoa. LSDaren kontsumitzaileen banaketaren bilakaera hasitako adin-tarteen arabera (1994-2010)



2.4.4. LSDaren kontsumoaren maiztasuna

LSDa eta perretxiko haluzinogenoak kontsumitu dituzten guztien % 72k eta 87k, hurrenez hurren, hamar alditan baino gutxiagotan egin du bere bizitza osoan. Kapitulu honetan orain arte aztertu diren legez kanpoko droga guztien aldizkako kontsumoaren indize handienak dira, kokainaren, *speed*-aren eta estasiaren kasuan, substantzia bakoitza hamar alditan baino gutxiagotan kontsumitu dutenen ehunekoa % 51tik % 59ra bitartekoa baita. Era berean, kontsumitzaileen % 4,4k soilik kontsumitu du LSDa 100 alditan baino gehiagotan bere bizitzan, baina gainerako substantzietan dagokienez zifra % 13 da gutxi gorabehera. Substantzia haluzinogenoen kontsumoa, beraz, legez kanpoko gainerako substantzien kontsumoa (aldizka kontsumitzen dira) baino noizbehinkakoagoa eta aldizkakoagoa da.

61. taula. Bizitza osoan LSDa eta perretxiko haluzinogenoak kontsumitu diren aldiak (%)

LSDa	Ez du inoiz kontsumitu	10 aldiz baino gutxiago	11-50 aldiz	51-100 aldiz	101 aldiz baino gehiago
Biztanleria osoa	% 96,4	2,6	0,6	0,2	0,1
Kontsumitzaileak		72,4	11,4	4,8	4,4
Perretxiko haluzinogenoak	Ez du inoiz kontsumitu	10 aldiz baino gutxiago	11-50 aldiz	51-100 aldiz	101 aldiz baino gehiago
Biztanleria osoa	97,7	2,0	0,2	0,0	0,1
Kontsumitzaileak		87,0	7,2	3,4	0,0

LSDaren eta perretxiko haluzinogenoen azken urteko (kontsumo errealean intentsitatearen benetako termometroa) kontsumoaren maiztasunari dagokionez, ikusten da perretxikoen kontsumoa guztiz noizbehinkakoa dela: kontsumitzaileen erdiek behin edo gehienez ere bost alditan erabili dute substantzia hori urtean, eta beste erdiek, hilean behin gehienez ere. LSDaren kasuan, noizbehinkakotasuna zertxobait txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, substantzia hori gutxienez astero kontsumitzen dutenen zifra % 6,7 da, kokaina eta anfetaminak kontsumitzen dituztenenaren oso antzekoa.


62. taula. LSDa eta perretxiko haluzinogenoak azken urtean kontsumitu diren aldiak (%)

	LSDa		Perretxiko haluzinogenoak	
	Biztanleria osoaren gainean (% b)	Kontsumitzaile guztien gainean (% h)	Biztanleria osoaren gainean (% b)	Kontsumitzaile guztien gainean (% h)
1-3 egun hilean	0,1	20,1	0,0	0,0
6-11 egun urtean	0,1	26,7	0,1	50,2
1-5 egun urtean	0,3	46,5	0,1	49,8
Guztira	0,5	100	0,2	100

2.4.5. LSDaren EAEko kontsumoa nazioartean

LSDaren kontsumoa, orokorrean, Europako beste herrialde batzuetakoa baino handiagoa da Euskadin. Aurreko orrietan esan denez, Txekiar Errepublikan eta Erresuma Batuan soilik gairitzen dira EAEen 2010ean dauden kontsumo esperimentalaren tasak. Azkenaldiko kontsumoari dagokionez, EAEko tasak Europako herrialde gehienetan ikusten diren tasak baino handiagoak dira, Bulgariakoak, Eskoziakoak eta Ziprekoak izan ezik.


258. grafikoa. Europako hainbat herrialdeetako LSDaren kontsumo esperimentalaren eta azkenaldikoaren prebalentzia biztanleria osoari dagokionez (%)



Iturria: EMCDDA, Estatistika Buletina, 2010 eta E&D010.

Gazteen kontsumoa aztertzen badugu, ikusiko dugu DTEBren datuek erakusten dutela 15-34 urtekoen artean azkenaldiko kontsumo-tasak % 0tik % 6,1era bitartekoak direla, Txekiar Errepublikan (herrialde horretan 2008an egin zen inkestaren arabera tasak % 10,3 ziren) eta Eskozian izan ezik. Biztanleria horri dagokionez, 2010ean prebalentzia % 5,9 zenez, esan daiteke LSDaren kontsumoa gazteen artean Euskadin Europako handienetako bat dela.

259. grafikoa. LSDaren kontsumo esperimentalaren prebalentzia Europako zenbait herrialdetan 15-34 urteko biztanleriari dagokionez (%)



Iturria: EMCDDA, Estatistika Buletina, 2010 eta E&D010.

Adin-tarte horren azkenaldiko kontsumoari dagokionez, EAE (% 1,3ko prebalentziarekin) Txekiar Errepublikaren (% 4,3) azpitik dago eta Eskoziako tasetatik hurbil (% 1,2). Europako gainerako herrialdeetan, gazteen azkenaldiko kontsumo-tasak Euskadin 2010ean bildu zirenak baino txikiagoak dira. Eta amaitzeko, perretxiko haluzinogenoei dagokionez, DTEBk adierazi du droga horien prebalentzia LSDarena baino handiagoa dela. Heldu gazteen artean, Europako behatokiaren arabera, erabilera esperimentalaren prebalentziari buruzko kalkuluak % 0,3tik % 14,1era bitartekoak dira, eta azkenaldiko kontsumoari buruzkoak % 0,2tik % 5,9ra bitartekoak. EAEn, arestian esan dugunez, kontsumo horiek 2010ean % 4,9 eta % 0,8 dira.

2.5. Heroina eta beste opiazeo batzuk


2.5.1. Kontsumoaren prebalentzia

Txosten honetan askotan adierazi dugu etxez etxeko inkesta mota honek, biztanleria osoarentzat denak, zailtasun handiak dituela substantzia jakin batzuen (heroina, esaterako) kontsumoa identifikatzerakoan. Egia esan, badaude beste adierazle –substantziak konfiskatzekoak, tratamendua eskatzekoak, balio txikiko baliabideak erabiltzekoak eta abar– eta metodologia batzuk –alerta bizkorreko sistemak, esaterako– kontsumo mota hori zehaztasun handiagoz behatzea ahalbidetzen dutenak. Hala eta guztiz ere, Euskadi eta Drogak seriearen hasieratik, txosten horiek egiteko komenigarritzat hartu dugu inkestatuei substantzia horren kontsumo esperimentalari, azkenaldikoari edo egungoari buruz galdetzea; izan ere, emaitza puntualak esanguratsuak edo interesgarriak ez diren arren, inkesta honek ezartzen dituen joerak esanguratsuak eta interesgarriak izango dira substantzia honentzat ere.

Inkestako datuen arabera, biztanleriaren % 0,5ek, hau da, 8.500 pertsonak kontsumitu du noizbait bere bizitzan heroina edo beste opiazeo batzuk. Horretaz gain, biztanleriaren % 0,1ek (2.000 pertsona inguru) heroina kontsumitu zuen inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Datu horietako gauzarik nabarmenena da kontsumo esperimentalaren kasuan prebalentzia-tasa


biztanleria orokorrean gazteen artean baino handiagoa dela, baina azkenaldiko kontsumoaren kasuan tasa handiagoa da gazteen artean zaharragoen artean baino (% 0,3 eta % 0,1, hurrenez hurren).

260. grafikoa. Heroinaren azkenaldiko kontsumoa eta kontsumo esperimentalak (%)




Adinaren arabera, grafikoa ikus dezakegu kontsumo esperimentalak eta azkenaldiko kontsumoa ia soilik 30-45 urtekoetan dagoela, gainerako kasuetan ia ez baitago atzemandako kontsumo-kasurik.

261. grafikoa. Heroinaren kontsumo esperimentalak eta azkenaldikoa, adin-tartean arabera (%)




Bilakaeraren ikuspegitik, esan behar da heroinaren kontsumo esperimentalaren tasak gorabehera gutxi izan dituela Euskadi eta Drogak txostenetan, ehunekoei ia egonkor eutsi baitzaie biztanleriaren % 0,8tik % 1era bitarte. Hala eta guztiz ere, ikusten da beheranzko bi joera daudela: bata 2000n, beren bizitzan heroina noizbait kontsumitu zutenen ehunkoa aurreko urtekoaren erdira murriztu zenean, eta beste bat 2010ean, kontsumo esperimentalaren tasak berriz ere aurreko urtekoaren erdira murriztu direnean.

262. grafikoa. Heroinaren erabilera esperimentalaren bilakaera 1992-2010 aldian (%)



Heroinaren kontsumo esperimentalak izandako bilakaera antzeko denboraldian Estatu osoan izan den bilakaerarekin alderatzen badugu, ikus daiteke EAEen egindako inkestan antzeko joera dagoela, kontsumoaren egonkortasuna eta tasa txikiak nagusi direla, baina esan daiteke inkestan atzemandako prebalentziak zertxobait txikiagoak direla Euskal Autonomia Erkidegoan.

263. grafikoa. Heroinaren erabilera esperimentalaren prebalentziaren bilakaera Estatu espainolean eta EAEn



Iturria: EDADES 2009/2010 eta E&D2010. Urte bikoitiak Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari dagozkio eta bakoitiak Estatuakoari. Espainian ez dago 2008ko daturik. EAEko datuak 15-74 urteko biztanleriari buruzkoak dira; Estatu espainolekoak, aldiz, 15-64 urteko biztanleriari buruzkoak dira.

Euskadi eta Drogak txosteneko datuak kontuan hartzen baditugu, ezin dugu esan jaitsiera dagoenik kontsumoaren prebalentzietan. Drogei buruzko Plan Nazionalak egindako EDADES txostenean ere ez da azaltzen jaitsiera hori Estatu espainolean, baina aipatzen da jaitsiera txiki bat dagoela nazioartean. Nolanahi ere, DTEBn ez dira jaitsierak²⁷ aipatzen, opiazeoen kontsumoaren adierazleei dagokienez 2003an izandako beheranzko joera egonkortu egin dela baizik.

2.6. Legez kanpoko drogen kontsumo problematikoak

DTEBren arabera, drogen kontsumo problematikoak (DKP) honela definitzen da: opiazeoak, kokaina eta/edo anfetaminak ohiko moduan edo epe luzean kontsumitzea edo gurasoen bitartez kontsumitzea. Txosten honen esparruan, eta galdesortaren bitartez lortu ditugun datuen arabera, drogen kontsumo problematikoak honela definitu da: bizitza osoan 100 alditan baino gehiagotan eta azken urtean astero egun batean baino gehiagotan kokaina, basea, anfetamina, estasia edo heroina kontsumitu izana. Hortaz, aurreko txostenetan bezalaxe, alde batera utzi dira kanabisa eta errezetarik gabeko psikofarmakoak, baita substantziak hartzeko modua ere, inkesta honek azken bi multzotan soilik jasotzen baititu, eta substantzia mota horietan eta erabilera-maiztasunean oinarritzen da.

E&D2010 txostenetik ateratako datuen arabera, eta aipatutako definizioaren arabera, euskal biztanleriaren % 0,2 –lau mila pertsona inguru– drogen kontsumitzaile problematikotzat har daiteke. Kontsumo hori gizonen artean ikusten da batez ere –inkestan ez da azaltzen kontsumo mota hori gazteen artean– eta prebalentzia-tasak bereziki handiak dira 20-34 urtekoetan. Helduen artean (35-54) drogen kontsumo-patroi horren prebalentzia orokorraren antzekoa da, baina talde horretan biltzen dira kontsumitzaile problematiko guztien ia % 40.


²⁷ DTEBren arabera, azken urte hauetan areagotu egin da konfiskazio kopurua, ez, ordea, konfiskatutako zenbatekoen eta substantzia horrekin lotutako delituen kopurua; era berean, substantzia horren erabilerak atzeman dira gazteen zenbait kontzentziora joaten direnen eta gizarteratuta daudenen artean.

63. taula. Drogen kontsumo problematikoaren prebalentzia sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)

	Biztanleria osoaren gainean (%)	Kontsumitzaile guztien gainean (%)
Gizona	0,3	100,0
Emakumea	0,0	0,0
< 20 urte	0,0	0,0
20-34 urte	1,3	61,1
35-54 urte	0,3	38,9
>54 urte	0,0	0,0
Guztira	0,2	100,0


Bilakaeraren ikuspegitik, eta ezaugarri horietako adierazlea etxez etxeko inkestaren bitartez aztertzeko izan behar den kontu guztiarekin, esan daiteke EAE 90eko hamarkadako mailetara itzuli dela kontsumo mota horri dagokionez, 2002-2004 aldian izandako igoeraren ondoren. 2004-2006 aldian izandako jaitsiera handia, nolahi ere, badirudi egonkortu egin dela.

264. grafikoa. Legez kanpoko drogen (kanabisa eta psikofarmakoak izan ezik) kontsumo problematikoaren bilakaera biztanleria osoari dagokionez (%)



Konparazioaren ikuspegitik, kontuan eduki behar da, nahitaez, kontsumo problematikoaren definizioak oso konplexuak direla eta herrialde bakoitzak definizio eta irizpide desberdinak aplikatzen dituela kontsumo hori neurtzeko. Kasu gehienetan, informazioa tratamendu-datuen eta zerbitzuen erabileraren bitartez lortzen da, ez, ordea, inkestako datuen bitartez. Hala eta guztiz ere, Euskadi eta Drogak txostenak eskaintzen dituen datuak bat datoz gutxi gorabehera Estatu osoko datuekin (dena den, kasu horretan opiazeoen erabilera problematikoa soilik aipatzen da), eta datu horiek, orokorrean, gure ingurune herrialdeetako datuak baino txikiagoak dira.

265. grafikoa. Drogen erabilera problematikoaren prebalentzia EAEn eta EBko zenbait herrialdetan (%)



Iturria: EMCDDA, Estatistika Buletina, 2010 eta E&D010.

Arestian esan dugunez, Euskadi eta Drogak txosteneko datuei esker, xiringa bidez hartzen diren drogen erabilera esperimentalaren eta azkenaldikoaren prebalentzia azter daiteke 2008. eta 2010. urteetarako. Dena den, arestian esan dugunez, biztanleria osoarentzat den etxez etxe inkesta mota honek ez ditu behar bezala identifikatzen kontsumo guztiak eta, gainera, inkestaren errore-marjinaren eragin handia dute. Hori gorabehera, interesgarria da heroinaren, kokainaren edo bestelako legez kanpoko drogen erabilera injektatuaren prebalentzia gure ingurunean biltzea, eta 2008az geroztik zenbat aldatu den balioestea.

E&D2010 datuen arabera, bizitza osoan izandako zainen bidezko erabileraren prebalentzia % 0,3 da, 2008an, aldiz, % 0,9 izan zen. Era berean, azkenaldiko erabileraren prebalentzia murriztu egin da, baina kasu honetan neurri txikiagoan.

64. taula. Drogen kontsumo problematikoaren prebalentzia sexuaren eta adin-tarteen arabera (%)

	2008	2010
%		
Esperimentala	0,9	0,3
Azkenaldikoa	0,2	0,1
Absolutuak	2008	2010
Esperimentala	14.506	4.191
Azkenaldikoa	3.556	1.916

VII. KAPITULUA
IRITZI PUBLIKOA

1. DROGA KONTSUMOARI ETA KONTSUMOAREN ARRISKUEI BURUZKO GIZARTE PERTZEPZIOA

1.1. Hainbat drogarri egotzitako larritasunaren pertzepzioa

Aurreko kapituluetan egiaztatu ahal izan dugu, izandako jaitsierak gorabehera, droga-kontsumoaren tasak oraindik ere handiak direla EAEn txosten honetan aztertutako substantzia askori dagokionez. Kontsumo-maila handi horiekin bat etorriz, droga horien larritasunari eta horien kontsumoaren arriskuei buruzko gizarte-pertzepzioa ere handia da substantzia mota guztiei dagokienez, substantzia horien artean aldeak badaude ere, eta ezin da esan, orokorrean, behera egin dutenik. Epigrafe honetan herritarrek hainbat substantziaren –alkohola, tabakoa, kanabisa, eta legez kanpoko gainerako drogak– kontsumoari dagokionez herritarrek duten pertzepzioa aztertzen da, lehendabizi biztanleria osoa kontuan hartuta eta, ondoren, hiru aldagairen arabera: adina, sexua eta aztertutako substantzia bakoitzaren kontsumo-maila.

Euskadi eta Drogak 2010 izeneko txostena egiteko inkestatu direnen % 74,4k –hots, 1.245.698 pertsonak– uste du kanabisa ez den legez kanpoko bestelako drogen kontsumoa larri samarra edo oso larria dela Euskadin²⁸. Kapitulu honetan zehaztasun handiagoz ikusiko dugunez, iritzi publikoak gogoeta desberdina egiten du kanabisari buruz, nahiz eta kanabisa ere legez kanpoko droga izan. Euskadiko biztanleriaren % 67,9aren ustez kanabisaren kontsumoa larri samarra edo oso larria da. Horren atzetik legezko drogak daude: tabakoa (% 63,4) eta alkohola (% 56,5), droga horri buruz iritzi publikoak duen pertzepzioa larritasun txikiagokoa da oraindik ere. Inkestatuen % 9aren aburuz, alkoholaren kontsumoak ez du inolako larritasunik; datu hori kezkarria da kontuan hartzen badugu, literatura zientifikoaren arabera, alkoholaren arriskugarritasuna legez kanpoko zenbait drogarena baino handiagoa dela²⁹.

266. grafikoa. EAEn hainbat drogaren kontsumoari egotzitako larritasuna (%)


²⁸ Galdesortan galdetzen zen, zehazki, substantzia bakoitzaren kontsumoa batere larria ez, larritasun txikikoa, larri samarra edo oso larria ote zen.

²⁹ Nutt, D. J. eta L. A. King, 'Drug harms in the UK: A multicriteria decision analysis', *The Lancet*, 376. zk., 2010, 1.558-1.565 or.; Roques, B., *La dangerosité des drogues*, Editions Odile Jacob, Paris, 1999.



Zenbait drogaren kontsumoaren larritasunari buruzko pertzepzioan inkestatuen sexuak eragiten du argi eta garbi. Gizonekin alderatuta, emakume gehiagok uste du kontsumoa larri samarra edo oso larria dela droga mota guztietan, eta aldeak bereziki esanguratsuak dira tabakoari, kanabisari eta alkoholari dagokionez; horri dagokionez substantzia horietan xehetasunak emateko aukerak handiagoak baitira. Aitzitik, legez kanpoko drogen kontsumoaren larritasunari buruzko pertzepzioan –kanabisaren kasuan izan ezik– ez da ikusten alde handirik dagoenik inkestatuen sexuaren arabera.

267. grafikoa. Hainbat drogaren kontsumoari egotzitako larritasuna, sexuaren arabera (%)




Kontsumoaren larritasunari buruzko pertzepzioa biztanleriaren adina kontuan hartuta aztertzen badugu, ikus daiteke substantzia guztien kontsumoari egotzen zaion larritasuna igo egiten dela pertsonak heltzen diren neurrian. Legez kanpoko drogei dagokienez, adin-talde guztietan, hamar pertsonatik zazpi baino gehiagok uste du droga horien kontsumoa larri samarra edo oso larria dela; adin gehiagoko taldeetan, larritasunari buruzko pertzepzioan igoera badago ere, nabarmen igotzen da galderari ez erantzutea erabakitzen dutenen ehunekoa, beharbada ez dakitelako zein diren legezko kanpoko drogen ondorioak, droga horiekin inolako harremanik izan ez dutelako.

Arestian esan dugunez, kanabisaren larritasunari buruzko pertzepzioa txikiagoa da legez kanpoko bestelako drogen kasuan, substantzia horrek EAEko biztanleriaren artean duen irudi positiboagoarekin bat etorritik. Nolanahi ere, desberdintasun garbia dago adin-talde desberdinetakoek egiten duten balorazioari buruzko ikuspegitik: 44 urtera iritsi bitarte, kanabisaren kontsumoa, gehienez ere larri samarra dela uste dutenen zifra % 30 inguru dago, baina adin horretatik aurrera % 20ra jaisten da, eta 55 urtetik aurrera ia % 10era³⁰. Aldaketak pixkanakakoagoak badira ere, gauza bera gertatzen da alkoholaren larritasunari buruzko pertzepzioari dagokionez: 15-24 urteko gazteen erdiek baino gehiagok uste dute edari alkoholduen ondorio negatiboei buruzko kezka igo egiten da pixkanaka adinak aurrera egiten duen neurrian, % 71ra iritsi arte helduenen kasuan. Tabakoari dagokionez, ez da alde esanguratsurik ikusten adin gehieneko taldera iritsi arte, talde horretan ikusten baita kezkarik handiena substantzia horren kontsumoaren larritasunari dagokionez.

268. grafikoa. Hainbat drogaren kontsumoari egotzitako larritasuna, adinaren arabera (%)

³⁰ Dena den, esanguratsua da ikustea 15-44 urtekoen artean, kanabisaren kontsumoa oso larria dela uste dutenen ehunekoa jaitsi egiten dela adinak aurrera egiten duen neurrian, eta 30-34 urtekoen artean izanik balio txikiena.



Kontsumitzailearen tipologia ere hertsiki lotuta dago kontsumoaren larritasunari buruzko pertzepzioarekin, modu desberdin batean bada ere substantzia motaren, eta, zehazkiago, legezko estatusaren arabera. Tabakoari eta alkoholari dagokionez, gutxien eta gehien kontsumitzen dutenak dira larritasun handiena atzematen dutenak: tabakoaren kasuan, ez-erretzaileak eta eguneroko erretzaile intentsiboak³¹, eta alkoholaren kasuan, abstentioak eta arriskuko edaleak. Hala eta guztiz ere, kanabisaren eta bestelako legez kanpoko drogen kontsumoaren larritasunari buruz galdetzen zaienean, substantzia horiek kontsumitzen hasi ez direnek uste dute egoera oso larria dela, substantzia horien azkenaldiko kontsumitzaileek edo ohiko kontsumitzaileek, ordea, ez dute problematikotzat hartzen. Kanabisaren kasuan, zehazki, kanabisa kontsumitzen hasi ez direnen hamarretik zazpik uste du kontsumo hori larri samarra edo oso larria dela; ohiko erretzaileen ustez, ordea, proportzio hori ez da % 50era iristen. Alde horiek hainbat eragilerengatik izan daitezke: legez kanpoko drogen kontsumoa noizbehinkakoa izatea orokorrean (horregatik, droga horren kontsumitzaile gehienek uste dute kontsumo hori ez dela hain larria), inoiz kontsumitu ez dutenak ez jakitea droga horiek benetan zer kalte eragiten dituzten, droga horien kontsumoak justifikatzeko premia oso arazo gutxi eragiten dituzten drogak direla esanez (nolanahi ere, legez kanpoko drogen kontsumitzaileei soilik eragingo lieke)... Ziurrenik, pentsa daiteke, legezko drogen kasuan –horien kontsumo errotuago dago kulturalki Euskadin– droga horiek eragiten dituzten ondorio eta kalteei buruz duen benetako ezagutzaren arabera ematen duela iritzia jendeak; aitzitik, legez kanpoko drogen kasuan droga horiek kontsumitzen ez dituztenek alde aurreko ideien eta substantzia horiei (ez

³¹ Honako hauek hartzen dira erretzaile intentsibotzat: egun bakoitzean gutxienez 20 zigarro erretzen dituztenak; eta alkoholaren kontsumitzaile intentsibotzat edo gehiegi edaten duen pertsonatzat: eguneroko 801 cc ardo (10^o-koa) edo gehiago edaten dutenak.. Era berean, honako hauek hartzen dira neurriko erretzailetzat: egun bakoitzean bost zigarro baino gehiago eta 20 baino gutxiago erretzen dituztenak; eta alkoholaren neurriko kontsumitzailetzat edo gutxi edaten duten pertsonatzat: eguneroko 301-800 cc ardo (10^o-koa) edaten dutenak.

legez kanpokoak izateagatik soilik, baita kultura-alorrean arraroak direlako ere) gehienetan egozten zaion irudiaren eragin handiagoa izan dezakete.

269. grafikoa. Zenbait drogaren larritasunaren pertzepzioa, kontsumitzailearen tipologiaen arabera (%)



1.2. Hainbat substantziaren kontsumoarekin loturiko arazoaren pertzepzioa


EAEko droga-kontsumoari buruz egindako inkestan inkestatzaileei eskatzen zitzaizkien hainbat substantziaren kontsumoarekin lotutako egoera batzuek eragin zitzaizkien osasun-arazoari edo beste mota bateko arazoari buruzko iritzia emateko. Arazo horiek hurrengo grafikoa ikus daitezke:³². Lortutako emaitzen arabera, esan daiteke kontsumoarekin lotutako arazoaren pertzepzioa batez ere droga motarekin dagoela lotuta, edo, zehatzago esateko, droga horren legezko estatusarekin, eta droga hori kontsumitzen deneko maiztasunarekin. Beraz, *Euskadi eta Drogak* 2008 txostenean adierazten zenez, egiaztatzen da biztanleria gai dela erabilera-patroi desberdinak eta askotariko substantziak eragin ditzaketaren arazoak bereizteko.

Izan ere, deigarria da egiaztatzea, urtetik urtera, hainbat kontsumo-patroiren arriskugarritasuna eskala bikoitza erabiliz ordenatzen duela biztanleriaren zati batek: lehena, legez kanpoko drogen (kanabisa ez diren beste droga batzuk) kontsumo handia; ondoren, droga horien noizbehinkako kontsumoa, ordena berberari jarraiki: heroina, haluzinogenoak, kokaina eta estasia. Larritasun handiena duten kontsumotzat hartzen diren kontsumo horien ondoren, legezko substantzien kontsumoa dago: lehendabizi tabakoa, eta, ondoren, alkohola, aldea oso

³² Zehazki, proposatutako egoera bakoitzean sor zitezkeen arazoari (osasun-arazoak edo beste mota batekoak) buruzko iritzia emateko eskatzen zitzaizkien inkestatuei.


txikia bada ere. Nolanahi ere, deigarria da ikustea kanabisaren kontsumo handia alkoholaren eta tabakoaren kontsumo handia baino larritasun gutxiagokotzat hartzen dela (dena den, pentsa daiteke kanabisaren kasuan kontsumo handitzat hartzen den patroia [gutxienez astean behin] tabako pakete bat erretzea edo egunero sei kaña edatea baino arinagoa dela). Dena den, lasaigarrien erabilera handia ere kanabisaren erabilera handia baino problematikoagotzat hartzen da, eta hori, herritarren balioespen hori errealitatera gehiago edo gutxiago egokitzen den kontuan izan gabe, kanabisaren kontsumoa gizartean normalizatzearen alde borroka egiten dutenen garaipen gisa har daiteke.

270. grafikoa. Hainbat kontsumo motari egotzitako arazoei buruzko pertzepzioa (%)




Galdera horri emandako erantzunak inkestatuen sexuaren arabera aztertzen badira, ikusiko dugu aldea oso esanguratsua dela. Emakumeek gizonen baino gehiago uste dute kontsumoak arazo dezente edo asko eragiten dituela azaldutako kasu guztietan, lo egiteko lasaigarriak edo pilulak gehienez ere hilean behin kontsumitzearen kasuan izan ezik. Salbuespen hori, ia seguru, emakumeek psikofarmako gehiago kontsumitzean oinarritzen da, substantzia mota horri buruzko kapituluari adierazi dugunez. Emakume gehienentzat (% 93,7), eguneroko tabako pakete bat kontsumitzeak dakartza arazo gehien; aitzitik, gizonen % 91,3aren arabera, heroinaren asteroko edo eguneroko kontsumoa da problematikoena. Izan ere, gizonen eta emakumeen pertzepzioen artean dauden alde handienak legezko substantzien eta/edo substantzia hedatuaren kontsumoari buruzkoak dira (lasaigarrien kasuan, emakumeen balioespena, arestian esan dugunez, txikiena da; kanabisaren, alkoholaren eta tabakoaren kasuan, generoaren arteko aldeak handiak dira, baina alderantziz).

271. grafikoa. Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, sexuaren arabera (%)



Orain arte, biztanleria guztiak hainbat droga-kontsumori buruz egiten duen balioespena aztertu da. Nolanahi ere, aztertu behar da, halaber, droga-kontsumitzaileek nola balioesten dituzten kontsumitzen dituzten substantziek eragiten dituzten arazoak, bereziki legez kanpoko drogen kasuan. Kasu horretan ere, legez kanpoko drogen erabilerari buruz bildu diren zenbait patroiren larritasuna ardatz berari jarraiki antolatzen da beti: larritasun-pertzepzio handiena legez kanpoko hainbat drogaren artean soilik kanabisa kontsumitzen duenei dagokie kasu guztietan; ondoren iraganean legez kanpoko bestelako drogen kontsumoak izan dituztenak daude, eta, azkenik, gaur egun kontsumitzen dituztenak daude. Dena dela, hiru kasuetan erabileraren patroiak ordena berari jarraiki antolatzen dira arriskugarritasun handieneko ardatzetik arriskugarritasun txikieneraino, heroinaren eta kokainaren ohiko kontsumoak izanik problematikoentzat hartzen direnak. Bestalde, esan behar da kanabisaren kontsumitzaileen eta legez kanpoko bestelako drogen egungo kontsumitzaileen artean dauden alde handienak estasiaren, kokainaren eta haluzinogenoen aldizkako kontsumoari dagokionez daudenak direla.

272. grafikoa. Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, kontsumo motaren arabera (%)



Euskadin egiten den balioespina eta Estatu osoan egiten dena desberdina al da? Alkoholari eta drogei buruz Espainian egin den etxex etxeko Inkestan (2009/2010 aldiko emaitza nagusiak orain dela gutxi argitaratu dira) ikusten denez, Estatu espainolean, 2007-2009 aldirian, behera egin du kontsumo esperimentalarekin lotutako arriskuaren pertzepzioak, eta igo egin da alkoholaren (5 edo 6 kopa) eta tabakoaren (pakete 1) eguneroko kontsumoari dagokionez. Datu horiek EAEko inkestan lortutakoekin alderatuta aztertzen baditugu, ikusiko dugu kontsumo mota ororekin lotutako arazoaren pertzepzioa handiagoa dela Estatu espainolean Euskadin baino. Egia esan, ia ez dago kontsumo-patroi bakar bat ere –tabakoaren eguneroko kontsumoa izan ezik, eta oso gutxigatik– larrizat edo oso larrizat hartzen duten pertsonen ehuneko handiagoa duena EAEn. Zer kasutan ikusten dira alde handienak? Zalantzarik gabe, kanabisaren aldizkako erabilerari dagokionez, eta neurri txikiagoan, kanabisaren barne-erabilerari dagokionez. Beraz, ildo horretatik esan daiteke Euskadiko gizarte Espainiako gizarte osoa baino toleranteagoa dela kanabisaren kontsumoari dagokionez. Pentsa daiteke EAEko herritarrek Espainiako herritarrek baino gehiago zehazten dituztela kontsumoekin lotutako arazoak arazo horien intentsitatearen arabera, kanabisari eta psikofarmakoei dagokienez behintzat.

65. taula. Droga batzuen kontsumoak arazo asko edo dezente ekartzen dituela uste duten pertsonen proportzioa, EAEen eta Estatu espainolean (%)


	EAE (2010)	Estatu espainola (2009)	b/a ratioa
Egunero tabako pakete bat erretzea	89,7	89,4	1,0
5 edo 6 kaña/kopa hartzea egunean	89,5	91,4	1,0
Heroina astean behin edo gehiagotan	94,5	99,4	1,1
Estasia astean behin edo gehiagotan	93,3	98,3	1,1
Kokaina astean behin edo gehiagotan	93,4	99	1,1
Heroina hilean behin edo gutxiagotan	88,4	97,5	1,1
Haluzinogenoak (azidoak, tripiak, LSDa) hilean behin edo gutxiagotan	85,4	96,1	1,1
Kokaina hilean behin edo gutxiagotan	83,3	94,6	1,1
Lo egiteko lasaigarriak/pilulak astean behin edo gehiagotan	69	79,7	1,2
Estasia hilean behin edo gutxiagotan	78,4	94,4	1,2
Kanabisa astean behin edo gehiagotan	61,8	81,6	1,3
5 edo 6 kaña/kopa hartzea asteburuan	34	45	1,3
Lo egiteko lasaigarriak/pilulak hilean behin edo gutxiagotan	40,4	60,1	1,5
Kanabisa hilean behin edo gutxiagotan	33	62,7	1,9

Iturria: EDADES 09/10 eta E&D2010

1.3. Hainbat droga-kontsumoren bilakaeraren pertzepzioa


Zenbait drogaren kontsumoak ekar ditzakeen larritasunari eta arazoei buruzko pertzepzioaz gain, garrantzizkoa da kontsumo horrek lurraldean duen bilakaerari buruz EAEko herritarrek zer iritzi duten jakitea, hau da, herritarren ustez hainbat substantziaren kontsumoa igo ote den, jaitsi ote den edo azken urte hauetan berdin eutsi ote zaion. Deigarria da ikustea, tabakoaren kasuan izan ezik, kontsumoak igo direla uste dutenen ehunekoa kontsumo horiek jaitsi direla uste dutenena baino handiagoa dela edo, heroinaren kasuan izan ezik, aldatu ez dela uste dutenen ehunekoa handiagoa izatea. Ildo horretatik, pentsa daiteke gizartearen pertzepzioa ia ez datorrela bat inkestan agerian jartzen diren datu objektiboekin: tabakoaren kontsumoa ez da aldatu, biztanleria gehienak kontrakoa uste badu ere, eta legez kanpoko drogen kontsumoa ez da igo, inkestatu gehienek kontrakoa uste badute ere.

273. grafikoa. Hainbat drogaren kontsumoaren bilakaerari buruzko pertzepzioa EAEn (%)



Gai horri dagokionez, inkestatuen sexuaren arabera alde handirik ez badago ere, kontsumo guztiak igo egin direla uste duten emakumeen kopurua gizonen kopurua baino handiagoa da, bereziki alkoholaren kasuan, emakumeen erdiek baino gehiagok (% 51,6) uste baitute alkoholaren kontsumoa igo egin dela azken urte hauetan, gizonen % 43,2k du, ordea, iritzia hori. Adinaren ikuspegitik, gazteek uste dute, orokorrean, kontsumoa igo egin dela.


274. grafikoa. Hainbat drogaren kontsumoa igo dela uste duten pertsonen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)



1.4. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean


Legez kanpoko drogen kontsumo-egoeraren ikusgarritasuna ingurune hurbilean oso txikia da EAEn, 2010ean. Inkestako biztanleriari legez kanpoko drogen erabilerarekin edo salmentarekin lotuta proposatu zitzaizkion kontsumo-egoera hipotetikoetatik, gehienek esan zuten ez zutela inoiz horrelako egoerarik ikusi. Inkestaren emaitzen arabera, hamar pertsonatik bederatzik ez du bere auzoan edo herrian inoiz inor ikusi drogak injektatzen edo aluminio-paperean arnasten. Soilik % 1,2k esan du oso maiz ikusten dituela horrelako egoerak bere bizilekuan. Ikusgarritasun handieneko egoera sudurretik drogak esnifitzen dituzten pertsonak ikusteari buruzkoa da, nahiz eta soilik % 1,9k adierazi duen oso maiz ikusi izan dituela horrelako egoerak eta % 4,6k esan duen maiztasunez ikusten dituela.

275. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean (%)




Dena dela, adina alderdi erabakigarria izan daiteke jarrera mota horren ikusgarritasunari dagokionez. Hori egia da soilik kasu batzuetan: jendea drogak esnifitzen, jendea drogak eskaintzen saltzeko eta lurrean erorita dagoen jende drogatua ikusteari dagokionez, 20-24 urteko gazteek gainerako taldeetako pertsonak baino gehiago adierazi dute horrelako egoerak ikusi dituztela, eta adin horretatik aurrera modu erregularrean jaisten da egoera horien ikusgarritasuna. Dena den, adin-talde horretako pertsonen zifra ez da % 15etik gorakoa droga esnifitzen duten pertsonak maiz edo oso maiz ikusi dituztela adierazten dutenen kopurua. Aitzitik, lurrean xiringak botata ikusteari, droga injektatzen ari den jendea edo droga aluminio-paperean arnasten ari den jendea ikusteari dagokionez, adinaren araberrako aldeak askoz ere txikiagoak dira; izan ere, 35-44 urtekoek adierazi dute maiztasun handiagoz jarduera horiek ikusten dituztela.

276. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, adin-taldeetan banatuta (%)




Emakumeek esan dutenez, gizonak baino maiztasun handiagoz aurkitzen dira mota horretako egoerekin. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoerak nolabaiteko maiztasunez ikusten dituzten pertsonen proportzioa, arestian esan dugunez, jaitsi egiten da gizonen nahiz emakumeen kasuan, baina alde handia dago xiringak lurrean botata eta jende drogatuta kalean botata ikusten duten emakumeen eta gizonen artean. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da galdesortan egoera mota hori zenbat aldiz ikusi duten galdetzen zaiela (oso maiz, maiz, maitasun gutxirekin edo inoiz ez) eta ez zehazki zenbat aldiz ikusi duten; horregatik, emaitzek inkestaturen pertzepzio subjektiboari erantzuten diete.

277. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, sexuaren arabera (%)




Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, kontsumoaren tipologia lotuta dago legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeren ikusgarritasunarekin, modu oso nabarmenean, esate baterako kasu honetan: tabernetan, autoetan, kutxazainetan edo kaleetan droga sudurretik esnifitzen ari den jendearekin aurkitzea. Legez kanpoko drogen kontsumitzaileak dira egoera mota horrekin aurkitzen direnak normalean (hori logikoa da, bestalde). Zehazki, kontsumitzaileak ez diren soilik % 3,3k adierazi du beste pertsona batzuk esnifitzen ikusi dituztela maiz edo oso maiz; aitzitik, legez kanpoko drogen kontsumitzaileen kasuan, hamarretik ia lauk ikusi du egoera hori maiz samar edo oso maiz.

278. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeretan maiz edo oso maiz aurkitzen diren pertsonen proportzioa, kontsumitzaile tipologiaren arabera (%)



Legez kanpoko substantzien kontsumoetan eta substantzia horiek kontsumitzeko bide motetan izan diren aldaketak direla medio, interesgarria da jakitea iritzi publikoaren arabera drogen erabilerarekin lotutako egoerak ere aldatu ote diren azken urte hauetan. Horregatik, inkestan galdetu zaie elkarrizketatuei duela hamar urte zirkunstantzia horiek orain baino gehiago edo gutxiago aurkitzen ote dituzten. Erantzunen arabera, ondoriozta daiteke biztanle gehienentzat, egoera horien ikusgarritasunak behera egin ordez berdin jarraitzen duela. Egia esan, hamar pertsonatatik zazpi adierazi dute hamar urte hauetan egoera ez dela aldatu inkestan azaldu zitzaizkien jarrera bakar bati dagokionez ere. Benetan deigarria da, nolana ere, inkestatuen % 16,9k esatea pertsona gehiago ikusten duela drogak injeztatzen duela hamar urte baino; aitzitik, arestian esan dugunez, inkestatuen % 91,6k adierazi du bere auzoan edo herrian ez duela inoiz inor injeztatzen ikusi.

279. grafikoa. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasuna ingurune hurbilean, duela hamar urte egungo egoerarekin alderatuta (%)



1.5. Drogen kontsumoari eta horrek eragindako arriskuei buruzko gizarte-pertzepzioaren bilakaera


1.5.1. Hainbat substantziari egotzitako larritasunaren bilakaera

Adituek askotan adierazi dute garrantzitsua dela agerian jartzea erabiltzaileek arriskuari buruz duten pertzepzioa eta horien itxaropenak hainbat drogaren kontsumo-prebalentzietan dagoen igoerari dagokionez³³. Denborarekin aldatu al da hainbat substantziaren kontsumoari egotzitako larritasunaren bilakaera?

- Alkoholaren kasuan, alkohola larri samarra edo oso larria zela uste zutenen zifra % 93,4 zen 1994an. 2004. urtera bitarte jaitsiera nabarmena izan ondoren, arrisku-pertzepzio hori igotzen hasi zen pixkanaka, baina 2010ean jaitsi egin da berriro (2008ko % 64,8tik 2010eko % 56,5era), hortaz, esan daiteke gutxienez 2002. urtetik aurrera egonkortasuna nagusitu dela. Nolanahi ere, adierazi behar da alkoholaren kontsumoa larri samarra edo oso larria dela uste duten Euskadiko pertsonen kopurua jaitsi egin dela inkesta honetan hartzen den aldi osoan, lehen hamarretik bederatzik baitzuten iritzi hori, eta orain, ordea, hamarretik bostek du iritzi hori.
- Tabakoari dagokionez, esan daiteke kasu honetan ere egonkortasuna dagoela 2004. urtean arriskuaren pertzepzioari dagokionez izan zen igoeraren ondoren. Orduz geroztik, tabakoaren kontsumoa oso larria dela uste dutenen kopurua % 66 inguru dago.
- Horri dagokionez, kanabisari buruz eskuragarri ditugun lehenengo datuak 2004koak dira, eta, beraz, adierazle horren bilakaera ezin da bestelako drogen kasuan bezain modu zehatzean aztertu. Hala eta guztiz ere, esan daiteke sei urte horietan kanabisaren larritasunaren pertzepzioari egonkor samar eutsi zaiola; balio horiek, bestalde, tabakoaren balioen antzekoak izanik, 2008an zertxobait igo ziren eta 2010ean berriz ere jaitsi. Etorkizunean egingo diren txostenen zain egon beharko dugu gai horren goranzko edo beheranzko joera aztertu ahal izateko.
- Egonkortasunari buruz hitz egin daiteke, epe motz horretan, legez kanpoko drogei dagokienez ere. Nolanahi ere, 1994-2002 aldian adierazle hori nabarmen jaitsi zen, % 96tik % 73ra, 2004. urtetik aurrera legez kanpoko drogen kontsumo-maila larri samarra edo oso larria dela uste duten herritarren ehunekoa % 75 inguru da EAEn, gorabehera txiki batzuekin.

³³ Elzo, J. (et al.), *Valores sociales y drogas 2010*, Fundación de Ayuda contra la Drogadicción (FAD), Madrid, 2010.

280. grafikoa. Biztanleriaren banaketaren bilakaera, hainbat substantziaren kontsumoari egotzitako larritasunaren arabera (%)




1.5.2. Aldaketak hainbat kontsumoren bilakaeraren pertzepzioan

Arestian esan dugunez, 2010ean biztanleriaren % 47,4k uste du alkohol-kontsumoa igo egin dela azken urte hauetan. 2000. urteaz geroztik jaso den daturik txikiena da eta esan behar da Euskadin gero eta gehiago edaten dela uste duen biztanleriaren ehunekoa murrizteko joera dagoela, gero eta handiagoa, gainera. Bestalde, datu hori bat dator alkohol-kontsumoari egotzitako larritasunaren murrizketarekin; horregatik, esan daiteke herritarrek substantzia horrekin duten kezka gero eta txikiagoa dela: badirudi biztanleriak pentsatzen duela substantzia horren kontsumoa ez dela igo, eta horren larritasuna gero eta txikiagoa dela. Antzeko zerbait gertatzen da tabakoarekin: tabakoaren kontsumoa igotzen ari dela uste dutenen ehunekoa gero eta txikiagoa da urtero, eta igo egin da, oso gutxi bada ere, kontsumoa murrizten ari dela uste dutenen ehunekoa.

Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, ikusten da jaitsiera dagoela kontsumoa igo dela uste duen biztanleriaren ehunekoan, baina ez da kontsumoa jaitsi dela edo berdin eusten zaiola uste dutenen mesedegarri izan, baizik eta jaitsiera hori gertatu da ez dakitenen edo gai horri ez erantzutea hautatu dutenen kopurua igo delako batez ere. Dena den, orokorrean esan daiteke kasu guztietan jaitsi dela kontsumoak igo direla uste dutenen ehunekoa, baina ez da neurri berean igo kontsumoak murriztu direla ikusten dutenen ehunekoa.

281. grafikoa. Azken urte hauetan hainbat drogen kontsumoa igo izanari buruz biztanleriak duen pertzepzioaren bilakaera (%)



1.5.3. Hainbat kontsumo-patroiren balioespenean izandako bilakaera

Arestian adierazi dugunez, aztertutako hainbat drogaren kontsumoa larritzat hartzen duen biztanleriaren ehunekoa igo ez bada ere, hainbat kontsumo-jarraibidek dakartzaten arazoei buruz biztanleriak duen pertzepzioa igo egin da azken urte hauetan. Izan ere, kontsumoan arazo asko edo dezente daudela ikusten duten pertsonen proportzioa handiagoa da, bai biztanleria orokorrean, bai gazteen artean. Hori gertatzen da, esate baterako tabakoaren, lasaigarrien, lo egiteko pilulen edo alkoholaren kasuan. Azken substantzia horri dagokionez, nahiz eta arazoen pertzepzioan igoera izan dela esan daitekeen, nabarmendu behar da asteburuan edari alkoholadun kopuru handi samarra kontsumitzeagatik kezka oso txikia dela biztanleria orokorraren kasuan, baina batez ere 15-34 urtekoen artean.

Legez kanpoko drogei dagokienez, ordea, estasia da arazoen pertzepzioa igotzen den substantzia bakarra, bai ohiko kontsumoan, bai noizbehinkako kontsumoan. Kokainari, haluzinogenoei eta heroinari dagokionez, droga horiek kontsumitzeak dakartzan arazoen pertzepzioa jaitsi egiten da hiru kasuetan ohiko kontsumoei dagokienez (astean behin edo gehiagotan), bereziki gazteen artean; horregatik, gai hori kontuan hartu beharko da etorkizuneko txostenetan. Azkenik, kanabisaren kasuan kontrakoa gertatzen da. Kanabisaren

□

5

kontsumoak –asterokoak nahiz aldizkakoak– ekar ditzakeen arazoan pertzepzioa igo egin da guztizko biztanlerian 2008koarekin alderatzen badugu, baina esan behar da 2002an baino txikiagoa dela. Gazteen artean, hamarretik seik uste du kanabisa astean behin edo gehiagotan kontsumitzen bada arazo asko edo dezente ekar ditzakeela; aitzitik, 2008an % 46,6k zuen iritzi hori.

66. taula. Hainbat kontsumo-patroik arazo asko edo dezente ekartzen dituztela uste duen biztanleriaren bilakaera (%)

	15-34 urte				Biztanleria, guztira			
	2002	2006	2008	2010	2002	2006	2008	2010
Tabakoa: egunean pakete bat	85,8	87,8	85,7	91,6	86	87,8	86,7	91,8
Alkohola: 5 edo 6 kaña/kopa asteburuan	--	22,9	26,6	33,8	--	32,9	32,3	38,5
Alkohola: 5 edo 6 kaña/kopa egunean	--	85,5	81	89,6	--	86,5	83,9	88,9
Kanabisa: hilean behin edo gutxiagotan	35	21,8	21,4	33,8	48,7	33,5	34,4	41,7
Kanabisa: astean behin edo gehiagotan	70,3	47,7	46,6	61,1	78,4	56	59	66,8
Lasaigarriak/somniferoak: hilean behin edo gutxiagotan	--	32,1	34,7	40,4	--	32,2	35,7	38,3
Lasaigarriak/somniferoak: astean behin edo gehiagotan	--	63,4	65	67,8	--	59	63	63,1
Estasia: hilean behin edo gutxiagotan	--	75,8	73,3	79,6	--	78,1	76,5	80,4
Estasia: astean behin edo gehiagotan	--	91,2	92,5	92,5	--	88,2	91,5	90,2
Kokaina: hilean behin edo gutxiagotan	82,4	81,6	78	84,4	84,6	82,8	81,5	84,8
Kokaina: astean behin edo gehiagotan	--	93,3	94,7	92,6	--	90,7	93,1	91,5
Heroina: hilean behin edo gutxiagotan	--	87	86,4	89,3	--	86,4	87,2	88,3
Heroina: astean behin edo gehiagotan	91,3	94,5	96,2	93,7	88,8	91,8	94,7	92,1
Haluzinogenoak: hilean behin edo gutxiagotan	--	85	84	86,7	--	85,6	85,7	86,7
Haluzinogenoak: astean behin edo gehiagotan	--	93,6	96,3	92,8	--	91,1	94,5	91,2

1.5.4. Droga-kontsumoen ikusgarritasunaren bilakaera

Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoeren ikusgarritasunari buruz EAEan dauden lehen datuak Euskadi eta Drogak 2008 txostenekoak direnez, bilakaeraren azterketa kasu honetan ez da beste kasu batzuetan bezain zorrotza. Gorago esan dugunez, oso pertsona gutxi esan dute legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako egoerak aurkitzen dituztela beren ingurunean, eta 2008. urtearekin alderatzen badugu, ia ez dago alderik inkestatuei azaldu zitzaizkien egoera gehienetan. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, kasu guztietan gora egin du egoera mota hori inoiz ikusi ez dutenen proportzioak, eta igoera bereziki deigarria da jendea drogak sudurretik esnifitzen ikusteari dagokionez, proposatutako sei egoeren artean egoera hori baita maiztasun handiagoz ikusten dena.

67. taula. Legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoera batzuen ikusgarritasunaren bilakaera ingurune hurbilean (%)

		Oso maiz	Maiz	Maiztasun txikiarekin	Inoiz ez	ED/EE
Jendea drogak injektatzen	2008	0,3	2	7,8	89,6	0,3
	2010	0,3	1,2	6,2	91,6	0,7
Jendea drogak arnasten aluminio-paperean	2008	0,4	2,1	8,5	88,4	0,6
	2010	0,4	1,2	6,9	90,2	1,3
Xiringak lurrean botata	2008	0,7	1,8	11,6	85,7	0,2
	2010	0,7	1,7	9,9	87,4	0,4

Drogak eskaintzen dizkioten saltzaileak	2008	1,1	4,7	10,2	83,5	0,5
	2010	1,1	3,5	9,7	84,7	0,9
Jendea drogatuta lurrean erorita	2008	0,7	3,7	17	78	0,5
	2010	1,1	3,5	13,1	81,3	1,1
Jendea drogak sudurretik esnifutzen	2008	2,8	7,2	13,2	75,4	1,4
	2010	1,9	4,6	8,8	83,7	1


2. SUBSTANTZIEN ESKURAGARRITASUNA, KONTSUMOA ETA KONTSUMITZAILEAK EZAGUTZEA

2.1. Drogen eskuragarritasunaren pertzepzioa

Drogen kontsumoari buruz EAEn egin den eta txosten honen euskarri gisa erabili den inkestan inkestatu bakoitzak gehieneko 24 orduko epean hainbat substantzia lortzeko eduki lezakeen zailtasun-mailari buruzko galdera erantsi da. Galdera hori hainbat substantziaren eskuragarritasun-maila ebaluatzeko da, arriskua eta lege-estatusa balioesteari dagokionez dauden aldeak direla medio maila horrek oso desberdina izan beharko bailuke derrigorrez.


Aukeren artean sartzen den legezko droga bakarra alkohola da. Droga horren eskuragarritasuna ia erabatekoa da EAEn biztanleriarentzat: inkestatuen % 98,7aren arabera, erraz samar edo oso erraz lor lezakete droga hori 24 orduko epean. Aurreko urteetan bezala, gainerako substantzien salmentaren legezotasunik ezak ez du eragozten substantzia horietako batzuen eskuragarritasun-maila handia izatea: kanabisaren kasuan, biztanleriaren % 62,5ek uste du erraz samar edo oso erraz lor lezakeela. Legez kanpoko gainerako drogen eskuragarritasunari dagokionez, % 39,1aren ustez oso erraza edo erraz samarra da kokaina lortzea, eta % 29,2k iritzi bera du heroinari buruz.

282. grafikoa. Droga mota batzuen eskuragarritasunaren pertzepzioa (%)



Alkoholak gainerako substantziek baino eskuragarritasun handiagoa du biztanleria sexuaren arabera banatzen bada –gizonen % 99,1ek eta emakumeen % 98,2k–, eta kanabisa bigarren droga eskuragarriena da gizonentzat (% 66,3) nahiz emakumeentzat (% 58,7). Hala eta guztiz ere, drogak egun bateko gehieneko epean lortzeko ahalmenaren pertzepzioa zertxobait handiagoa da gizonen artean azaldutako kasu guztietan. Galdesortan ez da lo egiteko lasaigarrien eta pilulen eskuragarritasunari buruz galdetzen; legezko droga horiek errezeta behar dute eta batez ere emakumeek kontsumitzen dituzte eta emakumeek eskuragarritasun handiagoa izan lezakete.


283. grafikoa. Droga mota batzuk eskuratzea nahiko erraza edo oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera (%)



Biztanleria adinaren arabera bereizten bada, nahiz eta orokorrean egoera berdina den biztanleria osoarentzat, eta alkoholaren eskuragarritasuna ia erabatekoa den, ikus daiteke alde esanguratsuak daudela adin-tarteetan. Batez ere 25-35 urteko gazteen ustez erraz samarra edo oso erraza da substantzia guztiak eskuratzea, eta 55 urtetik gorakoen ustez zailagoa da, alkoholaren kasuan izan ezik, azken kasu horri dagokionez 15-24 urteko gazteek arazo asko dituztela adierazi baitute. Logikoa denez, hori gertatzen da debekatuta dagoelako adingabeei alkohola saltzea; dena den, hori gorabehera, % 96,1ek adierazi du erraz samar edo oso erraz lor lezakeela.

Dena den, esan behar da alde handienak –datuak adinaren arabera aztertzen direnean– kanabisaren kasuan ikusten direla, 25-35 urtekoen % 79aren ustez eta biztanleria gazteagoaren % 77,8aren ustez erraza edo oso erraza baita lortzea, baina adin gehiagokoen soilik % 38,8k du iritzi hori.

284. grafikoa. Droga mota batzuk eskuratzeko nahiko erraza edo oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)




Alcohol= Alkohola Cannabis= Kanabisa Cocaína= Kokaina Speed= Speeda
 Éxtasis= Estasia Alucinógenos= Haluzinogenoak Heroína= Heroína

2.2. Drogak kontsumitzen dituzten eta/edo drogekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea

EAEko biztanleriaren ia erdiek (% 49,3) esan dute ez dutela legez kanpoko drogak kontsumitzen dituen inor ezagutzen. % 5,3k pertsona bat ezagutzen du, % 27,1ek bat baino gehiago eta % 17,5ek adierazi du substantzia horietakoren bat kontsumitzen duten pertsona dezente ezagutzen dituela.


Inkestatuek legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsonak ezagutzea alde batera utzita, inkestaren datuek agerian jartzen dute, halaber, biztanleriaren zer ehunekok ezagutzen dituen droga horiek kontsumitzeagatik arazoak dituzten pertsonak. Eta galdera hori aztertutakoan, ondorioztatzen da inkestatuek atzematen dituzten arazo ohikoenak alkoholarekin lotutakoak direnak direla: biztanleriaren % 52k ezagutzen du alkohol-kontsumotik etorritako arazoak dituen pertsona bat gutxienez; aitzitik, soilik % 13k ezagutzen du heroinaren erabileratik eratorritako arazoak dituen norbait; kokainaren kasuan, zifra % 26tik gorakoa da.

285. grafikoa. Droga mota batzuk kontsumitzen dituzten edo droga mota batzuekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea (%)



Orain arte aztertutako datuen arabera espero zitekeen bezala, biztanleria gazteenak ezagutzen ditu batez ere legez kanpoko drogen kontsumitzaileak. 20-24 urteko hamarretik zazpik ezagutzen dute legez kanpoko drogak kontsumitzen dituen norbait; aitzitik, 65 urtetik gorako biztanleriaren % 12,3k soilik esan du gauza bera. Adinean aurrera egin ahala, jaitsi egin da kontsumitzaile bat edo gehiago ezagutzen dituzten pertsonen proportzioa. Substantziaren batekin (esate baterako, alkohola, heroina edo kokaina) arazoak dituzten pertsonen dagokienez, egoera desberdina da: erdiko adin-taldeetan daudenek ezagutzen dituzte batez ere problematika horiek dituzten pertsonak, eta gazteenek nahiz zaharrenek –bereziki azken horiek– dituzte harreman gutxien arazo mota hori duten pertsonekin.

286. grafikoa. Droga mota batzuk kontsumitzen dituzten edo droga mota batzuekin loturiko arazoak dituzten pertsonak ezagutzea, adin-taldean arabera (%)



2.3. Herritarren hurbiltasuna legez kanpoko drogei dagokienez

Legez kanpoko drogen kontsumo-mailei eta droga mota horren kontsumitzaileak ezagutzeari dagokionez orain arte erabilitako datuei esker, serie honetako aurreko txostenetan egin den bezala, biztanleriaren ezaugarriak aipa ditzakegu legez kanpoko drogekiko hurbiltasunaren

□

arabera, eta horrek substantzia horiek EAEn duten normalizazio-mailari buruzko lehen zantzua eman dezake. Horretarako, eta 2006an aplikatutako metodologiari jarraiki, EAeko biztanleria lau talde handitan bereizi da biztanleria horrek legez kanpoko drogekin (kanabisa barne) duen harremana kontuan hartuta.

Esan daiteke EAeko biztanleriaren ia erdiek (% 46,1) ez dutela zerikusirik drogekin: ez dute inoiz legez kanpoko drogarik probatu eta droga horiek kontsumitzen dituen pertsona bat ezagutzen dute gehienez ere. % 18,4k hurbileko harremana du substantzia horiekin: ez du esperientzia pertsonalik (ez ditu inoiz kontsumitu), baina kontsumitzen dituen pertsona kopuru esanguratsu bat ezagutzen du. Tartean sartuta dauden pertsonak (2010ean EAeko biztanleriaren % 26,2 dira) gutxienez behin hartu dituzte legez kanpoko drogak, eta kontsumitzaileak diren pertsona batzuk edo dezentek ezagutzen dituzte.

68. taula. Biztanleriaren banaketa drogekin duten inplikazio-mailaren arabera (%)


		2010	2010
Ez dute zerikusirik	Ez du inor ezagutzen eta ez du kontsumitu	42,5	46,1
	Bat ezagutzen du eta ez du kontsumitu	3,6	
Hurbilekoak	Bat baino gehiago ezagutzen du eta ez du kontsumitu	13	18,4
	Dezente ezagutzen ditu eta ez du kontsumitu	5,4	
Tartean sartuta daudenak	Bat baino gehiago ezagutzen du eta kontsumitu du	14,2	26,2
	Dezente ezagutzen ditu eta noizbait kontsumitu du eta/edo azken urte honetan noizean behin	8,3	
	Dezente ezagutzen ditu eta azken urte honetan bost alditan baino gehiagotan kontsumitu du	3,7	
Beste batzuk	Bat ezagutzen du eta kontsumitu du	1,7	9,2
	Ez du inor ezagutzen eta kontsumitu du	6,8	
	Ed/Ee	0,7	

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, drogekiko inplikazioak eta kontsumitzaileak ezagutzeak harreman esanguratsua du sexuarekin, eta, batez ere, adinarekin.

- EAeko emakume guztien erdiek baino gehiagok ez dute zerikusirik drogen munduarekin; aitzitik, bost gizonetik lau baino gutxiago (% 39,5) dago egoera horretan. Izan ere, gizonen ia erdiek (% 48,7) drogekiko hurbileko harremana edo inplikazioa du, emakumeen kasuan baino zortzi puntu gorago (% 40,5).
- Adinari dagokionez, 20-24 urte dituztenen artean, esan daiteke % 51,8 *tartean sartuta* dagoela, hau da, legez kanpoko drogak kontsumitu dituzte edo kontsumitzen dituzte eta, gainera, kontsumitzaile bat edo batzuk ezagutzen dituzte. Adin-tarte horretan, zerikusirik ez dutenen ehunekoak soilik % 22 da; horregatik, esan dezakegu adin-tarte horretan legez kanpoko drogen fenomenoarekin batera bizitza orokor samarra dela. Adin-tarte horretatik aurrera, tartean sartutako pertsonen proportzioek pixkanaka-

pixkanaka behera egiten dute 55 urtekoetaraino, eta adin horretatik aurrera esan dezakegu tartean sartutako pertsonen adibide bakanak besterik ez daudela, definizio horren arabera. Bestalde, bitxia da hurbilekoen ehunekoa antzekoa izatea adin-tarte guztietan, gazteenen artean izan ezik, kasuen % 30etan esan dezakegu *hurbilekoak* direla, baina ez daude inplikaturik legez kanpoko drogen munduan.

287. grafikoa. Biztanleriaren banaketa drogekin duten inplikazio-mailaren arabera, sexua eta adin-taldeak kontuan hartuta (%)



2.4. Drogekin hurbiltasuna, ezagutza eta eskuragarritasuna, perspektiban

2.4.1. Substantzien eskuragarritasunaren bilakaera


Kapitulu honetako aurreko puntuetan ikusi dugunez, alkoholaren eskuragarritasuna ia unibertsala da EAEn. Zehazki, guztizko biztanleriaren % 98,7k erraz samar edo oso erraz eskura ditzake edari alkoholduak, baita 15-24 urteko biztanleriaren % 96,1ek ere. Biztanleria orokorrak substantziari buruz duen baliagarritasuna 2008koaren parekoa da, eta ez da modu esanguratsuan aldatu 2006az geroztik (% 99,3). Gazteenen artean, ordea, ikusten da pixkanaka behera egin duela, jaitsiera hori oso txikia izan den arren (2006an % 98,1, 2008an % 96,9 eta 2010ean % 96,1); nolahi ere, jaitsiera hori zorrotz aztertu beharko da ondorengo txostenetan egiaztatzeko gazteenen artean alkohola lortzeko aukera murrizteko joera dagoela, 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea debekatzen duten legeei jarraiki.

Nola aldatu da herritarrek gainerako substantzien baliagarritasunari buruz duten pertzepzioa?

- Biztanleria osoari dagokionez, badirudi eten egin dela azken urte hauetan igotzeko zegoen joera. Epe motz honetan, baliagarritasunaren pertzepzioa murriztu egin da kasu guztietan, jaitsierak handiagoak izanik aurreko urteetan atzemandako erabilgarritasuna zenbat eta handiagoa izan.
- Gazteen kasuan, ordea, egoera desberdinagoa da: kanabisaren eskuragarritasuna zertxobait jaisten da, % 56tik % 51ra, baina igo egin da legez kanpoko gainerako droga


gehienaren eskuragarritasuna –nahiz eta igoera hori kanabisaren igoera baino oraindik ere txikiagoa den–.

288. grafikoa. Hainbat droga eskuratzea oso erraza dela uste duten pertsonen ehunekoaren bilakaera



Kontrako kasu gisa aipatu behar da legez kanpoko drogak lortzea ia ezinezkoa dela aipatzen duen biztanleriaren ehunekoari dagokionez joera aldaketa dagoela: 2008-2010 aldian, ehuneko hori igo egin da substantzia guztien kasuan, bai biztanleria osoari dagokionez, baita gazteei dagokionez ere, azken kasu horretan, gainera, igoera handiagoa da.

289. grafikoa. Hainbat droga eskuratzea ia ezinezkoa dela uste duten pertsonen ehunekoaren bilakaera (2002-2010)




2.4.2. Kontsumitzaileak eta/edo kontsumotik eratorritako arazoak dituzten pertsonak ezagutzaren bilakaera

Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituen pertsona bat gutxienez ezagutzen duten pertsonen kopurua, biztanleria orokorrean, % 50 da 2010ean, ehunekorik txikiena 2004. urteaz geroztik.




Beraz, ikusten da gora egin duela legez kanpoko drogak kontsumitzen dituen inor ezagutzen ez duten pertsonen kopuruak txosteneko guztizko biztanleriari dagokionez. Gazteenen kasuan, joera bera bada ere, hamarretik zazpi ezagutzen dute legez kanpoko drogen kontsumitzailearen bat 2010ean. Horietatik, % 34,2k pertsona dezentente ezagutzen dituzte eta % 31,7k bat baino gehiago ezagutzen du; 2004ko egoera, ordea, desberdina zen, 15-24 urteko gazteen % 63,3k legez kanpoko drogak hartzen zituen pertsona dezentente ezagutzen baitzituen, eta bat baino gehiago ezagutzen zutenen proportzioa ez zen % 30era iristen. Hortaz, esan daiteke legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsonak ezagutzen dituztenen proportzioa ezagutzen ez dituztenena baino handiagoa dela oraindik, baina azken horien kopurua igo egin da eta, aldiz, pertsona dezentente ezagutzen dituztenena murriztu egin da.

290. grafikoa. Biztanleria gaztearen eta guztizkoaren banaketaren bilakaera, legez kanpoko drogen kontsumitzaileak ezagutzearen arabera (%)



Arestian esan dugunez, erdiko adin-taldeetan dauden pertsonak ezagutzen dituzte batez ere hainbat drogarekin arazoak dituzten pertsonak, eta gazteak nahiz zaharrak dira pertsona mota horrekin harreman txikiena dutenak. Emaitza horiek 2008an lortutakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu jaitsiera orokorra dagoela problematika mota hori duten pertsonak ezagutzeari dagokionez, nahiz eta jaitsi hori txikia den. Salbuespen bakar gisa, igo egin da heroinarekin arazoak dituzten pertsonak ezagutzen dituzten 15-24 urteko gazteen proportzioa.

291. grafikoa. Hainbat drogarekin arazoak dituzten pertsonak ezagutzen dituen biztanleria gaztearen eta guztizko biztanleriaren bilakaera (%)



2.4.3. Legez kanpoko drogekiko herritarrek duten hurbiltasunaren bilakaera

Hurrengo taulan. alde batetik, biztanleriaren banaketa azaltzen da, biztanleria horrek legez kanpoko drogen munduarekin duen hurbiltasunaren arabera, eta bestetik, azken hiru txostenetan izan duen bilakaera ere. Horretarako, legez kanpoko drogen erabiltzaileak ezagutzearen maila eta inkestatuen kontsumo-patroiak abiapuntu gisa hartuta egindako tipologia erabili da. Tartean sartutako pertsonak –hots, ohiko edo aldizkako kontsumitzaileak eta kontsumitzen duten beste pertsona batzuk ezagutzen dituztenek– 2008ko txostenean ikusten zen beheranzko joerari jarraitzen diote eta biztanleriaren % 12 soilik dira. Inkestatuen % 46,1ek ez du zerikusirik legez kanpoko drogen mundu horrekin, ehuneko hori 2006koa eta 2008koa baino zertxobait handiagoa da (% 43,3 eta % 45,3, hurrenez hurren).

Hurbileko pertsonak –legez kanpoko drogarik kontsumitu ez dutenak, baina droga horiek kontsumitzen dituztenak ezagutzen dituztenak– biztanleriaren % 18,3 dira, aurreko urteetako datuekin bat etorriz. Hortaz, esan dezakegu 2010ean jaitsiera dagoela legez kanpoko drogekin eta horren ingurunearekin lotura duten pertsonen dagokionez, eta igo egin dela mundu horrekin zerikusirik ez duen biztanleria; aitzitik, legez kanpoko drogekiko hurbiltasuna duten, baina kontsumitzen ez dituzten pertsonen kopuruak bere horretan eutsi dio.

69. taula. Legez kanpoko drogekin biztanleriak duten hurbiltasunaren bilakaera (%)

		2006	2008	2010
Ez dute zerikusirik	Ez du inor ezagutzen eta ez du kontsumitu	39	40,8	42,5
	Bat ezagutzen du eta ez du kontsumitu	4,3	4,5	3,6
Hurbilekoak	Bat baino gehiago ezagutzen du eta ez du kontsumitu	11,1	12,8	13
	Dezente ezagutzen ditu eta ez du kontsumitu	7,5	7,1	5,4
Tartean sartuta daudenak	Bat baino gehiago ezagutzen du eta kontsumitu du	13,9	11,5	14,2
	Dezente ezagutzen ditu eta noizbait kontsumitu du eta/edo azken urte honetan noizean behin	9,4	8,4	8,3
	Dezente ezagutzen ditu eta azken urte honetan bost alditan baino gehiagotan kontsumitu du	7,6	6	3,7
Beste batzuk	Bat ezagutzen du eta kontsumitu du	1,4	2,3	1,7
	Ez du inor ezagutzen eta kontsumitu du	4,7	5,8	6,8
	Ed/Ee	1,1	0,8	0,7


3. DROGAK LEGEZTATZEARI BURUZKO GIZARTE PERTZEPZIOA ETA NORMALIZAZIO NEURRIEN BALIOESPENA

3.1. Hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-maila

2010ean bildutako datuen arabera, EAEko hamar herritarretik ia bost kanabisa legeztatzearen alde daude, eta hamarretik bi ados daude legez kanpoko substantziak tabakoa eta alkohola gaur egun legeztatuta dauden baldintza beretan legeztatzeko. Aurreko urteetan bezala, datu horiek erakusten dute kanabisa modu berezian hartzen dela kontuan legez kanpoko gainerako drogekin alderatuta.

Orain arte esandakoa gorabehera, EAEn kanabisa legeztatzeko egon litekeen aukera zertxobait jaitسي da lehenengo aldiz, eta ez du legeztatze hori aurrera eramateko behar den gutxieneko gehiengoa (% 49); aitzitik, ekimen horren aurka egongo litzatekeen herritarren ehunekoak gora egin du (% 45,5). Legez kanpoko gainerako drogak despenalizatzeari buruzko adostasuna ere jaitسي da, eta horri aurka egiteko garaian dagoen adostasuna kanabisaren kasuan baino askoz ere handiagoa da; zehazki, biztanleriaren hiru laurdenek dute iritzi hori (% 75,9).


292. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera (%)



Orokorrean, gazteenak daude batez ere kanabisa legeztatzearen alde, eta ikusten da iritzi hori jaitسي egiten dela 55 urtetik goragoetara. Hala era guztiz ere, esan behar da nerabeak ez daudela 20 urtetik gorako gazteak bezain alde neurri horrekin: neurri horren alde dauden adin horretako kopuruaren proportzioa 15-19 urtekoena baino portzentajezko 16 puntu handiagoa da. Hala eta guztiz ere, eta nerabeak ez ezik arestian aipatu ditugun adin handiagoko pertsonak ere kenduta, kanabisa legeztatzearen aldeko iritziak gehiengodunak dira talde guztietan.


Adin-taldearen araberrako joera antzekoa da legez kanpoko droga guztiak legeztatzearen kasuan ere, nahiz eta kasu honetan iritzirik hedatuena legeztatzearen aurkakoa den, oso gehiengoduna adin-talde guztietan, salbuespenik gabe. Izan ere, ekimenari buruzko adostasun-maila handiena duen adin-taldearen (35-44 urte) eta ekimen horri buruzko desadostasun-maila handiena duen adin-taldearen (15-19 urte) arteko portzentajezko aldea bost puntutik beherakoa da.

293. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, adin-taldeak kontuan hartuta (%)



Era berean, lege guztiak legezkatzeari buruzko iritziei dagokienez dauden aldeak txikiak dira biztanleria sexuaren arabera bereizten bada, baina emakumeak dira ekimen honi buruzko adostasun-maila txikiena dutenak. Kanabisa legezkatzeari dagokionez, aldea zertxobait handiagoa da: gizonen erdiak baino gehiago (% 52,7) daude ados; aitzitik, emakumeen % 45,1ek uste du kanabisa legezkatu beharko litzatekeela.


294. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legezkatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, sexua kontuan hartuta (%)



Baina badirudi kanabisaren edo legez kanpoko bestelako drogen kontsumitzaile izatea edo ez izatea lotuta dagoela droga horiek legezkatzeari buruzko adostasun-mailarekin, kontsumoarekin lotutako larritasunaren eta arriskuen pertzepzioari dagokionez ikusitakoaren ildo berean. Hortaz, badirudi legez kanpoko drogak kontsumitzen dituztenak edo bizitzan noizbait kontsumitu izan dituztenak droga horiek legezkatzearen aldekoagoak direla inoiz probatu ez dituztenak baino.

Kanabisari dagokionez, aldizkako hamar kontsumitzailetatik zortzi eta ohiko kontsumitzaileen % 87,8 substantzia hori legezkatzearen alde daude; aitzitik, inoiz probatu ez dutenen ehunekoak ez da % 40ra iristen. Eragina askoz ere handiagoa da legez kanpoko droga guztiak, salbuespenik gabe, legezkatzearen kasuan: droga horiek inoiz probatu ez dituztenen artean droga horiek legezkatzearen alde dauden zifra % 17,3 besterik ez da, baina azkenaldian kontsumitu dituztenen % 45 droga horiek despenalizatzearen alde dago.

295. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hainbat droga legezkatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera, kontsumitzaile tipologia kontuan hartuta (%)




3.2. Droga-mendetasunen arloan gauzaturako neurriei buruzko adostasun-maila

Azken urte hauetan, abstinentziaren aldeko borroka bakarretik droga-kontsumoak eragiten dituen kalteak eta arriskuak prebenitzeko eredura igaro denez, eta hainbat substantziari beste erabilera batzuk (terapia osagarri gisa gaixotasunen tratamenduetan) eman zaizkienez, droga-mendetasunen arloan hainbat neurri abian jartzea edo neurri horiek hartzea proposatu da EAEren ingurunean. Horregatik, droga-kontsumoari buruzko galdesortako galderetako bat gai horri buruz herritarrek zer ikuspegi duten jakitea da.

Hurrengo grafikoan argi eta garbi ikusten denez, eta aurreko txostenen ildo berari jarraiki, proposaturako neurri guztien alde dago gehiengoa, eta bereziki herritar askok babeste dute kanabisa helburu terapeutikoekin erabiltzea bultzatzen duen neurria, hamar inkestaturen artetik bederatzi neurri horren alde baitute. Herritarren artean babes handia lortu duen bigarren neurria, alde handiarekin bada ere, drogak lortzeko delitu egin dutenak kartzelan sartzea ez den beste tratamendu alternatibo batzuk eskaintzeari buruzkoa da, biztanleriaren % 69,5 neurri horren alde baitago. Hamar pertsonatik sei baino gehiago ados daude kontsumo arduratsua egiteko informazioa ematearekin, baita kontsumo ikuskatuko aretoekin eta tabakoari eta alkoholari buruzko publizitatea erabat debekatzearekin ere. Datu horiek egiaztatzen digute gizartea kalteak murrizteko eredura hurbiltzen ari dela eta biztanleria gero eta kontzientziatuago dagoela legeztatutako drogen arriskuei buruz. Desohitzeko edo mantentzeko bestelako tratamenduekin emaitza onik lortu ez duten pertsonen kasuan heroina ematea biztanleriak erdiek baino gehiagok (% 57,4) babesten duten proposamena da, nahiz eta gai horri buruz eztabaida asko dagoen oraindik ere, eta autokontsumorako kanabisa landatzea da, aldiz, azaldutako neurri guztien artetik babes gutxien izan duena, nahiz eta inkestaturen % 54,7k esan zuen neurri hori ezartzearekin nahiko edo oso ados zegoela.

296. grafikoa. Biztanleriaren banaketa droga-mendetasunen arloko jardun batzuei buruzko adostasun-mailaren arabera (%)



Hurrengo taulan ikusiko dugu sexuaren arabera aldeak ez direla oso esanguratsuek azalduko ia ekimen guztietan, honako bi kasu hauetan izan ezik: tabakoaren eta alkoholaren publizitatea erabat debekatzearen kasuan –emakumeak eta gizonak alderatuta, emakume gehiago dagoelako neurri horren alde–, eta autokontsumoa ahalbidetuko duen kanabisa landatzeko baimena lortzearen kasuan –gizon gehiago baitago neurri horren alde–.

70. taula. Droga-mendetasunen arloan hainbat jardunekin nahiko edo erabat ados dagoen biztanleria (%)

	Gizona	Emakumea	Guztira
Alkoholaren eta tabakoaren publizitatea guztiz debekatzeara	58,5	65,8	62,1
Espetxea ez den beste tratamendu batzuk ahalbidetzea drogak lortzeko delitu egiten dutenentzat	66,8	72,2	69,5
Kanabisaren erabilera terapeutikoa ahalbidetzea	89,7	88,6	89,2
Medikuak heroina ematea beste tratamendu batzuetan porrot egin duten kontsumitzaileei	59,6	55,1	63,4
Gutxieneko higie-baldintzak dituzten kontsumo-lokalak irekitzea drogazaleentzat	64,1	62,7	54,7
Kanabisaren landaketa ahalbidetzea autokontsumorako	59	50,4	65,7
Kalterik egin gabe drogak nola kontsumitu behar diren inguruko informazioa ematea	66,3	65,2	57,4


Neurri horiei buruz adinaren arabera dauden iritziei dagokienez honako hau esan daiteke:

- Gainerakoekin alderatuta, emakumeak eta adinekoak dira alkoholari eta tabakoari buruzko publizitatea erabat kentzearekin ados daudenak batez ere. Nerabeak dira ekimen hori gutxien babesten dutenak.
- Espetxean sartzea ez den bestelako tratamenduak oso ondo onartu dira adin-talde guztietan, nahiz eta bereziki 45-64 urteko adin-tartea nabarmentzen den, hamar pertsonatatik zazpi baino gehiago nahiko edo erabat ados baitaude neurri horrekin. 65 urtetik gorakoak daude batez ere neurri horren aurka.
- 20-64 urteko biztanleriaren kasuan, hau da, helduen kasuan, EAeko hamar pertsonatatik bederatzi ados daude kanabisa helburu terapeutikoekin erabiltzearekin hainbat gaixotasunen (adibidez, minbizia, esklerosi anizkoitza edo beste batzuk) tratamenduan. Nerabeen aldetik,

neurri horrek babes zertxobait txikiagoa du (% 84,1), eta gutxien kontzientziatuta dagoen adin-taldea (hamar pertsonatetik zortzi baino gutxiago daude horren alde) adinekoen taldea da (65-74 urte).

- Gauza bera gertatzen da drogazaleen kolektiboan oinarritutako eta kalteak murrizteko jardunekin: adinekoek eta gazteenek ematen diete babes txikiena honako ekimen hauei: kontsumo ikuskatuko aretoak edo heroinarekin egindako ordezkotratamenduak. 15-19 urteko taldean, bi neurri horietako edozein babesten dutenen ehunekoa ez da % 50era iristen, eta, 65-74 urteko biztanleriak zertxobait gainditzen du. Era berean, nerabeak eta, batez ere adinekoak dira kanabisa autokontsumorako landatzea ahalbidetzen duen neurriarekiko adostasun-maila txikiena dutenak. 65-74 urtekoen % 29,5 soilik dago nahiko edo erabat ados neurri horrekin; aitzitik, 20-24 urteko hamar pertsonatetik zazpik baino gehiagok dute iritzi hori. Inkestan proposatu diren neurrien artetik, neurri horrek eragin ditu desadostasun gehien.
- Kontsumoak eragiten dituen kalteak prebenitzeko informazioa emateko ekimenak gehiago onartzen dituzte gazteek, eta indarra galtzen doaz pixkanaka inkestatuaren adinak gora egiten duen neurrian.

297. grafikoa. Droga-mendetasunen arloan hainbat jardunekin nahiko edo erabat ados dagoen biztanleria, adin-taldean arabera (%)




3.3. Droga-kontsumoa legeztatzeari buruzko gizarte-pertzepzioa, perspektiban: bilakaerari buruzko eta konparazioko datuak

3.3.1. Legeztatzeari ematen zaion babesaren bilakaera eta konparazioko datuak

2010ean, kanabisa eta legez kanpoko droga guztiak legeztatzeari buruzko adostasuna zertxobait jaitsi da aurreko txostenarekin alderatzen badugu: 2008an biztanleriaren % 51,1 kanabisa legeztatzearen nahiko edo oso alde zegoen, 2010ean, ordea, proportzioa zertxobait txikiagoa da: biztanleriaren % 49. Eta legez kanpoko droga guztiak despenalizatzeari dagokionez, 2008an EAEko biztanleriaren % 24,9 horren alde zegoen, 2010ean, aldiz, proportzioa ez da % 20tik gorakoa. Dena den, murrizketa hori oso txikia da, 2004-2006 aldian gertatu zenaren parekoa, baina aldi hartan jaitsierak ez zuen beste joera bat eragin.


298. grafikoa. Biztanleriaren banaketaren bilakaera hainbat droga legeztatzeari buruzko adostasun-mailaren arabera (2000-2010)



Estatu espainolari dagokionez, eta arestian esan dugunez, kanabisaren kontsumoak eragiten dituen arazoan pertzepzioa txikiagoa da EAEn; substantzia hori legeztatzeari buruzko adostasuna handiagoa izatearekin lotu daiteke egoera hori. EAEn biztanleriaren ia erdiak ados daude kanabisa legeztatzearekin, adingabeei saltzea debekatuz; Estatu espainolean, ordea, % 30 baino gutxiago dago ados proposamen horrekin.

Aldeak txikiagoak dira droga guztiak legeztatzeari dagokionez: EAEn hamar pertsonatetik soilik bi daude ados droga guztiak despenalizatzearekin, eta Estatu espainolean biztanleriaren % 15,6 dago ados horrekin.

299. grafikoa. Kanabisa eta beste droga batzuk legeztatzearekin nahiko edo oso ados dagoen biztanleria EAEn eta Estatu espainolean (%)



3.3.2. Beste neurri batzuei ematen zaien babesaren bilakaera eta konparazioko datuak

Aurreko txostenean gertatutakoaren aurka, droga-mendetasunen arloko neurriei buruz EAEko herritarrek emandako iritzien bilakaerari buruzko datuen arabera, babes kopuruak behera egin du orokorrean. Neurri guztiei ematen zaien babes 2008an ematen zitzaienarekin alderatzen badugu, ikus daiteke babes hori jaitsi egin dela edo bere horretan eutsi zaiola, tabakoaren eta alkoholaren publizitatearen kasuan izan ezik, kasu horretan zertxobait igo baita (% 61etik % 62,1era). Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, babes gehien galdu duen neurria drogazaleei espetxea ez den beste tratamendu batzuk eskaintzeko neurria da, 2008an % 81,7ko babes izaletatik 2010ean % 69,5 izatera igaro baita. Era berean, jaitsi egin da heroina erabiliz gauzatzen den mantentze-tratamenduarekin eta kontsumo segurua egiteko jarraibideei buruzko prestakuntzarekin nahiko edo oso ados zeuden pertsonen kopurua. Beraz, esan daiteke kalteak eta arriskuak murrizteko neurriekiko babes kopuruak behera egin duela orokorrean.

Baina datu horiek 2002ko datuekin alderatuta aztertzen baditugu, ikus dezakegu emaitzak positiboak direla: neurri guztiekiko babes kopuruak gora egin du, espetxean sartzearen ordezkotratamenduen kasuan izan ezik, horiekiko babes 13 puntu jaitsi baita azken zortzi urte hauetan.

300. grafikoa. Droga-mendetasunen arloko zenbait jardunekin nahiko edo oso ados dagoen biztanleriaren banaketaren bilakaera (2002-2010)

